



KARDABERAZ BILDUMA - 19

LEKUONATAR MANUEL JAUNAREN
OMENEZKO
IDAZKI - BILDUMA

I





LEKUONA'TAR MANUEL
JAUNAREN
OMIENEZKO
IDAZKI - BILDUMA

I

KARDABERAZ BILDUMA

Edita: Juan Joté Garmendia. - Técnica de Difusión - Talota

Imprime: Oráficat ESET - Seminaria Vitoria

Depósito Legal VI 359 - 1977

I. S. B. N. 84-400-2643-1

Vol. I 84-400-2844-X

T O R I Z U

Kardaberaz Bazkunak, berrogei ta amargarren urte-burua bete duenez gero, Urrezko Eztaien ospakizun eta oroigarritzat noski, bere sortzaille dan Lekuona'tar Manue/ jaunari Gorasarre edo Omenaldi bikain bat eskeiñi nai izan dio. Ori dala-ta, sarreratxo bat eskatu didate antolatzailliek, atariko edo ate-aurreko agurra bai'litza.

Lan zailla benetan, pozgarria bezain neketsu ta burutu-gaitza, ezarri didaten langitea. Ainbeste ta ainbeste idazlek beren buru-biotzezko errota langilleeri gogotsu ta pozarren eragiñez, eio-lan bikaiñen emaitz oparorik eskeifii diotela jakinda, zer esan nik? Zer erantsi aal izango diet nik?

"Gustoko tokian, aldapa-maldarik ez" aitortzen duan esaera zaarri darion pozbide itxaropengarriaren eragiñak bultzaturik, jo deza-gun, bada, Torizu apal bat egiteko, bizpairu itz jalkitzerara.

* * *

"Don Manuel" eta "Lekuona Zaarra", orra bi izen bikoitz: euskaldun askoren artean aoz-ao erabillitako itzak, eta idazlan txit ugariren oinetan idatzitakoak. Itz-bikote batak, apaiz eta maixu aitortzen du; beste itz-bikoteak, urtetsu ta agurgarri adierazten.

Zertan ote da txalogarriago, zertan eredugarriago?

Zin-zinez irakasle aurkitzen dugu Lekuona, beti zerbait irakasten ari dan oso-osoko maixu, aspergabe erakusten edo ikus-erazten ari zaiguna: Euskera, sinismen-giroa, ertia, euskal-oiturak, kondaira, siniskerrien muiña, zintzotasuna, zentzu ona, bertsolaritza, ume-kantak, Jainko-bidea, gure erriaren arnasa, 82 urte aundiren gaindegiko baretasun garbia...

Atergabe darion maixutzaren argiak ba-du alakoxe erakarpen edo bereganatzeko indar berezirik. Ume mukitzu besterik ez giñanetik nabaitu genduan beraganako erakarpen-indarra, gure aldean jaun benegarri zanarengana xalo ta lasai ingura gindezen aunitz aldiz argi billa.

Gauza bera nabaim izan dugu beste askorengan ere: ainbeste era ta adiñetakoak ezagutu izan dimgu galdezka ta mesede eske berarengana etengabean inguratzen!

* * #

Aipa dezagun gure "Don Manuel" jaunaren *Sena*. Beti irakasten diarduala esan dugunez, naiko garbi aitorturik dago, jakin ere asko da-kiala aipamriko ainbeste alorretan. Baiña ba-du, ordea, jakiteak bakarrik ematen ez duan zuurtasun eta doai berezi bat, liburuek ematen ez du-tena, ta aspaldieneko agiri zaarretan idatzirik aurkitzen ez dana. Esan nai nukeana adierazteko, ez dut itz oberik aurkitzen: *Sena*.

Eta ez da alde-bakarreko usmamen mugama, Lekuona'gan aurki-tzen dugun *Sena*, "anima salbo-ta" eiz-txakurrak bere alor jakiñean, eta artzaiñorak bere-berean bakarrik, azaltzen duten usmamenaren an-tzera. Osoagoa ta alde askotarakoa, baizik.

* * *

Nagusienik nabaitu izan diodana, *Euskal-Sena* da, bere dizdirak alde askotara ixurtzen dituan argi-imrriaren antzekoa: Euskera lantze-koan, izketan, idazlanetan, kondairaren ulerkeran, euskal-musika ta doi-ñuak usmatzean, bertsolaritzaren muin izkuma idorotzean, euskal-dan-tzen eta olerkien igikera-neurkera-ritmoa azaltzekoan, olerki-gintzan eta ume-kantak eiotzean, guztiotan ageri zaio, bada, euskal-sena.

Euskaldunon oitura zaarren zentzu on eta gizakoitasunezko ezti gozagarria ere euskal-senak xurgatu-erazi izan dio, gure garraztasunen artean-eta mesedegarriago zaiguna. Ortaz gaiñera, ba-duala esan bear alakoxe *Kondaira-Sena* ere, bitxi ta zolia: edesti-agiri ta zeaztasun ida-tziek ematen diguten aitorten otza baiño askoz beroago ta biziagoko zerbait atera-erazten diona gure euskal-kondaira izkum ta ez-ezagunari.

Eder-Sena ere ez du txantxetakoa, ez du axalekoa, ez du eraskin itxuragarria. Barruenetik sortzen zaion aalmena du, olerti ta elerti, mar-gozlan, marrazki ta irudigintza, etxagintza ederra bera ere bai, guzti oien edertasunak lilluraturik ulerm ta xurgatzeko. Berekin du Lekuona'k eleder eta olerkigintzara eragin dion *Olermena* ere.

* * *

Eta ez dezaket esateke laga, ez dezaket ixildu ta gorde, Lekuona apaizak berekin duan eta edonoiz darion *Goi-Sena*. Gure Aita Aundiarren jakinduri ta maitasunezko eragin izkutu ta bizigarria gugan nabaitu-erazten digun *Goi-Sena* erdoiturik eta kamusturik dadukagula askok? Lekuona'k ez bada! Bizirik eta garbi eutsi dio ta iraun-erazi. Antusterik batere gabe, baiña noiz-nai dario Goi-senaren dizdira ikust-eziña bezain bizigarria. Orrixe esker agertzen da alai, baretasunez, itxaropentsu, gazteagoentzat benetan inbiri-iturri, ziñezko inbiri-emaille.

Ori ez da, ordea, dana legun eta gozoro gertatu izan zaiolako bere bitzta luzean. Izan du zalantza-bide ta kezkarik, izan du atsekabe ta miñik, izan ditu erasoak eta iraiñak, izkutu-aldian bezain mingarri agiri-aldian. Erbeste-aldiaren garraztasunak, izkukurik izkutuenean gordeta iraun bearraren arrisku larriak ere jasan zituan irmo bezain tinko. Apaiz anaia erio gaiztoz eratsi ziotenean, erio-zemai ta meatxu ber-bera ibilli zan "Don Manuel"en billa ere. Egun illun eta beltzak, gogor eta latzak ba-ditu, bai, bere gain artuak.

Eta danen artean ere bizi-bizirik eutsi dio Goi-senari. Orrela, ez da arrigarri, 82 urte aundi oien itzalez baiño areago, bere giza-bidez eta zentzunez, bere baretasunez, benetan agurgarri gertatzen zaigula egiztatu aal izatea.

*

Orrela, bada, ez da geiegizkoa *Kardeberaz Bazmak* —gaur bizi-berriturik dugunak— bere sortzaille ta arnas-emailleari 50 urte borobillen buruan *Omenaldi* idatzi au eskeintzea. Ba-dio orrenbesteko zorra talde onek. Eta *Kardebarz Bazkunak* ongi-etorri egin die, beren idazlanak omen-oparizat eskeiñi dituzten idazleeri.

Omenaldi ohea zor zitzaion Lekuona jaunari, egin ere egin zitekean, ohea, baiña gaurkoz, egiñik dagona eskeintzen diogu gogotsu ta bitzez, guztion esker onaren aitorpentzat.

Urteak joan eta urteak etorri, ekaitz eta erauntsi gogorren artean ere zutik diraun aritz lerdan orri; mitoak mitoz trukatzek, modak beste modaz ordezkatzek, berrikeriazko aldaketen lillurak makurtu-erazi ez duten aritz zuzen orri, *Torizul*

Don Manuel Lecuona

Me piden, ;y con cuánto gusto cumplo este encargo!, unas líneas para el libro-homenaje a D. Manuel Lecuona.

En los años de mi juventud sacerdotal no tuve la suerte de tratar personalmente a D. Manuel, a pesar de que los dos somos naturales de pueblos casi limítrofes y unidos por no pocas afinidades. Pero desde hace años sigo atentamente sus pasos callados y sus trabajos.

D. Manuel se formó para el sacerdocio en el viejo Seminario de Aguirre de Vitoria. Allí, alejado del mundanal ruido, a una con el ejercicio sólido de la piedad, de la plegaria y de las acciones sacramentales, se formó y perfeccionó en Humanidades. Terminó su brillante carrera sacerdotal con un bagaje de aficiones y culturas que constantemente ha venido desarrollando.

En su Seminario ejerció el magisterio. ;A cuántos jóvenes seminaristas formó, y lo que más vale, ilusionó! Supo transmitir a sus alumnos el saber y el sabor por nuestras cosas. El ha trillado los caminos de nuestra Guipúzcoa, escudriñando los rincones de nuestras viejas iglesias y ermitas, poniendo al descubierto joyas desconocidas; él ha anotado en nuestro "baserris" sabios decires y descubierto viejas piedras, historia viva de pretéritas generaciones.

En el Archivo de Calahorra, como hábil y paciente paleógrafo, descifrando los legajos de la vieja Catedral, descubrió las raíces históricas de nuestra Diócesis, sus antiguos límites, hechos desconocidos de viejos obispos y el origen de muchos de nuestros usos y costumbres rituales. Pocos han amado tanto a nuestro País y casi ninguno lo conoce tan bien como Don Manuel.

Pero su "debilidad científica" fue el euskera, que él amó y cuyos secretos perfectamente conoce. En este punto ha sido un "precursor". D. Manuel ha sido en nuestra Diócesis el "hombre del Vaticano II". Previó lo que iba a ocurrir; miró siempre adelante. A él, con su competente equipo de colaboradores, le ha tocado la suerte y la gloria de

Don Manuel Lekuona Juana

Don Manuel Lekuona jaunaren omenez egiten ari diran libururako lerro batzuek eskatu dizkidate, eta bai pozik egin nik eskatu didatena!

Bata bestearen ondoan dauden errietan jaiok gera Don Manuel eta ni; gañera asmo ta gogo berdintsu asko ditugu biok. Ala ere, ez nuan izan, apaiz gazte nintzala, bera ezagutzeko zorionik. Bañan, urteak dira jabetu nintzala nundik nora zebillen ixil-ixilik eta zer lan eder egiten zituan.

Don Manuel Gasteitzko Agirre Seminarioan izan zan apaizgai. Munduko zaratak utzi-ta, pake-bizitzaz, otoitzez eta sakramentuz orniturik, an ikasi zituan, bide batez, ondo baño obeto ikasi ere, elerti ta giza-jakintzak. Gero beti, asper gabe, landu dituan jakintza ta beste gai berezietaz jabeturik bukatu zituan bere apaiz-ikaskizunak.

Bere Seminarioan irakasle izan zan. Zenbat apaiz gazteri erakutsi zien gizon izaten, eta oraindik ohea dana, zenbateri bete zizkien buru-biotzak amets ederrez! Ba-zekin bere ikasleetan gure gauzetarako jakin-naia ta aogozoa sortzen. Gure Gipuzkoako bideak bein-da-berriz ibilliak ditu, gure elizetako ta elizatxoetako txokoak aztertzeke, ezkutuan zeuden pitxi ederrak agertuaz; eta jaso ditu gure "baserrietan" esaera zar jakintsuak eta gure aurreko gizaldien kondaira bizi diran arri zarrak arkitu ere bai.

Kalaorrako artxibuan, idazki zarren irakurle azkar-aspergabea denez, ango Katedral zarreko papel-sortak aztertuaz, gure Elizbarrutiaren kondaira-sustraiak arkitu zituan, bere antziñako mugak, lenetako Gotzaien gertakizun ezkutua eta gure eliz-oituren eta jokaeren sustraiak. Gutxi izan dute Don Manuelek bezin maite gure Erria, ta ia iñork ez du ezagutu bera gure Don Manuelek bezin ongi.

Bañan "jakingarririk kutunena" euskera izan du beti Don Manuelek; maite-maite du ta gure izkuntzak ez du ezkuterik arentzat. Gai ontan "aurrelaria" izan degu Don Manuel; bera dala kontu gure Elizbarrutian "II Batikanoko gizona". Begi-luzea izan da ta aurrera begiratu du beti. Berak izan du, lan ontan lagundu dioten lagunekin, Litur-

realizar la traducción al euskera de nuestra Liturgia, dotando a los textos de una perfección, transparencia y musicalidad admirables. Este es el mérito, la gloria y el premio de la vida laboriosa de Don Manuel.

Pero por encima de estos valores literarios y científicos, meritísimos, el Obispo y el Pueblo hemos visto siempre y en todo en Don Manuel al Sacerdote. Su proyecto de vida sacerdotal ha sido más o menos el conocido de Juan XXIII: orar, formarse bien, estar al día, hacer mucho, invitar a la juventud sacerdotal a seguirle, a ayudarle, a continuar su obra.

Le ha tocado en ocasiones practicar el arte difícil de callar, de olvidar, de disimular, de ignorar, de eclipsarse. Jamás Don Manuel se ha constituido en su propio ídolo.

En estos tiempos de confusión ideológica, nunca se ha apartado de la brújula; ha vivido siempre apoyado en la Fe. Sus certezas teológicas son incommovibles. Ha sostenido siempre un digno talante sacerdotal. Su serenidad en momentos de grandes tribulaciones fue ejemplar. Estas calidades espirituales y humanas fueron unidas por el Orden Sagrado, conscientemente recibido y cuidadosamente guardado.

Me parece que Don Manuel personifica el símbolo del "apaiza guipuzcoano"; personaje hoy demasiado desconocido y aún desfigurado; pero a quien en buena parte se debe la conservación del alma y del habla de nuestro pueblo: la robustez cristiana de nuestras familias y la conservación de muchas virtudes autóctonas.

Termino. Don Manuel Lecuona todavía más que con su extraordinario caudal de cultura y con sus trabajos científicos, ha enriquecido a Guipúzcoa con la ejemplaridad de una vida sacerdotal sin tacha.

Su Obispo y la Diócesis entera le felicitan cordialmente y le dan las gracias. Bien se las merece este admirabíe y querido amigo.

JACINTO ARGAYA
Obispo de San Sebastián

jia euskeratzeko zoriona ta ospea, ta Liturji-atal bikañak egin ditu, erre-zak eta entzuteko atsegiñak. Au da Don Manuelen merezimendua, ospea ta lanaren saria.

Iñoiz, oso zalla dan gauza bat ere egin bear izan du: ixilik egon, aazm, ez-ikusia ta ez-jakiña egin eta bere burua ezkutatu. Beñere ez du Don Manuelek bere burua jainko txiki egin.

Irizpideak naas-maas dabiltzan denbora auetan, ez du beñere bide zuzenik utzi; sinismena izan du bere bizitzaren oñarri. Teoloji-egietako bere iritzi sakonak alda-eziñak dira. Beti eutsi dio apaiz-jokabide jatorrari. Atsekabe-aldi aundietan lasai bizi izan da, guztiei erakutsi ederra emanaz. Gogo-bizitzari ta giza-bizitzari dagozkion alderdi on oiek Apaiz-goaren igurtzi gozoa artu zuten Don Manuel apaiz egiteaz eta apaiz jator bezela bizitzeaz.

Nik uste det Don Manuel "gipuzkoar apaizaren" irudi egoki-egokia dala. Irudi ori ez da bear ainbat ezagutzen eta naikoa itxuragabema dago; bañan, gure Erriak apaizari zor dio geienbat eusko-gogoaren eta euskeraren iraupena; bere familiei kristau-sendotasuna ta bereiztasuna ematen dieten onbide askoren iraupena.

Bukatzera nijoa. Don Manuelek, bere jakinduriz eta bere jakintza-lanez baño aberastasun aundiagoa eman dio Gipuzkoari, bere apaiz-bizitza zintzo-zintzoaren erakusbide bikaiñ-ederrez.

Gotzaiak eta Elizbarruti osoak zorionak eta eskerrak ematen dizkiote Don Manueli. Ondo mereziak ditu gure adiskide miresgarri ta maite onek.

ARGAIA JAZINTO
Donosti'ko Gotzai

Lekuona., Euskaltzain

AKESOLO'TAR LINO

Lekuona euskaltzaiñaren bizia Euskaltzaindiaren biziarekin batera dabil; Euskaltzaindia sortu zanetik arako euskaltzain degu.

Iñor gutxi da gaur antzekorik, Euskaltzaindiaren sortzaille eta aren leenbiziko egunen lekuko danik. Gizon zoriontsu otatik iruk, beintzat, omenaldia izan dute eta euskal-makilla bat ere bai atsegin-sari. Auen zorionkide izan arren, euskaltzainburu ere izan dan arren, Lekuonak ez du izan, guk dakigula. olako omenaldirik eta ez du omenezko makillarik jaso. Bestelakorik jaso ez balu...!

LEKUONA, EUSKALTZAIN URGAZLE
SARI ETA ZIRI

Oiñatiko batzarraren ondoren eta aren ondorio bezela, bertatik asi zan Euskaltzaindia izango zan erakundea leenbiziko urratsak egiten. Urratsok jakiñak dira: Oiñatin izendatutako lau nagusiek (Azkue, Urkixo, Kanpion eta Eleizalde jaunek) beste zortziren laguntza artuko zuten laster; euskal-idazleen indarrak, Euskal-aldizkarien ordezkariak izendatuak ziran, Eusko-Ikaskuntzaren babesean.

Amabi euskaltzain osoen esku gelditu zan gero urrengo izendapenak edo autespenak egitea, amabien laguntzailleak billatzea. Zenbat? Euskaltzain osoentzat *numerus clausus* antzeko bat erabaki zala dirudi, amabitik gora ez ziran izango. Laguntzailleentzat, urgazleentzat ez degu zerbaki erabikirik ikusten. Euskalki guztietakoak izango ziran, ori bai; Gipuzkoatik, zortzi. Eta zortzi giputz auen artean, Manuel Lekuona gaztea izan zan izendatua, 1919-n, urriaren 26-n, euskaltzain nagusien irugarren batzarraldian. ain zuzen.

Azkue zaarrak, euskaltzainburu egin zutenean, ordurartean egiñak zeuzkan lanen saritzat artu zuen bere izendapena, eta aurrerantzean egitekoeen ziritzat. Urgazleen izendapen-agerietarako izkuntza berdintsua

asmatu zuten; artean egindako lanen sari izango zan izendapena eta andik aurrera egitekoen ziri eta kiñagarri.

Zer sariztatzen zioten Lekuona gazteari, euskaltzain urgazle egin zutenean? Ez zan, ez, lanik egin gabea euskal-alorrean. Argitaratua zeukan lan sakon samar bat, Gazteizko apaizgaitegiko ikastaroaren asierako itzaldia, euskal-bertsoen neurriak argi berritan aztertzen zituena. Ordu-rako sari bat baiño geiago izabazia ere bazan, gaiñera, euskal-idazleen sariketetan. Lekuona jaunaren esku-ikutua zekarren Gazteizko Eliz-barrutiko Kristau-Ikasbide berriak ere. Bera zan Gazteizko Apaizgaitegian euskal-irakasle eta onek ere nortasuna ematen zion. Bazan, bai, norbait eta ba zuen zer sariztatu Lekuona gazteak.

Gerorako ziririk? Ez zuen bear ziri berririk asia zeukan euskal-arloan aurrera jarraitzeko. Euskal-aldizkariak, Eliz-Barrutikoek, *Gure Mixiolariak*, ezagutuko dute ark egindako lanen fruturik, urtez urte.

Eta Euskaltzaindian? Garai artan, Euskaltzaindiaren jokabidea ez zan gero ikusi degunaren antzekoa. Bi eguneko lan-billerak izaten ziruzten illero; euskaltzain osoen billerak ziran, batez ere, eta nekez uts egingo zuten ortan. Urgazlerik oso gutxi joaten zan batzarretara. Baiña euskaltzain oso izan naiz urgazle izan, aurretiaz biali bear zuen bakoitzak batzarrean irakurri nai zuenaren kopia, beste batzarrekoen artean banatzeko. Onela jakiñaren gaiñean zeuden guztiak eta nai zuenak bere iritzia edo erantzuna eman zezakean. Are geiago, Lafitte jaunak iñoiz esan duenez, urgazleek era lantxoren bat irakurri bear zuten, sarrera bezela edo.

Ola egin zuela dirudi Lekuona Jaunak ere bein, 1924-n, batzar-ageri batek esaten digunez. Ormaetxea jaunak, beste urgazle batek, erantzun zion, eta irakurritako lana RIEV aldizkarian argitaratzea erabaki zuten.

Batzarretara agertzerik geienak Lekuonak udako edo Eguberri-etako oporraldietan egiten zituen. Orrela 1936-g urterarte.

EZ SARI ETA EZ ZIRI

Urte ortan Euskaltzaindiaren eta euskaltzainen lanak eten luze gogorra izan bear zuen. Zorigaitzoko ixillaldi oso baten ondoren, gutxi batzuk asi ziran, noizbait burua jasotzen, Jupiterrek izututako igelak bezela. Oso gutxi ziran; Azkue ta Urkixo jaunen inguruan, lau edo bost

euskaltzain, oso eta urgazle. Non billamko zuten beste batzarkiderik? Eta nori saririk eskaini eta nori ziririk egin? Ez da aukera aundirik inguruan. Eta lau edo bost besterik biltzen ez diranean, ez dago araua betetzeko erarik ere. Nola osatu zazpi autarki?

Orrela, araudia alde batera utzita, or sortzen dira, oso edo laguntzaille, euskaltzain berriak: Joan Irigoien, Eladio Esparza, Federiko Krutwig, Seminario Rojas... Azkenengo onek ospetsu samat egin zuen bere rarrera Bizkaiko Diputazioan. Orduko batzar-lan asko illunpetan gelditu da. Baiña nondik atera du norbaitek Krutwig jaunak sarm zuela euskera Euskaltzaindian, an artean erdera zala aren batzarretan nagusi? Ori esan duenak jainko txipiak non-nai ikusteko erreztasunaik ba du, bear bada: baiña Euskaltzaindiaren batzar-ageriak ez ditu irakurri. Ain zuzen, Krutwig orrek erderaz idatzita biali zimen, urtetan barna, bere lan guztiak Euskaltzaindiaren batzarretara. Ogei urte leenago aren batzarretan ez zan erdera geiago erabili Krutwig jaunaren egunetan baiño. Bakoitzari berea, ori da zuzenbidea.

LEKUONA, EUSKALTZAIN OSO

Ixil-garai artan, Lekuonari ere ixil!-lana egokim zitzaion. Baiña euskerari atea erdi zabaltzen asi zaizkionean, or agertzen zaigu kalera kantari, 1948n, *Jesus Aurraren Bizitza-rekin*, eta 1949n, *Gerrateko nere amabi* kanta-ekin. Urrengo urtean, euskaltzain oso izendatzen dute. Bazekien berak euskaltzainen legeen berri (orduan edozeiñek bezela), eta laster, 1951n, VI n 23n, sarrera egingo du. Iruña aukeram zuen ortarako. Oiartzuar jator oni, euskeraren aldetik eta kondairaren aldetik, Iruñara zijozkion burua eta biotza.

Ogeitamar urte leenago, Euskaltzaindiaren jaio-berritan, euskaltzain urgazle egin zutena, orain ark bigarren jaiotzaldia bezelakoa duenean, euskaltzain oso gertatzen da. Or, 1950 inguruan asten da, asi ere, Euskaltzaindia bigarren bizialdi batean sartzen eta indar berriak artzen. Ez bakarrik illen utsuneak bete, euskaltzain berriak ere izendatzen dira, leengo amabiez gaiñera. Batzuk urgazle izatetik igoak dira, beste batzuk zuzen zuzenean arm dute gorengo mailla: Gorostiaga, Villasante, Mitxelena, Ormaetxea eta abar. Bear bada, batzuentzat sari izan da, beste batzuentzat ziri baizik ez.

Euskaltzaiñak ugaritzearekin beste gertakaririk ere azalduko da, berri samarra: euskaltzain osoak geiago izan arren, ugaritze ori billeretan ez da ain argi ikusten. Leen urgazlerik gutxi batzarreratzen bazan, orain urgazleak osoak baiño geiago.

Emendik oker nabarmen au ere gertatzen da. Autarkitara zerbait erabaki bear danean, leengo legeak dirau oraindaiño: zazpik osatzen dute geiengoa. Leen, amabi euskaltzain oso ziranean, oso zuzenbidezko legea eta jokabidea zan ori; guztien erdia eta bat geiago gertatzen zan. Orain zazpik eskubide osoa dute beste amabosti edo geiagori beren uztarpea ezartzeko. Beste okerrik ere sortuko da, lege-joko berri bat asmatzen danean: *poderioz* boto ematea. Oker au lege-gizonek asmatua izan da, noski, ez akademi-gizonen asmakizuna. Akademiek beren barrukoei lege zorrotza jarri izan diete (euskaltzaindiak ere bai, asieratik): billeretara ez utsik egitea. Uts egiten duenak bere eskubideak galtzen ditu, ogenaren arau. Orain Euskaltzaindiaren billeretara uts egiten duenak ez du ogenik, bai bulda, egun baterako, boto-egunerako. Orrela, karguak berritzean, itxuraz, euskaltzain oso guztiak gerta ditezke batzarrean; itxuraz, botoz, ez egiaz. Jokabide au ez da, ez, oso akademikoa. Eta barnean alderdikeriak sortu ezker, Euskaltzaindian sortu diran bezela, ez da errez asmatzen nolako istilluak etorri litezken.

LEKUONA, EUSKALTZAINBURU

Berriz ere, Euskaltzaindiaren egunik gogoangarrietakoetan, Euskaltzaintzan urrengo urrats bat egiten du Oiarzungo seme jator azkar onek. Euskaltzaindiaren urrezko ezteiak, sortu zanetik berrogeita amargarren urtea urbil da eta Lekuona euskaltzainburu egiten dute. Ez zan, orraitio, dana jai-usaia inguruan, ez urbiltzekorik ere. Aurreko urteetatik asita, naiko zatarturik, gaizkiturik, dago giroa, barnetik eta kanpotik. Leengo alderdikeriak gaiñera, euskera *batua* dalakoaren auzia atera da erdira. Ostots-giroa dago.

Ba dira lau urte azken-epe estu bat jarri nai izan ziola norbaitek Euskaltzaindiari, batasuna egiteko. Onez ez bazan, indarrez edo egin bear zan eskatzen zan batasun ori. Ortarako, noiz egokiera oberik, urrezko ezteiak baiño?

Auzi onen inçuruan ez dago xeetasunik eman bearrik. Ez ziran urte gozoak izan, 1967-tik 1970-rakoak. Lekuona izan zuten buru urrezko

eztei aietako batzar nagusiek Iruñien, Gazteizen, Bilbon, Donostian eta Baionan. Lekuona buru zala egin zan Oiñatiko batasun-batzarra. Luzee-
gi joko genuke auzi eta istillu guzien berri eman bear ba genu. Zer
esango, eta artaz Lekuona berari mintzaraztea erabaki det, berak eman
zuen "Nere kontu ematea" emen aldatuz. Euskaltzaindiak ogen egin dio
bere buru izan zuenari, kontu emate ori bere aldizkarian ez argitaratzeaz.
Arrera ohea merezi zuen. Mintza bekigu emen berriz Lekuona bera;
mintza bekigu eta mintza bekie:

"Euskaltzainok: Iru urte dira, Euskaltzainburu naizela. Bitarte
ortan zenbait gorabera izan degu euskeraren problematikan. Egoki izan-
go da, gorabera oiei buruz, nik nere deskargutxo ematea, zuen aurrean.

Urte bi dira, Bilbaon egindako urtarrilleko batzarrean, Euskaltzain-
diaren berrogeitamar urte betetzearen gogoangarri zerbait berezi egitea
erabaki zala. Asmo bat, batez ere, artu genduan danok orduan: urtea-
ren barruan euskeraren batasunari buruz zerbait eratzea.

Gauza garrantzitsua zala esan zan; baiñan baita kontuz egin bea-
rrekoa ere, batasun-eratze ori. Gogoan izango dezute noski guztiok batzar
artan bertan Arrue jaunak esan zuana: Euskaldunok, olako gauzetan
"anarkixta xamarrek" gerala. Batasuna, norbaitek proposatzen zuan be-
zela, *por decreto* egiten asten bagiñan, orixe naikoa izango zala jendea
kontra jartzeko.

Xenpelar bertsolariak esan zuana :

"Gaitzak gerala umiltzen,
eta pakean unitzen".

Neronek ere gauza bera esan nai izan nuan, Arantzazuko Batzarre-
ko sarrera-itzaldian *Oñeztarren eta Ganboarren* arraixkoa aipatu nuanean.

Arazo ontan arraixko ori baztartzea izan da nere ardurarik aundi-
ena, ordutik onuzko urte t'erdi ontan. *Por decreto* eta diktadoreki gauzak
egitea galerazi: orixe izan da nere ardura. Ez dakit logratu dedan.

Arantzazuko batzarrak bukatu bezain laister, batzuren batzuek izu-
garrizko pozez asi ziran ango, Mitxelena jaunaren erakutsien konklusioak
mundu guziari ezarri bearrez. Ezartze ori, eta batez ere presaka
ezartzea, orixe da, ezer bada-ta, diktadura. Ori iñolaz ere galerazi bear
zan. Nik ortara jo det, batez ere, nere alegin guztian. Presaka ez da ezer
onik egiten auzi auetan. Mitxelena jaunaren iritziez gaiñera, beste iritzi

geiago ere entzun bearra zegon. Ortarako beta artu bear da. Ponpeu Fabrak katalanaren batasuna egiteko, amar urteko epea eman zuan, erriari kontsulta egiteko, erriaren plebiszito praktiko bat lortzeko.

Gure artean, esan det, alderdi batekoak bereala asi ziran beren aldeko lanean. Eta berak beren aldetik asiaz gaiñera, Euskaltzindiak Arantzazuko konklusio aiek guztioi ezartzea, guztiok Euskaltzaindiak ortara beartzea nai zuten. Nere iritzia gai ontan bestelakoa izan da. Ponpeu Fabrak bezela itxedon, erriaren postura ikusi arte: diktadurak baztartu: utzi guztioi itz egiten.

Ni bildur nintzan bezela, Arantzazun bertan azaldu ziran bi alderdi: *Oñez* eta *Ganboa*. Etzan arritzeko, an gauzak planteatu ziran bezela. Gai garratzak erabilli ziran: garratzxoak, alderdirik ez sortzeko. Aditzaren arazoa baztartu egin zan, gai zailtxoa zala-ta; bañan ori bezain zaila dan H-ren gaia ukitu zan, gai teoriar errexat Mitxelena baten eskuetarako, bañan praktikan zailtasun aundiak dituana: gutxienez bi gizaldi —berreun urte— Bizkaian eta Gipuzkoan erabilli ez dan elementu bat, orain, bat-batean, gabetik goizera ezartzea... Gauza zaila benetan... Eta bereala etorri zan ni bildurtzen ninduana: *Oñaz* eta *Ganboa*. Guztiok zerate testigu. An bertan. Eta gero, ondoren, zer esanik ez.

Orain galdera bat: Zer egin bear zuan Euskaltzaindiak arazo ta ereti ortan, bidagurutz ortan? Batzuen alde eta besteen kontra bere burua azaldu?

Nere iritzian, Euskaltzaindiak *neutral* izan bear du olako auzietan; eta ortara saiatu naiz ni alegin guztian: neutralidade oni eusten.

Euskaltzaindiaren egitekoa auzi ontan guztiontzako alkar-izketa giro paketsu bat. Auzi zaila dan ezker, utzi guztioi itz egiten, entzun guztiona.

Arantzazun alderdi baten itza entzun zan, batez ere. Beste alderdiarena ere entzun bearra zegon. Eta ortarako ekilibrio on bat izateko, bear dan beta artu. Luzatu bear bada, luzatu. Gauzak diktadoreki egin, ez. Ori izan da, diot berriz ere, nere ardura urte t'erdi ontan.

Batzuren batzuek Euskaltzaindiak bereala, zirt-edo-zart, erabakitzea naiko zuten. Alde batetik eta bestetik, Ponpeu Fabrak, leen ere esan det eta, Katalunian amar urteko epea eman zuan. Eta amar urteren buruan balantze bat egin, erriak zertara jotzen duan.

Bide luzea dala? Sobra dakigu. Baiñan gauzak diran bezela artu

bearra dago. Bereala eta *por decreto* gauzak egiten asteak ba dakigu zer dakarren, Xenpelarrena: "Gaitzak gerala umiltzen"...

Arrue jaunak esan zuan. Baiñan ez Arrue jaunak bakarrik; Mitxelena jaunak berak ere, bi edo iru aldiz, gauza bera esan zigun. Ez bera, ez Euskaltzaindia, ez dala nor, bere konklusioak iñori ezartzeko... Berak ere etzuan nai diktadurarik. Ezarri, ez. Arau batzuk eman, ori baL A. Villasantek itz bitan esan zuana: Mitxelena jaunaren ikasgaiak *valor normativo* dutela, ez *valor preceptivorik*. Gu ez gera nor gai ontan agintzeko. Euskeraren jaun da jabe erria da, ez gu. Guk ezin dezakegu agindu. Bide bat erakutsi, bai. Bañan guk erakutsitako bide ori erriak jarraitu bear du. Eta jarraitzen duan ala ez, praktikan ikusten da.

Orain praktikari buruz zer? Urte t'erdiko praktikari buruz, zer?

Nere itzak ez dezala iñor ofendi. Bañan esan bearra dago batasuna egin naiean asi giñan. Nik uste, ez genduala bide ona aukeratu. Orto-grafi-gaia ukitzean, H-ten auzia ipiñi genduan mai-gaiñean. Zoritxarrean. Batasuna sortu bearrean, bitasuna sortu zaigu. Eta nolako bitasuna! Bitasun psikologikoa, asarrea, burruka...

Urte t'erdiko esperientziak beste gauza bat ere erakutsi du: ez H-ren arraixkutasuna, H-ren zailtasuna.

Batasunak bi gauza eskatzen ditu batez ere: Oiñarri zabala eta denbora, denbora luzea. Ponpeu Fabraren pazientzia ta egoarria.

Orra nere iritzia itz gutxitan.

Eta nere iru urte oietako deskargoa".

Kontu-emate au eman ondoren, urte erdi jarraitu zuen euskaltzainburu. Baiña azpi-lan zitela egin zioten eta ondorengoa izendatu ziotenean, berriz izan zuen itz egin bearra batzar batean Arantzazuko erabakiei buruz, baizik-eta ez zutela agindu-zorrotzik ezartzen.

Kontu-emate onek naiko argi erakutsi du garai artako giroa. Baiña ontan Lekuonaren jokabidea egiazko akademikoarena izan zala esan bearra dago. Beste batzuk Oñez-Ganboatarren giroak ito zituen eta badaezpadako bideak artzera eraman eta beren bide ori besteei ezartzera.

Gauza asko aaztu ziran ordu artan: euskaltzaindiak aurretiaz jarritako arauak, eta Arantzazuko erabakiaren itzak berak ere bai. Euskaltzaindiak aurretiaz erabakita zeukan ez zala iñolaz ere arau edo norma estu zorrotzik artuko; gauza askotan, puntu askotan bi edo iru bide aukeran utziko zirala. Ori zan akademi-legea (olako lege aukera bi edo

irukorik badu Madrilgo Academiak ere, aren iztegian ikusi daitekenez). Aaztu egin zan bide ori.

Arantzazuko erabakien auzia, berriz, ez ote da aurkeri farragarri ia biurtu? Euskaltzaindiaren babespean, euskal-idazle guztiena izan zan batzar ura. An erabakitzeoak batzorde baten esku utzi ziran. Aaztu zan batzorde onen egitekoa ere, eta gero an atera zan erabakia, beste baten aurrerapen zalakoa, gero Oñatiko batzar nagusian (egitekoa zan batzarreran), gauzak zeatzago aztertu ondoren ikusi bearrekoa zan, an azken-itza emateko. Baiña, au arrigarria, aurrerapena, aurre-itza, ez dakigu nola, azken-itz gertatu zan, eta "ongi ikusiko zuelako, gaizki ikusiko ez zuelako bat", arau eta agindu zorrotz. Eta azkenez, Arantzazuko erabaki ori, batzorde batena izan bear zuen ori, Euskaltzaindiaren beraren batzar-erabaki izan zala "dogma" egin zuten. Nork izenpetu zuen, zenbat boto izan zituen? Ori ez da inoiz esan ez argitu. Zortziren bat euskaltzain oso bazirala an? Baiña ez ortarako bilduak ez ortarako deituak. Zenbatak eman zuten baietza, edo zenbatak ezetza? Inork ere ez, bear bada; Arantzazuko adierazpena benetatako erabakitzat inork artu ez zuelako, konponbidetzat baizik.

Geroago, Euskaltzaindian auzi bera berriz *proposatu* zanean ere, berdin. Ez da agertuko ez nor zegoen alde ez nor aurka. Ez zan izan autarkirik ematerik, botaziorik. Ez da olakorik aipatzen. Batek itz egin, eta besteak: Amen, beude ixillik. (Ori bai, bear bada, ba ziran an zazpi euskaltzain nagusi). Gero baiño gero gaizkiago ulertzen da askotan euskaltzainen bidea.

Nere lantxo onek kondaira-lan izan bear zuen, Lekuona euskaltzain bezela aurkesteko; baiña eztabaida-lan ez ote da biurtzen ari? Ala ere gaiak berak ekarri du sugaia. Borroka-giroa, Oñaztar-Ganboatar giroa, noiz nai azaltzen da gai auen inguruan. Orregatik ez det amaitu nai sala! untza bat egin gabe.

Arantzazuko batzarrean zorrotz entzun zan Mitxelena jaunaren mintzoa: "Euskera batua, Liturgian ez! Liturgian, azken!".

Maixuaren eskolakoak dirala dioten batzuk ez dute istillurik gutxi atera, bada, Elizaren aurka euskera *batuaren* izenean, liturgiako euskera dala ta ezuala. "Atzerakoi eta erriaren etsai", itz gozoak dira auen aotan. Argia legoke gure erria, euskera *batu* orren soinuau dantzan egin bear balu, norbaitzuen gogara! Kasu bat atera dezadan: Barandiaran jauna-

ren liburu bat euskera ortan argitaram dute oraintsu. Gaur argitaratu bear balute, berriz aldam bear ko lukete, ikum berriak egiñez.

Limrgiako euskeraren aurka entzuten dan zaunka ori ez ote da Lekuona jaunari dioten begi gaiztotik sorma? Galdera bat besterik ez det egiten, Lekuona baita Limrgi-euskeratzailleen buru.

Baiña, Liturgi-lanetan buru dan bezela, Euskaltzaindian buru jarraim balu, bear bada ,ez zan ez Euskaltzaindiaren kaltetan ez euskeraren kaltetan izango.

Bale-arrantza eta euskaldunak

ARRINDA'TAR ANES

BALEA EDO BALOIA

Itxasoan bizi arren, balea ez da arraiña, aberea baizik eta titiak, beiaeren antzera, tripa-barrenean ditu.

Baleak "Cetaceos" deritzaion familikoak dira. Batzuek "agindunak" ("odontocetes") eta "bizardunak", besteak ("mistacocetes").

Euskaldunek arrapatzen zituzten baleak "bizardunak" ziran (mistacocetes familikoak): ortzen ordeztuz bizarrak zituzten aotan.

Bale bizardunak ere klase askoetakoak dituzu. Danen artean aundiena bale "urdiña" da. Bizidun izakietatik bera aundiena.

Bale buru-kakoduna ere (Sardako Balea, euskaldunen izkeran) balio aundikoa da eta Groendlandia'ko izotz-artean bizi dana. Andik jetxi oizan Kantauri itxasora eta emen euskaldunek arrapatzen zuten. Gerora ikasi zuten ara bertara joaten bale-billa.

Copenhague'ko Museo Zoolojikoaren zuzendari zan Eschricht jaun jakintsuak, bale oneri "Balaena Biscayensis" izena jarri zion.

Museo artan bale-mota onen bi ale zeuzkaten:

Bata, Donosti'ko arrantzaleek, 1854'ko Ilbeltzaren 17'an, Zarautz eta Getari'ren tartean arrapatutakoa.

Bestea, Isalandia'n arrapatu zutena, eta aundiagoa.

Gerora izena aldatu zioten bale oneri, beste izen au jartzeko: "Eubalaena Glacialis" : Izotz-arteko Balea, alegia.

* * *

"Eubalaena Glacialis" edo "Balaena Biscayensis" oneri euskaldunek Sardako Balea esan oi zioten. Noiztik eta zegaitik?

Baleak Kantauri itxasora banan-banan etorri oi ziran. Ama bere umeakin ere bai. Noiz-beinka, arra emearen ondoren.

Baleak gure itxasoetan urrim eta agorm ziranean, orduan euskaldunek Galizi aldera jo zuten eta andik Kanada'ra.

Kanada'ra eldu ziranean, Kantauri Itxasoan banan-banan zebiltzen baleak, mordoka ikusten zimzten an. Itxasoko bizidunen mordoari "sar-da" esan oi zaio, eta ortik atera zuten Sardako Balea izena, sardan zebiltzetelako.

* *

Euskaldunak izan ziran lenengoko bale-arrantzaleak.

Asieratik, bere Errietako kosta-aldean, kaietetik germ eta banan-banan. Urte asko igaro zituzten bere zeregiñ onetan eta arrantzarako teknikak asmam eta osom zituzten urteetan zear. Baita arrantza-ondorengo aginkizunetarakoak ere: nola ebagitze, ala koipe-urtutzeak ere...

Gerora, Sardako Balea Ifaraldeko Itxasoetan topa zutenean, orduan asi ziran beste erriak ere bale-arrantzan, aberastasun aundikoa bait zan arrantza ori. Holandar, Ingles eta beste abarrek euskaldunetatik ikasi zuten bale-arrantza-teknika osoa. Ondo ikasi ondoren, lenengo euren ontzietatik eta gerorago Kanada'tik bota zimzten euskaldun guztiak etxera. Orrela amaim ziran, azkenik, zortzireun urteko ekiñaldiak.

Balearen arrantzari buruzko berriak 1.200 urtekoak ditugu. Urte orretako dokumenm batean (Abenduak 31) auxe agertzen da: mutrikuarrak arrapamtako bale bat Kastilla'ko Errege Alfonso Zortzigarrenak eta bere emazteak Santiago'ri eskeintzen diotela. Baiña, aurreragoko aztarnak ere badira: 1059'an bale-aragia saltzeko baimen berezia eskam eta lorm zuan Baiona'ko plazak. Inguru aietan balea arrapatzen zan seiñalea. Geroko berrietatik beste au dakigu: Gipuzkoan ez zala bale-aragirik jaten; jateko bale-aragia Baiona'ra bialtzen zutela, baizik. Beste aldetik, berriz, eskribitzeko afizio aundirik ez ziguten gure aurrekoek agerm: paperetan fede gutxi, nunbait. Ez da ba arritzeko gauza auen berri paperetan gutxitan agertzen badira. Eta agertzen Jiranean ere bitartean burrukaren bat dagoalako agerm oi dira.

*

Ingles, danes, noruego, holandar eta rusoak 1.600'etik aurrera asi ziran bale-arrantzan Ifarladeko bale-ugaritasuna ikusi ondoren. Euskaldunek jasotzen zituzten aberastasunak eragin zien bale-arrantzarako konpañi aundiak eratzera.

TALAI-DEIA

Tala, talaia edo atalaiarik ez duan erririk ez da itxas-ertzean.

San Juan Talako Lekeitio'n, Talaia-mendi Orio eta Zarautz'en, Talaja Deba'n, "Peña del Ballenero" izenakin berea Donostia'ko Ulia mendian eta abar.

Gorputz aundia duelako, eta ura botatzen duelako sudurretatik, balea itxasoan oso errez ikusten dan gauza da. Eta len-bai-len ikusteak bazuan bere konbenentzia erriarentzat.

Zergaitik?

Lenengo arpoiari sor bait zitzaion balea. Lenengo arpoia sartzen zion txaluparen errira eramaten bait zan animalia.

Eta balea, gauza oso aberatsa izaki.

Ez da ba arritzeko erri bakoitzean talaia egotea, itxas-ertzeko aitz edo mendi baten gaillurrean, eta bertan, ixasoari begira gau ta egun, gizona zaindari.

Deba'n, 1685'an, talairako giza- seme bat aukeratzen zuten. Soldata Kofradiatik jasotzen zuan eta bere eginkizuna udazkenean asi eta Paz-Kuraiño luzatzen zitzaion: Azaroaren batetik, Martzoaren amabosteraiño, alegia.

Lekeitio'n berriz, bi aste aurretik asi:

Urrillaren amalautik Martzoaren amabosteraiño.

Garai orretan agertzen bait zan gure artean izotz-arteko Sardako Balea: negu beltzean, alegia. Groenlandia eta eta Kanada'ko itxasoak izozten ziran garaian.

*

Talai-gizona itxaso-arazoetan, itxas-jakindurian, ondo jantzia bear

zuan: itxasoko arrai eta beste abere guztien berri ondo zekiña, bata besterendik bear bezela bereiztu aal izateko; arrai eta abere bakoitzak bere seiñale berezia bait zuan. Eta ori jakin bear seiñaleak ondo egiteko (1).

Talaiako seiñalea ikusteakin batera, asiko ziran deika Kofradiako kanpaiak eten gabeen; baita pregoiak ere kalerik-kale, kantoi guztietan. Jendea berak ere, gazte ta zaar, gizon da emakume, baztarretako txoko guztietara eramango zuan zapi zuriaren berri ona.

Eta, zergaitik ainbeste iztillu?

Baleak iges egiterik konbeni ez. Ikusitako balea len-bai-len arrapaztea konbeni; auzoko kaietako ontzieri aurea artu bear.

Zenbat eta txalupa geiago eta bizkorrago prestatu, ainbat eta arrantzazte seguroagoa. Baloi aundi batek, txikiak ez-ezik, aberastasunak zekarzkin ugariak errira: mingaiña, bale-bizarrak, eunka barrika-koipe, ezurrak...

Zer, ez...?

Guztientzako banatuko zan aberastasun oietatik zatitxo bat guxtienez.

Itxasotik bizi ziran eta eguneroko alogera itxasotik jasotzen zuten: arraiñ txikietik, alegia. Bixigutik, legatzetik, sardiñetik... Oiek, ordea, arraintxo txikiak ziran: kalderilla utsa. Balea, ordea- urre-gorri-ontzakoz beteta zetorren.

BALE-ARRANTZARAKO LANABESAK

Bi tresna ditugu bearrezkoak bale-arrantzarako.

Biak dira burkizko eta biak dute egurrezko kirtena: arpoia eta xaboliña.

Arpoiak mutur zorrotza eta bi ego ditu muturraren egoetan, aragian sartu ondoren bertan katigu gelditu dediñ.

Burnizkoa.

Bere luzeroa, 60'tik 70 zentimetroetara. Aurre-partea trinkoa du; atzekoa, berriz, utsa, kirtena sartzeko bertan.

(1) Anuario de Eusko-Folklore. XXII. 61 orri. "...reconocer y distinguir los peces como ballenas, gibartes, trompas y demás... y así distinguiendo alze en el monte y parage... las respectivas señales de vadera blanca o sabana y esto se atendera de vallena, y palo seco para gibartes y trompas...".

Kirtena, pagoa, metro bat eta irurogei zentimetro luze. Lau zentimetro lodi.

Burnizko arpoi onek badu begi bat ere soka lotzeko. Soka ori gero kirtenak zuen beste zulo batetik pasa oi zan.

Orain bosteun urte arpoiari lotzen zaion sokaren luzeroa 70 kanako bear zuan izan. Ogeitamar arikoa, gutxienez. Neurri oiek bear zitun estatxa batek, bearbezelakoa izateko.

Soka edo estatxa bateri bi arpoi lotzen zitzaizkion: bata sokaren mumrrean; bigarrena, mumrretik amabost metrora. Bigarrenak amabost metroko soka izango du beretzat.

Era orretara, arpoilariak balearen aurrean bere burua ikusten duanean, bi arpoi izango dim esku-artean. Batekin uts eginda ere, beste aukera bat gelditzen zaio eskuetan.

Xaboliñaren aoak gartzain-orriaren antza du. Lantza baten itxura, alegia.

Xaboliñaren burniak metro t'erdi badu luze eta kirtenaren maki-llak beste bi 'terdi edo iru. (Terranovako bidea asi zutenezkoak dimzu aiñ luzeak).

Esana daukagu nola, beñ arpoiak sarm eta katigu geldim ondoren, odol uztutzeko, baleari xaboliñak botatzen zioten, sartu eta atera.

Xaboliñari ere, arpoiari bezela, soka lotzen zaio; baiña, soka onek ez du amabost edo amasei metro besterik luze. Soka orren bitartez, baleari xaboliña sartu ta gero, atzera biltzen da, berriro botatzeko etenik gabe balea odol-uztu arte...

Xaboliñ uts batekin zulo asko egiten zaizkio baleari.

Txalupa bakoitzak bost arpoi eta iru xaboliñ eraman oi ditu. Oietzaz gaiñera, aizkora edo pala zorrotz baten antzeko tresna, egurrezko kirtenakin au ere; baiña, sokarik gabe.

Beñ arpoi eta xaboliñen lanak bukatu ezkeroz, kako luzeak bear dira, kirtendunak auek ere, baleari eltzeko.

Leenago aitam ditugun tresnak galtzairu garbiakin egiñak dira eta

(2) "Technique de la chaise a la baleine au debut du XIX'e siècle". Texte inedit: d'aprs le manuscrit 85. Belanger: 121-128 orri. "Les Basques dans l'estuaire du Saint-Laurent". Quebec, 1971. Université.

bizarra kentzeko labaiña baiño zorrotzagoak. Guztiak ardura aundiakin zainduak.

Bearrezko dira baita ere esku-kako txikiak,, azala ebagitzeko une artan aragiari eltzeko; aistoak, zer esanik ez; eta aizkora txikia estatxaren soka ebagitzeko, baleak ur-azpitik tiraka txalupa arriskuan jarriko balu.

Balde batean, oso kurioso jarria, soka luzea. Ori ere bearrezko.

Orra zenbat gauza txalupa bakoitzean. Gauza bat azm zaigu eta ona: pelotarien beso indartsua, bi begi bizkor eta buru argi bat.

Gizaseme ausart eta trebe bat, alegia.

Auxe gauzarik bearreskoena, besteak beste.

* * *

Tresna eta lanabes-arazo onetan ardura aundia erabili oi zuten kaietako lege zaarrek. Porm bakoitzean bi patroï aukeratzen zituzten beste txalupa guztien tresnak aztertzeko, ondo ote zeuden. Tresna guztiak bear zuten egokiak izan eta era onean egon. Bestela, zigorra zuten txalupa-nagusiak.

Zergaitik ardura ori?

Bale-arrantza erri osoarentzat zan onuragarri. Bear-ez-bezelako estatxa batengatik arpoiz jotako balea galdu zezakean, erri osoaren kaltean. Baten ardura-ezak, okerra guztientzat. Orra zergaitik lege-zarrak aiñ zeatz jokutzen zuan.

Okerra gerta ez zediñ.

* * *

Euskaldunak Terranoba'ra bidean jarri ziranean ontzi bereziak egiñ zimzten bale-arrantzarako. Baiña, Euskalerrian bertan edozeiñ ontzirekin irten oi zuten bale-arrantzara.

Orretxegaitik bixigutan, edo legatzetan, edo sardiñetan irtetzen zutenean, beti eraman oi zimzten beurokin bale-arrantzarako bear ziran arpoi, xaboliñ, estatxa eta abar...

KOIPEAK URTUTZEN

Ikus dezagun zer egiñ duten balearen azal eta aragiekin. Ondo zatitua gero, labara eraman dituzte gurdi eta narretan. Askorentzako alogera.

Koipedun aragi orrek seina zuan izena eta seina urtutzeko, erritik-landa aterpeak egiñ oi zituzten. Aterpe oietan labeak jaso. Labeak erri-barruetan egiñ ezkerro, keak eta atsak eragozpen eta molesti asko sortzen bait zuten.

Lumera izenakin ere aitatzen dituzte labe eta kaídara oiek. 1415'an Donostiko lege batek, erritik kanpora bear dutela agintzen du. Lekeitio'n ere berdintsu.

Gure errietako labeen aztarranik ote danik ez dakigu; baiña, Kanada'n badira euskaldunek egin zituzten labeen arrasto eta erreusak.

* * *

Labeak ladrilluz egiñak zeuden. Lau kuadrokoak ziran; alde ba-koitzetik kana t'erdi zabal. Gora, berriz, kana bat. Beeran, lurraren parean, zuloa barrura, bertatik ikatsa sartzeko eta sua egiteko. Bertan bi barra burnizko, lurretik jasoak, gañean koipearen txingarrak erretzeko, obeak bait dira ikats-egurra berbera baiño. Gaiñetik ere zuloa zuten beeraiño, kaldara jartzeko

Kaldara edo eltzeak iru neurrikoak izan oi ziran. Batzuek bi "pipa" koipe jasotzekoak. Besteak, pipa batekoak. Irugarrenak, pipa erdikoak.

"Pipa" bakoitzak 450 litro zitun, bi barrika inguru.

Eltzeak urraidazkoak ziran: kobrezkoak, alegia. Lodia aunditasunaren proportzioan: bi beatz lodi, bi pipakoak; beat bat, pipa batekoak; beatz-erdi, pipa erdikoak.

(3) Auek danak eta ondoren datoztenak Baiona'ko dokumentutik atereak dira, asieran esan degun bezela, eta XIX'garren eunkiko berriak dira. Leenago ere gauza batzuek, dokumentu zaarretatik atereak, auekin ondo datozte.

* * *

Erriko atetik kanpora dagoen labean urm dituzte azalak, saiña **eta** erraiak ere bai.

Sua egur-ikatsakin asi badute ere, gerora urdai-txingarrekin eutsi diote eta orrela ikatsik erre bearrik ez.

Aistoak erabili dimzte era askotakoak: txikiak eta aundiak, oke-rrak eta zuzenak, kirten-motzak eta kirten-luzeak. Aisto aundiak metro-erdi bat luze izaten zuten eta kirtenak berak metro t'erdia.

Zatitu ondoren, zati oiek andatan artu eta labean sarm, eltze barruan.

Seina urmtzen danean, urm ala, lau-kuadroko egurrezko ontzi batera eraman. Labe inguruan dago gerturik. Ontzi orretan ura dago erdiraiño eta bertara koipe-urma botatzen danean, zabor guztiak beera dijoaz eta koipea ur-gaiñean igari gelditzen da. Txotxa badu zulotik koipea ateratzeko. Koipea galbaitetik pasa eta barriketan gorde. Noiz-beinka ur garbia aldam eta azpiko zaborrak atera.

Beste era onetara ere egiñ oi zuten koipearen garbiketa:

Burruntzali aundiekin, edo tangartakin (baldeak, alegia) urez erdiraiño betetako barrika batera bota koipea. Gero, barrika artatik beste batera pasa, au ere urez erdiraiño. Andik irugarren barrikara, koipea garbim arte.

Garbimtakooan, orduan gordetzeko barriketan ixuri. Seina bera, ga-tximta, beste gabe ere, gorde izan oi da barriketan.

* * *

Zertarako erabiltzen da bale-koipea?

Lenengo-ta-bat, argitarako. Argi zoragarria egiten du. Argitarako beste gai oberik ez da (argizaria ez bada) oraindik sorm Etxe guztiak eta uri naguzietako kaleak bale-koipearekin argitzen dira. Argizaria baiño askoz merkeago eta beste koipe guztiak baiño ohea. Elizeetan ere koipe ori erabiltzen dute argitarako, olioaren orde.

Makina-tramankuluak leuntzeko aparta ona da.

Baleak, aragi bezela jateko, estimaziorik ez euskalerrietan. **Aragi-**

tako Baiona'ra bialtzen zuten. Eta Euskalerritik kanpora ere bai. 1059'an Baionak bale-aragia saltzeko eskubideak eskam zimm. Eskubide bereiziak, eskam ere.

TXALUPAK

Bada Baiona'ko "Archives Communales" etan dokumentu bat (4), joandan eunkiaren (XIX) asieran nola baleak arrapatzen ziran eta nola koipeak urtutzen ziran, erakuzten diguna. Baiona'ko Pillotu Nagusiak egiña da.

Arrantzarako teknika eta tresnaeri buruz gauza asko esaten dim, eta nik emen interesgarrienak jasoko dimt.

Txaluperi buruz ona zer dion:

Ontzi aundi bakoitzak lau txalupa eramaten dim, geienetan beintzat. Badira iruko eta baita bosteko ere, bale-ontziaren neurrira.

Lau txalupa oiek barkuaren aldamenetan egon oi dira (babor eta estribor), ontziaren ertzetatik kanpora eta aldamenetako esiak baiño gorago. Orrela daudela ez dute bat ere estorburik egiten eta itxasora botatzeko, lan erreza.

Balearen ondoren asiko diranean, lenengo txaluparen patroia kapitana izango da. Bigarren buru, pillotua. Irugarrenena, maixua. Laugarrenena, kontramaixua. Bost arraunlari txalupa bakoitzak eta arpoilaria. Au lenengoko tostan, edo eserlekuan, joango da.

Oso dira ariñ txalupak. Bere egurrak ez du zentimetro bat lodi besterik. Muturrak dimzte zorrotz-gora eta arku-forman (mako-eran). Luzeroa, 7,65'tik 8,30 metrora. Zabaleroa berriz, 1,70'tik 1,80'ra. Killatik gorakoa, 0,40'tik 0,45 zentimetroetara; baiña, aurre-atzeko mumrrak gorago jasoak: metro bat badute gutxienez.

Bost arraun dim (arpoilaria arraunik gabe) eta atzeko arraun-lemak baditu sei metro luze. Beste arraunen neurrian, ona emen: Iruiek 4,65 metro; beste batek, 5 metro eta azkenak, 4,50.

(4) "Requete des Basques francais (1608-1609) au roi Henri IV... contra Sieur de Monts, etabli a Quebec sous pretexte de colonisation et que en profite pour taxer tous vasseaux et marchandises avec abus..." (Belanger: Op. cit. 117-118 or.).

Toletak egurrezkoak dira eta estroboak (arrauna toletari lotzeko) koipez igurtzitik daude, zaratarik atera ez dezaten.

Arraunak zutik eukitzen dituzte, txalupa geldi dagoanean. Orretarako, arraunen eldu-lekuak tosta-azpian dauden zuloetan sartzen dituzte.

Txalupak popan badu zapaia edo kubierta, eta bere erdian zutik egur bat tente, kabraren (kabrestante) antzera. Brankaren kubiertan, berriz, illargi-erdi baten antzeko egurra, arpoilariak bere ezker-oiña bertan euzteko, indar egiteko, arpoia bota bear duanean. Aurreko txalupamumrrean, killan egindako lau kuadroko zuloa, barrutik berunez (plo-moz) borobilduta. Zulo ortatik pasa bear du estatxaren soka arpoiak baleari eldu dionean eta berunak biungarri egiten dio. Sokari, alegia.

Zertzuk eraman bear dimn txalupa bakoitzak berekin:

Urraidazko (kobrezko) konpasa itxasoari neurriak artzeko.

Ur gezaz betetako barrikatxoa, jariorik gabea.

Ura txalupatik ateratzeko tankarta.

Aulki txiki bat.

Kizki-makill edo gantxo bat.

Bandera-masta eta oiala.

Txamarta edo aingura txalupa geldi-arazteko.

Egurrezko lau-kuadroko egurra edo kaja utsa, metro-erdi zabal, sakon eta luze.

Bigarren barrika, ondo itxia eta bere barruan: farola, kandelak, txiskeroarria, txiskeroa eta ardagaia, pospoluak, ogi-gailletak eta, batzuetan, gaztaia ere bai.

Oietzaz gaiñera, beste arrantza-tresna auek:

Bost arpoi.

Iru xaboliñ.

Pala edo aizkora antzeko bat, kirten luzeakin.

Aizkora txikia eta aiztoa.

Ontzi batean oso konmz bilduak, arrantzarako sokak: 116 m/m lodi eta 200 m. luzekoak. (XV'garren eunkian estatxak 70 braza zim-ten bakoitzak).

* * *

Ikus oraiñ dokumentu orrek zer dion bale-arrantzari buruz.

Barkuaren masta-gaiñeko saskian dagoen mariñelak balea ikusten

duanean, deia egiten du eskubitik edo ezkerretik dan. Orduan, bela-bar-kua jartzen da baleari begira, eta, aal badu, aizeak atzetik ematen diola.

Txalupa bakoitzak bear duan soka-saskia, estatxarena, atzetik asita dauden lenengo eta bigarren tosta-arteana lotzen da.

Soka orren muturra, korapillo baten bidez begia egin-da, popako krabatik (kabrestantetik) pasatzen da, kabran jira bat eman ondoren; andik, arraunen kanpo-aldetik, killa-mumrrean dagoen zulora, eta zulo-tik branka-zapaira. Brankan sei edo zazpi metro-soka utzi bilduta, gero arpoiari lotzeko.

Arpoi bat soka-muturrari lotu eta bigarren arpoia lenengo arpoiak duan bere sokari lotu. Xeetasun geiagor argim dezagun esan degun au. Arpoi bakoitzan badu bere soka berezia. Arpoiak mumrra du burnizkoa eta burni orretan lotzen da sokaren mutur bat. Ondoren, egurrezko kirtenean lom berriro, arpoiak iñolaz ere iges aal ?z dezan. Beste soka-mumrrean, korapilloz, begi bat atera. Soka au arpoia bera baiño apurtxo bat luzeago da. Soka onen eta estatxaren artean beste soka bat lom bear da, metro batzuek luze. Soka onetan dijoa sarmta, begitik alegia, bigarren arpoia. Lenengo arpoia botatzean ez du bigarrena berekin batera eramango, lenengo soka bigarrenen begitik aurrera egingo dualako. Bigarren arpoiak lenengoak uts egiten duanean bakarrik lan egiten du.

Estatxaren soka ontzian bilduta dago. Andik brankako krabara dijoa. An buelta bat eman, eta, arraunen kanpotik, proako zulora eta, andik proan bildu sei edo zazpi metro mumrra arpoiari lotzeko, beste soka motzaren bitartez.

Lenengo arpoia txaluparen aurre-partean jarriko da: muturra egur-zati batean eta eldu-lekua erditik, sarde baten antzera, irikitako tolete batea.

Bigarren arpoia ere lenegoarekin batera egongo da. Baiña, beste guztiak tosta-azpian, arraunlarien eser-leku azpian alegia; luzanga ipiñita, mutur zorrotzak sirazko eunekin ez taliak, erdoim ez ditezen eta gizonek anketan miñ artu ez dezaten.

* # *

Masta-gaiñeko zaindaria "balea ezkerretik edo eskubitik" deadar egifean, kapitana igoko da mastan-gora zer bale-mota dan ikusteko eta

nundik jokatu erabakitzeke. Eta, batez ere, uraren emana nundik dan ja' itzeko, ontzia balearen bidetik aldendu ez dediñ.

Balearengana dijoa ontzia. Bi kilometro inguratzen diranean, orduan txalupak uretara bota, bear bezela jantziak eta itxasoari eutzi aal izateko neurriak artu ondoren.

Txalupak uretan dira eta badijoaz, belaz edo arraunez, balearen ingurura. Txalupa bale-ondora eldu danean, arpoilariak arpoia es'ubian artu eta ezkerakin, bere bizkarretik, edo gibeletik, lema-zaiari kiñu egingo dio nundik txalupa eraman. Guztiak, ixilik. Toletak amukoz bilduak eta estroboak koipez, otsik ez ateratzeko.

Baiona'ko dokumentuak ez du arpoilaria arraunean jartzen: zazpi gizon txalupan; oietatik bost arraunean, seigarrena lemazaia arraun luzeakin. Sei arraun besterik ez du aitutzen. Beste dokumentu zaarragoak, ordea, arpoilaria ere arraunetan jartzen dute, eta baleari inguratzen diranean, orduan, arrauna utzi eta arpoiari eltzen dio. Alaz ere zazpi gizon: sei arraunean eta bat lema-zai.

Leendik dauden marrazkietan, berriz, beti zortzi gizonez ornituak agertzen dira txalupak: arpoilaria aurrean, sei arraunlari, biñaka, erdian eta atzean patroia arraun aundiakin.

Bear bada, danetarik izango zan eta era askoetara jokatuko zuten.

* * *

Txalupa gertutik ikusi duanean ur-azpira sartu da balea, ez bait da batere piatzen. Arpoilariak kiñu egin dio aizkenaren aurreko dagoen arraunlariari, aria arraun-azpitik joan dediñ eta kanpotik, arraunerako anbazorik eeingo ez duan moduan.

Arpoilariak eman bear dio balea nundik nora dijoan, eta arako kiñuak egiñ bai lema-zaiari eta bai arraunlariari.

Balea aurrera, aldamenera edo atzera joan dan garbi jakiñ ez. Eta, asmam egiñ bear... Agertu da balea gure ondoan. Aal badegu, bere alboan jarriko gera, buru-partetik; buztan aldetik baiño obeago bait da.

Arpoilariaren ordua eldu da.

Txalupa-patroi edo maixuak, berari derizkion unean, ematen du ordena. Arpoilaria jeiki eta, aurrera begira, ezkerreko oiña illargi-erdi baten antzeko, txokoan, branka-zapaian, ezarriko du eta eskubikoa bere

tosta-gaiñean Arpoilariaren abildadearen eskuetan dago guztien etorkizuna eta irabaz-bidea.

Arraulariak bale-ondoraiño astiro eta aaldan ixillena elduko dira. Bertara diranean, arraunari atzerako eragingo diote, txalupa gelditzeko. Gelditzen dan unean, txalupa-maixuak emango dio agindua arpoilariari. Onek eskuan duan sarpoia (esku batekin edo birekin) bere indar gustiaz botako dio baleari gaiñera. Baletik oso gertu baleude, orduan bi eskuekin eldu eta arpoia sartuko dio, bota gabe, eta bere gorputza makil gaiñean etzanik, arpoiari jira-bira eragingo dio aragiari oldo eldu dakion.

Bereala bigarren arpoia sarmko dio, lenengoa aragiari itsatsita gelditzen bada ere, bi arpoiak alkarri lomta daudelako. Botatzen ez bada, bigarren arpoi orrek okerrak egiñ lezazke, balea sokatik tiraka asten danean.

Bi arpoiak uts egingo baluteke, orduan berriro asi bear da; lana, ordea, gaitzago eta zailago egingen da.

Bi bale agertzen badira, ama eta bale-kumea, au ill bear da lenengo; amak ez du alderik egingo umea utzita (5).

* * *

Bi arpoiek aragian sarm dira eta barruan gelditu. Baleak, alde egitean, txalupa darama bere ondoren, sokatik tiraka. Urpean murgildu da eta soka larga bear zaio. Larga ala, urarekin ondo buzti, erre ez dediñ, sokak krabatik pasa bear bait du (kraban eman diogu buelta bat) eta bizkor pasa ere.

Sokaren luzeroa baiño beerago ondoratzen bada balea, orduan, beste txalupa batek ematen dio soka geiago eta, orrela bi txalupak alkarri lomra gelditzen dira.

Bi txalupen sokak naiko luzeak ez badira, lau-kuadroko kaja utsa lotzen zaio, egurrezkoa, metro-erdi zabal, luze eta sakon. Kajauts onek resistenzia jartzen dio balearen iges-egiteari. Gaiñera, txaluparen izena darama; gero bale ori arrapatzen duenak, badaki zeïnek sarm dion lenengo arpoia. Eta, batez ere, balea nekatzen danean, ur-azalera aterako

(5) Bibliotheque Nationale, Paris ms. fr. 18176, fs. 4-6. Belanger: Op. cit 119 or.).

da kaja; kajatik soka bildu eta berriro balearen ondoren izango gera, balea illarte.

Gauzak oso oker jartzen diranean, eta kaja lotzerik ez bada, orduan aizkora txikiakin soka ebagi, txalupa ondoram baiño leen...

Gaua sartzean, farola pizm bear ardagaiaren medioz.

Geienetan balea itxumuskaka ibilli ondoren, geldim eta buztana aztintzen du arpoia atera nairik, eta, ilda dagoela eman arren, askoetan eriotzetik jeiki eta korrika bizian abiatuko da: ill-aurreko indarrak egi-ten ari da...

Arpoia sartu ondoren lema-zaia eta arpoilaria tokiz aldatzen dira. Arpoilariak txalupa zuzendu eta patroiak sokari begiratu, arria edo jasotzeko. Bitartean, aal bada, txalupa balearen ondora erakarri. Germra diranean, baleari buru-atzetik xaboliñak sartu-atera, biotza eta birrikak dauden aldetik. Ori lortzen badegu, baleak odol-aundiak ixuriko dim eta balearen azkena germ izango degu. Ori lortzen ez badegu, berriz, odol-txikiak izango ditu baleak eta odol-txikiekin nekez iltzen da bale-aundia...

Odol-txikietan gabiltzanean, balea dominatzeko, beste operario au egiñ bear: txalupa balearen atzetik inguram eta buztanak diman bi egoen artean sartu. Gero, pala edo aizkora-zorrotz-antzeko tresna kirten-luzedunakin, buztan-egoak ebagi baleari, aurrera joateko indarrak izan ez dezan. Lan orren arriskuak aundiak dirala zer-esanik ez dago.

Askoetan, balea urrutiraten da itxaso-barruan, eta gaua datorrenean, edo txalupa oso urrutiratu dalako, aizkora txikiakin soka ebagitzen dute edo kaja uretara bota.

Itxasoan eskapamtako balea inork ilko balu, edo ilda topam, iltzaille eta arkitzailen artean banatu bear dira irabaziak, iltzaillea agertzen bada eta bere arpoiak edo kaja esagum...

Bale-illari, buztanetik lotuta, lokarri bat jartzen diote, korapillo begidunakin. Isatza edo buztanaren egoen zabalak ez dio lokarriari ir- tetzen utziko.

Ondoren barku nagusiaren aldamenara eraman eta lotu.

TERRANOBA'KO BIDEETAN

"San Nicolas" galeoia prest dago Getaria"ko kaian, itxasora egiteko. Urtea 1566.

Joan de Espilla bere kapitana ibilli da Getaria'tik Zarautz'era, eta Zumaia'tik Itziarrera gizon-billa. Ogeta-amar gizonekin Bilbo'tik etorri zan eta aukeratu ditu falta ziran berrogetabostak.

Arpoilariak, batez ere.

Dozenerdi bat gutxienez bear zitun eta alik eta onenak topatu bear.

Bazeuden famatuak Getaria, Zarautz, Orio, Zumaia eta Deba inguruan. Bai Mutriku'n ere.

Arraunetan edozeiñek zekian. Arraunlaria billatzea erreza zan. Argiña ere bearrezkoa, labeak egiteko. Errementeri bat ere bai. Bala eba gitzeko gizonak, koipeak urtutzeko eta abar.

Langille-mota askoren bear.

Jan-edanak barruan dira. Usurbil'go sagardoa eta Getaria'ko txakoliña bart sartu dituzte barrura.

Gaur, Martzoak amabost, kapitanak ordena:

—Arria txikotak!

Erri osoa San Nicolas'eri agur egiten. Guraso, emazte, seme-alaba, lagunak... Guztiak or daude, moillatik agurka.

—Txalupak uretara!

Sei gizon txalupa bakoitzean, arraunak eskuetan. Bost txalupak, ogeitamar gizon arraunean. Eldu diote sokaz ontziari eta itxas-zabalera dijoaz arraunean. Txalupak jaso eta oial zuriak mastan gora zabalik. Gaur sur-esteko aizeak jotzen du, oialak bete. Egaka bezela asi da galeoi zaarra...

Badijoa aurrera itxasoaren erregea...

San-Anton muturretik egiten diote azken-agurra.

—Agur. Udazkenerarte. Jauna dezazutela lagun...

Urte batzuek aurrerago burruka gogorrak asita zeuden nazioen artean eta ondoren bezela, baita nazioarteko arrantzaleetan ere.

Prantzia eta Espaiña'k alkarren arteko burruka zeukaten. Espaiña'ko Erregaek "Real Cédula" bat bota zion Gipuzkoa'ri arazo oneri buruzkoa. Garagarrillaren 3'koa: bale-ontziak alkarrekin joan bear zutela eta itxasoko armadaren ardurapean. Gipuzkoa'ko Billera'k onela erantzun zion Erregeari:

Naiz eta 200.000 dukat gastatuak izan, naiago zutela joateari etsi

eta utsi, gerra-itxuran joatea baiño. Ala, Antonio de Abadia bialdu zuten Erregearengana, artutako erabakia desegiteko eskatuaz...

Bakarrik badijoaz ere ondo armatuak bai badijoaz. Sei kañoi aundi ditu gure galeoiak. Eta amabi txikiagoak. Arkabuz, baillesta eta bestelako arma-klase guztiak...

Alkarri lapurretan egiten diote itxas-gizonek.

1555'an, Urrillean, udazkenean, Terranoba'tik barkuak itzultzeko illean, Donostia'n Junta Generalak dira. Martin Cardel, donostiar kapitana berriak ematen ari da Erriko agintarieri. Gipuzkoar kapitanen artean 42 ontzi pratzez arrapa dituzte Terranoba'n, bakaillauz beteak eta bere artilleri osoakin.

Juan de Erauso, Juanes de Lizarza, Miguel de Iturain eta Pablo Aranburu'k amabi ontzi prantsez arrapatu zituzten Terranoba'n bakaillauz beteak.

Aranburu kapitan donostiarra zan eta ontziaren nagusia. 400 toneladako ontzi batean 300 gizaseme zeramazkin... Arrantzarako naiakoak ziran berrogeitamar. Beste guztiak zertarako, lapurretarako ez bada...?

Bi urte beranduago, 1557'ko apirillean, Erregeak beste agindu au eman zuan: ez zedilla iñor Terranoba'ko biderik artu bere baimenik gabe. Gipuzkoa osoa protesta bizian jarri zan. Berriro agindua, ontziak taldeka joateko eta gerra-barkuakin.

Bi agindu oien aurka jeiki zan Gipuzkoa: naiago zutela bakoitza bere kontura joan eta bear ziran arriskuak jaso, guztiak moltsoan eta sardan joatea baiño.

Protesta auek erakarri zuten Erregea asierako esanetara: joan zedilla baloitza al zuan eran, armakin edo arma gabe.

Aurrerago eta gauzak gaiztoago. 1587'an Felipe II'nak agindu berria: ondo armatuta joan bear zala Terranoba'ra, La Rochelle eta Ingalterrako barbu askoek lapurretan egiteko asmoa zutelako.

Gure San Nicolas ondo armatuta abiatu da Terranoba'ra.

* * *

Aizea popatik eta laister ikusi zuten Santoña. Ondoren, Santander. Egun gutxi barru utzi zuten atzean Galizia'ko Finisterre aizken-muturra. Andik aurrera, itxaso-uts-borobilla... Ura alde guztietatik.

Oker aundirik ez zuten bidean izan. Legorreko mariñelen mareoa ez bada; beste guztia, ondo zijoan.

Etsairik gabe eta eguraldi onarekin, apirillaren erdirako eldu ziran Arkadia eta Terranoba arteko pasadizora. Nora dijoaz?

"Euskaldunen islara": Mikingo'ra.

Mikingo (bertakoek ala esan oi zioten) ugarte txiki bat da: bi kilometro luze eta zazpireun metro zabal. Barku aundi bat bezelatsu.

Defenditzen ez zan gaitza eta Espillak eta bere beste kapitan lagunek bertan arkitzen zuten lanerako egoitza eta babes-lekua. Iru labe zeuden bertan gutxienez eta iru labeek lan asko egin lezateke... Bertan biltzen ziranak alkarren lagun ziran eta alkar defenditzeko prest zeudenak.

Iru labe zeudela esan degu, irurak Kanada'ko Gobernuak arkitu ditulako. Bear bada, egongo ziran geiago ere... Geroak galtzen ditu gauzak...

Arazo onetan gauza bat dago garbi ikusten dana eta auxe da: isla artan euskaldunak lan egiten zutela. Eta, eurak bakarrik lan egiñ ere. Ortik datorkio ugarteari bere izena: Ile-aux-Basques = Euskaldunen ugarte.

* * *

Millaka euskaldun zebillen inguru aietan, kai eta ondartzar gordeak ugari bait zeuden nun-nai.

Barku batek kai bat aukeratzen duanean, bere lenengo lana izaten da, bertan enbor luze bat jasotzea, barkuaren izenakin eta etorri diran egunakin. Besterik ez da an sartuko, gerratean ez bada.

Ondoren, txabola luze bat egiñ bakaillaua eta koipeak maneatzeko. Eta, gizonentzako aterpea. Egurrezkoak. Bertako zurakin egiñak.

Piñata edo piñu mee-luzeekiñ egurrezko moillan antzeko bat jaso, legorretik txalupara eta txalupatik legorrera ibiltzeko, ibaietan egiten dituztenen antzera.

Beñ ara ezkeroz, bertako jendeakin artu-emanetan jartzen dira. Oitura ori asiera-asierakoa euskaldunen artean. Bertakoak arriaroko garaian bizi ziran oraindik eta Europa'tik eramaten zituzten tresna eta lanabesak, oso aurrerapen aundia zan aientzako. Gauza guztiak, baiña, batez ere, burni-tresnak. Indioek maite zituzten euskaldunek eramaten

zieten aizkora, aisto eta abar. Oien truke eurak narruak ekartzen zituzten, kastor-narruak; ugari bait zituzten beuren lurraldeetan.

Labrador deritzan peninsulako eskimalekin ez ziran aiiñ ondo konpontzen. Asarre ere ibilli oi ziran. Azken aldian oso asarre ere bai.

Bestelako indio-mota guztiekin oso artu-eman onak izan zituzten beti. Beste batzuek joaten ziran ara, euskaldunak ez ziranak; baiña, indioekin tratotan besteak ez zuten abantailla zuten euskaldunek. Ona zer: lenengo ara agertutakoen artean euskaldunak zirala. Euskaldunek ez zirala ara kolonizatzerara joan... Artu-emanetan ibilli ziran beti adiskide eta euskeraz ere erakutzi zieten zenbait esaera.

Beste nazioetako arrantzaleekin egin zituzten burruketan, beti indioek euskaldunen alde joka oi zuten, laguntza emanaz... Pake garaietan, berriz, euskaldunekin lan egiten zuten...

* * *

Indioek euskal arrantzaleen zai daude. Neguan eizean ekin dute, kastor-narruak arrapatzen. Udaberria eldu da eta barkuen zai daude aspalditik.

San Nicolas ontziaren oial zuriak ikustean, Mikingo aurrean dauden kai eta ondartzetan indioek agertu dira txalupeen zai Aizkorak, aistoak, zulakaitzak, azagaiak eta tresnak ugari; baita ardoa eta sagardoa galletekin eta ogi zuria, dakarte euskal txalupek.

Azoka ordartzan antolatu dute. Kastor-narrurik ederrenak indioen eskuetan. Laister izango dira guztiak San Nicolas'en bodegetan.

Bazuan narru arazo onek bere garrantzia urte aietan, askotan aiatu ez bada ere gure kondairan. Esana daukagu, Labrador'eko eskimalak ez badira, beste indioek artu-eman paketsuak izan zituzten euskaldunekin. Auek Terranoba'ra arrantzara eta tratura bakarrik joaten ziran; ez lurralde aiek menperatzera. Udaberrian agertu; udazkenean joan. Bitartean, indioentzako aberastasun aundiak ziran tresnak eta gauzak ekarri. Indioentzako pozgarria zan euska'dunen etorrera eta, besoak zabalik, artzen zimzten beregan.

Urtero etorri; urtero joan. Pake sanman.

Narru-tratua ugaritu zanean, ontzi batzuek narrutan bakarrik joaten asi ziran.

Bai konpetentzia sorm ere.

* * *

Arazo onek beste bi itz merezi ditula usten dut.

1606'an burrukak ziran eukaldun eta prantsez merkatarien artean. Auek, urte artan, atzeratu egiñ zuten beuren etorrera eta Nouvelle Ecosse'ko indioek neguan bildutako 6.000 kastor-narru euskaldunek erosi zituzten denak. Prantsezak Bere Erregearengana jo zuten protesta bizian. Idazten zioten, euskaldunek erosi zimztela narru guztiak aizkora, aisto, ispillu, sagardo eta artopillen truke...

Merkatu orretan euskaldunek izan zituzten etsairik gogorrenak La Rochelle, Bretaña eta Normandia izan ziran. Baita narru-merkataritzan asi ziran, beste prantsez batzuek ere.

* * *

San Nicolas'en mariñelak indioekin trataoa bukatu dute. Narruak barruan dira eta orain beuren lanera dijoaz, ez bait dira Terranoban'ra narrutan etorri, bale-arrantzan baizik.

BURRUKAK

1553'an Ekainak 3, Gipuzkoa eta Bizkaia'ko ontziek agindua artzendute Espaiña'ko Erregearen aldetik, bakarka Terranoba'ra ez joateko, alkarrekin bilduta eta gerra-barkuen ardurapean...

Espaiñaia Prantzia'kin dabill asarre burruka-bizian. Prantsezak, etsai.

Ez dutela agindu ori bete nai, izan zan Gipuzkoa eta Bizkaia'ren erantzuna. Naiago zutela bakarka joan...

1556'an, iru urte beranduago, Apirillak 21, ez dedilla ontzirik Terranoba'ra joan kañoirik gabe. Felipe II erregeak agintzen du.

1587'an, bi agindu dira bata Martzoaren 23'koa bigarrena Apirilaren 25'koa: Terranoba'ra ondo armatuta joateko, alegia.

San Nicolas ikusi degu (Espilla'ren ontzia) 18 kañoiekin eta gaiñera gaiñerantzekoak (arkabuz, baillesta, ezpata eta abar). Ba ziran agindu auetarako arrazoi-bide bereziak, nazioarteko burrukak itxasoraño eltzen bait ziran, Terranoba'raño. Toki au toki aberatsa izanik, lapurre-

tarako aukera-aukerakoa zan. Gerraren aitzakiakin eta gerraren babesean, lapurretak mundu zabaleko baztarretan. Gerra guztien ondorena.

* * *

Terranoba, Kanada, Groenlandia, iru oiek lurralde berriak dira, Amerika osoa bezela. Berria europarrentzako, alegia; bertan bizi ziran indioentzako zaarra zan Amerika osoa.

Euskaldunek izan ziran asiera-asieratik ara jo zutenak arrantzarako. Gerorago etorri ziran besteak. Belanger, kanadatar jaunak, ala dio bere idaztian. Onela jarraitzen du berak (159).

Arkeolojiatik, tokien euskal-izenetatik, indioen arteko euskal-itzeetatik, bertako jendearen arpoia-jotzeko modutik, gauza guzi oietatik ateratzen da euskaldunaren arrastoa Kanada'n.

Labe eta txabolen erreusak asko dira eta geiago billatzeko bidean jarriak daude Kanada'ko jakintsu aztarlariak.

Ez da arritzeko, euskaldunak lenen etorri baziran, eurak euskeraz jartzea izenak emengo tokieri. Gerora etorritakoak, beste era batera izenak jarri arren, oraindik irauten dute euskaldun-kutsuzko izenak edo ta euskaldunak aitatzen dituzten izen-tokiak: Pointe-aux-Basques, Anse-aux-Basques, Ile-aux-Basques eta abarrek... Euskaldunak indioekin euskeraz jardun izan zuten, euskera erakutsiaz; baita indioen izkera ikasiaz ere. Angoekin naastuta ibilli zirala esaten dutenak ez dira paltak. Eta eskimaleen aita euskalduna izan za'la esaten dutenak ere badira Kanada'n...

1689'an andik Euskalerrira etorri ziran, Baiona'ra, arpoilarien billa, ara eraman eta bertakoeri arrantzan erakusteko. "Euskaldunek erakutsia ondo erakutsia izan zan, noski; teknika ura oraindik dirau, batez ere Excoumins jendearen artean..."

Auek denak esaten ditun Belanger jauna, Kanada'ko semea da, Excoumins oien artekoa. Zer esaten duan badaki.

Gauza auek ala izan-da ere, politika-bidetik sartu ziran lurralde aietan Ingalterra, Prantzia eta Dinamarka. Iruen artean ango lurralde guztiak menperatu zituzten:

Kanada, inglesentzako;

Terranoba-ingurua, prantsezentzako;

Groenlandia, danesentzako.

Eta, euskaldunentzako, zer...? Espaiña'ko agintariak bazuten nun

burrukan egiñ Mexiko'tik asi eta Chile'raiñoko lurralde guztietan. Euskaldunak gelditu ziran beuren toki aietatik kanpora botreak. Kalean.

Protesta guztiak alperrikakoak izan ziran.

Bakoitzak bere aldetik egingo du burruka, eta indarrez; baiña, aizkenean, lan guztiak, burruka guztiak alperrik... Norberekeriak galdu gaitu beti. Bakoitza bere aldetik. Etxearen jaun da jabe. Barkuaren errege. Askatasunaren gose-amorratua beti barnean. Ez gera sekula alkartu ezertako ere...

Beste aldetik, berriz, indioen askatasunari begirunea izan zioten beti. Aien askatasunaren aurka ez zuten ezer egiñ, eta orrek goratarrea merezi du.

* * *

1598'an, Prantzia eta Espaiñiak egin zuten alkarren arteko pakea (Vervins'ko Ituna eta Nantes'ko Editoa, biak illebete aldeakin atereak, izan ziran pakearen asiera). Une artan amaiera eman zioten prantsezak anai arteko beuren burrukeari...

Henri IV zan Prantzia'ko Erregea (Henri de Navarre); gaskoiña eta euskaldunen lengusua. Ameriketan, Guyene'ko Probintzian Gobernadore izana eta itxasoarekin oitua. Bazuan beregan itxasoko arnasa eta euskaldunenganako begirune eta errespetoa. Bere Erreinoan ordena apur bat jarri naiean, ordezkokoak bidaldu zitun Kanada aldeko inguru guztietara.

Ordezko aukerak, bere agintaritzaren medioz, ez zuten ordena jartzen bakarrik egiñ eta askotan gertatzen dana gertatu zan an ere: ordena jartzeko aitzakiaz menpekoen askatasuna galdu arazi... Artu-emanetan, sal-erosketan ba zan libertadea eta orixe galdu zan. Bitartean, euskaldunak andik bota eta inguru aiek arrantzarako itxi...

Burruka zetorren.

Eun urte aurretik euskaldunek libertade osoan egin zuten arrantza San Lorenzo-ibaiaren ao zabal osoan, eta ez zuten gauzak bertan-bera utzitzeko asmorik.

1603'an, Henri IV Erregeak Pierre de Gua (Monts'eko Jauna) aukeratu zuan, Kanada inguruetan, Prantzia'ko interesak defenditzeko. Akadia peninsulan, "Euskaldunen-Isla" dagoen lurraldean, bete bear zuan bere zaindaritza.

1604'an, Otsaillak, 10, agintariak berak sortu zuan arrantza eta

merkaturako konpañi bat. "De Monts" jarri zion izena. St. Malo, La Rochelle eta Ruen, iru portu oietan topatu zuan bere laguntza Konpañia berri onek. Iru portu oien artean lau ontzi antolam bear zituzten. Doniane Loitzun'ek, berriz, bat: au, bale-arrantzarako.

De Monts Konpañiak, bere nagusi Agintariak zimm eskubideak artu zitun. Akadia'ko agintaria zan Pierre de Gua, Monts'eko Jauna, eta bere Konpañia ere Akadia'n nagusitu zan eta indioekin merkatua egiteko eskubide guztiak bere gain arm, beste guztieri kenduta gero... Baiña, ez ziran Akadia'rekin bakarrik konforme gelditu. Gero, bere Jaunaren indarraren babesean, San Lorenzo ibaiaren ao-zabalean zabaldu zuten beuren agintaritzza.

Baiona, Doniane eta Ziburu aldeko arrantzaleak ez zeuden batere pozik, eta Erregeari, kezka betetako protesta bat idazten diote. "Facmm" du izena idazti orrek. Bertan esaten zaio Erregeari, berak bialdutako De Monts jauna, Akadia'tik Quebec (Kanada) aldera pasa ditula bere agintaritzza eta eskubideak, beste guztien eskubideen kontra... 1604'an Lesquemens, Saguinay eta Tadoussac aldeko kaietara eldu dala... Euskalduneri oker aundiak egin diela, eta beste askoeri ere bai... Toki oietan ez dala kolonirik geldim, bada-ezpadako lurak diralako edo eta ez dirala geldituko ere... eta toki aietan, eurak, eusakaldunek pake santuan egin dimztela arrantzak betidanik... Gaiñera arrantza ori iru illebetean bakarrik egiten dala... Eskariak auxe eskatzen du: Jaun orrek kendu ditzala beure ontzi eta gizonak Kanada eta Saguinay kostetatik... (6).

Gipuzkoa eta Bizkaia'ko jendeak beste era batera jokatu dute:

1607'an, iru urte De Monts'en Konpañia fundam ondoren, 6.000 kastor-narruekin zetorren Gobernadorearen ontzia, "Le Jonas" zeritzana, arrapatu diote Akadia aldetik...

1609'an, Factum orren ondoren, beste eskabide bat bialtzen diote Erregeari Baiona, Doniane Loitzun, Ziburu, Urruiñe, Hendaya eta beste Lapurdi osoko agintari eta erriek: askatasuna eskatzen dute arrantzan egiteko eta merkatzeko Kanada eta Akadia guztian (7).

(6) Bibliotheque Nationale, Paris m. fr. 16738. f. 143; Mairie de Saint-Jean-de-Luz; dossier-EEA, 111 pieces; Baudry René et Robert Le Blant: "Nouveaux documents sur Champlain et son époque". Vol. I (1560-1622). Ottawa, Archives Publiques du Canada. 1967. (Belanger: Op. cit. 120 orri).

(7) Bclanper: Op. cit. 89-90 orri.

Erregearen erantzuna: baietz, baiña De Monts jaunari ontzi ba-koitzeko, kargaren neurrian, ordaiñak emateko.

1620-21'an, Konpañia berri bat sortu Caen'errian "Compagnie des Sieurs de Caen" edo "de Montmorency". Guillaume eta Emery, osaba illobak jarri zituzten Konpañiaren buruzagi. Biak protestante-hugono-teak ziran. Erlijio-burruka itxuak aurrera eramatea beste pentsamentu-rik ez zuten beuren buruetan. Laister izan zuten euskaldunek ezbearra: Terranoba'tik zetozten Martin Sopite, Joannis de Arretche, Martin de Arretche, Miguel de la Ralde, Martin Dachepto (ziburutarra), Joannis de Laobillague (d'Arranbillage), Martin de Hirigoyen, Pierre Garat, Jacob Mucheron (Doniane'koa). Azaroa eta urtea 1621. Arrapa zituzten Konpañi sortu-berrikoek eta Dieppe'ko kartzelan sartu euskaldun guz-tiak, Abenduaren 31'arte. Urte berriakin libratu dituzte; baiña, erabaki arte, ontziak eta arrantzak kendu dizkiete. Terranoba'tik zetozten bakoi-tza bere ontzian.

1622'an, Maiatzak 1, Erregearen agindua: Konpañia Montmorency berriro eratu, eta lengo Akadia eta Kanada'ko "De Monts" konpañia zaarreko bazkideeri eskubideak eman berri onetan sartzeko. Prantzi-Berri'ko, eskauldunen-arrantza-leku aietako alegia, merkatu guztia beuroen esku bakarretan uzten zien Erregeak, 15 urterako.

1622'an, Apirillak 29: Erregearen agindua Caen'go Guillaume eta Eeta Emery'ren kontra: kendutako ontzi eta merkantzi guztia biurto deiela Martin Sopite ete bere lagun kapitanei... Gaiñera, 2.000 libra egindako okerragaitik.

1624'an, Apirillak 19, Donianeko Agintariak Erregeari eskabidea: kendu deiola Konpañia "Montmorency"ri eman zion eskubideak (osoak eman bait zizkion beste guzien kaltean) euskaldunen eta betiko eskubi-deen kontrakoak zirelako.

1624'an (amasei egun beranduago) Mayatzak 4, Erregearen agin-dua "Montmorency" konpañiaren kontra, Doniane'ko eskabidea artu ondoren, emana.

Andik berrogeitamalu egun: 1624'an, Ekainak 27. Doniane'ko euskaldunek "Montmorency" Konpañiaren aurka egindako eskabidea ukatzen dute Paris'en (8).

(8) Belanger: Op. cit. 78 orri.

Politikaren jokabidea orrelakoa izan oi da: lenengo eman, gero kendu; lenengo baietz, gero ezetz... Euskaldunek arrazoa, besteek in-darra...

* # *

Besteen merituak gutxietsi gabe (dio Belanger kanadatarrak) ordua da euskaldunak argitara ekartzeko; batez ere XVI'garren eunkian egiñ zuten lanagaitik. Urteero agertzen ziran, Udaberrian. Lenengo lana izaten zuten talai-gizonak mendi gaillurretan jartzea Euskalerrian egiten zuten antzera). Gero, txabolak jaso eta bakaillaua eguzkitan legortzen jartzeko egurrezko tresna bereziak. Ez ziran lur-billa zebiltzen esplora-doreak, ez eta lurrearen jabe egiñ nai zuten koloniak. Naiz eta, lengua-jea ikastearren, negua batzuetan bertakoekin igaro, beuren saioak udarakoak izan oi ziran bakar-bakarrik. Gauz auk bide dirala, bertako indioekin arm-emanetan jarri ziran asiera-asieratik adiskidetasun ederrean, eta lagun bezela iraun zuten, eurakin narru-tratoan; burkizko tresnak ekartzen zituzten narruen truke... (9).

Eskimalen aita euskalduna izan zala dioten idazleak badira Kanda'n bat baiño geiago. Alaz ere, 1610'an oso asarratu ziran alkarrekin eta asarre orrek eun urte iraun zuan (XVII'garren eunki guztian, alegia). Burruka-asieraren errua euskaldunek izan zuten, eskimal buruzagi baten andrea arrapatu zutenean. Eta erru ori ez zieten eskimalek euskalduneri sekulan barkatu (10).

1635 urtearen inguruan, euskaldun Martin Sopite kapitanak, balekoipea ontzi-barruan, barkuan bertan alegia, urtutzeko labea asmatu zuan. Arrisku aundia zan, barruan koipeak urtutzea; baiño, legorrean egiteak arrisku aundiagoak zekarren eskimalen asarreagaitik. Bale-Baya portutik beera, egoaldera zebiltzan euskaldunak, Labrador partetik, eskimaleen erasoak jaso bear. Indioek euskaldunen txabolak erre eta bertan lan egiten zuten gizonak iltzen zituzten... Ortik sortu zan, itxas-ontzietan bertan, koipeak urmtzeko oitura eta era.

(9) René Belanger: Op. cit. 89-

(10) 1554'an Gipuzkoari bnimena ematen diote bale-aragia, sardiñak eta bakaillaua Prantzia'ra eramateko beste jateko bat?uen truke... 1584'an 50 ontzi datoz Doniane Loitzun'etik Donostia'ra arraiña saltzera... (Belanger: Op. cit. 144-145).

Arrisku berbera jaso bear zuten bakaillaua sikatzen zebiltzetanak Orregaitik, aal zutenean, erri-esiz inguratzen ziruzten lan-tokiak. Edo, bestela islatxo bat aukeratu, edo defenditzen errezak ziran kaiak aukeratu.

Orregaitik barkuetan bertan koipea urtutzeko labeak asmatu zitun Sopite (Zubita) Ziburu'koak. Bere ontzia "Basquaise" izeneVoa. Labe oiegaitik ontziak erre ere egiñ ziran bat baiño geiago. Barruan koipeak erre aal izateko, balea-ebagitzeko teknika ere aldatu egin zuten. Balea barkuaren alboan lotu. Azal zatiak tiraka kendu, burutik asi-ta, buzta-reraiño, legorrean egiten zan antzera; baiña, tiratzeko sokak masta-muturreko poleatik pasa... Orrela, bale aundietan, zatiak masta-muturreraiño luzatzen ziran.

* • •

Artxiboak aztartu ditut (dio Belanger kanadatarrak) eta iturriak uste baiño ugariagoak dira (Doniane Loirzun'en); Espaiña'koak, berriz, ez dira oraindik agortu.

Terranoba'ko papel zaarrek "español"-ontzia esoten dutenean, geienetan "euskaldun" esan nai dute, Bizkaia edo Gipuzkoa'ko ontziak, alegia. "Euskaldunak" diotenean, berriz, ez da garbi ikusten zer mugalaldetako euskaldunak diran (11).

BESTE ERRI ASKOREN MAIXU

Euskaldun arrantzaleak Terranoba, Kanada eta Groenlandia'ko bideak ibilli oi zituzten. Bada, oso goian, Polo Artikoaren inguruan, isla

(11) Archives Municipales de St-Tean-de-Luz dossier EEA. "Mairie de Saint-Jean-de-Luz (Basses Pyrennees): Piasentia'ko portuan sartu-irtenak egiteko askatasun csoan beti egin duten bezela... "mezme de la chaise des Balaines au Nord de laquelle ils se pevvent vanter les Inventeurs et n'avoir aujourd'hui que quelques Holandois pour participans de ce secret qu'ils furent contraints de leur donner, a fin de pouvoir aller plus seurement au Nord a la ditte chasse et font des huiles en pleine mer. au grand estonnement de toutes les nations, pour les grandes risques qu'ils y curent..." (Au dokumentuaren zati bat da; seillu bat du goi-partean onela diona "Mairie de Saint Jean de Luz (Basses Pyrennees). (Belanger: Op. cit 81-82 orri).

multso bat, Spitzberg izena duna. Terranoba ingurutik balea alde egiten asi zanean, orduan, oso berandu, arkitu zuten Spitzberg.

Alaz ere, 1613'an, Spitzberg'era bidean ziran bi Doniane Loitzun'eko ontzi: bata "La Grace de Dieu", 600 toneladakoa, oso aundia, Miguel Haristeguy kapitana, eta bestea "Les quatre fils Aymon", Miguel D'Etchepare kapitanaren ardurapean.

Euskaldunek arrantzan, batez ere bale-arrantzan zebiltzen artean, beste nazioetako itxas-gizonak lur-berri-billa zebiltzen, esploradore, gero lur oiek menperatu eta kolonizatzeko.

Baiña, lan orretan dabilzala, euskaldunen jarduna ikusi zuten. Kuzitiak eraginda, eurak ere arrantzan asi ziran. Orduan, Siptzberg'era joanik, arkitu berri zuten-da, probetxurik ateratzen ez zuten, lana ondo egiten ez zekitelako.

1578'an, arrantzaleak bide berrietan zebiltzela, jo zuten Spitzberg'era. Urte orretan edo ondoren, inglesak Doniane Loitzun'eri laguntza eskatu zioten; bialtzeko Inglaterrara, alegia, bale-arrantzale iaioak, maixu bezela, erakustera. Ingalterra, Holanda eta Dinamarka'ra joanak omen.

Holandesak euskaldunen aotik zuten Groenlandia'rako bidea, Davis itxas-pasaera-estua, baleak arrapatzen, saina urtutzen eta koipea fintzen.

XVH'an 50 edo 60 ontzi euskaldun joan oi ziran Groenlandia'ra bale-arrantzarako. Holandesek ere nai izan zuten aberastasun ura aprobetxam; orretarako euskaldun arpoilariak eta txalupa-maixuak eraman zimzten beurokin, kapitana aiñeko guztiak bere mendean jarririk (euskaldunen mendean, alegia).

1927'an "Pysbe" k bretoiñak ekarri zitun Euskalerrira, bakaillau-arrantza erakustera. Auek ere, kapitana aiñeko guztiak, beuren mende arm zimzten.

1611'an bialdu zuan Ingalterra'k lenengo aldiz pulamentuzko bale-arrantzarako barkua. Jonas Poole zan kapitana eta berekin iru arpoilari euskaldun eta beste iru txalupa-maixu, euskaldunak auek ere, eraman zimn. Seirak oso iaioak.

1611'an "Compagnie de la Moscovie" zeritzan bale-arrantzarako ruso-ingles elkarteak sei arpoilari euskaldun eraman zimn Doniane Loitzun'etik. Auek ziran arpoilarien izenak: Jean de Bacogne, Jean de

Aguirre, Martin de Karre, Marséne de Morizada, Dominique de Sarria eta Adan de Bellecke.

1612'an, Holandar Muyden jaunak amabi euskaldun daramazki bere ontzian Spitzberg'era: iru arpoilari, iru txalupa-maixu eta sei gizon balea ebagi eta seina urtutzeko.

1612'an, Spitzberg'en ingles barku bakoitzean amabi euskaldun zeuden: iru arpoilari, iru txalupa-maixu eta beste sei balea maneatzeko.

1614'an idazte du A. Thomazzi jaunak, auxe: Ifarraldeko itxaso-etarako bale-ontziak prestatu zituztenean (holandesek) euskaldun asko ("grand nombre des Basques") ekarri zituzten arraiñ-aundien arrantzarako.

1616'an Ingalterra eta Holanda'k ez zuten probetxu aundirik atera bale-arrantzatik eta Gipuzkoa'ra idazten dute laguntza eske. Merkatarien bidez, arpoilari, txalupa-maixu eta mariñelak erbestera iges egiten zuten, euskaldun agintariak ori oso debekatuta euki arren.

• • •

Debekatze ori aurretik zetorren.

1608'an, Errenderia'ko Sindikoak eskabide au egiten die Agintariari: euskaldunak estranjeriako ontzietan enrolatzea debekatzan duan agindua bada, eta bete bedi. (Colección Vargas-Ponce).

1613'an, Martzoak 22, idatzitako karta bada Martin de Arostegui sekretarioak idatzia (Colección Vargas-Ponce). Karta orretan, ingles-baie-barkuekin itz emanda dauden mariñelari, bere asmoa bete aal izan ez dezaten, eragozpenak jartzeko baimena ematen du.

1614'an, Martzoak 4, Naparroa'ko Agintari Nagusiak Flandes, Holanda eta beste estranjrietako bale-ontzietan mariñel euskaldunik enrolatzea debekatzan du. Eriotza zorretan agindua betetzen ez duanari...

1614'an, Martzoak 9, bost egun beranduago, Mutriku'ko alkateak, eriotzaren zorra leguntzen du: 50.000 marabedikoa izanen da zorra eta zigorra, gaiñera lau urte arraunean jardun bearako dute soldatarik gabe...

Euskaldunek etxe-kalte ibilli ziran, euskalerrietako bale-arrantza era bat ondoratu arte:

"Txin-txin txin-txin
dirauen otsa,

orrek ematen dio, maitia,
biotzean poxa...".

Diru-zaletasuna aundiagoa beste arrazoi-bide guztiak baiño. "Bakoitzak berea...". "Neu ondo izan ezkeroz, bestek, or-konpon...".

Gero, ondorenak, alakoak.

Eun urte geroago ere, oraindik euskaldunek estranjerietako bar-kuetara jotzen zuten.

1728'an, Abenduak 18 eta 1729'an, Abenduak 10, Erregearen aginduak datoz berriro, debeku zaarrak berritzen.

1732'ko notiziak daude Ondarrabia'ko artxibuetan. Bertan esaten digutenez, kapitan, txalupa-maixu, arpoilari edo mariñelak estranjerietako ontzietan joatea, ori askoetan debekatu zala...

• * *

Euskaldunek arrantzan zebiltzan artean, beste nazioak lur-berribilla zebiltzen, esploradore. Au aurretik agertuta daukagu; baiña, xeetasun geiagoz esan ditzagun gauzok.

1492'an, Kolon'ek Ameriketako luurak argitara ekarri zitun.

1493'an, urte bete beranduago, Alejandro VI'k, Maiatzeren 4'an, mundua bi zatitan egiñ eta bata Españaia'ren eskuetan eta bestea Portugal'enetan jarri zitun bi zatiak.

Ez ziran igles eta holandesak gustora gelditu mundu-banatze orrekin. Errespetoa bazuten, ordea, bildurra ez-ezik eta, beartuta bazan ere, onartu zuten erdibitze ori.

Erdibitze orren barruan sartu ez baziran, bere egaletan ibilli ziran, orratio.

1497'an Txina'rako beste bide berri baten billa asi ziran ingles eta eta ho'andesak, Ifarraldatik. Baiña, izoztutako itxaso aietan ez zuten biderik arkitu. Ez eta beste ezer onik ere. Ori bai, euskaldunak arrantzan, orixe aurWtu zuten paraje aietan. Bale-arrantzan, alegia.

1578'an, ia eun urte beranduago, billa dabiltzetela, Groenlandia'kin topo egin dute... Egiñ-alak eginda ere, Txina'raVo biderik ez zan arkitzen inñundik. Izotza lurretik, izotza itxasotik... Geiago, Zer...? Narruak eta arraiña. Orra bi gauza.

Ingleseri buruz ari gera.

Besterik ezean, narru eta arraiñaren billa astea erabaki zuten. Ordukoak dira inglesen euskaldun-ondoren ibilli-bearrak.

Holandesekin beste orrenbeste gertatu zan: Txina'rako bidean dabilatzatela, Spitzberg'era eldu dira.

* * *

XVI eunkiaren azken-aldera Terranoba'rako joera moteltzen asi zan Gipuzkoa eta Bizkaia'n. Arrazoiak? Bat baiño geiago, beti oi dan bezela mundu onetako arazo guztietan.

1598'an il zan Espaiña'ko Felipe II erregea eta nazio guztia argalduta zebillen. Alde batetik petxa aundiak jaso bear zitun arrantza onek; bestetik, berriz, ontzi eta gizonak erregearen serbitzurako eramaten zizuten...

Etxean oiek orrela zirala, etxetik kanpoia, itxasoetan burrukak eta kompetentzia nun-nai.

1585'an Rouen'goak asi dira Terranoba bidean, narru-merkamrako "bretoiñek eta euskaldunek aspalditik egiten zuten antzera...". Erri bat geiago, kompetentzirako.

1607'an, San Lorenzo ibaiaren txoko guztietan (euskaldunek ain maite zituztenak eun urte aurretik eta gero ere) sartu dira holandesek.

Burruka eta kompetentzia alde guztietatik.

Beti bezela, euskaldunek bakoitza bere aldetik dabil. Ingles eta holandesak, berriz, alkarte aundiak sorm dituzte bale-arrantzarako, aberastasun arreri zegokion eran. Aberastasun aundiak ikusi bait dituzte euskaldunen eskuetan...

Ordurarte euskaldun bale-arrantzaleak askatasun osoan ibilli oi ziran, beuren arrantzak nai zimzten lekuetan egiten. Baiña, Konpaiñi aundi auker agerm ziranean, lenengo-ta-bat, lurraren jabe egiten ziran, erregearen izenean eta serbitzurako. Beñ lurraren jabe egiñ ondore, bere nagusitasuna agertzen zuten itxasoan ere...

Akadia'ko Gobernadoreakin izan zimzten burrukaldiak ikusi dimgu. Aurrerantzean euskaldunentzako Ingles, Holandes, Ruso eta Dinamarca'ko ontzi-konpaiñi guztiak sormko dituzte ezbearrak eta eragozpenak. Euskaldunek erakutsi zieten arrantzan eta ikasietan gero, euskaldunak kanporako izan ziran. Toki guztietatik bota zimzten. Euskaldun salatarien jokabidea ez zitun ondorio ederrak ekarri Euskalerrarentzat...!

Eragozpenak sortu ala, kutizi aundiagoa Euskalerritik kanpora joateko; estranjeritik jasotzen bait zituzten irabazi errezenak. Beste aldetik, berriz, zenbat eta euskaldun geiago estranjerira joan, ofizioerakustera alegia, ainbat eta gauzak estuago euskaldun arrantzaleentzat...

Zulo orretatik atera eziñ. Emen gaizki gaudelako, kanpora joan; kanpora joanakin bertokoa gaiztotu...

* * #

Gauzak okertzen asten diranean, erabat okertu arta ez dira gelditzen. Eta, euskaldunen arrantza-arazoa okertzen asita zegoan aspaldi.

Balea bera ere euskaldunen artetik igesika asi zan. San Lorenzo-ibaeko kaietatik eta ingumari guztietatik alde egiten du itxaso zabalera. Itxaso aiek, ordea, ingles eta holandesen eskuetan zeuden. Groenlandia eta Spitzberg eurak arkitu izan zituzten; lurraren jabe egiñ ere... Euskaldunen laguntzarekin, bale-arrantzarako eratu ziran, Lagunarte aundiak eraiki ere artarakoak. Gero Konpañi oiek nagusi agertu ziran eta beste arrantzale guztieri eragozpen gogorrak jarri ere. Baleak Terranoba'tik alde egitea eta ingles-holandes-danesak bale-arrantzan astea, bi gertakizun oiek batera izan ziran eta oker aundiak ekarri zien euskalduneri...

1612'an itxas-ontzi euskaldun bat eldu zan Groenlandia'ra (70° 30") eta an ikusi zutena, ikustekoa zan: balea zegoan itxasoa estali.

1613'an, urte bete beranduago, berri onak azkar zabaltzen dira-ta, Donostia'tik bertatik amar ontzi abiatu ziran Groenlandia'ra. Beste kaietatik, besteak... Holandes eta prantsezak ere baziran, bale-ugaritasunaren deia joanak. Baiña, "Moscovia-Company", bi urte aurretik arpoilari eta txalupa-maixu euskaldunak eraman zitun konpañiak, zazpi gerra-barku aundi bialdu zitun Spitzberg'era, Groenlandia'ra. An zebiltzen bale-ontzien tresna eta koipeak kendu eta bota zituzten andik. "Moscovia Company" inglesa zan, rusoeekin bat eginda,

1614'an, amalau bale-ontzi holandes, iru gerra-barku lagun zituztela, etorri ziran Spitzberge'era eta inglesek pasatzen utzi zieten.

Euskalduneri, berriz, ez.

Aurrera ez zan geiago pakerik izango. Gerra itxaso guztietan. Gure koplaz zaarrak emen du bere giro egokia:

"Jeiki! Jeiki! Euskaldunak
laister dator eguna,
laister dator eguna.
Sorkaldetik ageri da
holandesar oiala..."

1631'an, Gipuzkoa eta Bizkaya'n bakaillau-arrantzaleentzako beste oker au sortu zan: gatzaren prezioa bi errealetik amabira igo zan bat-batean. Gipuzkoarren protestak sonatuak izan ziran...

* * *

Bitartean zer egiten zuten agintari euskaldunek?

1613'an, Azaroan, Junta Jeneralak Mondrago'en bildu ziran eta andik karta bat bialdu zuten Madrid'era aurretik eta ondoren Juan de Erauso, donostiar kapitana "Moscovia Company" alkarteak egiñ zitun kalteak agertuaz eta Gobernuaren indarra eskatzen zuten Ingalaterra'ren aurrean... Erauso bi urte oso Madrid'en pas sondoren, Donostia'ra biur-tu zan ezer onik lortu gabe.

1628'an, beste nazioak Alkarte aundia sortzen zimztela ikusirik, Madrid'en bildu ziran persona batzuek Konpañia bat eraiteko edo jasotzeko... Bilbao eta Donostia'n izango zimn bere "Cámara General de Administración"... Barkuak baiño leen, ofizinak. Asmo utsetik ez zan pasa.

Doniane Loitzun'en ere sorm zuten "Compagnie de mer Sant-Joande-Luz". Nagi ibilli ondoren, 1648'an beste Ifarraldeko (Prantzia'n) el-karte batekin bildu zan eta bat egiñ zuten. Paris'en zuten biotza eta ardatza. Prantzia'ko Gobernuak baimena lorm zuan Dinamarka'ren alde-tik, ontziak Groenlandia'ra joateko. Baiña, ez zuten ezer onik egiñ holandesek bale-koipea merkeago saltzen zuten Prantzia'n, bertako ontziek ekartzen zutena baiño...

GAIÑ-BEERA

XVI'garren eunkiaren aizken-aldera euskaldunentzako gauzak oker-tzen asi baziran, okerrago joan ziran ondorengo XVII'garren eunkian.

Eunkia osoa gain-beera bat besterik ez zan izan bale eta bakaillau-arrantzarako.

Prantzia'aldeko euskaldunak, zenbait gauzeetan, suerte ohea izan zuten. Esate baterako gatzaren arazoan: 1631'an gipuzkoar eta bizkaitarrentzako gatza biretik amabira igo zitzairen prezioa; Doniane inguru-koak, berriz, merkeago erosten zuten Prantzia'n. Eskimalek sortu-arazi zituzten eragospenak ere gipuzkoar eta bizkaitarrentzako ziran bakarrik; besteak ez bait ziran Labrador aldera joaten.

XVII'ren asieran, gauzak arrantza arazoan, beeraka joan arren, Ifarraldeko eus^aldunek, orain dik 50'tik 80'ra ontzi bialtzen zituzten Terranoba'ra, 3.000 gizonetzkoekin.

1631'an, gatza galeztitu zan urtean alegia, onela zioten donostiarrak:

Prantzia aldeko euskaldunek Terranoba'n aberastu zirala; beuren erregeak ez zietela petxarik jartzen; lagundu, baizik. Loitzun, Ziburu eta inguruak ogei urteen buruan 25 etxetik 500'ra pasa zirala. Eta, urte orretan, Doniane kiatik 1.200 gizon atera zirala Terrenoba'rako. Portu orretatik, bakarrik.

Bost urte beranduago, 1636'an, Prantzia eta Espainia'ren arteko burruka zala bide, Loitzun'eko ontzi asko arrapatu eta ondoratu zituzten. Ortik etorri zan ango ondamentia.

1685'an, 18 ontzi bakarrik zeuden Doniane'ko kaiean eta 721 arrantzale, besterik ez.

Giputxak eta lapurtarrek alkarrekin pakean ibiltzen alegindu zira, beuren gainetik gerra egon arren. Eta, orrela gipuzkoarrek beuren erregeari eskatzen diote, Lapurdikoek Gipuzkoara koipeak eta arraiñak ekartzeko baimena; eta berdiñ, emengoak ara eramateko (12).

Prantzesek ez zuten erabaki ori ontzat artu eta Terranoba'tik zetozten ontzi egoaldeko euskaldunenak arrapatu zituzten.

1653'an, bederatzi urte beranduago, egoera negargarri orreri amaia emateko, Bidasoa ibaieko bi aldeak alkartu ziran pakearen billa, eta pakea lortzen zan bitarte guztian, alkarren artean libertade osoan ibilli aal izateko.

Baiña, urrungo urtean, 1654'an, La Rochelle'ko gerra-barku batek, Terranoba'tik zetorren gipuzkoar koipez betetako bale-ontzia arrapatu eta La Rochelle'ra araman zuan. Erregeak, ordea, ontzia beuren jabeeri biurtzeko agindu zien.

1655'an, berriro, La Rochelle'koak beste gipuzkoar ontzia arrapatu zute; eta Erregeak, ontzat eman. Gaiñera beste au ere egiñ zuan erregeak: lapurtarrek Gipuzkoako ontzietan enrolatzea debekatu.

* * *

Bitartean Terranoba-inguruko Nouvelle France'ko agintariek egu-nero geroz eta bearkizun geiago zituzten. Bearkizuneri aurpegia emateko narru-tratoari eldu zioten. Kanpotik tratora zetoztenari, eta bertan ordena apur bat jartzearen ere, Labrador'en Gobernadore militarra jarri zuten. Une artan amaitu ziran arrantza-librearen egunak. Andik aurrera, Kanada'ra euskaldunek, edo gerra-barbuekin, edo bertan gelditzera joango dira.

Gauzak orrela zeudela, 1661'an, Doniane eta Ziburukoak, beste lapurditarren izenean, Louis XIV'ari idatzi luze bat egiten diote, Plaisance (Placentia)'ko Gobernadorearen kontra (aurreko urtean izendatua) eta bide batez, beurok beti izan duten arrantzarako askatasuna eskatzen diote. Koipea eta bizarrak saltzeko askatasuna. Plaisance'ko portuan sartu-irtenak askatasun osoan egiteko betiko eskubideak, gizaldietan zear izan dutena... (13).

Prantzia'ren mende zeuden euskaldunentzat orrelako eragozpenak sortzen baziran, konmak atera beste euskaldunentzako nolakoak izango ziran.

UTRECH'EKO ITUNA

1700-1713: Espaiña'ko Carlos II ondorengo aukeratzea dala-ta, gerra sorm zan: alde batetik Espaiña eta Prantzia alkarrekin; bestetik Ingalterra, Holanda, Portugal eta Alemania.

Amairu urtean burrukan ibilli ondoren, guda amaitzen da "Tratado de Utrech" deritzan itunarekin. Pakea lortu eta pakeari iraun-arazteko, Felipe V, Anjou'koa, Espaiña eta Prantzia'ko Erregeen biloba zana, aukeram zuten Carlos II ondorengo bezela...

Terranoba'n euskaldunek arrantzan egiteko askatasun osoa ortik sormko zala pentsa arren, gauzak ez ziran orrela gertatu.

Inglaterra eta Holanda geldim ziran garaille eta nagusi. Inglaterrak Prantzia'ri Hudson baiako inguruak eskatu zizkion: San Lorenzo ibaia-
ren aoa, Akadia zaarra eta Terranoba. Inglesak agintari, andik aurrera.
Arrantzarekiko baimen guztiak inglesen eskuetan eta ez prantzes-
eneetan...

* * *

1713, Ilbeltza: Imna firmatu aurretik, Gipuzkoako Junta Jenera-
lak auxe eskatzen dio Espaiña'ko Erregeari:

Euskaldunek Terranoba'n arrantzan egiteko zeuzkaten eskubide
zarrak zaintzeko ondo Utrech'en zebiltzan arm-emanetan.

Baietz, egingo zituztela alegiñak, Erregeak erantzun.

Egiñ ere bai.

Inglaterra'ko Ana Erregiña konforme zan "gipuzkoarri eta beste
Erregearen menpekoeri, Terranoba'rako bideetan zituzten eskubide zaar
guztiak gordetzeko..."

1713-VII-13: Baiña, Ingalaterra ez zan Erregiña bakarrik. Besteak
ez zuten Erregiñaren naia ontzat eman inñundik-ere.

Imnaren 15 kapimloak onela dio erderaz:

"Y porque por parte de España se insiste sobre que a los vizcaínos
y otros súbditos de su Majestad Católica les pertenece cierto dere-
cho de pescar en la isla de Terranova, consiente y conviene su Ma-
jestad británica que a los vizcaínos y otros pueblos de España se
les conserven ilesos todos los privilegios que puedan con derecho
reclamar..."

1714: Gipuzkoarrek 15'garren kapimlo ori argitzeko eskatzen dute
eta luzatzeko, ez bait daude konforme idazkera orrekin.

Erregeak bere aldetik, ontziak Terranoba'ra bialtzeko eskam zion
Gipuzkoa'ri. Donostia eta Bialbao'k alkar armta, Diego Yanzi kapitana
bidali zuten Plazenzia'ra, Terranoba'kora. Bertako Gobernadore ingle-
sak, ordea, sartzen utzi ez. Auzi onen buruzko lanetan sartzeko eskatu
zion Madrid'ek bere Londres'eko enbajadoreari...

Inglesek ez zuten euskaldunen eskubidea ukatzen; baiña, bere Par-
lamentearen lege batean oiñarriturik, beureari eutsi zioten. Parlamen-
taren legea 1698'koa zan eta lege onek estrajeriko guztieri debekatzen

zien Terranoba'ko inguruetan lana egitea. Bereiziki begiratu ezkerro, arra-
zoibide ori utsa zan, 1698'an Plazenzia'ko kaia oraindik prantsezen es-
kuetan zegoalako. Alaz da guzti, inglesekin "beuren astoari, arre". Aurre-
rapenik, ez.

Maltzurrago jokatu zuten prantzesek Ituna eratzeko orduan: arran-
tzarako askatasun osoa eskatu zuten beuren ontzientzat. Danentzako eta
besterik gabe. Era orretara sekula baiño barku geiago zijozen Terrano-
ba'ra Prantzia'ko kaietatik...

Gure artean asarrea gogorra izan zan. Bereizte orrek ematen zien
miñ: guztiok euskaldun eta batzueri, bai; besteeri, ez. Prantzia-alde-
koeri, bai. Espainia-aldekoeri, ez.

Bilbao eta Donostia'k, gizona bialdu zuten Londres'eko enbajadore
espainiarrarengana, Ingalaterra'ko Aginterieri auxa agertzeko:

"...los privilegios y el derecho incontrastable de los guipuzcoanos
y vizcaínos a pescar, trinchar y secar el bacalao en todos y cual-
quiera de los puertos de la isla de Terranova sin excepción del de
Plasencia y su bahía, con entera libertad, haciendo en tierra, para
este servicio, los muelles, barracas y demás cosas necesarias y la
justa inmemorial incorruptible posesión en que de todo ello esta-
ban los guipuzcoanos y vizcaínos..."

Zer-edo-zer lortu zuten, itzez bereik.

1721: "Tratado de Madrid". Espainia, Prantzia eta Ingalaterra"
egiten duten Itunean onela esaten da:

"dar desde luego sus órdenes para que los Gobernadores de la
isla de Terranova y puertos y costas adyacentes permitan y no pon-
gan embarazo alguno a los españoles guipuzcoanos y vizcaínos que
fuesen a la pesquería, trinchería y sequería de bacallao, de que han
estado en posesión inmemorial..."

Baiña, Plazenzia'ko Gobernadoreak arre ta arre, bereari eutsi zion
eta ez zien inori sartzen utzi.

Ondorenak izan ziran negargarriak:

1580'an, 200 ontzi baiño geiago zeuden Terranoba'rako bideetan.

1718'an, Donostia'ko Konsuladoan ez zegoan ontzi bat bakarrik
ere. Zazpi zeuden urte artan; baiña, Sizilia'ko gerrara eramane zituzten

zazpirak. Zazpi oietatik bost preso armak izan ziran Sizilia'n bertan eta beste biak Kadiz'en salduak, gasmak ordaintzeko...

1727'an, Ordizia'ko Juntak ematen digute aurreko berri oiek. Urte onetan ere, ez zan bale ez eta bakailau-barkurik Gipuzkoa'n.

1728'an, Soissons'go Kongresoan;

1747'an, Breda'ko Kongresoan;

1748'an, Aquisgran'go Kongresoan; Kongreso guzi auetan Gipuzkoa'ko Juntek alegiñak egiñ zituzten euskaldunen eskubideak esagum-arazteko; baiña, dana izan zan alperrik...

Jentilbaratza'tik Zaho'ra mendiz-mendi

BARANDIARAN'GO JOXEMIEL

JENTILLARRIAI EDO IRUÑARRIAI ETA BESTE ARLUZEAI BEGIRA

Jentilbaratza Ataun'go gaztelua egon zan maillo-tontorrari deitu oi diogu.

Arano'n berriz izen orregaz leen-gizakien arrespillak —Burdinaro' koak— adierazten dituzte. Zutik lurrean, denak biran jarritako arriak egiten dute arrespilla: ildakoen errautsak gordetzeko tokia. *Cronlech* da beste izen bat, ikasmnak darabilkiena.

Arrespil auen izena *Mairubaratza* Oyartzun'en, Sara'n eta Zugarramurdi'n; Ezkurra'n berriz *Iruñarriak* Xuberoa'n, *Maidekorraliak*.

Oraingoz ez naiz ordea arrespillezaz eta trikuarriezaz mintza, arluze batzuezaz baiño.

1915n urtean nere adiskide Lekuona (Manuel) jaunari entzun nion Oyartzun'go mairubaratzak ikustearren egin zuen ibilaldiaren berri. Aran-zadi (Telesforo) eta Soraluze (Pedro Manuel) igo baitziran aldi artan ango arrespil batzuek aztertzeraz, aiei laguntzen ibili zan Lekuona.

Geroztik Mairubaratzen berriak eta agerkai auk euskal-leengizakien illarriak ote zitezkean susmoa burura ater gabe zetorzkidan.

Orregatik Ataun'go Jentilbaratza'ra 1916go udazkenean igo nintzan, ustez eta egiztatu bear nuela, esaunden bidez ikasia nuen au: jentillak an lurperatuak zeudela, alegia.

Ango lurra zerbait zopizarm nuan eta ikasi an egon zala egiaz erdiaroan gaztelu bat. Onen oñean dago *Arrateta* izeneko ateka. Andik urbil dago, Zaldibi gaiñean, garai bereko beste gaztelu bat ere, *Ausagaztelu* izenekoa.

Ez nuean Jentilbaratza'n jentillen aztanarik ikusi; bainan urrengo egunean eta beste geigotan Aralar-mendira igo nintzan eta trikuarri andana bat arkim eta, aukin, arluze berezi batzuek ere. Emen izentatzen dittut, mendi artan eta beste tokietan billam nimenak.

In.—*Jentillarri*. Arraztaran'go ordeparen alboan, SW. alderuntz

dagon mendiñoaren gaiñean ageri da *Jentillarri* izeneko artxabal bat, argorria bera. lurrean etzanik, 2 metroz luze, 1,10 zabal eta 0,35 lodi. Beste toki batetik ekarria dirudi. Gaiñean ba-ditu zortzi txulo txokon (bakoitza 5 zm. aldez-alde dituen), ez berezkoak, egiñak baiño. Bertako artzaiak ziotenez, jentillen beatz-askak omen dira. *Ikus* In iduria: a.

Arraztarangañe'ko *J'entiUarri*'ren antzekoa da mendi berean, Igaratza'ko zelayan, garaiko trikuarritik 40 metroz egoalderuntz dagon *Jentillarria*. Argorizkoa au ere, 2,80 m. luze, 1,30 zabal eta 0,27 lodi. Ez da bertako arria. Alde batean ageri ditu sei ildotxo bate-batek egiñak. *Ikus* In iduria: b.

2n.—*Supitaitz*. Kilometro erdi bat Arraztaran'go Jentillarri'tik SE. alderuntz, *Oiduegi*'ko saroiaren SW. aldeko gaintxo batean ageri da arluze bat lurrean etzanik. Argorria au ere eta ez da bertakoa. *Supitaitz* deitzen diote geienak; *Suspenzaitz*, batzuek. Bere luzearoa 2 metro; zabaleroa, oiñean, 0,50; lodian berriz 0,50.

Amabi arrauka-arrikin egindako arrespil batek dauka inguratua. Bere ondoan azterketa bat egin genduan: ikatz-kosko batzuek agertu ziran lurrean.

Andik urbil dago *Oiduegi*'ko trikuarria. *Vid.* 2n iduria.

3.—*Saltarri*. Aralar-mendin, iparraldetik ba-da *Alotza* izeneko zelaitxo bat. An ere ba-dago arluze bat lurrean etzanik, bidexka bat gurututzen duela. *Saltarri* deitzen diote an dabiltzanak. 3 metro luze dan arraukaitza.

Beragaz auxe entzun nien 1919n urtean Auzmendi'tar Jose Mari eta beste batzuei:

Pelotari batzuek Murumendi'n pelotan omen zebiltzan. Eta jentill bat urbildu eta galde: "Zer egiten dezute emen?" —"Pelotan ibilli", besteak erantzun.

Arri aundi bat ikusi bertan jentillak eta galde: —"Arri au zertarako dezute?" —"Saka-arritarako", besteak.

—"Bera ere ez dek txarra pelotan erabiltzeko" dio jentillak eta bereala eskuan artu eta Aralar alderunz aurtiki omen zuan.

Arri ori bidean bi puska egin omentzan: puska bat Gaztelu'ko aitzaren oñera erori omentzan eta bestea Alotza'n. Bigarren au da *Saltarri izeneko*. Alotza-ko zelaitxoa, leengo artzaien pelotaleku izana. Baita dantzaleku ere: an gauaz, illargi betearen argitan, artzaiak, bakoitza

bere errañuarekin, dantzan ibiltzen omen ziran. Ala diote artzai zaarrak.

4n.—*Erroldan-arriya*. Ata izeneko ordekatxo bat da Aralar-mendi'n, SE. aldean. An ageri da zutik arri bat, gutxienez 3 metro luze dana; geientsu ordea lurrean sarma. Ba-du giza-tankera: bere buru, sorbalda ta guzti. Alde batean ba-ditm sei ildo edo marra ere. Imrralde (Juan) kondailariak ezaguerazi zuan lenengoz arri bitxi au.

Diotenez arri ori Errolan'ek Samiel-gaiñetik jaurtia omen, Madoz' ko erria apurtzearren. Baiñan eskua soñekoan nastu eta indarra ttikitm. Orri esker, arria erdibidean erori, Ata'ko zelaian ala bear-ta.

Batzuek diotenez, *menhir* izeneko oroigalluetakoa omen da. Ba-liteke. *Vid.* 3n iduria.

5n.—*Intxusburu*. Ataun eta Burunda arteko mendi-gaintxo bat da *Intxusburu*. An ba-dira iru trikuarri; auetako bi Naparro'ko lurretan. Aundienaren ondoan dago arluze bat lurrean etzanik. Argorria au ere, inguruko beste arriak bezala. 2 metro luze, 1 zabal eta 0,70 lodi: ara bere neurriak.

Gaiñaldean zazpi txulo txokon ageri dittu, iru lekutan sailkamak. *Vid.* 4n id. a.

50 metroz NW. alderuntz beste arluze bat dago etzanik. Neurritz, 4 m. luze, 1 m. zabal eta 0,50 lodi. Gaineko aldean ildo eta zulotxo batzuek ageri dim. *Ikus* 4n id. b.

6n.—*Zorrotzarri*. Aizkorri-mendi'n, Urbia izeneko larrezabalaren egoaldean dago *Ollantzu* saroia. Onen egaleko larresoroan arluze bat nabari da. Ango artzaiak *Zorrotzarri* deitzen diote, naizta ez dute arri ortan lanabesik zorrozten. Argorritzkoa da. 2 metro luze eta 0,50 zabal naiz lodi. Alde batean marra batzuek ageri ditm, mutur melarreko lana-besakin egiñak, dirudienez.

Gizaldi onen aseran, artzai batek arria austeaa erabaki omentzuan, bere zatiakin txabola antolatzeke asmoan. Ango zaar batek ordea debekam omentzion egintza ori, arri ura begirunez aipama beti izan zela leenagokoetatik ikasia degula-ta. *Vid.* 5n iduria.

7n.—*Arribirib'úl*. Irukutzeta'ko trikuarria Azkoiti'ko, Elgoibar'go eta Bergara'ko lurren mugan dago. Andik urbil, W. alderuntz, *Arribiribilleta* zelaixuan dago berriz *Arribiribill* izeneko arluzea. Au ere argorritzkoa eta ez bertakoa. 3,50 m. luze, 1,65 zabal eta 0,30 lodi da

bera. Aren ondoan egin genduan azterketaren bidez, teilla-kosko eta ikatz batzuek agertu ziran. *Vid.* 6n iduria.

8n.—*Austegarmin*. 1922n eta 1923n urtean Gorbeian eta bere inguruan ibillaldi batzuek egin nituan. Bi aldiz igo nintzan *Odoriaga* mendira eta igaro *Austarmin* edo *Austegarmin* izeneko lepoan eta sarioian zear. Toki artan arrauka-arri aundi bat —*Austarmin'go arrie*— ageri da lurrean etzanik, lenago zutik zana. 3 metro luze, 1,50 zabal eta 0,25 lodi da arri au. Onegaz ba-dabill zenbait esaunda. Bere azpian egon omentzan, lengo aroetan, gorderik dirutza aundia. Lagun arrotz batzuek etorri omentzien ordea eta dena zaldietan erbestera eramán. *Ikus* 7n iduria.


9n.—*Araneko-arri*. Len aipa degun Odoriaga'ko lepo baten izena *Aranekoarri* da. An daude zutik arri bi. Auen ondoan lurra aztertu nuan eta suarri bat eta arlore bat arkittu nituan. Orozko'n diotenez, bein *Arane* baserriko neskatx bat Gorbeia'ra igo omentzan, ardiak etxera ekartzeko asmoan. Baiñan laiñoa itxi-itxian sartu eta bideak galdu. Artan illunak artu eta gauaz mendian neska gaixoa. Otsoak etorri omen zitzaizkion eta soiña ozka jan ta iretsi. Bere etxeakoak luzaro mendiz-mendi ibilli ziran aren billa. Azkenik *Araneko-arrian* neskatxaren buruko illeak atxeman.

9n'.—Etxarri-Aranaz'go *Konzetzio* elizañotik urbil, 50 metroz zortaldieruntz dago illarri biribil bat (7'garren iduria). Etxarri-ko sarietatik zetorren artzai bat, an jan omen zuen otso batek. Illarria 1763n urtekoa da eta bere izena *Jentillarria*.


10n.—*Larrea*. *Araneko-arria*'gaz Orozko'n ikasi genduen esaunda bera diote, Ezkarai eta inguruko errietan, *Larrea* izeneko mendian dagon illarri bategaz. Logroño'n, Burgos'ko mukan, dago mendi ori.

Bein Eterna erriko neskatx batek bere artaldea ekarri omentzuan. etxera. Baiñan bi edo iru ardien utsa. Auen billa etxeakoak itzulerazi mendira. An urrun, *Larrea* mendin, ardi-billa zebilela, otsoak irten eta neskatx doakabea jan. Toki artan orain illarri bat dago, gizaki antzekoa, alde batean neska baten iduria bere makil da guzti duena, eta itz auek oñean marreztuak: ARAN: *Vid.* 8n iduria.

11n.—*Arkuutze*. Olaberri'ko *Urbarandi* dalazko mendian ba-da illarri biribil bat, *Amoskategi* baserritik gora, mendian zear dijoan bide-




7" iduria. - Jentillarriak:
 a. Arraztaran: b. Igaratza.



2* id. - Supitaitz.


r-0



- 1




, 1m.




3" id - Errolan-arria.


4" id. - Intxiishuru.




5" id. - /urrotzarri.




6" id. - Ambiribill.



7" id. - Austezarmin.




5ª id. - Larrea.




1" id. Arkutze.



•arren iduria: Etxarri-ko (ientillarria



10" iduria. Ipistekoarria



10'garren iduria: Otsapor-tilto-ko ariuzea.



//« YÍ/. - a. Lntzia-Legaire: b, Muguko arriva (I rbasaj.



a j

s.s ••

So ..

?5 •

10<üeni.

12" iduna: a, San Martin'go illarrio: b, Biokoitzazpi koa
(Mendoza ko A. Fernando'k ezagueraziaj.




c
J-

ln.
J

13" id. - Belarzinketa.

t 4 zm
-J- -J- -J-



15" id. - Haldunlarre.



1-1" iduria. - Iruñarri.



76" iduria. - ('orospil.

o **l** **2>n.**
i **-1-**

17" iduria. - Mealse.

C



o **í** **-2*t.**
i **i** **i**

15" iduria. - Zabo.

-t

1*4

JTT

-4-

19" iduria. - Kiliart-e.

o

-egalean. Bere sorrera adierazten duen esaunda bat aski ezaguna dute alde aietako bizilagunak.

Amoskategi'ko alabatxo bat omen zan (batzuek diotenez, *Sagastillun'goa*). *Urbarandira* igo omentzan bere artaldea etxeratzeko asmoan. Orduak igaro, neskatxa ordea ez itzultzen.

Ettxekoak eta auzoak aren billa omenzebiltzan mendiz-mendi. *Mari*, *Mari* deadar egiten sarri. Ots orien oiarzun negargarriak alde guztietatik: Idiaziabal'go *Ojarbi* edo jentillen jauregitik, naiz *Amuñain* edo *Ataun'go* mugaetatik. Baiñan ez *Mari'ren* erantzunik.

Noizbait ordea *Urbarandi'ko* erdi-aldeetik ots bat: *emen\ emen* An omentzeuden neskatxaren zatiak, mami eta ezur, sakabanatuak, otsoen agiñetan karraskatuak.

Oroigarritzat eta otoitz baten eske, bere ettxekoak jarrita, an dago oraindik *Mari* gaixoaren illarri biribilla (*ikus*, 9n iduria). *Arkuutze* bere izena.

Geroztik, mendez-mende, illarri orren ondotik igaro diren kristauak *Aitaren* egin eta otoitz bat eta oroipena, an il zan *Mari* doakabea-ri, eskaintzen dizkiote. Ori bera egin zuten aurtengo Ilbeltzaren 16n egunean, toki artara eramane eta esaunda unkgigarri au erakutsi zidaten gazteak —*Amoskategi*, *Ettxetxuri* eta /4»zmendine'koak—. Auei emendik nere eskerrak.

12n.—*Ipistekoarria*. Arrazola'tik Aramaixo alderuntz dago *Ipistekoarri* dalazko mendi bat. Izen ori ango illarri batengandik datorkio noski.

Ilarri au 1931go Garagarrillaren 5n ikusi nuan. Artzabal zutik jarria, oña lurrean sarturik dadukana, 0,80 m. gora eta 0,60 zabal ageri dana. Malta muetako gurutz-iduri bat alde batean marraztua daduka. Diotenez, toki ontan apezpiku bat arrika il omentzuten eta gertaera orren oroipentzat jarria omen da illarria (*jkus* 10n iduria).

12n.'—*Otsaportillo* izeneko lekuan (Urbasa-mendin) arluze bat dago etzanik (leen zutik egona, dirudienez), 4 metroz luze dana. Arraukarrizkoa da bera (10'garren iduria).

13n.—*Legaire*. *Entzia* mendin ba-da *Legaire* izeneko larre zelai aundi bat. Bere erdi-aldean trikuarri bi daude eta iparraldeko egalean berriz artzabal bat zutik, oña lurrean sakon duela. Arri onen goi-ertza eta ondoan etzanik dagon beste arlosa mihiztagai ageri bai dira, bi arri

auek leenago elkarrekin bat egin dutela, ez da esan bearrik. Dirudienez, lurraz goitik 4 metro, zabalean 2,20 eta lodian 0,35 zituan bere neurriak arluze orrek. Eta bere egoalde zabalak aurrez-aurre zeduzkan Le-gaire'ko bi trikuarriak (*ikus* 11n iduria: a).

Mendi berean, *Urbasa'ko* alderdian, ba-da arluze bat, *Beretxagaina* izeneko tokian. *Mugako-arriya* deitzen dite. Bere neurriak: 2,84 m. gora, 0,68 zabal eta 0,38 lodi. Leizaoal (Fermin)'ek bere berriak eman ziman (*Munibe*: 1973, fasc. 1). *Ikus*, 11 iduria: b).

14n.—*Mormak*. Los Arcos dalazko errian, Bizente sanmaren eliza-ñotik urbil, *Yaniz* izeneko tokian, ba-ziran iru artzabal aundi. Beren izena *Morma*. 2 metro gora, 1,05 zabal eta 0,30 lodi: ori zan bakoitzaren neurria, A. Escaladak dionez. Goiko ertza biribilla zuten leen-aro-ko illarien eran (*Samartin-go* trikuarrian eta Alsasu'ko *Biokoitzazpi'a* bezala). *Ikus*, 12n iduria.

Erri-esaundak dionez, ama bat bere iru alabakin lanean ari omentzan soroan. Ondoko elizañoan ezkilak edo joaleak mezatako deia egin; baiñan iru alabak mezatara ez juan nai. Orduan amak biraoa egin esanaz: "Arri biurmko al zerate". Bereala iruak arri biurtu omentziran. Auek dira *iru Mormak* "las tres Mormas".

Beste esaunda batek dionez, Los Arcos errian ama bat iru alabakin etxe batean bizi omentzan. Alaba oiek oso ezikaitzak omen. Iñauterietan izugarrizko jostaketetan ibili omentziran eta oraino beste igandera arte beren iskanbillan jarraim nai. Amak orduan birao egin eta iruak arri biurm omentziran.

Leku geiagotan ere aipa oi duten leloa da arribiurtzea. Oyartzun'en ba-da artzabal bat —*Andrearriaga'koz*, orain Donosti'ko museoa dagoa-na— andere arribiurtua dala diotena.

Bidarrai'ko arpe batean askok onhesten eta jauresten dute an arri-biurmrik dagoalazko neskatz bat (*Arpeko saindua*).

15n.—*Belarzinketa'ko Errolan-arria*. Leiza'ko Ariz mendin da *Belarzinketa* izeneko tokia. Eta an, leize bat, *Errolanen leizea*. Onen ateka ixten duala dago arri aundi bat, 2,80 m. luze eta 0,40 zabal dena. Iru ildo edo erreten aski sakonak, zearka edo itzulian egiñak, ageri ditm gañean (*ikus* 13n iduria).

Diotenez, Errolan'ek *Aizaran* menditik abailaz (*kutrilloz*, an esaten danez) jaurtia omen da, ustez eta Aralar'go San-Migel'en eliza joko

zuela. Baiñan arria irteteko une-unean abaila ausi eta arria Belarzinke-ta'n erori. An zegoan 1920go Garagarrillaren 9n, ni Leizako mendietan ibili nintzanean.

16n.—*Iruñarri*. Artzabal aundi bat —argorria bera— lurrean zutunik Erasun'go *Ugazlarre-mendi'n* dago. *Iruñarri* du izena eta bere neurriak 3,10 m. gora, 1,15 zabal eta 0,20 lodi. Aurre-atzeak SE. eta NW. alderuntz begira daduzka.

Auxe diote Ezkurra'n: *Otsola* izeneko Beruete'ko menditik Sansonek jaurti zuela (*ikus* 14n iduria).

Andik urbil —*Elazmuno'n*— ageri dira arrespil edo cronlech batzuek, iru sailletan banatuak. Auen arriak ere *huñarri* izenagaz adierazten dituzte Ezkurra'n.

17n.—*Xabier'go Errolan-arriak*. Xabier'en ba-da *La Tejería* izeneko soro bat. An, erriko gaztelutik urbil, arluze bi zeuden zutunik orai dela irurogei urte. Bakoitza 2 metro gora zan. Bertako lagunek ziotenez, Errolan'ek *Jaka-mendieta'úk* jaurti omentzitian, *Mpnkayo* dalazko mendia arrikatetzeko asmoan. Arriak urtikitzearekin batera, oña bekorotz batean irrixtatu omen eta arlosa biak Xabier'en erori. A. Escalada'k eraman zituan Gaztelu'ko lore-baratzara: an ikusi nituan 1923n urtean.

18n.—*Haldunlarre'ko harria*. Sara'n ba-da *Haldunlarre* izeneko muño bat, Larrun-mendiaren sortaldean. *Haldun* baserria dago bere alboan. Gaiñean ageri zan oraindik, 195 3n urtean, arri aundi bat, metro bi luze eta ia bat zabal zena. Haristegi'tar Mitxel, *Olalanda'ko* nagusiak esan zidanez, arri orrek idatziak omentzitian itz auek: *itzul nazak*. Itzuli omentzuten, eta azpikoaldean beste itz auek: *orai ongi nauk*. Arri ori zegon toki beretsuan egiña du berriki etxe eder bat Monzon'dar Isidro'k. *Ikus* 15n iduria.

Arri onen antzekoak eta esaunda bera dutenak ba-dira geiago ere Euskalerrrian. Ara nun batzuek: *Larrun'en* gaiñ-gaiñean, bat beintzat; baita Zegama'ko *Aizkorrondo'n*, Bergara'ko *Piñuri'n*, *Oiz* mendin eta Arano'n ere (1).

(1) J. M. DE BARANDIARAN, *Obras Completas*, II. 96 (Bilbao, 1973); VI, pág. 86 (Bilbao, 1974).

19n.—*Gorospil*. Izen au duan mendia Dantxariñe'tik sortalderuntz, *Aizagerr*i dalazko egian gora igota dagon gaiña da. Bere lepoan ageri da artzabal aundi bat, Itxasu, Ezpeleta eta Baztan'go mugan. Gaiñeko aldean dauzkan ildo batzuek aski adierazten digute leengo garaietan arri ura zedarr

i

20n.—*Meatse*. Artzamendi eta Iuskadi'n arteko lepoa da *Meatse*. An ba-dira arrespil edo cronlech andana bi. Egoalderuntz dago *Meatseko-bizkarra* eta bertan arrespil bat, erdian mugarria duena. Eun metroz egoaldeago, Bidarraiko lurretan, ageri da argorizko arluze bat lurrean etzana. (*Ikus* 17n iduria).

Andik urbil dago, mendiaren alboan, *Arpeko-saindua* dalazkoaren arzuola.

21n.—*Zaho*. Baigorri eta Irurita bi erri orien mugan dago *Zaho'ko-soro* izena duan gainzelaia, *Alba'ko-harri* dalazko tontorraren garai-koaldean. An agerri dira iru arrespil eta trikuarri bat. Auetatik 50 metroz egoalderuntz berriz, arluze bat lurrean etzanik, 5,50 m. luze, 1 m. zabal eta 0,70 lodi dena; ez bertakoa, ekarria baiño (2). *Ikus* 18n iduria.

22n.—*Eihartze*. Irurita eta Aldude'n mugan dago *Eihartze* izeneko mendia. An ba-da, beste mendi askotan lez, pilota-soro, bat, eta goieneko tontorrean arluze aundi bat, etzanik, 4 m. luze, 1,50 zabal eta 0,20 lodi dena. Gainean gurutze bat marreztua daduka. Ez dirudi bertakoa, ekarria baiño. Gaur mugarria da (3). *Ikus* 19n iduria.

23n.—*Iparla*. Berriki Altuna (Jesus) jaunak billatua eta argitarazia du arluze bat. Bidarraiko Iparla izeneko median dago zutunik. Argazkitik dirudienez, ba-ditu gorantz iru metro eta gutxienaz bat zabaleran. Vid. Lehen Euskal-herria (Bilbao, 1975).

(2) J. M. DE BARANDIARAN, *Crónica de Prehistoria* (en "Ikuska", vol. 3, n.º 2-6. Sare, 1949).

(3) J. M. DE BARANDIARAN, *Crónica de Prehistoria* (en "Ikuska", vol. 3, n.º 1. Sare, 1949).

* * *

Auek dira Euskalerrian nik ezagutzen ditudan arluze izentatu batzuek; ez lekukoak berez, bate-batek an jarriak baiño, eta geienetan sinismen, esaunda eta gertakizunen bati lotuak. Lekuan lekuko bizikerari elkarturik ageri zaizkigulako eta, batez ere, gizakien eskua or ibili dalako, orien berri utsak —apaingarri gabe— emen adierazi nai izan dimt: nere aspaldiko adiskide eta lagun Lekuona'tar Manuel'ekin beti izan dimdan arm-emanen oroigarri txikar bezala bederen, beste aundia-go bat noiz etorriko dan zai gaudela.

Ataun'en, 1975go Otsaillaren 20n.

Lekuona

EIZMENDI'TAR IÑAK
"BASARRI"

1

Bertso apalen bidez eskeiñi
nai diot nere omena,
on Manuel'en aurrean au da
Basarri'ren aitormena.
Maixu aundien artean ere
ez ote da maixuena?
Amarengandik emen sortu dan
semerik argitsuena.

2

Danen gaiñetik eliz-gizona,
apaiz jaun zintzo, prestua,
idazle trebe, poeta xamur,
jakindurian puztua.
Arte gaietan sena biziko
epaiemale juxtua,
asten dan artan nabarmentzen da
Lekuona'ren eskua.

3

Bijoazkio sorta sendotan
euskaldunen zorionak,
zer serbitzuak ERRI zar oni
berak egin dizkionak.

BASARRI

Ez dute neurri ta preziorik
jaun argi onen lan onak,
Euskalerrian urriak dira
mailla ontako gizonak.

4

Urte txarretan ainbat naigabe
ta neke-min eramana,
sorterriari dion maitasun
sendoagatik zan dana.
Gorrotoantzat ez du tokirik;
beti onera emana,
beltzak ikusi ba'ditu ere
barkatzen jakin duana.

5

Zu guretarra izate utsez
gu bai arrotzen gerala,
ba-dakigu bai, zoritxarrean,
betikoa etzerala.
Eguzki orrek bere lanketak
zintzoki egin ditzala,
Euskal Lurrean ez da galduko
Lekuona'ren itzala.

6

Gure izkuntzak zu bezelako
dozenerdi bat ba'leuzka,
ordekak utzi ta goi-gaillurrak
joko lituzke egazka.
Oiartzun maite, egon zindezke
poztasunetan gaiñezka,
Zu zeralako Lekuona'ren
jatorria ta seaska.

Don Kijote Mantxa'ko

(*Oarpen batzuk*)

BERRONDO'TAR PEDRO

ZIKINTZEKO BELDURRIK GABE

Don Kijote'ren lenengo atala euskeraz jartzen asia nintzan. Ba dira bizpairu urte. Eta, ari nintzala ari, galde ta galde asi zitzaidan barrrena: nolaz ote dute elkarren antza, alako esaerak eta euskerazkoak? Nolaz elkarren antza, Zerbantes'en erdal-esaerak eta euskerazkoak ? Eta, bein batean, Don Manuel Maisuari galdetu nion:

—Don Manuel, elkarren antzeko asko da emen, liburu ontan... Begira, esaera au ta bestea, bestea ta urrengoa... erderaz orrela ta euskeraz onela.

—Ez zikintzeko beldurrik izan; markatu liburuan bertan, datorren bezela, ez beldurtu! Oarpen oiek guziak aintzat artzekoak dituzu.

Eta alaxe asi nintzan. Geroztik, orriz-orri ortxe utzi ditut amaika ta amaika itz eta esaera azpimarkatuak; gero, astiroago ikusteko ustetan. Gerta oi zaiguna; geroago obeto egiteko ustetan utzi, ta geroko gero ori ez bein-ere etortzen. Baiña, Don Manuel'en Omenaldi-Liburu-rako lantxoren bat eskatu didatenean, auxen eskeintzea gogoratu zait. Eta, bijoakio biotz-biotzetik eskeiña. Berak bulka ninduan asiera artan, eta berari zor diot lenengo oarpen-xorta.

JAIOTETXEKO BARRUTIA DIRUDI

Mantxa-aldeko ibillia, etxeko barrutian egiña dirudi; ez da arrotzerrian barrrena egiña. Ttikitako ezagunak dirudite ango mendiak, eta ibarrak eta zelaiak; gaztetako ezagunak ango benta-etxeak eta mandazaiak; alaberean noski, ango etxekoandre ta neskameak; eta norberak ttikitan ikasitako arrazoiak eta izketak entzuten dira bideko ibillian eta bentako egon-aldietan; etxeko etxekoa dirudi guziak. Ara:

—Erri-koxkor batean jaiotzen da Mantxa'ko gizaundia (I), eta erri-koxkor batean datza aren illobia (LII). Alaberean beste zenbait gizaundi ere: aako katibu famatua lekuko, Leon'go menditan erri-koxkor batean jaioa (XXXIX). Nori e'tzaio gogoratzen, tankera ortako erri ttikietan jaioak ditugula guk ere gure gizaundi ainbat eta ainbat? Elkano, Urdaneta, Araoz'ko Lope, eta beste. Eta oso gogozko zaigula, gure gizon aundiak, orrelaxe, baserrian jaio-ta munduan barrena... jaun ta jabe ikustea?

—Itzaurrean bertan, ikus Zerbantes'en kezak eta zalantzak; iñork sekulan egin duan libururik ederrena egin nai, eta ezin ortara ausartu; barrenak ez laguntzen; kemena falta; eziñ. Beldurraren beldurrez edo, argitara emateko ausardirik ez. Ortxe kezketan urduri ta kokildua. Iñork sekulan egindako guziak gaiendu nai; eta, gaizki gelditzeko lotsa; iñoren aurrerako lotsa. Nori e'tzaizka gogoratzen gai oni buruz, euskaldunen lotsari buruz alegia, esan diranak? Artetxe'tar Jose datorkit burura; maiz ukitzen bait-zuan gai au, euskaldunaren lotsa alegia; eta, alaberean, iñork ez bezelakoak egiteko gogoia, gogo isilla, barruan gordea. Jaiotetxetik atera-ta, urruti joandako amaika ta amaika baserriko seme lekuko; "itzak urri, egiñak ugari ta aundi" zion gurekiko esaerak. Izenik aundiena ta ospetsuena nai zuan Zerbantes'ek bere Don Kijote'rentzat, baiña lotsati zegon eta beldurti.

—Maite zituan Don Kijote'k mendiak eta zelaiak, maite zituan basoak eta oianak. Eta, maite zuan, batez-ere, denbora bateko (urre-aroko) bizikera lasaia eta lokerarik gabea. Euskalerriko artzaiak eta artzaien semeak, biotzean daramagun naiera! Ik. XI atalburua; auntzaiari eman zien itzaldi zoragarria. Nori e'tzaizka gogoratzen Urbia-gaiñeko Joanes'enak, eta bertsolariaren "Lengo egunak gogoan", eta olerkariaren Itzal'enganako biozkadak?

—"Gogorra da orratikan, Jainkoak eta izadiak buru-jabe egindakoak, katibu egitea", zion aako artan Don Kijote'k, galeoteak askatu zituanean (XXII). Ori bera bait-da gure Lege Zaarren biotza; ori bera gure gurasoen buru-jabetza ta duintasuna. Ba dirudi, antza, euskal-mendieta-tik aruntz Gaztelerrira jeitxitako giza-sena mintzo dala.

—Euskal-sena bero-beroa dario elkar-izketak, Zaldunak eta ezkutariak elkarrekin oi duten elkar-izketak. Ikus adibidez: VII, Santxo Panza, Alonso Kijano'renganako morrontzara erabaki zanean; X, zaldunak eta ezkutariak, zaldun euskalduna bentzutu ondorean, elkarrekin izan-

dako eztabaida; XXX'ren azkena eta XXXI'ren asiera, zaldun amuruzmak galde ta mandatariak erantzun, Toboso'ko Dulzinea'k zer ote zion alegia... ain mandatu samurra arengana bidali-ta gero.

—Eta guzi-guziak darion irri-nai parregarria?

Ez al dira elkarren antzekoak, Xenpelar'en "Betroyarenak", eta Bilintx'en "Zaldi zuriarenak", eta Zerbantes'en Rozinante'renak ?

Ez al da bertsolari-legezkoa, iñor... zutika-naietan irristaraztea, eta aundi-naietan lotsa'aztea, edo-ta apain-dotore-naiari far-egitea? Bide ori bait-darama Zerbantes'ek, Zaldungo-liburuak buka'azteko; farregarri utzi ta beren artan buka'azi.

Ez al dira gure-gureak (antiaz beintzat) Santxo'ren burubideak eta arrazoiak? Asierako artan, Kijano Jaunaren morroi jartzerakoan asi-ta, bukaeraiñoko guzian? Ik. LII: "astoa onik ote zetorren galdetu zion aurren-aurrena" emazteak, eta "jabea baiño obekiago zetorrela" erantzun zion Santxo'k.

BAIÑA BURUAK GALDE

Garbi ageri da (nere begietan beintzat) Don Kijote liburuak (mami naiz azal) gure izakerarekin (gure baserrikotkin beintzat) antzik ba duala. Nabarmen ageri du. Baiña, bereala asten da burua galde ta galde:

—Elkarren antz ori nondik ote datorkie, Don Kijote'ri eta gure izakerari? Zerbantes'ek bere liburu ortan, gizonaren (edonongo gizonaren) mami-mamia oratzen dualako? Eta, jakiña, euskaldunak ere ortxen bere buruarenak, ispilluan bezelaxe, ikusten ote dim? Edonongo gizonak bezela? Ez gutxiago ta ez geiago?

—Edo-ta ba ote dabil, ibilli, azpi-azpian edo zutik edo zearka... Gaztelerriko jendeetan barrena... aintziña (IX, X, XI mendeetan) aruntz emendik jeitxitako bizi-imrria? Ala dio Sanchez Albornoz jakintsuak, bere liburu ospetsuan, "Vascos y Navarros en su primera Historia" liburuan. Andik-arakoak ote, aipamriko elkar-antzak?

—Ba da besterik ere. Don Kijote liburuaren barren guzia era-oratzen duana, barne-bizi guzia mamitzen duana (gogo ta biotz, griña ta naiera, poz eta miñ, uts eta uste t. a. t. a.) Juan de Huarte'ren "Examen de Ingenios" omen da. Ortik-ara, agian, elkar-antzak?

Onela, aisa ta berez, sortzen zaizkigu galdeiak. Ez ain aisa ta egoki erantzunak. Orixe: galderak ugari, baiña erantzunak urri; eta urri be-

zain zuur noski. Baiña, ara emen, itzulpen-lanak sorrerazi dizkidan oarpen batzuk. Mingain-luze ta ausarta bait-da jakin-miña, baiña itz gutxi-koa ta zuurra erantzupidea. Eta ala obe noski.

BA DA BESTERIK

Bai, ba dira itzak, ba dira esaerak, Zerbantes'enak alegia, bereala euskerazko kidekoeri deika asten diranak. Asko? Gutxi? Banaka batzuk emango dizkitzut, ea zer iruditzen ote zaizkitzun; lenengo atalaren lenengo 150 orrialdetan jaso ditut; zeorrek ikus, atsegiñ izango zaizu. Eta elkarrekin batera ibilli gaitezen, ara: nere oarpenak ematerakoan, orrialderen bat aipatzen badizut, onako edizio au aipatzen dizut: "Editorial Sopena, S. A. Provenza, 93. Barcelona: 1967". Eta, nere oarpenak jaso-ala, alfabetajarraian bildu ditudan ezker, orrelaxe doazkizu. Goazen bada:

* * *

A

—(de) allí adelante (56) de aquí adelante (60): andik aurrera, emendik aurrera.

—aqueste (62): onako au. Erderaz or dabil "acá, aquesto, aquello"; euskeraz: "onako au, orrako ori, aako ura".

—"si se le) acordaba si algún caballero..." (80), "no se le acordaba de ninguna promesa...": gogoratzen ote zitzaion. Gaur erderaz: "acordarse de"; eta euskeraz ere orrelakoak erabiltzen asiak gera: baiña ez jatorki noski.

—abades del pueblo (104): erriko abadeak, edo erriko apaizak. Erderaz ez da gaur "abad" itza esan-nai ortan erabiltzen; euskeraz bai, eta itzetik ortzera.

B

—bacallao (53) "en Castilla llaman abadejo y en Andalucía bacallao". Euskal-jatorrikoa ote da itz au?

C

—(él sólo era afable y) bien criado (47): ongi azia. Itz onek, "azi" itzak utsak... giza-eratze egokia ere adierazten al du?

—(desnudo de medio) cuerpo arriba (59): gerritik **gora**.

—(creer) confesar, afirmar, jurar y defender (63): aitortu, baietz-baietz adierazteko alegia. Gaur erderaz: sekretua agertu norberak, edo olako zerbait esan nai du; baita euskeraz ere eliz-izkeran... baiña berez... euskeraz: bai-etsia eman edo...

—(mas al) cabo al cabo, han de poder poco (84); al cabo al cabo nos han de traer (145): azken-azkenean... Oso berea du euskerak itza bikoiztea, itzaren esan-naia indarm-ta osatzeko. Ez ote da olako zerbait, itzaren barrengo letra-bikoiztea ere? a. b. **zaarra**.

D

—(yo) de mío me soy pacífico (86): ni nerez pakezalea nauzu. **Gaur** erderaz "de suyo" erabiltzen da, "de mío" ez; euskeraz: nerez **eta** berez...

—(y la compasiva) de Maritornes (145): esa-modu onek aako beste ura gogora'azten digu: au aizearen epela, au andrearen biozberaa...

E

—(no quiso dejar el juego hasta) envidar (65): enbido jo... "mu-sean" ari geranean.

—(por un bosque que allí junto) estaba (94): an bertan, an ondoan, zegon basora. Euskeraz, ongi dator esana; erderaz gaur, "allí junto había" obe noski?

—(y no) está deste lugar a aquel... media legua (108): emendik ara ez dago. Erderaz gaur: no hay deste lugar a aquel, esango litzake noski; euskeraz, egoki esana dator.

F

—(cobrase eterno nombre y) fama (47) mudase también él nombre y lo cobrase famoso y de estruendo (48): izen onaren, aundiaren, zabalaren... jabe egiñ, jabe izan; esakera biok, erderazkoa ta euskerazkoa, batera dabiltz.

H

—(no vio la) hora de verse a caballo... (58): noiz baiño noiz bere burua zaldi gaiñean ikusiko; ez al dute elkarren antza esakera biok?

—(y tal vez) hay, que se busca una cosa y se halla otra (132): eta ba daiteke...; euskerazko *izan* egoki dator, ez ainbeste erderazko **babber**, gaurko erderaz beintzat.

L

—(en un) lugar de... (45), (104): garai aietan ba ziran uri-buruak, uri bilduak, uri berriak eta uri zarrak t. a.; legez ba zuten beren nortasuna, beren buruen jabe ziran; baiña ba ziran errixkak eta auzoak, legezko nortasunik e'tzutenak, beren buruen jabe e'tziranak; "lugar" deritzate, gazteleraz; erri-koxkor deitzen diet euskeraz (ik: Txirrita: Auspoa n.º 126 - or. 73, beean); olako erri-koxkorretan jaiok dira Zerbantes'en gizaundiak, aundienak. Ala Don Kijote, ala katibua...

—(porque quisiera topar) luego luego con quien hacer experiencia...: lenbait-len. Jatorriz erderazkoa (in loco, loco = luego eta euskerazko *leen*, ez dira berdiñak bear bada; baiña, bikoitz-joskera berdiña da, eta areago agian.

M

—máquina de... (46, 52, 68); makiña bat gauza...; euskerak ba du berezko beste bat, *amaika* gauza...; eta, bi-ok bat egiñik, ba du beste bat ere: amakiña bat gauza (ik. Zapirain'en Santa Jenobeba Brabantekoarenak).

—memoria, venir a la memoria, traer a la memoria (49, 59, 66, 80): gogoratu, gogora ekarri.

—mañana, en aquel dia (54); biar goizean; ba dirudi, euskerazko esaera garbia (biar goizean, etzi goizean t. a.) erderaz eziñ asmatu-rik dabilhela.

—Miente, delante de mí, ruin villano? (60); euskeraz, iñori: gezurra edo gezurti esatea, irain beltza ta itsusia da, emen Don Kijote'k dion bezelaxe.

—melecinas (128); erderazko "lavativa" esan nai omen du; ori bera noski, erronkariko "merezin"; eta "Betroyaren" bertsoetan Xepelar'ek aako ura dionean: "atzetik bear ditu zazpi merezin".

—(han) muerto (136, 150); euskeraz bezela... il dute. Alegia, nork il du, edo-ta, nor il da.

N

—(en los reinos y provincias) nuevamente conquistados (127); menderatu-berriak. "De nuevo" (127), berriz-ere. Lau aldiz erabiltzen du Zerbantes'ek "nuevo" itz au bere esaldi luzean; lauetan pare-parera dator euskerazko "berri" kidekoa.

O

—(Hásele) olvidado a vuestra merced... (144): Aaztu al zaio berorri ? Euskeraz: nori aaztu edo gogoratu, eta ez nork aaztu edo gogoratu, obeki noski; erderaz ere, Zerbantes'ek maiz orrelaxe.

P

—(y tornó a pasarse con el mismo reposo que) primero (57); leen bezaiñ, leen bezela. Aintziñako "primo", "primero", euskerazko "leen" onekin parean dabil; len-gusu, len-baitlen, lenbizi, lenengo t. a.

—prevenciones que había de llevarse consigo (59); euskeraz, erri-izkeran, maiz erabilli oi da "preentzioak", esan-naï auxe adierazteko; preentzioak artu.

—(daba unos suspiros... de modo que de nuevo obíigó a que el labrador le) preguntase le dijese (66): esateko galdetzera beartu. Euskeraz maiz onelako esaerak; gazteleraz ez noski; oarpen bat dator orrialde onen beeko ertzean esanaz: "*le dijese*" parece un pegote de la imprenta". Oarpena, jakiña, argitaratzalleak jarria da, ez Zerbantes'ek.

—(es menester deshacer este tuerto, a todo mi) poderío (86): nere aal-egiñ guziakin; erderazko posse, poder, poderío... euskerazko aal, aalgo, aalmen, aal-egiñ.

Q

—quitasoles (86); nori e'tzaio gogoratzen gure "guardasola"?

—quien, de quien, a quien... (99, 100, 123, 95) askorentzat alegia. a. b.: ladrones y malandrines, de quien era fama que todas (aquellas sierras) estaban llenas. Eta beste au: es un bálsamo de quien tengo la receta (95). Dalako *quien* izen-ordea, berdiñ erabiltzen du Zerbantes'ek pertsonarentzat naiz gauzarentzat, berdiñ bakarrarentzat naiz askorentzat. Euskeraz bezelaxe: zein neska, zein zaldi, zein liburu; edo-ta zein etorri da, edo zein etorri dira. Onela erabilli oi dugu izketakoan; ez dakit onela izango dan idazterakoan, emendik aurrera; maiz ageri bait-dira... zeintzu, zeintzuk... eta onelakoak.

R

—reventar de risa (58); farrez leer-egiñ, farrez leertu.

S

—(se estaban) solazando (51): solasean.

—(por no pagalle la) soldada que le debo (60): zor diodan soldata.

U

—unguento para curar (55, 56): ukendua. Gure ttikitan, "ukendua", sendatzerako oi zan beti.

V

—Vizcaíno. Gai au nolabait ukitu gabe eziñ utziko dugu, noski. Amai-kak ukitu du leen-ere. Ara, gogoratu zaizkidan oarpen batzuk:

—Maite du Zerbantes'en euskaldunak, itz-jokoa ta barne-biurria. Nori e'tzaio gogoratzen Unamuno'k ortarako zuan griña bizia? eta bert-solariek oi dutena?

—111; norbera iltzeko, edo-ta batak bestea iltzeko.

—Aditz-jokoan... nor, nori, ta nork... elkar-naasian, aditz-barruan.

—"Ika" darabil euskaldunak aditza.

—Itz-joskera, batekoz-beste darabil euskaldunak, gazteleraz oi danakin ikusi-ta.

—barren-barrenean darama euskaldunak bere zalduntasunaren kontzientzia. Beste iñork ez bezela!

—Orrelako zerbait ikusten zuan Zerbantes'ek euskaldunarengan, nik uste: izkuntza bereiz-bereizia; aditz-joko biurria, eta "ika"; eta zalduntasun ben-benetakoa.

Orrelakoa, eta au bedi nere oarpenen bukaera, orrelakoa gorde dezala gure Jainkoak emendik aurrera-ere euskalduna: azkarra, bere izkuntza bereziaren jabe, ta zin-ziñetako zalduna.

Urteko igandetako irakur-gaietatik

Lekuondtar Manuel jaunari biotz-biotzez.

DORRONSORO'TAR IOAKIN

ABENDUKO LENENGO IGANDEA

Esker beroak, Zeruko Aita,
Esker beroak biotzez
Itxaropentsu egon giñezke
Agindu diguzu itzez,
Zure itzean itxadon zuten
Isrrael'darrek poz-pozez,
Aien antzera bidean goaz
Askatasunaren gosez.

Zure itza zan etsi gabarik
Eutsi oi zien indarra,
Itz bero arrek areagotu
Biotz barrungo su-garra,
Sion mendira iritxi naia,
Au zuten gogo bakarra,
Pake giroan, anai giroan,
Baiña sendotu egiten ziran

Txepel aldiak izan zituzten
Ixilduz barrungo arra.
Noiz-beinka bide luzean,

Trinkotuz zure ustean,
Ikusten zuten Sion mendia
Ikusten urrun antzean,
Biziko ziran uste ba'zuten
Sion mendi gibelean.

Goitz arratsetan eten gabarik
Eskatuz biotzez, arren,
Euren barrengo amets tokia
Urruti egondu arren,
Irudipenez ikusten zuten
Nunbait beren Jerusalem,
Aruntz jun naia, au zuten amets,
Antxe bizi nai lenbaitlen.

Erri au bai-zan euren ustetan
Itunaren euslari
Erri guzien, gizon guzien
Pake ta zorion toki,
Aien antzera asi gaitezen
Itxaropenez kantari,
Fede bizi az abes deiogun
Zeruko gure Aitari.

ANDRA MARI SORTZEZ GARBI

Toki txukuna aukeratzen da
 Bitxi ederrarentzako,
 Toki ederra ederrenetan
 Jainko Seme onentzako,
 Nun aurkituko ote zun Aitak
 Bere Semearentzako,
 Emakume bat gutziz garbia
 Bear zun onetarako.

Pipiak jota agertzen gera
 Adan'en odolekoak
 Olakorikan Semearentzat
 Etzun nai Aita Jainkoak,
 Almentsu da ta Berak egin zun
 Bizi toki tajuzkoa,
 Ez gu bezela pekatu larrez
 Zu la-zulatutakoa.

Arro zebillen etsai likitxa
 Adan erori zanean,
 Baña Jainkoak desapioa

Bota zion bat-batean:
 "Sortuko diat emakume bat,
 Ez dek jarriko menpean,
 Arek bai arek zapalduko au
 Estu-estu ankapean".

Andra Mari da emakume au
 Sortzez kutsurik etzuna
 Jainko Semea sabel garbian
 Egoki artuko zuna,
 Seme garbiak Ama garbia
 Pekaturikan ez duna,
 Erregalitan edertxoena
 Au Jaunak eman ziguna.

Sortu orduko graziz betea
 Goi Aingeruak zionez,
 Geroko Semen irabaziaz
 Egin zun au, ta ez berez,
 Poztu gaitezen seme guziok
 Andre Au Ama degunez,
 Orregatikan gora dezagun
 Alkarturikan biotzez.

ABENDU'KO BIGARREN IGANDEA

Zure Semea, zeruko Aita,
 Diranen Egille dtgu,
 Lengo ta gaurko Igerle denak

Bide ontara bultzatu:
 Zarra utzirik alegin guziz
 On de?utenari eldu.
 Sermoi klase au amaika aldiz
 Gure barrun entzun degu.

2

Jainko Semea noiz etorriko
 Erri guziak zai ta zai.
 Igerle denak itzaldietan
 An-emen auxe zuten gai,
 Jauntxo gizenek euren artean
 Olakorik etzuten nai,
 Oña-oñari eman eziñik
 Zebiltzen nekatuek bai.

3

Etorri dala ezagun-garri
 Ikusi dezaten argi,
 Jainko Erria azal berritzen

Asirik dago ugari.
 Berekoikerik, gorroto guztik
 Aterez biotzari,
 Giro berri bat sortua degu
 Alkar maitatuaz beti.

4

Zure geroko etorreraren
 Antziz gaude alkarrekin,
 Gero-aldian zatozenezan
 Egon nai degu Zurekin.
 Ontarako gai gaitezen izan
 Gaurko Eukaristiakin
 Barru-barrutik oyuka gaude
 Zeruko Aingeruekin.

IRUGARRENA

1

Gizonen ustez gaur amaitzen da
 Urte ontako abendu,
 Kristau giroan gaur asi eta
 Gero egingo da eldu,
 Igerle santu aien esanak
 Biotz mamian naitugu,
 Goi-Espirituk lagundu eta
 Guganatuko ditugu.

2

Oen esanak zorrotzak dira
 Lur marduleko aziak,
 "On egin eta iriki beti

Beartsueri atiak".
 Egia esan, ez gera izan
 Lan ontan asko eziak,
 Argi gaitzatzu, Zeruko Aita,
 Ikus ditzagun premiak.

3

Eskerrik asko, Aita on-ona,
 Zure argi onengatik,
 Illun zana len argi biurtzen
 Asi zaigu Zuregatik,
 Gure artean zabal dezagun
 Lagun eiguzu Zerutik,
 Argi ta pozik abes dezagun
 Aingeruekin bertatik.

ABENDUKO LAUGARRENA

Ote datorren susmoa degu
 Semea gizon tankeran,
 Abendu eta Eguberritan
 Ikus nai zaitugu beran,
 Eten gabeko etor-aldiak
 Egingo ditu benetan,
 Etortzeari utziko dio
 Azkeneko egunetan.

Zure Semea etorri zaigu
 Gu salbatzera Zerutik,
 Eskerrik asko, Jaun Zerukoa,

Eskupeko onengatik.
 Len buru makur aurkitzen giñan
 Irten gera illunpetik,
 Bizitza berri pozez betea
 Nabari degu barrendik.

Jainko Semea gizon egiña
 Guretzako degu argi,
 Itxaropen da sinismenean
 Txepelentzako euslari,
 Zuzen bidean al danarentzat
 Biotz barru bixigarri,
 Orregatikan esker emanaz
 Asi gaitezen kantari.

JESUS'EN JAYOTZA (GAUA)

Urrundu dira laño gizenak
 Urrundu arantza beltzak,
 Askatu dira espexetako
 Kate gogor eta otzak,
 Ixildu dira naigabetuen
 Negar samiñaren otsak,
 Jaio dalako Jesus Belen-en
 Poztu zaizkigu biotzak.

Ez da ikusi gaur arteraño
 Olako biozkadarik
 Ume tankeran agertu zaigu

Berez Jaungoiko izanik,
 Gu askatzera, gu salbatzera
 Etorri zaigu Zerutik,
 Zorrak ordaindu, on egitea,
 Ez du bestelako lanik.

Jainko Semeak dun maitasuna
 Ez dago neurtutzerik,
 Gu salbatzeko ez ote zegon
 Bide bat errexagorik?
 Esker beroaz eskertu zagun
 Baldin ba'degu biotzik,
 Ixildu gabe artzai-aingeru
 Kanta dezagun poz-pozik.

URTEKO IGANDETAKO IRAKUR-GAIETATIK

JAYOTZA

Egun sentiko eguzki printzak
Asi zaizkigu irtetzen
Pekatu larrez ito-ez-ito
Gizona larri zegoen,
Zure semetza galdu zun eta
Etsayak zuen zapaltzen,
Onen menpetik askatu nairik
Jainkoa gizon egin zen.

Andra Maria otoitz ta otoitz
Salbatzallearen eske,
Eroskundera egingo da bai
Jainko Semearen truke,
Onen asmotan bearrezko zan
Maria'ren ama neke,
Jainko Semea gizon litzake
Andra Marik nai ba'luke.

Bai Jainkoari, bai Maria'ri
Eskerrak emazkiegun,
Jainko-asmoak Onen bayetzak

Mami biurtu bait'zitun,
Zalantzan zegon Aingerua'ri
Onek bayezka erantzun,
Ordu artatik sabel garbian
Aitaren Semea zizun.

Biotz baratzan lore ederrak
Batzutan dira nabari,
Esker beroak emazkiegun
Zeruko Aita onari,
Gu salbatzeko bide artu zun
Bai-ta Ama Maria'ri,
Lagun artzagun bere ondora
Etorri zan albistarl

Estu ta larri aurkitzen ziran
Abenduaren gau ontan
Ostaturikan aurkitu ezin
Belen erri polit artan,
Erritik laixter estalpe xar bat
An aspalditikan ba'zan,
Jainko Semea mundu ontara
Agertu zan antxe bertan.

URTE BERRI

Amaitu degu Jaunari esker
Amaitu da urte zarra,
Otz-bero pranko izanagatik

Moztu diogu adarra,
Gaur goizetikan piztua degu
Urte berriaren garra,
Jun danagatik eskerrak eman
Berriai eska indarra.

2

Aspalditikan esaten dute:
 "Urte berri bizi berri"
 Lur ta Zeruko ondasunetan
 Guretzako ala bedi,
 Mesede pranko jasoak gera
 Lengo zar ortan Zerutik
 Gaur sartu geran urte onetan
 Lagundu zaiguzu guri.

3

Lur azalean erne-ez-erne
 Egoten dan landareak
 Gau intzarekin ezkotu eta
 Egiten ditu bereak,
 Burua tente agertutzen du
 Eman nairikan aleak,
 Maitasun alez bete ditzagun
 Baserri eta kaleak.

4

Uda berrian bizi berriaz
 Apaintzen dira zelayak
 Kimu ta lore zugaitz lerdanak
 Denontzat dira alayak,
 Urte berrian saia gaitezen
 Poztutzen gure anayak
 Alkar maitatuz bizkor asteko
 Eldu zaizkigu garayak.

5

Gure barrua ez bedi, Jauna,
 Urte berri ontan gordin,
 Arakaizturik egoskorkeriz
 Ta berekoitzkoarekin,
 Bigun gaitezen, bigun dezagun
 Zure maitasunarekin,
 Au eskatuaz kanta dezagun
 Zeruko Aingeruekin.

SENDI DONEA

1

Sendi bizitzak bere muñetan
 Zerbait garrantzitsu ba'du,
 Eliz aldeko gizon guztiak
 Arretaz dute goraldtu,
 Zigor zaleak aurkitzen dira
 Nai lutekenak zapaldu,
 Kristau giroa onen eskutan
 Dagola ondo dakigu.

2

Sendi-bizitza Jainko lana da,
 Ez gizonen asmatua,
 Senar-emazteak, alkar maitatuz,

Zeru giroz oretua,
 Alkarren lanez, Goikok nai ba'du,
 Seme-alabez geitua,
 Sendi guztien eredu beti
 Nagusi Nazaretkua.

3

Umeak azi umeak ezi
 Au da gurasoen lana,
 Jose ta Marik euren etxean
 Arretaz egin zutena,
 Izerdi tantoz bustitzen zuten
 Legorturik zegon jana,
 Otoitz xamurrez gozaturikan
 Goiz illuntze arte dana.

4

Ezkontz bidean sartutakuok
Edo asmo dezutenak
Itxu-itxuan ibilli gabe
Ba-dira bide zuzenak,
Liburu, gizon, asko dira gaur
Erakusten dituztenak,
Denen artean Jose ta Mari
Erakuslerik onenak.

5

Orregatikan biotz barrendik
Zeruetako Aitari
Emaizkiogun eten gabarik
Esker gozoak ugari,
Esker lanean artu ditzagun
Bai Jose eta bai Mari,
Denok batean biotz-biotzez
Asi gaitezen kantari.

EGUBERRI ARO BIGARREN IGANDEA

1

Jainko-erria Ejipto'tikan
Noiz-baiten irten zanean,
Lengo errira pozik zijoan
Desertu latzen barnean,
Ejiptotarrak oso mindurik
Laxter zituzten atzean,
Jainkoa Berak isrrael'tarrei
Lagundu bide danean.

2

Atzelariak, ejipto'tarrak,
Ba-zuten bai indar ota,
Baña lan ontan euren indarra
Gelditu zan oso motza,
Jainko-erriak Au bera zuen
Indar emalle ta poza,
Isrraetarren anka ariñak
Ejipto'tarrentzat lotsa.

3

Egun argitan laño beltzpean
Izkutaturikan sarri,
Ejipto'tarrak buruk galduta

Zebiltzan estu ta larri,
Egunaz lañoz izkututzen zan,
Baña gauetan zun argi,
Gau txoriaren antzera beti
Aurrera Jaungoiko-erri.

4

Itxas gorrira eldu ziraden
An ziran an komeriak,
Gañean zitun amorru biziz
Gizon gurdi ta zaldiak,
Urak bilduaz alde banata
Iriki dira bidiak,
Jainko-erria andik pasa da
Urpean orde bestiak.

5

Zure Elizak gaur egunean
Ba du isrrael-tankera,
Estu ta larri argi premian
Aspaldian buruz bera,
Zure erria babestu zendun
Gu oraintxe estu gera,
Iriki, Jauna, gure artean
Argi biziaren sarrera.

6

Itxas arroan zabal bidea
Zure beso zuztarrakin,
Egiña zera garai batean

An erri kutunarekin,
Jokera bera izango dezu
Gaurtik aurrera gurekin
Orregatikan bildurrik gabe
Aurkitzen gera Zurekin.

EPIFANI EGUNA

1

Ederrik ba'da, onikan ba'da
On-eder dana goi-zantzu,
Lur zabalean gizonik ba'da
Goi egarririkan ba'du,
Asmo onakin jo ala jo ta
Egia aurkituko du,
Sort-aldekoak egin zutena
Guk ere ba'dezakegu.

2

Argirik ez da beñere jartzen
Izkutuz lakaripean,
On guztia da zabalkorra ta
Ezin egon itzalpean,
Egille degun Jaun aundi Onek
Asmo au zun biotzean:
Gizon guztiak maitasun beroz
Jarri Bere babesean.

3

Zentzuen bidez ezaguera,
Maitasuna da ondoren,
Onen su-garrik ez da piztutzen
Ezaukunda baño len,
Goiko Jaun Onek ba'zekian au
Batzuek ez uste arren,
Estalpetikan argitu gaitu
Argitu azal ta barren.

4

Era batera edo bestera
Argitu egiten gaitu,
Aingeru bidez artzayak eta
Sort-aldek izarra badu,
Jainko zantzua gizon guztiok
Garbi ikustea nai du,
Alegin gaiten ikus ondoren
Ez dezagula ba, galdu.

5

Elur gizona edo lur-mena
Eiz zakurrarentzat berdin,
Sudur mintzakin lur azalean
Eiza nun dabillen jakin,
Egi egarri diran gizonen
Barru giro onarekin,
Bide berdiña armtzen dute
Jainko billako lanakin.

6

On, eder, eta maitasunaren
Argia zabaldu nairik
Izar, Aingeru, barru-ikutuz
Dabil ba, gelditu barik,
Eskerrik asko emaiizkiogun
Agertze lan onegatik
Aingeru talde lagun degula
Biotz barren-barrenetik.

URTEKO IGANDETAKO IRAKUR-GAIETATIK

EPIFANI ONDORENGO LENENGOA
(BATAYOA)

Orain arte arantza
Gaurtik aurrera ez,
Apaintzen zan apaindu
Baña lore utsez,
Arrek ale gozorik
Sekulan ez berez,
Orain gozoak ditu
Arantzaren partez.

Abba, Aita, Jainkori
Aoa betean
Esaten asia da
Batio artzean,
Jainko-arnasa du ta
Biotz-biotzean,
Irutasun donea
Bere azalpean.

Nola sortu ote da
Onen aldaketa?
Nekazaria jardun
Txerta eta txerta,
Sar dio mendu berri
Azal ta muñetan,
Geroztik elorria
Ale ederretan.

Otadi zarra suaz
Erretzen danean,
Larre berri biguña
Ugari antzean,
Olako aldaketa
Biotz baratzean,
Bizi berria duan
Batio artzean.

Berez ale mikatzak
Gizonak zituan,
Goi-kutsurik gabeak
Txertakaitz moduan,
Batayoz bizi berri
Artu zun orduan,
Jainko seme zan egin
Aingeru onduan.

Ura, itza, eta nor
Emaillerik ba'du,
Bataioan Zeruko
Bizi berri artu,
Ekintza onen bidez
Dezagun ugaldu,
Esker ona agertuz
Maita zagun barruz.

EPIFANI ONDORENGO BIGARRENA

Deika daukagu Jauna
 Gauez ta egunez
 Dei au norena danik
 Askotan jakin ez,
 Au gertatu zitzaion
 Samueli gauez
 Gaurko irakur-gaiak
 Ederki dionez.

Andres'ek ikusi zun
 Jesus'en ederra
 Jarrai miña nabari
 Biotzean bera,
 Onek galdetu zion:
 Zu nun bizi zera?
 Ta, Jesus'ek erantzun:
 Zatoz nere-etxera.

Nolabait Jaungoikoak
 Argi egingo du
 Bere mintzoa dala
 Garbi du azaldu,
 Dei oni jarraitzea
 Gure esku degu
 Ontarako indarra
 Berak eman digu.

Andres'en anai Pedro'k
 Jakin zuenian
 An dijoa laixterka
 Egon eziñian,
 Jesus'ek esan zion:
 Joan'en semia,
 Gero deituko zaizu
 Izenez ARRIA.

Jordan ibai ertzean
 Joan da bi lagun
 Urez batayatzuten
 Ari ziran ordu
 Jesus ikusi zun da
 Joanek esan zun:
 Pekatu barkatzalle
 Ez daukagu urrun.

Jaunak ikus nai gaitu
 Beti Berarekin,
 Erantzun dezaiogun
 Biotz onarekin,
 Mesede onegatik
 Aingeru taldekin
 Abestu dezaiogun
 Barren-barrenetik.

EPIFANI ONDORENGO
IRUGARRENA

Gure Jaunaren dei gozoari
Ez da erreza jarraitzen,
Onetarako azal ta mami
Asi bear ba aldatzen,
Jokera txarrak, oitura txarrak
Nekeza da azkar kentzen,
Jainko bidean sar nai ba'degu
Asi gaitezen berritzen.

Ninibe'tarrak Jainko-zigorra
Gañean ikusi zuten
Damuturikan ekin zioten
Penitenziari eltzen,
Penitentziaz biotz berrituz
Biurtu nairik zebiltzen
Jokera on au Jaunak ikus ta
Asi zitzaien barkatzen.

Jainkoarena biurtutzea
Errexa degu azalez
Bost aldiz baño geiagoetan

Egin degu au tamalez,
Baña Jainkoa engañatzea
Axalkeriz ez da errez,
Biur gaitezen barren-barrendik
Barkatzalle degu berez.

Jainko-errian sartuak gera
Mendu berria ba'degu,
Onen indarra lagun degula
Azkar bizkortuko gaitu,
Gure indarrak ursak dirade
Onenak almena ba'du,
Griña txar danak bion artean
Menderatuko ditugu.

Asmo bizi az biotz-berritze
Oni dezaiogun ekin
Jainko laguntza zuzartsu ori
Beti bait-degu gurekin,
Laguntza on au eman digu ta
Aingeru taldearekin
Esker on asko emaitzkiogun
Biotz barru onarekin.

EPIFANI ONDORENGO LAUGARREN
IGANDEA

Gure Jainkoak Bere erria
Sekulan ez du baztarten,
Estu alditan Igerleren bat

bizi-bizi da azaltzen,
Igerle onen itz mamitsuak
Barrua digu gozatzen,
Jaungoikoaren itzak dira ta
Ez bait'da berez mintzatzen.

2

Amaika aldiz mintza da Jesus
Sinagoga ta mendian,
Itz goxo pranko esan zituen
Itxasoaren ertzian,
Asmo onakin entzuten zien
Ume, gizon, da andriak,
Orregatikan euron biotzak
Gio-zantzuz zeuden betiak.

3

Kafarnaun'go Sinagogean
Asi zanean mintzaten
Klase askoko gizonak zeuden
Izlariari entzuten,
Marruka nor bait asi zan eta
Jesus-ek ixildu zuen
Aren barrendik deabru xarra
Tximixta bezela jun zen.

4

Izlari asko ikusten dira
Gaur egun gure artean
Zalantza pranko sortutzen dute
Gure biotz barrenean,
Jardun ezkeru lantegi ontan
Jainkoaren izenean,
Gure barrua bare litzake
Eta ez olatupean.

5

Datozela bai gure artera
Jainkoaren argiak
Aspertu gera urte oetan
Erdizkako egiakin,
Goi-goikoaren egi marduak
Ikus nai tugu gurekin
Eske ta eske gauzkatzu, Jauna,
Ase gaitzatu orrekin.

EPIFANI ONDORENGO
BOST'GARRENA

1

Gaitzik gabeko gizon gutxi gaur
Ikusten dira munduan
Ume txikiak, gazte ta zarrak
Zerbait ba'degu barruan,
Geuren gaitzetik irten eziñik
Zoratutzeko moduan
Ari ta oni laguntza eske
Indarra nairik onduan.

2

Itxu, gor eta errenik asko
Jesus'en garaian ba'zan
Gaitz bildurgarri gabekorikan

Gutxi ziran garai artan,
Bide, etxe ta mendi onduan
Bai ta an emengo plazan,
Zana zalarik gizonen gaitza
Sendatzen lun Onek bertan.

3

Amagiarreba Simon'ek ba'zun,
Sukarrez zegon beteta
Jesus etxean sartu zanean
Den-denak zeuden lur jota,
Onen itz batek emakume au
Laixter zuan sendatuta,
An agertu zan alai-alaiki
Oni besotik elduta.

URTEKO IGANDE TAKO IRAKUR-GAI ETATIK

Mirari oek etzan erreza
Izkutatzea lurpean
Bere-alaxe zabaldu ziran
Ingurukoen artean,
Sendi askotan arkitzen ziran
Gaitzdunak euren etxean,
Talde aundiak biltzen zitzaizkon
An-emendik bat-batean.

Gu ere larri gabilta orain
Gure aje koxkorrekin
Etzagun aztu ba'degula bat
Almen aundi-aundiekin,
Mesedetxo bat Oni eskatuz
Ta esker beroarekin
Abes dezagun biotz-biotzez
Zeruko Aingeruekin.

EPIFANI ONDORENGO
SEIGARRENA

Eziñaren eziñez
Larri dabillena,
itxua naiz eria
Edo lepraduna,
Errukarria berez
Onela dagona,
Lepraz josia zegon
Mendian gizona.

Nolabait jakin zuan
Jesus zetorrela,
Ba'zekian mesede
Egillea zala,
Lau ankan Onengana
Jun zan bere-ala,
Biotzez eskatuaz
Sendatu zezala.

Alkarrengana ziran
Biak inguratu
Gaizdun ikusi zun da

Jesus'ek galdetu:
"Zer naizenduke, gizon,
Neregandik artu?"
"Zuk nai izan ezkeru
Sendatuko nauzu".

4

Erantzun au entzun zun
Jesus Jaunak pozez,
Ta Onek esan zion
Bere-ala: baiez.
Lengo gorputz gaitztuna
Txuri zan kolorez,
Sendaturik gelditu
Jesus'en indarrez.

5

Guk ere ba'degu gaur
Laguntzaren premi
Ukatuko ez digu
Eskatu Jesus'i,
Eskerrak emaizkogun
Aita Jainkoari
Ontarako kantatu
Deiogun Berari.

EPIFANI ONDORENGO
ZAZPIGARRENA

On egite lanetan
Jesus zan gizona
Etzan iñoiz ustutzen
Aren almazena,
Ba'zan Kafarnaun'en
Perlesi zuena
Batzuk eraman zuten
Jesus Jaunarena.

Uste zuten lagunak
Gorputz gaitz ontatik
Sendatuko zuala
Itz batzuk esanik,
Sendatu zuan, baña
Barrungo gaitzetik,
Askatuaz biotza
Pekatu larretik.

Asi ziran mar-marka
Guziz arriturik:
"Nola barkatu Onek

Iñoiz pekaturik?
Jainkoaren lana dek,
Etzegok gizonik
Pekatu barkatzeko
Indarra duenenik".

4

Jesus'ek ba'zekian
Gizon oen berri,
Orduan esan zion
Ango eriari:

"Artzak oetxe ori,
Ago sendaturik",
Uso joan zan ua
Oñak astindurik.

5

Gure artean nortzuk
Ez dagoz elbarri?
Sendatu nai ba'degu
Dei egin Jaunari,
Esker ona emanaz
Sendagille Oni,
Asi gaitezen danok
Biotzez kantari.

EPIFANI ONDORENGO
ZORTZIGARREN IGANDEA

Begi zorrotzez ikusten degu
Auzokoaren joera
Lan klase ontan zar eta gazte
Langille pijoak gera,

Nerea ona, zurea txarra,
bestena beti goi-bera,
Fariseuak egin zutena
Apike dan au ber-bera,
Bide ontatik ibillitzea
Kaxkarra da abelera.

Fariseuen jokabide au
 Jesus'ek zuan ikusi,
 Ta Bere-baitan esaten zuan
 Zegola oso itsusi,
 Itz egin bear eta mintzatzzen
 Bere-alaxe zan asi:
 "Eztai eguna degueanean
 Ez da egoki jan gutxi,
 Ezkon-berri ta onen lagunak
 Ez ditzagun gaizki utzi".

Zaleak giñan, zaleak gera
 Lege azala betetzen,
 Ondorioak ikusten dira
 Argi-argi gure arten,
 Batzu-batzuek asiak dira
 Euren buruak aztertzen,
 Ekintza danen azala kenduz
 Mami-mamia ikusten,
 Jo-ala joaz miatu baña,
 Euren barrua uts zuten.

Ezkon-berria kenduko dute
 Bere lagun'en artetik,
 Barau egiten asiko dira
 Une latzgarri artatik,
 Egun beltz ori gañean degu
 Ez da urruti emendik,
 Bitarte ontan laga-iozute
 Jan dezatela danetik,
 Ez dezazute legea bete
 Mami gabe, azaletik".

Orregatikan lege mamira
 Jo zagun almen guzikin,
 Nobarmenduak izango gera
 Ez ikaratu iñorkin,
 Jainkoa degu Epallea ta
 Laguntzalle da gurekin,
 Indar berria Oni eskatuz
 Egin dezagun alegin,
 Esker oneko ager gaitezen
 Kantatuz Aingeruekin.

GARIZUMA

Azal latzeko urte sasoia
 Degu beti Garizuma,
 Gaztaña molko zulakaria,
 Baña mamiz da biguna,
 Barau, ukatze, gorputz ta barru
 Ezigarri on zaiguna,
 Pazkoetako giro onean
 Indar berritzen gaituna.

Egun askotan ibiltzen **gera**
 Ari ta oni begira,
 Garizumako jo-aldi oek
 Beste lanetako **dira**,
 Aundikeritik, dirukeritik
 Egin gaitezen, ba, jira,
 Aixekeriak utzi ditzagun
 Eta jo zagun mamira.

Berrogei egun jan gaberikan
 Igaro basa-mortuan,
 Ezur ta azal gorputz aldetik,
 Baña indarra barruan,
 Zirikatuaz etsai petrala
 Antxe zuan inguruan,
 Jesus maiteak etsaien lanak
 Laixter uxatu zituan.

Ogi utsakin, diru utsakin
 Ez da asetzen gizona,
 Jaungoikoaren itza bear du
 Auxe du janari ona,
 Zer zuzen dagon, zer oker dagon
 Argi azaltzen diguna,
 Itz onen bidez egin dezagun
 Aldaketa bat sakona.

Garizumako egun luzeak
 Ba'dute beren garrantza
 Burrukalari bet-argikoak

igiten dunaren antza,
 Penitentziaz giarturikan
 Urtu egin bear gantza,
 Ez gaitezen ba, txoro ibili,
 Utzi soñu eta dantza.

6

Jesus Jaunaren Piztuerako
 Benetan gaitezen gertu,
 Basa-mortuan maixu bikaña
 Denontzat degu eredu,
 Jardun da jardun eten gaberik
 Otoitzari zion eldu,
 Ona bidea, asmo biziak
 Indartzea nai ba'degu.

Urte sasoi au gañean degu
 Eldu asmo biziakin,
 Auleriari indar berria
 Ezarri otoitzarekin,
 Geurekeriak uxa ditzagun
 Uxatu maitasunakin,
 Au eskatuaz kanta dezagun
 Aingeru taldearekin.

GARIZUMAKO BIGARRENA

Pagadietan arkaitz tartean
 Galduta dabiltz ardiak,
 Artzai txistuak esnatu ditu
 Iriki die bidiak,
 Noruntz gaberik ibili dira,
 Gaur bildu ditu guztiak,
 Belar goxotan bazka ta bazka
 Dituzte jan ugariak.

Ardi galduen antzeko giñan
 Baña Jauna zan kupitu,
 Irrintzi gozoz lo-zorrotikan
 Onetxek esnatu gaitu,
 Bere Erria egiteraño
 An-emendik gaitu bildu,
 Bide berria ba'degu eta
 Berari deiogun eldu.

URTEKO IGANDEAKO IRAKUR-GAIETATIK

Abraan zarra uste gabeko
Bidetik zenun eraman,
Zuk agindua egin zun eta
Barrua pozez zeraman,
Israel'darrak basa-mortuan
Ba'zuten beti naiko lan,
Ager aldink egin zenion
Etsi gabe iraun zezan.

Bide onetan Zure Semea
Guztiontzat aurrelari
Onen ondoan ez dagu gaurik
Beti degu egun argi,
Orregatikan barren-barrendik
Esker beroak ugari
Au agertzeko Aingeruekin
Asi gaitezen kantari.

GARIZUMA'KO IRUGARREN
IGANDEA

Poztu gaitezen gizon guztiok
Jaungoikoa zaigu mintza,
Oni entzunaz seguru gaude
Bide onetik gabiltza,
Arreta biziz artu dezagun
Berak emandako itza,
Bere Semea degu itz au ta
Auxe da zeruko giltza.

Gizonen itzak utsak dirade
Onenak ba'du mamia,
Ez uste izan oloa danik
Dana da gari garbia,
Aserakoan ta bukaeran
Beti ta beti egia,
Gizonak berez maite duana
Au da dudarik gabia,

Ezagun zaizka gizon bakoitzak
Barruan ditun eziñak,
Gexal aldiak indartutzeko
Itz oiek ba'dira diñak,
Maite antzean mintza de beti
Ez ditu ez itz gordiñak,
Pozik gindezke itz oietara
Sarri jarriko ba'giña.

Mundu zabala ta mundukoak
Egin zitun itzarekin,
Eroritako gizona ere
Jaso Itz Semearekin
Denok batean arreta biziz
Otoitz eta kantuekin
Emaizkiogun esker beroak
Zeruko aingeruekin.

DORRONSOROTAR IOAKIN

IRAGARPEN GIZAKUNDEA

Noiz-batekoan esan zun Aitak:
"Eroskundera ein zagun",
Lan ontarako Bere Semea
Aspalditik gerturik zun,
Bere Seme au gu bezelaxe
Egingo zan aragi-dun,
Onetarako Andra Maria
Artu bear zuan lagun.

Otoitz ta otoitz ari zan Mari
Gau eta egun eskean,
Etzekin asko zer gertako zan
Marik bere sabelean,
Goi-Aingeru bat ager zitzaion
Onek bere albistean
Jesus'en Ama izango zala
Esan zion bat-batean.

"No'a liteke? Erantzun Marik,
Ni Jaungoikoaren Ama,
Gorputz-anima eskeñi nizkan

Bere-Berea naiz dana.
Ez det ezagun gizonik eta
Au da ezin litekena,
Birjin da ama ordu berean
Zalla izango da lana".

4

"Ez ikaram, dio Aingeruk,
Geldimko zera garbi,
Gizonen bidez etzera ama
Sekula egingo Mari,
Espirimak bilduko zaim,
Onen lana dezu ori",
Orduan Marik erantzun zion:
"Zuk esana bete bedi".

5

Bere bayetza eman zunean
Jesus zuen sabelean,
Mundu berri bat sormko zaigu
Au jaiotzen zaigunean,
Gure zor danak ordaindurikan
Jarriko gaim pakean,
Orregatikan abes dezagun
Aingeruekin batean.

GARIZUMAKO BOSTGARRENA

Zugaitzetako kimu bigunak
Ostro ta lore guziak
Uda-berrian berekin dute
Barne muñetan bizia,
Baña pixkaka zimeltzen dira
Galduaz eder guzia
Udazkeneko aize gorritan
Ez dute bizi luzia.

Diru, osasun adixkideak,
Geurekin ditugunean,
Agortzen ez dan poz-iturria
Sentitzen degu barnean,
Legorte latza etorriko da
Guk uste ez degunean,
Gure barrua igartuko du.
Arroxko datorrenean.

3

Negu luzean erdi goseak
 Arkitzen dan abereak
 Larru azpian mami gutxi ta
 Gañean ille luzeak,
 Udaberriko larre goxoak
 Kendutzen dizka goseak,
 Poz irrintzika saltoka da'bil
 Ikusi arren bereak.

4

Gizon bakoitzak biotzetikan
 Maite du bere erria,
 Maiteago du premi aldian
 Eguneroko ogia,
 Utziko ditu etxea eta
 Inguru-mari guzia,
 Denen gañetik maite dulako
 Zañetan daukan bizia.

1

Alai ta pozik ibilli ziran
 Gazteak eta bai zarrak
 Ager zituzten Erramu goizez
 Beren almen da indarrak,
 Batzuek lorak, besteak berriz
 Zugaitzetako adarrak,
 Alkarren leian sayatu ziran
 Apaintzen bide baztarrak.

2

Etxeak ustu, kaleak bete,
 Umeak bizkar gañean,
 Itxillu latzak izango ziran

5

"Ni naiz bidea, Jesus'ek dio,
 Ni naiz egia, bizia",
 Onen indarrak berritzen digu
 Azal ezur ta mamia,
 Aituko dira gorputz indarrak
 Lur joko dute guziak,
 Goiko bizi au mardul ba'dago
 Utsak dirade bestiak.

6

Jainko-bizi au ez da gurea,
 Zerutikan degu artu
 Alegiñean ibil gaitezen
 Gugan ez dedilla galdu,
 Usteltzen ez dan zorion zaña
 Bizi guzirako ba'du,
 Bizi berri au otoitzarekin
 Egingo degu indartu.

3

Jésus azaltzen zanean,
 Noiz batekoan agertu zan, ba,
 Goi-goiko kale ertzean,
 Hosana eta kantu alaiak
 Abestuz denak batean.

Jauntxo ximurrak tripa zorriak
 Eta begietan sua,
 Batzuk kantari, bestiek berriz
 Biotzean amorrua,
 Ango txaloak, angu abesti,
 Bizi-bizirik oyua,
 Etzun Jesus-ek sekula artu
 Omen-aldi olakua.

ERRAMU EGUNA

Jerusalen'go erri guztia
 Begira zegon Jesus-i,
 Onen barruan alaitasuna
 Eta naigabea nasi,
 Egun ayetan zetortzen miñak
 Begiz zituan ikusi,
 Barru guztia goibeldu eta
 Urtutzen zitzakon asi.

Zeruetako izarrak eta
 Lur gañeko ondasunak,
 Ur da lur eta arri, abere

Gizon, edari, ta janak,
 Astotxo baten gañean dator
 Onek egin zitun danak,
 Kantuz aitortzen dute batzuek
 Bestek ba-dituzte lanak.

Jerusalen-go zar eta gazte
 Pozik dira Jesus-ekin,
 Ongi etorri egin diote
 Abesti goxoenekin,
 Asi gaitezen kristau guztiok
 Barru bizi-biziekin,
 Esker kantuak abes ditzagun
 Zeruko Aingeruekin.

OSTEGUN SANTU
 (ALKAR MAITE)

Ezpain gureak jaulkitzen duten
 Itz goxo ta eztiatsuna,
 Negu gogorra uda berri ta
 Alaitsu egiten duna,
 Ezur zarrari indar berria
 Mendu-berritzen diona,
 Gauza bat degu, dudarik gabe,
 Auxe degu maitasuna.

Zori txarrean gizarte ontan
 Urri daukagun lorea,
 Gorroto eta ikus eziñik
 Biotza degu betea,
 Kristo izan zan gaurko egunez
 Eman ziguna legea:
 "Alkar maiteaz ibil zaitzte
 Au da agindu nerea".

Ondasun pranko ba'da munduan
 Ondo zabaldu ezkeru,
 Saitxo txiki bat gañezka eta
 Asko ez jan da ez bero,
 Gose-egarriz millaka gizon
 Iltzen dirade urtero,
 Bide ontatik gure artera
 Gorrotoa dator gero.

Urte guztian agintariak
 Billerak egin da egin,
 Iñork ez du nai etxe kalte ta
 Ajola gutxi bestekin,
 Dirutza pranko gastatuzten da
 Gaurko armamentuekin,
 Jokaera au ez da uztartzen
 Jesus'en aginduekin.

Ogi gosea txarra da noski
Txarrago maitasun eza,
Bide ontatik gizarte zarra
Konpontzen ez da erreza,
Uxa dezagun gogorkeria,
Biurtu barrua geza,
Maite-lurrunaz bigun gaitezen
Bakoitzak alegin beza.

Agindu berri eta sakona
Gure Jaunak eman digu,
Ota-loreak ale bikañez
Onek biurtuko ditu,
Maitasun onek gizon guztiok
Anaiki jarriko gaitu,
Gogorkeria bigundu eta
Gure bizia baretu.

OSTEGUN SANTU
(BIGARRENA)

Ostegun santuz lendabiziko
Egin zan Eukaristia,
Ogia gorputz, ardo odol,
Biurtzeko miraria,
Jan ala janik amaitzen ez dan
Benetako janaria,
Aundirik ba'da au degu aundi
Guregana etorria.

Gari aleak oretu gabe
Ez da egiten ogirik,
Maats alerik zukutu gabe
Ez da izaten ardorik,
Biotz gordiñez, barru zekenez
Ez dago Eukaristirik,
Arturo degu itxuraz, baña,
Jaungoiko kutsu gaberik.

Injustizia dagon artean
Tente gure biotzean

Gorrotoaren arantza beltza
Ba-dago gure artean,
Gure barrua gozatu arte
Jardun gaiten otoitzean,
Maitasun giroz berotu eta
Jarri gaitezen maiean.

Mai batean jan, batean edan
Senide geran antzean,
Elizatikan irten orduko
Alkar zapaldu naiean,
Elbarri dana elbarriago
Sartu nairik ankapean,
Janari onek indarririk ez du
Ola gauden bitartean.

Gure besoak luza dizkagun
Eziñik dabillenari,
Guretik zerbait janari eman
Gose aurkitzen danari,
Gau illunean ostatu gabe
Ba'dabil jende ugari,

Gure etxeko atepak beti
Zabaldu olakoari.

Ogi au janda indartsuago
Kristauak bear du barruz,

Maitasunaren ekintza onak
Inguruetan zabalduz,
Gorrotu larrak kixkaldu eta
On egin bear du erruz
Au eskatuaz gora dezagun
Gure Jaungoikoa kantuz.

PAZKO GAUA

Etxe azpiko intxaurra dago
Pepitaz dana beteta,
Biar goizean dudarik gabe
Egongo zaigu lertuta,
Moko zabalik intzaren eske
Bizi berria badu ta,
Uda-berria nagusitu da
Negu beltza zapaldu-ta.

Egon eziñik aurkitzen dira
Txaboletako ardiak,
Egun sentia ba'dator eta
Irrintzi goiko zaldiak,
Nagikeria astindu dute
Alaituaz belardiak
Bestek ez duna bere barruan
Badu bai uda-berriak.

Pazko gauean aurkitzen gera
Munduak entzun dezala,
Egun sentiko argi printz onek
Uxatuko du itzala,
Kendu dezagun gure barrundik
Pekatu mami azala,
Maitasun giroz berotu eta
Kanpora bota gesala.

Zalapartan da egon eziñik
Estu ta larri etsaia,
Uste zun baña ez du ez bete
Bere barruan zun naia,
Gañean degu argia eta
Gaua joan zaigu ia
Piztu da Kristo, poztu gaitezen
Au degu au gau alaia.

Abere zarra illaje berriz
Jazten da uda-berrian,
Soñu alaiak entzuten dira
Gaur Jainkoaren errian,
Aleluya ta gora ta gora
Abesti au eztarrian,
Alaitasuna gañezka degu
Gure biotzen erdian.

Agustin zanak esaten zuan
Zorioneko pekatu,
Jesus gurekin etzan izango
Adan-ek egin ez balu,
Bizi berria ekarri digu,
Guk ez dezagun makaldu,
Esker beroak emazkiogun
Biotzez soñu ta kantu.

BERPIZKUNDE EGUNA

1

Pozez ziranak illundu dira
 Illun ziranak argitu,
 Len aginduak gure Jesus'ek
 Gaur goizean bete ditu,
 "Etsyak orain ilko naute bai,
 Baña ondo entenditu,
 Iru egunez lurpean baña,
 Laixter egingo naiz piztu".

Ez det ikusi soro zelaian
 Belar berririk erretzen,
 Etzun ikusi inortxok ere
 Lurpetik Jesus irtetzen,
 Erne ta gero zelai guzia
 Belar goxoz da apaintzen,
 Piztu ta gero an-emen Jesus
 Gizonek zuten ikusten.

Bere-alaxe ele berriak:
 Pizturik omen da Jesus,
 Mari Madalen ingura zaio
 Jan bear zuela musuz,
 Pedro ta Joan alkarren leian
 Illobira arnas estuz,
 Ango baztarrak miatu arren
 Toki guztia zegon uts.

Etsai petralak galtzetan estu
 Aurkitzen ziraden orain,
 "Esaten zikan Igerle arrek

Piztuko zala gure gain,
 Ua bizirik, gu buru makur,
 Esana bete dik bikain",
 Zer asmatuko ta asma zuten
 Gezurra zuri ta lirain.

Berengatu zituzten laixter
 Illobiko gudariak,
 Agindu zien bildurrik gabe
 Izkutatzeko egia:
 Ayek lotan da uste gabean
 Ostu zutela bestiak,
 Baña Jesus'ek goiz senti artan
 Argirik zeuzkan begiak.

Utsak dirade giza indarrak
 Aundienak izan arren,
 Aitor dezagun goikoa beti
 Izango degula lenen,
 Askoz obe da gure buruak
 Makurtutzea len-bait-len
 Nai ba'degu ta nai ez ba'degu
 Beti gerade bigarren.

Pazko goizean txori guztiak
 Alaitsu zebiltzan kantuz,
 Euren barruak sentitu nunbait
 Berpiztea zala zantzuz,
 Kristauok ere egi au degu
 Indartzen gaituna barruz,
 Esker sutsuak emazkiogun
 Aingeruekin kantatuz.

PAZKO BIGARREN

IGANDEA

Piztu orduko asi zan Jesus
 Ari ta oni mintzatzen
 Dudarik gabe lenen-lenegoz
 Bere Amakin izan zen,
 Geroxagoan buru-belarri
 Antxe zebillen Madalen
 Onekin ere itz-aspertu bat
 Arek egin zun ondoren.

Apostoluak kuzkurturikan
 Bildurrez zeuden etxean,
 Ateak itxi, leioak itxi,
 Judutarren bildurrean,
 Alako baten argi zantzua
 Otsik gabe bat-batean
 Jesus pizturik zoragarriro
 An zuten euron artean

Tomas etzegon lagun oekin
 Jesus etorri zanean,
 Iñork ez dagi nun izango zan
 Jesus an zan bitartean,
 Argi-argia etzeukan arek
 Barrua sinismenean
 Etorri zala esanagatik
 An gelditu zan berean.

Ari zerate esan da esan
 Ikusitako moduan,
 Sinistuko det nere beatza

Sartzean iltze zuloan,
 Ondo iltzala ba'dakit eta
 Naiz ni ez egon onduan,
 Sinistuko det nere aurrean
 Begiz ikusitakuan.

5

Beste egun bat zoragarria
 Apostoluentzat noski,
 Egun onetan Tomas'ek ere
 Jesus Jauna zun ikusi,
 Bere lagunak esandakoak
 Orduan zitun ikasi,
 Damuturikan negar ta negar
 Bere-alaxe zan asi.

Ekatzu, Tomas, zure beatza
 Sar zazu iltze zuloan
 Zure lagunei esandakoa
 Ez al daukazu gogoan?
 Sinistu zazu piztu naizela
 Etzaitz egon lengoan
 Oek bezela zintzo jokatu
 Emendik aurrerakoan.

Sinismenikan ez baldin ba'du
 Kaxkarra degu gizona,
 Goi-argi onek uxatzen dio
 Biotz barrungo illuna,
 Gizon antzera, kristau antzera
 Zintzo jokatu nai dunak
 Utzi dezala ber-bertatikan
 Gure Tomas'en jarduna.

PAZKO IRUGARREN
IGANDEA

1

Gizon guztiok ez gera beti
Bide batetik ibiltzen
Iritzi asko, joera asko,
An-emen dira ikusten,
Jesus Jaunaren ikasleak'e
Joera asko zituzten
Batzu-batzuek sinismenik ez
Beste batzuek ba zuten.

2

Jainkoak daki gure barruan
Zer asmo diran ibiltzen
Ikasle batzuk Jesus Nagusi
Munduan ikus nai zuten,
Gurutz batean iltzez josirik
Askok ikus zuten iltzen,
Orregatikan ikasle batzuk
Illunik gelditu ziren.

Oetako bik egun aietan
Andik egin nairik alde
Bere ustetan an egotea
Eurontzako zuten kalte,
Joan nai al dek Emaus'era?
Batek besteari galde,
Onen bayetza entzun orduko
Irten ziran kalez kale.

4

Bidean zear zijoazela
Beste bat zaie agertu
Kaixo gizonok, zer zabilzate?
Nola zaudete ain estu?
Ez al dakizu, erantzun zien,
Emen zaiguna gertatu?
Ez genun uste, baña ala da,
Jesus digute urkatu.

5

Mintza ta mintza Emaus-año
Jakiña zuten mintz-gaia
Eldu ziran da irugarrenak
Aurreraxago jun naia,
Besteak berriz ezetz ta ezetz
Illuna zutela ia,
Irurentzako jan edanakin
Gerturik zegola maia.

Jarri ziran da irugarrenak
Eskuan ogia artu,
Beti bezela errespetoan
Egin zuen bedeinkatu,
Au ikustean beste bi aiek
Laixter ziran konturatu,
Bera dek eta... pozaren pozez
Barrua zitzaien gartu.

1

Izango dira an eta emen
 Artzai jatorrak mendian
 Amets jatorra dutela beti
 Euren biotzen erdian;
 Larre goxo ta mamitsuetan
 Ardiak bazka nayian,
 Jesus maitea artzai tankeran
 Agertu zaigu errian.

2

Maite ditu bai bere ardiak
 Ez etekiñaren ordeez,
 Ille, arkume, ez gaztarikan
 Bere onerako gordez,
 Eman da eman daukan guzia
 Artalde guzien onez,
 Au bezelako artzai jatorrik
 Ez da aurkimko errez.

3

Illun-abarra eldu danean
 Eskortan artaldetxua,
 Bildu orduko konmrutzen da
 Baten-bat dula galdua,
 Urritz makilla eskuan dula
 Izerditan pats dijua,
 Sasirik sasi, mendirik mendi
 Zorrozki joaz txistua.

4

Ardi gaxua sasi tartetik
 Indarka irten eziñik,
 Noiz-batekoan gure artzaiak

ONA

An ikusi du bizirik,
 Bana-banaka arantza beltzak
 Atera dizka illetik
 Besoan artu ta igurtzika
 Eskortara dama pozik.

5

Lan klase ontan oitua dago
 Jesus gure artzai ona,
 Begira nola aurkitu zuan
 Ur prexko billa joana,
 Pekam larrez beterik zegon
 Emakume ua dana,
 Jesus artzaiak goxo antzean
 Ekarri zun Beregana.

6

Jainko erria, gera artalde,
 Jesus Bera degu artzai
 Onen ordezeko Aita Santu ta
 Eliz barrutiko Gotzai,
 Artalde zabal jator onetan
 Guztiok gerade anai
 Otso goseak sar ez ditezen
 Arretaz dauzkagu esnal

7

Zori txarrean artalde ontan
 Asko daude sarm gabe,
 Ardi gaxuak or dabiltz larri
 Ez urik eta ez larre,
 Jokaera au ikusi eta
 Nori ez barrua erre,
 Artalde ontan sar ditezela
 Gaude eske eta eske.

8

Biali, Jauna, bazterrik bazter
 Biali artzai mutillak
 Eskortatikan urruti dauden
 Ardi galdu oien billa,
 Ar dezatela goxo antzean
 Eskuan urritz makilla,
 Mundu guzian artalde bat ta
 Artzai bat izan dedilla.

9

Ez gera iñoiz lasai egongo
 Amets au bete artean,
 Zula ta zula daukagu beti
 Arantza latz au barnean,
 Eska deiogun Jaungoikoari
 Eskatu Meza donean,
 Orretarako kanta dezagun
 Arretaz denok batean.

PAZKO BOSTGARREN

IGANDEA

1

Etxe azpiko sagar zugaitza
 Larri zan aurten neguan
 Nere ustetan ilko ote zan
 Zalantza biziz nenguan
 Izardi gutxi eduki nunbait
 Bere adarren onduan
 Ale bikañaz beteko zanik
 Itxura onik etzuan.

2

Eldu da orde noizbaitekoan
 Epel-epel uda-berri
 Onen indarrak idiki dizka
 Bideak izardiari
 Bixi-bixitzen asi da laixter
 Adar txatar eta gerri
 Adartxo oiek iñausi gabe
 Zaudelako zugaitzari.

3

Ni naiz zugaitza dio Jesus'ek
 Zuek zerate adarrak
 Nigan dagonak Ni berarengan

Izango du bai indarra
 Iñausi gabe egon zaitezte
 Galdu gabarik igarrak
 Pekatu larriz eten ezkeroz
 Erreko zaitu su-garrak.

4

Jesus-zugaitzak plaxta-plaxtaka
 sortarazten izardia
 Zugaitz gutzia edertutzen du
 Azal adar ta mamia,
 Orain loretan gero aletan
 Etekiña ugaria
 Aizkora txikiz iñoiz ez ausi
 Elkarrekiko aria.

5

Nigan dagonak eskatzen ba-du
 Zer edo zer beretzako
 Nere laguntzik sekula-santan
 Oni etzako paltako
 Bildurrik gabe eska dezala
 Berak nai dunarentzako
 Nere itzikan ez det Nik jango
 Eska ta emango zako.

PAZKO SEIGARREN

Amaika aldiz egi goxorik
 Esana zera Zu Jauna,
 Danen artean pozgarriena
 Oraitxen entzun deguna.
 Aitak Zu maite zaituen aña
 Maite dezula gizona,
 Dudarik gabe egia degu
 Zuk orain esan dezuna.

Agindu ere agindu dezu
 Sutsu alkar maitatzeko
 Bide au degu gizon guztiok
 Zoriontsu izateko,
 Gudate latzak, gorroto beltzak,
 Ankapean irzaltzeko,
 Erremedio oberik ez da
 Mundu kaxkar onentzako,

Alde bateko eta besteko
 Gizonok nasturik gabiltz,
 Zuzentasuna bear degula

Gizartean erdiz-erdiz,
 Zuzentasuna gure artean
 Jantziko da azal berriz,
 Gizon guztiok sutu ezkeru
 Maitasunaren izardiz.

Legerik pranko bizkar gañean
 Gaurko gizonak ba-ditu,
 Jesus Maixuak esan ziguna
 Ondo zagan entenditu,
 Lege guztien bildumena da
 Onek salbatuko gaitu:
 "Elkar maiteaz bizi zaitetze"
 Lege oni bixkor eldu.

5

Beste egi bat zoragarria
 Jesus-ek esan ziguna,
 Morrontza degu gure artean
 Azal gogortxo duna,
 Ez dizutet Nik "morroi" esango,
 Bai "adixkide kutuna",
 Eskerrik asko Jesus maitea,
 Au degu au itz biguna.

IGOKUNDE EGUNA

1

Alde batera batzuek eta
 Besteak beste aldera,
 Olakorikan gerta ezkeru
 Illunik gelditzen gera,
 Egun batean Olio mendin
 Gertatu zan au ber-bera,

Ikasle talde begira zula
 Igo zan Jesus Zerura.

Ango banatze zoragarria
 Etzan ez zaputzezkua,
 Maitasun giroz egiña zan da

Pozez bete zun barrua,
Ao zabalik gelditu ziran
An zeuden apostoluak,
Itxaropena ba'zuten beurok
Bilko zirala Zeruan.

"Etzaimztet nik, len esan zien,
Illun, ume zurtz utziko,
Zeruan dagon Poz-emallea
Dizuet nik bialiko,
Alaitasunez zuen barrua
Orrek dizute beteko
Ua artzean buru-biotzak
Zeru zantzuz indarmko".

Noiz baitekoan esan zun Onek
Zeruan Aita ba'zula,
Berea eta gurea ere
Zeruan dagona zala,
Egi onetxek lasatzen digu

Biotz mami ta azala,
Bide ortatik ibil gaitezen
Ez izan arren zabala.

Beste berri bat emana zuen
Lengoa bezain egia:
Aitarengana igo orduko
(Jakín gure auleria)
Asiko zala ber-bertatikan
Guri germtzen tokia,
An izango du kristau zintzoak
Bein betirako zoria.

Iriki ziran Zeru-ateak
Ziran ainbat zabaldurik,
Txalo ta kanm Aingeru denak
Pozik ezin ixildurik,
Egun batean bilduko gera
Ua ta gu alkarrekin,
Bitarte ontan kanta dezagun
Sinismen aundiarekin.

PAZKO ZAZPIGARREN
IGANDEA

Aspaldi ontan apaiz jendea
Ez dakit nola dabillen
Adar okerka ote dabiltzan
Asirik nago susmatzen
Batzuk jarria besteak bota
Ondo ez dira uztartzen
Jainko Erria gexalduko da
Bide au ez ba'da uzten.

Ez det esaten iritzietan
Ez dala bear errotsu,
Elkar mokoka ikusten ditut
Aspalditikan oraintsu,
Ez al dute ba apaiz guztiek
Iturri eder bat urtsu,
Ur ontatikan edan da gero
Nola litezke bereiztu?

Bidexur asko izaten dira
 Mendi gallurrerakoan
 Bide ok danak biltzen dirade
 gaiñera eltzerakoan
 Iritzi danak zergatikan ez
 Bildu azkenerakoan
 Maitasun giroz lotu-loturik
 Batasun gozo-gozoan.

Eske ta eske ari da Jesus
 Danok bat izan gaitezen
 Ez gaitezela iñola ere

Asi gu sakabanatzen
 Jesus ta Bere Zeruko Aita
 Biak batera zebiltzen
 Jokera on au gure artean
 Sendo dedilla len-baitlen.

Apaiza ez da etxe zuloan
 Beti egon bear duna
 Legami gisan oretu beza
 Gure gizartea dana,
 Jaki zekenik ez beza eman
 Auxe da guk nai deguna:
 Dakarkigula Zure bizia
 Naikoa degu au Jauna.

PENTECOSTES BEZPERA

1

Pago gerrian zintzilik dagon
 Arda-gayaren antzean
 Zekenkeria besterik etzan
 Gizonaren biotzean,
 Barru gogorra bigunduko da
 Espiritu etortzean,
 Zai ta zai zeuden apostoluak
 Ezagun baten etxean.

Erdi-miñetan aurkitzen danak
 Erdi-ordua du amets;
 Amar bat egun orain dirade
 Jesús'ek egin zun promes;
 Ez ginduela bakardadean
 Emen utziko negarrez,
 Aita ta Beregandikakoak
 Jarriko giñula pozez.

Eske ta eske apostoluak
 Espiritu Santu gosez,
 Ama Birjiña eurokin zuten
 Etzeuden oso alrrebes,
 Biotzak zien: laixter zetorrek
 Goitik bera aize otsez",
 Inguru xamar sentitzen zuten
 Giroa aldatuz aizez.

Agur betiko illuna eta
 Agur betiko ikara,
 Poz-emallea ote ez ote,
 Zeruan bada dardarra,
 Etorri baño lentxagotikan
 Sentitzen zuten indarra,
 Su biziagoz euren biotzak
 Jasoaz Zeruetara.

Gauden gu ere aien antzera
Itxaropen aundiakin,
Biar goizean ESPIRITUA

Izango degu gurekin,
Pekatuaren eragozpenak
Kendu damutasunakin,
Laixter dator ta asi gaitezen
Kantari Aingeruekin.

PENTEKOSTES EGUNA

Sekula baño argitsuago
Dago gaur egun sentia,
Lañorik ez da iñun ikusten
Zerua dago garbia,
Erri-beratik basoetara
Pozik juten da ardia,
Poz aundiagoz Apostoluak
Daukate biotz mamia.

Itz bat edo bi esateko len
Lagun artean ez gauza,
Baiña goiz ontan itzaldi pranko
Pedrok egin ditu plazan,
Erri askoko andre ta gizon
Oni an entzuten bazan,
Izkuntz askoko izandu arren
Entenditzen erreza zan.

Bederatziak ingurua zan
Aize-bolara aundia,
Zoraturikan geïditu ziran
Apostolu ta Maria,
Suzko mingañak buru gaiñetan
Zutela argi bizia,
ESPIRITUA eurekin zuten
Aldatuz barru guztia.

Apostoluen itz bakoitza zan
Suaren txinparta garra,
Bere-alaxe ortzka jartzen zun
Entzule guztien arra:
Nundikan dute gizontxo oek
Olako su ra indarra?
ESPIRITUAK sutu zituen
Apostoluen bularrak.

Len gexal ziran giza-artera
Agertutzeko bildurrez,
ESPIRITUA artu ezkeru
Etzuten bildurrikan ez,
Etsai gogorrek jarritakoan
Gizonari aurrez-aurrez
Onek atzera kuzkurturikan
Egin oi du oso errez.

Kristau bakoitzak biotz baratzan
Zeru loreak ba'ditu,
Sinismena ta itxaropena,
Maitasuna erdibiru:
Adar batekin Jaungoikoa ta
Bestez gizona ikutu,
Au da bidea Jaunak jarria.
Oni bear egin eldu.

Landare oek biotz erdian
Tenterik nai ba'ditugu
Aruntz-onuntzka dabillenari

Sinismenez erregutu,
ESPIRITUA degu barruan
Onek indartuko ditu,
Su ta gar biziz kanta dezagun
Otarako gera bildu.

IRUTASUN DONEA

1

Laguntzarikan iñoiz
Guk bear ba'degu
Oraingo ontan oni
Egin bear eldu,
Gizon argitsuenak
Indarrak motz ditu,
Misterio aundi au
Ezin degu bildu.

Aita Egille degu
Semea Erosle
Espiritu Santua
Maitasun pitzzalle,
Bakardaderik ez da
Oekin ba'gaude
Iges joan liteke
Gizon gezurtzale.

Gure onagafikan
Jaunak esan digu:
Zertasunean bat ta
Nortasunen iru,
Iru persona baña
Batasunez bildu,
Misterio denetan
Audiña au degu.

Bakardadean zauden
Zar edo gaztea
Egi mardul onekin
Konsola zaitea,
Nai ez ba'dezu iñoiz
Zuretik joatea
Naiko dezu pekatu
Larriak uztea.

Misterio da baña
Bizi litekena,
Gure barruan dago
Bizirik den-dena,
Zerua lurreraíño
Egiz dakarrena,
Onek alaitutzen du
Kristauen barrena.

Gizonaren gorputza
Onek du santutzen
Zeru zantzu ederrez
Benetan apaintzen,
Ikasi dezagun ba,
Errespetatutzen
Jainko bizi-tokia
Degulako emen.

8

"Ni maitatzen nauena
Aitak maiteko du,
Espiritu Santuaz
Etorko gera gu,
Kristau onen biotza
Gure bizi-leku,
Barru ori egitan
Edertuko degu".

Zerutar Iru Oek
Ez daude bakarti,
Aingeruak dituzte
Txalo ta kantari,
Bizi-lagun jatorrak
Zaizkigu etorri,
Eskerrak emaiizkegun
Kantuz beraueri.

GORPUTZ EGUNA
(PESTA BERRI)

Itzali bitez giza argiak
Pizmaz zagan sinismena,
Gizonen buru gaiñetik dago
Gure Jaunak egin zuna:
Ogi ta ardo itxura baña,
Ogi ez ardo ez dana,
Kristo Beraren gorputz-odola
Eskuetan daukaguna.

Zugaitzetako ostroa legor
Laixter asiko da jartzen
Zugaitz-gerritik bizi indarririk
Ez balin bada igotzen,
Gure biotza pitzamko da
(Maitasunak du ezkotzen)
Maitasun gabe ezin da bizi,
Naigabeak du itotzen.

Egia esan, itz au ugari
Dabil gure ezpañetan,
Jakin nai nuke ibiltzen degun

Egitan eta benetan,
Itzak ez baiña ekintzak dira
Baliokoak egitan,
Beste askotan bezela emen
Jesus Nagusi lan ontan.

4

Au edo ori emango degu
Maitasunen ezaugarri,
Bai ta zañetan degun odola
Esm aurkitzen danari,
Baña zerbaitxo eman orduko
Kentzen ari zaigunari:
"Naikoa dezu, esan ere bai,
Utzi bizitzen ba neri".

5

Ogia gorputz, ardo odol
Jesus'ek zimm biurm,
Gurm ditzagun Sakramentuan
Eukaristi ontan arm,
Jan ala jan da aimentzen ez dan
Janaria auxe degu,
Arm dezagun, bildurrik gabe,
Barru garbiz Oni eldu.

6

Zeru bidea estua da ta
 Etsayak berriz ugari,
 Nai duten dena egiten die
 Indartu gabekoeri,
 Janikan gabe ezin eutsiko
 Iñork bere biziari
 Jainko-bizia indartutzeko
 Begira janari Oni

7

Gau eta egun ixillik dago
 Aldaretxoan gordean
 Onen aurrean egon da gero
 Indarra degu barnean,
 Illun aldiak ditugunean
 Argiturik bat-batean
 Arreta biziz asitzen gera
 Len utzitako lanean.

8

Amaika gizon zar eta gazte
 Onetxek ditu argitzen
 Eskola asko ez dute baiña
 Zer zer dan ondo jakiten,
 Emengo gauzak utsak dituzte,
 Goikoak aurrena jartzen
 Mutillak dira eskola ontan
 Ta besteri on egiten.

9

Auspez gaitezen sinismen beroz
 Ta sutsu dezagun gurtu,
 Au adoraturuz gure pekatu
 Guztiak ditezen urtu,
 Sarri-sarritan biotz bigunez
 Jaun aundi Au zagun artu
 Orain aurretik bitarte ontan
 Goratu dezagun kantuz.

URTEKO 12 GARRENA

1

Egun guztian mintza ta mintza
 Jesus itxas baztarrean,
 Illun abarra iritxi zan da
 Ixildu zan azkenean,
 Entzule danak ba-zuten naiko
 Jakia euron barnean,
 Txoriak ere kokatu ziran
 Zugaitzaren adarrean.

2

Itxas ontziak bat baño geigo
 Inguru artan ba-ziran,
 Oetako bat ikasleena

Ta Jesus antxe sartu zan,
 "Bizi-biziro jo zazute ta
 Gelditu beste ertz artan"
 Zijoazela uste gabean
 Loak artu zun ber-bertan.

3

Aizeak edo azpi indarrak
 Arroto zun itxasoan,
 Intxaur azala bezela dabil
 Itxas ontzi gixajoa,
 Izuturikan aurkitutzen zan
 Ontzian apostoloa,
 Ukal onduaz Jesus jo zun da
 Ederki astindu loa.

4

"Indarrik ba-da Zure barruan
Agertu zazu indarra,
Itxas gaiztoa arrotu da ta
Moztu eiozu kal-parra",
Jeiki zan Jesus, au baretzeko
Naiko zan Bera bakarra,
Itz bat esanda itxas arroak
Sartu zun bere adarra.

5

Gure barruan daukagu Jesus
Askotan ixil antzean
Biotz barrungo olatutzarra
Arro jeikitzen danean
Onen bultzadak aruntz-ununtzka
Izutzen gaituenean,
Jo zagun beti Jesus-engana
Jarriko gaitu pakean.

TJRTEKO 13 GARREN IGANDEA

1

Gaxo dagonak amest bat ba-du
Buru biotzen erdian,
Senda-gai billa an emen da-bil
Gaitza urrundu naiean,
Oni ta ari galdez-galdezka
Irmo itxaropenean,
Azkenerako buru-makurrik
Gelditzen etsi-etsian.

2

Irakur-gaiak ematen digu
Emakume baten berri,
Sendagilletik sendagillera
Ibilli zan erriz-erri,
Etxean zitun txanpon guztiak
Gelditu zitzaizkan urri,
Ez diru eta ez osasunik
Oraintxe bai egun gorrL

3

Jesus-en berri entzuna zegon
On-ona zala ba-zekin,
Ikututzea naikoa nula

Beatzaren puntarekin,
Jende artera bizi-bizirik
Sartu zan sinismenakin,
Ikutu zion Jesus-i eta
Osasuna zun berekin.

4

Irten zikola, dio Jesus-ek
Indartxo bat berezia,
Ikutu zion aren galdezka
Bereala zan asia,
Emakumea bildur-bildurrez
Ikaratu zan guztia,
Jesus maitea, nik ikutu det
Arretaz Zure jantzia.

5

Joko ba-genu Jesus-engana
Sinismen bero onekin,
Ez giñake ez beti egongo
Naigabe zimurrarekin,
Atzo bezela gaur ere Jesus
Dago biotz onarekin,
Gure artean on egin nairik
Bere indar aundiakin.

URTEKO 14 GARRENA

Etxean ona baztatu eta
 Kanpokoia beti, obe
 Ogi zuria nai ezta eta
 Auzoko beltzaren zale,
 Olako zerbait gertamtzen zan
 Jesus-en garaian ere
 Kanpoan txalo, etxean muxin,
 Arm nai ezin Igerle.

Pozik joan zan egun batean
 Bere Nazaret errira,
 Sinagoea jendez beterik
 Sartu zan erdi-erdira,
 Mintzatzen asi zanean Oni
 Jende guztiak begira,
 Piakaitz xamar entzun zioten
 Baña iñor etzan jira.

Buka zunean entzule batzuk
 Bizkor asi ziran mar-mar,
 Beste batzuek tripa zorriaz

Burla aizea eta far,
 Asko etziran, bi edo iru,
 An zebiltzenak su ta gar,
 Talde txiki bat txalomtzeko
 Oek arm zuten alkar.

Jesus Maixuak ikusi zuan
 Entzule aien joera,
 Oñetan zuan autsa garbituz
 Laixter jun zan andik bera,
 Bere erria bakarrik dezu
 Igerlentzako galera,
 Beste tokian arrera ona
 Emen esma sarrera.

Mirari asko egin ziman
 Auzoetako erritan,
 Berean ere egin ziman
 Baña ez asko, gutxitan,
 Erritar askok inbiriz edo
 Jesus zeukaten begitan,
 Orregatikan bere errira
 Etzan agertzen sarritan.

URTEKO AMABOSTGARRENA

Jesus-en lana etzan bildutzen
 Erritxo baten esian
 Askatasuna zabal nai zuen

Len bait-len mundu guztian
 Iru urtean Aitaren berri
 Eman zun indar bizian
 Baña oraindik mundu zabala
 Lokarriaren azpian.

URTEKO IGANDETA KO IRAKUR-GAIETATIK

Lan ontarako bildu zituen
Gizon tajuzko batzuek
Ta esan zien nere esanak
Munduan zabaldu zuek,
Erriren baten ez ba-zaituzte
Ondo artutzen gizonak
Oñetakoak astindu eta
Laga itzatzue oek.

Langille onak merezia du
Egunoroko ogia
Giza taldeak on artuko du
Zabaldu zuek egia,
Noiz-bateko m etortzen ba-da
Zuen ondora eria
Emaiozute, sar zaiozute
Oni osasun berria.

Inguruetan zabaldu ziran
Etziran joan banaka,
Jesus-en naia bete zuten da
Pozik zebiltzan binaka,
Biotz ximurrek entzun nai ezik
Batzuek egiten zaunka,
Baña baziran gizon jatorrak,
Artzen zituzten txaloka.

Bizi-berritze lan au batepait
Da nere asmo guztia,
Aurrera beti, kaltegarri da
Lana alperrez uztia,
Eldu-eldurik baztar guztitan
Soroan dago garia,
Jaulki baño len esna zaitezte
Kolorez daço oria.

URTEKO AMASEIGARRENA

Gizon guztiok makaltzen gera
Lan astunaren astunez
Apostoluak gizonak ziran
Etziran aingeruak ez,
Erri askotan ibilli ziran
Jesus-en berri emanaz
Orregatikan lur-jota zeuden
Egun ayetako lanez.

Negarra zintzilik ia,
Nekaturikan dezute zuek
Buru gorpurza ta mia
Atsedentxo bat artu zazute
Ori da ba nere naia.

Zenbait nagusik gogor artzen du
Bere menpeko morroia,
Jesus-i orde begietatik

Bildu ziraden baztar batean
Atsedentxo bat artzeko,
Baña jendetza aundia zegon
An Jesu-i entzuteko,
Entzule oyek astirik ere
Etzuten zerbait jateko
Jesus-en itza naikoa zuten
Barrena asetutzeko.

4

Ainbeste gizon ikusi eta
 Jesus egin zan kupitu,
 Ardi galduak Bere altzoan
 Gozo-gozo zitun bildu,
 Onentxen itza entzun nai zuten
 Ta Jesus ezin ixildu
 Janari onek biotz gutzia
 Egiten zien gozatu.

5

Gaurko munduan gizon askotxok
 Jaungoiko itzari muxin,
 Barru zekenak xamurtutzeko
 Itz goxoagorik ezin,
 Orregatikan atozte denok
 Itz oni arrera egin
 Bide ontatik ba zabiltzate
 Izango zute atsegin.

URTEKO 17 GARRENA

1

Ortik etzegok ezertxo, motell,
 Esaten dute batzuek
 Diru gutxi ta kontu xar asko
 Esaten dizkite oyeq,
 Ibill zaitezte elizan beti
 Entzunez gezur mardulek
 Lanaren partez errezo asko
 Alperrek zerate zuek.

2

Olako asko entzuten da gaur
 Gizon artean munduan,
 Baña Jesus-ek ogia ere
 Zabaldu zun inguruan,
 Gizon osoa gotputz ta barruz
 Edukitzen zun goguan
 Iñun premirik egon ezkeru
 Eman naia zun barruan.

3

Millaka gizon mendi ondoan
 Maixuari entzun nairik
 Urdail zabalak utsak zeuzkaten

An ez bait-zeukaten janik
 Jesus bigunak etzeukan orde
 Bere begitan makarrik,
 Ogi arraiak ugarituaz
 Jarri zituen aserik.

4

Nekazariak ereitekoan
 Soro zelaian garia,
 Ezker-eskubi zabalduz esan:
 "Eman zazu janaria".
 Au lo dagola soro zelaian
 Gari salla ugaria
 Goiko Jaun Onen laguntzaz noski
 Gizonak ba du ogia.

5

Eliza eta eliz-gizonak
 Bide berdiñetik dabilz
 Naigaberen bat, ez bearren bat
 Edo gosetea ogiz,
 Olakorikan an edo emen
 Iñoiz gertatuko balitz
 Lagundutzeko gertuda beti,
 Ez gezurrik esan berriz.

URTEKO EMEZORTZI'GARREN
IGANDEA

Isrrael'tarrak larri ziraden
An basa-mortuan zear
Goseak ez du txantxarik eta
Gizonak ogia bear,
Ezaren ezez asiak ziran
Amorratutzen su ta gar
Neke gogorrak, urdallak utsik
Eta begietan negar.

Marru-marruka esaten zuten
Entenditzeko moduan:
Askoz obe zan egon ba-giña
Lenago giñan lekuan,
Sabela bete ogi, eltzeko
Naiko jana begenuan,
Gaur bezelako gose aundirik
Guretan iñork etzuan.

Kutizi pranko bete zizkien
Jainko Aita Zerukoak
Galeper goxoz betetzen zien

Sabela gure Jainkoak
Jan eta jan da ase ta bete
Ango eta emengoak
Arkaitz biziko ur prexkoz gero
Bustirik ondo mokoak.

Beste ogi bat ba degu emen
Jesus-ek aitatzen duna,
Mundu aundian oraindik ere
Ez da oso ezaguna,
Itzez esaten ez da erreza
Jesus-ek eman diguna
Gorputz-odola guk ar ditzagun
Au da betetzen gaituna.

Jan gaberikan ez du gizonak
Luzarorako bizirik,
Betirañoiko izan nai ba-du
Jan beza ogi ontatik,
Aseko zera, biziko zera
Ez da geyago goserik,
Jesus-ek dio Ni naiz ogia
Naikoa jan zazu ortik.

URTEKO EMERETZIGARRENA

Nekaturikan arkitutzen zan
Elias basa-mortuan
Egun guztian gelditu gabe

Aurrera juan da juan,
Oña oñari eman eziñik
Jarri zan zugaitz onduan
Kopla gurarik ez du izaten
Iñork olako orduan.

2

Erretxindurik Elias jauna
Larritutzen zan asia
Oñak urratu, ezpañak legor
Makala gorputz guztia,
Jaungoikoari dei egin zion
Zegola oso etsia,
Kentzeko arren, bildurrik gabe
Al zun azkarren bizia.

3

Ontan zegola Aingeru batek
Jarri zion naiko jana,
Une batean irentsi zuan
Ark ekarritako dana,
Berrogei egun gelditu gabe
Errez zebillen gizona
Iñork ez daki zer janari zan
Baña ba zuen kemena.

4

Sut-opill ua ba-dakigu gaur
Etzan ez gariz egiña,
Ez dago emen errotaririk
Dunik alako iriña,
Aingerutxoak ekar zuena
Goi aldekoa, jakiña,
Indar au badu gureztat ere
Sinismendunak ba-giña.

5

Ni naiz ogia dio Jesus-ek
Goi-Zerutikan jetxia
Ni jaten naunak bein betirako
Berekin dauka bizia,
Janari au gaur emen daukagu
Aldaran Eukaristian
Jan ala jan da amaitzen ez dan
Zeruetako ogia.

ANDRA MARIAREN IASOKUNDEA

1

Beterik ditu Andra Mariak
Egin bear zitun lanak,
Apostoluak zabaldu ziran
Mundu zearrean danak,
Umatutako sagar alea
Bezela zegoen Ama,
Jesus maiteak poz-pozik orain
Eraman zun Beregana.

2

Gu bezelaxe aragizkoa
Izanikan Andra Mari,
Bere burua makurtu zion

Apalki eriotzari,
Bere Semeak lau puska egin
Eriotzaren lokarri,
Usteldu gabe gorputz illari
Piztu zion bizi berri.

3

Semeak Bere Amarentzako
Gerturik zeukan tokia,
Etzan izango nola-naikoa
Dudik gabe egokia
Iru persona Jaungoikozkoak
Oen ondoan Maria,
Aingeru taldez bete-beterik
Inguru-mari guzia,

4

Piztu orduko ondoan zuen
Aingeru talde aundia,
Oen eskutan igo zan Mari
Arin zeruen erdira,
Ango abesti, ango txaloak
Esateko zallak dira,
Zeru lurreko Etxekoandre
Jar zuten Andra Maria.

5

Zeruan dago Andra Mari ta
Gu emen estu ta larri,
Gure Ama da, estu aldian
Dei egiogun Berari,
Bere laguntza emango dio
Premian dagoenari
Orregatikan Aingeruekin
Asi gaitezen kantari.

TJRTEKO OGEI TA BAT GARRENA

1

Kafarnaun-en mintza zan Jesus
Eukaristiari buruz,
Oni entzuten ao zabalik
Gizon emakume erruz,
Onen esanak batzu-batzuek
Jasotzen zituzten tajuz,
Beste batzuek ikaraturik
Egiten zioten zaputz.

2

Neri loturik iñor ba-dago
Ez dago bere indarrez,
Lan bikain ori beti izan da
Nere Aitarena berez,
Nere esanak ontzat artzea
Beti-beti ez da errez,
Orregatikan zuen artean
Batzuek diote ezetz.

3

Ikusi zitun Bere ondotik
Gizon batzuek igesi
Berak esana gogorxamarra

Iñola ezin ikasi,
Beste batzuek Jesus-en itzak
Ontzat artzen ziran asi
Zugaitz zarrari untza bezela
Berari ziran erantsL

4

Galdera auxe egin zun Onek
Entzun zuten an zeudenak:
Zuek ere gaur Ni utzi eta
Iges zoazte den-denak?
Ixill-ixilik gelditu ziran
Ango andra ta gizonak,
Bat bakarrik zan danen artean
Gizonki mintzatu zana.

5

Ba dakizute mintza zan onek
Pedro zuela izena
"Zu zera Jesus, norengana gu
Joango gerade Jauna"
Zure itzak gu bizitzen gaitu
Au degu bikaña jana,
Emen gaudenok sinisten degu
Ez gaitezen sakabana.

URTEKO OGEI TA BIGARRENA

Sagar ale bat txuri-gorria
 Sallean begiz jo nuan
 Mauka ederra izango diat
 Neretzat artzerakuan,
 Mallatu gabe artu det eta
 Kontuz igurtziz eskuan,
 Azalez onik zegoen baña
 Ustela zeukan barrua.

Gizonok ere lagun artean
 Itxuraz gera agertzen
 Baña barrua nola dakagun
 Ez da erreza jakiten,
 Lege azala betetzen degu
 Mamia degu baztartzan,
 Jesukristoren egun aietan
 Onelakoak ba ziren.

Oitura zala jan aurretikan
 Esaten zan garai artan
 Eskuak garbi-garbi zirala

Gizonak bear zula jan,
 Jesus ta Bere ikasle aiek
 Etziran asi lan ontan,
 Beste maitarrak suak arturik
 Ekin zioten an bertan:

4

"Ene Maixua, arriturikan
 Gelditu gera gu emen,
 Zure taldeak jan aurretikan
 Ez du eskurik garbitzen".
 Jesus'ek berriz bizi-biziro
 Orduan au esan zien:
 "Ez izan beti oitura zale,
 Barrua bear da zuzen".

Isaias'ek ondo esan zun;
 Onek miaz goratzen nau,
 Baña biotza neregandikan
 Urruti-xamar dauka gaur,
 Azalez dira zuri-zuriak
 Baña barrua dute gau,
 Azal ta mami baztartuko det
 Egun batean erri au.

URTEKO OGEI TA IRUGARRENA

Galilea-ko itxas ondoan
 Gizon bat zebillen xor-xor
 Kuzkur antzean egondu io zan
 Jaiotzatican bait'zan gor
 Esan zioten Jesus-i eta
 Onek erantzun ea nor?

Beatzarekin erakutsiaz
 Esan zioten ara or.

Aitatu degun gizon eri au
 Zegoen gor eta mutu
 Jesus maiteak Bere beatzak
 Belarrian zizkon sartu

Gero txistuaz aren mingaña
Kontuz-kontuz zun ikutu,
Gor-mutu zana berealaxe
Denen aurrean sendatu.

3

Sendaturikan gure gizona
Izketan asi zan garbi
Gizon ontatik euskaldun askok
Ba daukagu zer ikasi
Iñork ez daki noiz eta nola
Lan onetan giñan asi
Baña gaurkoan gure izkuntzan
Biraua degu nagusL

4

Garai batean gure apaizek

Mintzatzen ziran Elizan
Biraua zuten zigortzen ayek
Gaitz bildurgarrien gisan,
Gaurkoak berriz aspaldi ontan
Gai berri asko mintzetan
Birau likitsa gaizki dagola
Itzikan ez dute esan.

5

Askatu Jauna gure mingaña
Mintza gaitezen egoki,
Zure izena begirun aundiz
Beti dezagun eduki,
Gorantza, kantu, otoiz gozoak
Ezpañetatikan jaulki
Zure esanak ondo entzunaz
Biziko gera ederkl

URTEKO 24 GARRENA

1

Apostoluek Maixuarekin
Bidean kontu-kontari
Batek emengo, bestean ango
Berri emanaz alkarri,
Alako baten Jesus-ek galde
Ondoan zeuzkan ayei:
Zer diote or giza-artean
Nor naizela, diote Ni?

2

Batzuk diote: Jon zerala Zu,
Elias berriz besteak,
Igerleren bat ote zeraden
Zalantzan daude beteak.
Jeiki zan Pedro danen artetik
Bizi-bizi esatea:

Zu zera Kristo, Jainko Semea
Benetako Igerlea.

3

Jesus-ek die: emen esana
Ez agertu iñortxori
Geroxagoan azaldu zien
Bere azkenaren berri,
Etsai maltzurren atzaparretan
Egingo zala erori,
Ilko zutela, iltze gogorrez
Josita gurutzeari.

4

Orduan Pedro suak arturik,
Asi zan esan da esan:
Olakorikan ez bedi gerta
Gu bizi geran lur ontan,

Jesus zegoen Aitaren naia
Ziari egitekotan,
Orregatikan Pedro-ri dio:
"Alde emendikan Satan".

5

Ez ezkerrera ez eskubira

Iñork ez du bereiztuko,
Aitaren naia beste biderik
Ez bait-zuan Beretzako,
Bidetxur asko dauzkagu emen
Au ta ori egiteko,
Etzagun aztu Goikoen naia
Nagusi dala gutzako.

URTEKO OGEI TA BOSTGARRENA

1

Gizonak nundik ikasia du
Goi-zale izate ori?
Iñork ez du nai izaterikan
Azaren azpiko orri,
Apostoluak ezta-baida bat
Eurekin zuten ekarri
Batak bestea menpean nai ta
I baño geyago nok ni.

2

Goi-nai aizea uxatutzeko
Auxe biderik onena:
Asmo au duna jarri dedilla
Beste guztien urrena,
Ardura aundiz gozo artzeko
Bere menpean daukana,
Egiteko au dala diote
Agintaritzak duena.

3

Agintaritza dio Jesus-ek
Gizonen serbitzurako
Bestelakoak gure artean

Ikusten ditugu pranko,
Agintaritza serbitzu balitz
Gaurko gizon askontzako
Goikoak bera bota naiean
Gutxi lirake asiko.

4

Segurantzirik bai ote degu
Jainkoa maite degunik?
Au jakiteko bide argia
Erakutsiko dizut nik:
Urko laguna maitatu zazu
Eta ez izan bildurrik
Jesus maiteak esana da au
Ume txiki bat arturik.

5

Aurtxo txiki bat artzen duenak
Iñoiz Nere izenean
Jakin dezala Ni artzen naula
Ori egiten dunean,
Ni artzen naunak Aita Jainkoa
Biok gaude ta batean,
Kezkarik gabe egon liteke
Onela jokatutzean.

URTEKO OGEI TA SEIGARRENA

Eliz baratzen lenago ere
 Ba zan barrabas belarra
 Gu beti goyen zu beti azpi
 Ni naiz langille bakarra
 Bestek egiña on ikusteko
 Begitan degu makarra,
 Beste norbaitek moztu ziola
 Deabruari kalparra.

Jon zan onela mintzatu zana
 Jesus zan onen entzule,
 Oni ordea erantzun latza
 Mingañetik zikon erne:
 Jakin zazu, Jon, aurka ez dana
 Beti dago gure alde,
 Mirariren bat egin duena
 Ua degu gure-gure.

Etzan agortu Jesus-en itza
 Ori esanda bakarrik,
 Iñor ba-dago bide txarrera
 Beste eramaten dunik,

Askoz obe du olako orrek
 Sokaz lepoa loturik
 Bere burua potzura bota
 Errotarran zintzilik.

Zure oin, esku edo begia
 Gal-biderako ba-dezu
 Bildurrik gabe al dan azkarren
 Zeuretik kendu zakezu,
 Oyek danakin inpernu baño
 Batekin Zeru obezu,
 Emen utziak goiko Zeruan
 Zuk arkituko dituzu.

Batzu-batzuek esaten dute
 Ez dala inpernurikan,
 Bada ez bada iñork ez du nai
 Erretzen egoterikan,
 Saya gaitezen alegiñean
 On egiñean lan da lan
 Bide ontatik sartuko gera
 Zeruetako ganbaran.

URTEKO OGEI TA ZAZPIGARRENA

Gure Jainkoak egin zunean
 Lendabiziko gizona
 Ala esan zun: bakar-bakarrik

Egoatea ez da ona.
 Berealaxe emango diot
 Len-gizon oni laguna,
 Eta sortu zun emakume bat
 Gu denon ama deguna.

2

Lendabiziko sendi goxoa
Bikote onek zun egin,
Urte askotan bizitu ziran
Zoriontsu alkarrekin,
Ondorengoak bide ontatik
Geroztik diote ekin,
Ume txikiak ager ditezen
Besapean ogiakin.

3

Egun oetan bizikera au
Egin zaigu anka metu,
Bata bestekin bildu ta laixter
Egiten dira aspertu,
Au ez litzake gertatuko ez
Sakon ba'lirade gertu,
Maitasunean sendo lirazke
Naiz ta biak urtez zartu.

4

Ezkontz bizitzan ez dira beti
Lore txuriak izaten
Arantza beltza zula ta zula
Inguruan da agertzen,
Poz-naigabeak andra-gizonak
Biak dituzte ikusten,
Jainko girorik an ez ba'dago
Orduan dirade lertzen.

5

Jainkok egiña ez dezakegu
Gizonok sakabanatu,
Ezkontz aurretik neska-mutillok
Ondo zazute pentsatu,
Nor norekin, da zertarako dan,
Eskontzako Sakramentu,
Lezio onak artu ta gero
Zaitezte biok ezkundu.

URTEKO OGEI TA ZORTZI-
GARRENA

1

Mutil gazte bat jakin nairikan
Eldu zan Jesus'engana
"Egin bearra azaldu, arren,
Zeruan sartzeko, Jauna".
Agindu batzuk azaldu zizkon,
Etzun onek Ark esana,
Gaztetatikan betetzen det nik
Orain Zuk esan dezuna.

2

Ari lodia ez degu bear
Loturikan gelditzeko,
Me-meak ere naikoak dira

Egazten galerazteko,
Jesus'ek dio: atoz Nerekin
Santu-santu izateko,
Ondasun danak laga itzatzu
Pobre dagonarentzako.

3

Senda-gai danak ez dira beti
Artzen izaten errezak,
Batzu-batzuek gozo gutxi ta
Gertatzen zaigu garratzak,
Gaurko mutillak aundiak noski
Berekin zitun dirutzak,
Orregatikan mingarri zitun
Onek esandako itzak.

URTEKO IGANDETAKO IRAKUR-GAIETATIK

Nekeza dio Jesus Maixuak,
Ta zion bene-benetan,
Bere biotza loturik ba'du
Emengo ondasunetan,
Kostako zaio sartzea gero
Zeruetako atetan,
Errezago da ganbelu gizen
Sartzea orratz zulotan.

Orain Jesus'ek esan duen au
Esaera zarra degu,
Orratz zuloa txikia da ta
Aindia berriz ganbelu,
Jainko-txikia diru duenak
Zeruan sartzea zail du
Gero damutan egondu gabe
Orain gaitezen esnatu

URTEKO OGEI TA BEDE-
RATZIGARRENA

1

Geroko orrek zulatutzen du
Zorrozki gure biotza
Gizon guztiok zorionaren
Billa ta billa gabiltza,
Askotan emen esan digute
An daukagula bizitza,
Santi ta Joan onen atzetik
Egarri biziz dabilta.

Segurantzia nai zuten oek
Zeru erdian jartzeko,
Orregatikan Jesus-i esan
Bere ondoan artzeko,
Edozer gauza egiteko prest
Biak zeuden ontarako,
Illi bear ba-zan illko zirala
Gero zeruan sartzeko.

Nai ba-dezute entzun zazute
Orra Nik egia esan:
Gaur eskatua ez da erreza

Ez dago Nere eskutan,
Ortarako gai izate-ezkero
Irabazi mundu ontan,
Gero Zeruan egon zaitezten
Nere ezker eskubitan.

4

Beste lagunak au entzutean
Jarri ziraden asarre,
Erregali au ona litzake
Emen gaudenontzat ere,
Oen joera ikusi eta
Barrua zitzaien erre,
Etzan erreza olatu tzarrak
Orduan jartzea bare.

5

Ajola gutxi izango degu
Gero Zeruan sartzean
Berdintsu dala iruditzen zait
Erdian edo ertzean,
Erdirik eta ertzerik ez da
Zeruan nere ustean,
Sartzen ba-gera izango gera
Zorion bete-bete.

URTEKO OGEI TA AMAR
GARRENA

Gizon itxu bat lagun batzukin
 Jarririk bide ertzean
 Patxadan zegon kontu-kontari
 Eguzkitan epelean,
 Norbaitek esan Jesus an zala
 Apostoluen tartean
 Mesedetxo bat eskatu zion
 Jainkoaren izenean.

Ingurukoak: ago ixillik
 Ari zioten esaten,
 Jende guztia guri begira
 Asiak gaituk lotsatzen,
 Ark orde oyu aundiagoaz
 Jesus-i arren da arren,
 Sendamtzeko eskatzen zion
 Gaitz artatikan len-baitlen.

Jesus Altsuak geldimrikan
 Ekartzeko esan zien
 Ta Beregana itxaropentsu

Lagunak eraman zuten,
 Onek galdetu: zer nai zenuke
 Zuri egitea emen?
 Arek erantzun: itxu nago ta
 Astea nai det ikusten.

Lan audirikan etzun Jesus-ek
 Itxua sendamtzeko,
 Itz bat bakarra naikoa zuen
 Mirari orretarako
 Gorputzez itxu zegoen baña
 Barrua argi zulako,
 Jesus maiteak sendam zuen
 Sinismena zaukelako

5

Gure artean batekoz beste
 Sarritan zaigu gertatzen
 Gorputz begiak argiak baña
 Barrurik ez guk ikusten,
 Sinismenakin asi gaitzen
 Biotz baztarrak miatzen
 Izango degu naikoa lana
 Oker dagona zuzentzen.

URTEKO OGEI TA AMAIKA-
GARRENA

Gaurko onetan gizon eldua
 Jesus-ekin da mintzari
 Jakin miñakin urbildu zaio

Bat-batean idazlari,
 Aginduetan lenena zein dan
 Gadem dio Jaunari
 "Maita Jainkoa" erantzun Onek
 Zure biotz biotzetik.

2

Egun ayetan askotxo ziran
Mingañaz Jaungoiko zale
Baña Jainkorik ez da maitatzen
Urkoa maitatu gabe,
Gizon ugari ibiltzen ziran
Premi aundiaz eskale,
Jauntxoak orde oetatikan
Geyentxoenetan alde.

3

Gure Maixuak ba zekien au
Ta jarraitu zun aurrera
Idazlariak bat eskatu ta
Onek eman bigarrena,
Maita Jainkoa, au dezu lenen
Beste bat dator urrena:
Zure burua bezela maite
Ingurura datorrena.

4

Ez al gera gu jokera ontan
Sarri-sarritan ibiltzen
Eliz erdian intzentsuakin
Gure Jainkoa lurruntzen?
Bitarte ortan barru guztia
Gorrotz dago kixkaltzen
Ingurukoak nola jarriko
Andik kanpora ankapen.

5

Jainkoarena urbil nai dunak
Eldu beio bide oni:
Asi dedilla biotz-biotzez
Laguntzen urko launari,
Jokera onek jarriko zaitu
Begira goiko jaunari,
Maitasun biak loturik daude.
Bat dituzu eta ez bi.

Muslariak

DORRONSORO'TAR IOAKIN

Etzan nola naiko ez-bearra izango astelenetan illunabarrean Antoniok, Joxek, eta Inaxiok, peritik etxerakoan, erriko ostatuan, sartu-irten bat egiten ez ba-zuten.

Baapo egin da etorri arren, pitxarrekoa laixter menderatzen zuten.

Ango arto ta emengo gari, tekela aundi gabe jardun oi ziran kontu kontari.

Mus alditxo bat egin bear ba... Ontan ere mutillak ziran. Arta-jorran bezin pijoak. Alkarrengandik nekez sakabanatzen ziran. Andik edo emendik erreuseren bat inguratzen zitzaizen da... majo.

Gaur goiz antzean etorririk d?ude. Kale alde ortan geitxo igurtzi edo...

ANTONIOK: Mutillak, gure bizkarretik amaikak jaten die! A ze nolako orraztua eman diguten gaurkoan!

JOXEK: Bai gorriak ikusteko jayoak gaituk. Senperrak ikusi dizkiagu.

Guk jaten eman eta besteak jetzi. Narrutu gaituek gaurko kontribuzio zale oyek.

INAXIOK: EZ ikaratu mutillak, Jainkoa beti ematen ari dek. Gure etxe gueneko erbalda tella kozkorra bezin gorri zegok, iturri ondoko soroan artoa ikaratuta, ukatu-ez-ukatu. Baña, beitu-beitu, Erriotik beera euria zetorrek.

JOXEK: Euri anka mea dek ori. Etziok orrek artoari jeiki aundirik eraginaziko.

INAZIOK: Euri anka mea? Ixo-ixo, euri zaarra dek eta...

ANTONIOK: Ori esan. Mirentxuuiu. Ekarri esku-liburu txikia. Mus aldi bat egin bear diagu. Kanpoa irabazian zegok.

MIRENTxu eskuan kartak dituela: Auxe da tamaña ederreko euria. Goitik etorri ala lurak iraatzi.

ANTONIOK: Muserako laugarrena palta. Ez ote da gaur arkuma erraturik? Pello-txiki zalea dek ba, onela puntzioetara biltzen.

JOXEK: Aizak, Pello-txiki zer-edo-zer egiteko asmoetan dagola edo...

Asteasutarra dakarrela edo... Zurrumurrua alegia. Ta, itxurazko emakumea izan bear dik, diotenez. Bekozko alai-alai ez emendik, baño, artaldeko erkiñena ere ez dik izan bear.

INAZIOK: Pello-txiki ezkondu? Eleizak armko dik. Berrogeitik gora juango dek, noski.

ANTONIOK: Emendek, bera dek, Otsoa aitam ta otsoa etorri.

PELLOK: Gau on Jainkoak.

DENAK: Berdin, Pello.

ANTONIOK: Ori dek plixti-plaxta otsa! Pello. Gure gixa, arta-jorran ez dek ik olako izerdirik ateratzen.

PELLOK: Audek botatzea, au. Erradaka ari dek. Malezi gabe ari dek. Barru aldean ez dit izan bear leorterik, baño .. kanpotik ere ezetu nok ederki gaurko onetan.

ANTONIOK: Pello?, musean jokam bear ziegu biok Joxe'ri ta Inaziori.

PELLOK: Etzegok giro txarra. Zenbat usteletara?

ANTONIOK: Irutara. Oraingo gauak adarra luzea dik. Barru au ixiltzeko esteari betekara tajuzkoa eman bear zoagu. Zartagikoa jokamko diagu.

INAZIOK: Bigun antzkoa izan dedilla, beñepein. Au-erreminta ere nola-alakoa zeukeat eta.

PELLOK: Jakiña, Lan asko egiñak. Amusmak onezkeru.

MUSEAN

ANTONIOK kartak eskuan arturik, karta emalle zein dan ikusteko asi da zabaltzen: urrea, ezpata... Inaxio ematen. Eskutik gaituk. Utzi bluxak silla adarrean, da, eskuari txism emanda, asi gaitean.

PELLOK: Aundira enbido.

JOXEK: Aundira enbido? Emen ez dek giro. Zenbat errege Inaxio?

INAXIOK: Errege kaxkar bat ba'dit. Urrengoa anka me xamarra. Euki ere... aurki egingo ziot.

JOXEK: Euki aundia. Oraindik asieran gaimk.

PELLOK: Paso txikira.

JOXEK: Goazen.

ANTONIOK: Duenak jasoko dik.

INAXIOK: Dijoala.

PELLOK : Pareak bai.

JOXEK: Bai ta.

ANTONIOK: Ederrak.

LNAXIOK: EZ dituk uztartu.

PELLOK: Lakari bat arto enbido.

JOXEK : Bei lanparoi duna eztulka bezela, i enbidoka. Ori dek etorria ori!

ANTONIOK: Gazta zarrari arra bezela etortzen zaiguk

INAXIOK: Arro al gera? Jaso, jaso. Jokurik?

PELLOK: Bai.

JOXEK : Urrengoan. Aulak aulgarria. Ez pare ta ez joku.

ANTONIOK : Zer edo zer iritxi dek.

INAXIOK: Nik ere ez dit ba txar-txarra.

PELLOK: Amar enbido.

INAXIOK: Orain zegok emen komeria. Esamiña egin bear dit. **Amar** askotxo ez ba-dira? Opotik negok. Kiñurik etzekiat egin ote **dun...** Axaria dek au ta. Ezkerreko begi ori elbiak uxatzen ibilli ote dun errezoloa zeukeat.

JoxEK: Egon lasai Inaxio. Pareetara asko jo dizkik. Ik ogeita amaikaren kiñua esaten dek? Ezpañetan ere etzekiat ba zer edo zer ez ote zun. Duple tzarren batzuk edo... Dana dala, jo-izkiok amar geyago.

INAXIOK: Jota zeudek.

PELLOK: Ordago.

INAXIOK : Ordago? Gizon au goor dago. Au dek maatilla au. Atzera egin da ogei galdu. Bota ta berriz, dana galtzeko arrixkua. Ori eskutik...

JOXEK: Botaiok! Duenak eraman dezala.

PELLOK : Bota, Antonio, bosteko ori. Au dek au! Esaten nian nik: jaten dizkigu. Gure zakurrak txuleta-ezurra baiña aixago jaten dizkigu.

JOXEK: Ago, ago Pello, Ori dek arto bero usaya. Ustel bat dezute. Ez daukazute irugarrena egiñik.

* * *

Bigarren ustela etzuten aiñ errex pin biurtu, baña triki ta traku, eraman zuten beñepein Pellotarrak.

* * *

Irugarrengoan laixter ziran indarretan berdin. Zazpiña am?-reko.

PELLOK: MUS eskuak.

JOXEK: An det laguna.

ANTONIOK: Eskuari mus.

INXIOK: Garai txarreko mus otsa. Zertan gera, lagun ?

JOXEK: Nik tantotxo bat, utzi ezkeru.

INAZIOK: Jokurik?

JOXEK: Ez.

INAXIOK: Asi.

PELLOK: Paso aundira.

JOXEK: Paso.

ANTONIOK: Bai bai, dijoala. Ez gaituk gerra gure.

INAXIOK: Goazen, goazen. Emen ere etzegok pantasi aundirik.

PELLOK: Txikira ere lengo eskola, paso.

INAXIOK JOXERI: Ikutu, proam beñepein.

JOXEK: Ordago txikira.

ANTONIOK: AU dek adarra jotzea, au, ni ortara egon da beonek jo?

Bia ta laua, zer dizkiok Pello? Utzi ezkeru joku-pareekin bukam egiten die. Buruari atz egin bearra zegok. Utzi guzia galdua dek, gure amonak esaten zuenez.

Ire puntu kaxkar orrek ez dik ezer balio. Oek joku zazarren bana ba'diz-kitek.

PELLOK: Bota ta pakea.

ANTONIOK: Or dezute ba. Bi bateko...

JOXEK: Bi bateko.

ANTONIOK: Laua...

JOXEK ezpañak esm-esm egin da: Laua.

ANTONIOK: Txotekoa.

JOXE galtzetan estu da. Berea txalduna, alajaña. Ankaz gora bota dim kartak. Zer da ordea, gaurko au? Zapatero.

Batzuek illun, besteak pozik. Danontzako ez da peri txarrik.

Apaltzekoan etzeukaten zintzurrean esirik.

Pellok eta Antoniok apari goxoa egin zuten. Galtzalleak ere ale-
giña sayam ziran. Ostam-ataria leizea bezin illun. Zotza begira emanda
ere etzan ikusten. Lastargi bana eskuan... alde banatara jo dute gure
muslariak. Gau on pasa. Urrena arte. Gaur zortzi arte.

Leaburu. 1950'ko Iibeltzak 24.

Baserritik alde?

Lenengo irrati-saioa

EGIA'TAR LUIS

(TABERNAN GAUDE. VASO-SOÑUA ETA GIZON-IZKETA PARRA-PARRA).

FERMIÑA NESKAMEA.—Ona ementxen vasoak eta ardo-botella. Nun jarriko zerate?

JOXE.—Edozein tokitan.

MANUEL.—Goazemak onera. Baztar ontara.

FERMIÑA MAIA PRESTATZEN. VASO-SOÑUA.—Au artutakoan deitu. Serbitzeko presto nago beti. Olako ardoa nun daukazutelako?...

MANUEL.—Bai, Fermina, bai. Ondo serbitzen gaituzu. (VASOAK BETETZEN).

JOXE.—Ta... nola izan da ori? Egia al da errian diotena?

M.—Bai, gizona, bai! Zer gertatuko, eta Sagar-mendi'neko semeari, Martiñeri, kinielak tokatu, gizona!

J.—Zenbateko kiniela?

M.—Amalaukoa, motel.

J.—Diru asko al du.

M.—Naikoa! Ez diat esango mundu guztia aberasteko ainbat izango danik, bañan... pilla polita. Zenbat iruditzen zaik?

J.—Nik al zekiat? Dana dala, poztuko itukan Sagar-mendin. Martiñen gurasoak ondo merezia zeukatek. Aurreko urtetan pasa dituzten neke gorriak! Pedro-Migel ere naiko jorratua zegok. Gizon orrek, bere seme maite ori Martin aurrera ateratzeko, zenbat izardi-lan egin dituan!

Etzekiat zenbat tokatu zaien, bañan beintzat, bei bat edo beste erosteko ainbat gañeratu bazaiek, etzegok gaizki.

M.—Iri bakarrik esango diat. Ez ordea iñori iñundik zabaldu.

J.—Ez motel! Ez! Lasai itz-egin dezakek. Ona nauk ni, besteren gauzak baztarretan zabaltzen aritzeko! Berritsutako jaioa naizela ustel al dek?...

M.—Gutxienez milloi-laurdena tokatu zaiek.

J.—Arrania! Milloi-laurdena diok?

M.—Berrogei milla durotik gora gutxienez. Pedro-Migel ta Joxepa-Antoni etziran gutxi poztuko.

J.—Baita seme-alabak ere. Martin ta... nola du izena alabak?

M.—Maritxu! Neska polita benetan

J.—Emen degun ederrenetakoa, bai. Mutillak zoratzen zebiltzek onen atzetik. Eta neska langillea izan bear dik.

M.—Orixe, bai! Etxea gobernatzeko neska trebea! Josepa-Antonik ez du bere alabarekin etorkizun txarrik.

J.—Auxe, gauza auxe bakarra aditu diat oker-xamarra orrena.

M.—Zer, Joxe? Jendeak esaten ez duan gauzarik...

J.—Buru-arintxo dala. Apain-zalegia edo...

M.—Joxe, gaurko emakume geienak dimk apain-zale xamarrak.

J.—Bai! Bai! Eta gazteak batez ere. Etzekiat gazte izateak zer duan. Gu gerok ere zer giñan gaztetan? Biotz onekoak bai, bañan zenbat amets merke buruan! Zenbat ausardi, zenbat naikeri, eta zenbat aize! Eskerrak geuren etxetan estu-estu lom ginduztela aldi aye-tan! Bestela...

MANUEL.—Bestela auskalo nun geunden onezkero... Ja... Ja... Ja...
(NESKAMEARI DEITUZ) Fermina!

FERMINA.—Zer bear?

M.—Beste vaso-ardo bana.

F.—Bai, ba-noa (BEREALA BETOR).

M.—Eta Martiñengatik zer diok? Ori dek mutillaren suertea! Naiago nitek, diru ori ondo erabiliko balu. Oraintxe dik etxea jasotzeko aukera egokia. Gurasoak pixkana zartzen ari zaizkiok, eta basarriak lanerako besoak bear dizkik.

F.—Ona ementxe ardoa! Ez al da gustagarria?

JOXE.—Bai, Fermina, sainete polka dizu. Aizu, Fermina, aditu al dezu ezer?

F.—Nik aditu? Eta zeñek ez? Jesus, Jesus! Sagar-mendin pozez zora-bearrean omen daude. Martin batez ere, izugarri dabil. Arestian emen izana det, eta amalau lagunekin etorriko dala esan dit.

Afari bat eman bear omen die. Atarian jarria daukat maia. Amalau ta Martin, amabost afaldar etxean. Ez al da pozteko ainbat?

M.—Gaur arrapamko dute mozkor ederra batzuen-batzuk.

- F.—Zer naizu? Ni ez mozkortzen diralako poztutzen, bañan... diru pixkat ez bait-dator gaizki. A! ta zuek etzaitetze emendik mugi, e? Nik bai-bait-dakit Martiñek, zuena ere patuko duala! Bi vaxo-erdi artzen dituan orduko, dituanak eta ez dituanak edozeñi emango lizkioke. Martiñen biotzaren ona! Gero arte (BA-DIJOA).
- J.—Bai, biotza ona du Martiñek, bañan bildur ematen zidak, Manuel. Lanerako baño, zurrutarako zaleago ez ote dan.
- M.—Gaztea da oraindik. Zuzendu diteke noski, eta giza- seme bikain egin. Gaia ona du berez... erariak ondatzen ez badu.
- J.—Orixe da ba, Sagar-mendi baserriko itxaropena.
- M.—Eta bere gurasoen izardien frutua, Joxe.
- J.—Orrek daukan sasoiarekin!
- M.—Indarrak eta sasoiak salgai zeuzkek. Aizkora-apustun ere aritu omen zan lengoan, eta markak egiñak izan bear dizkik. Eta pelotarako zer arintasuna, eta zer joera bizia duan! Olako mutil gutxi geratzen da Euskal-Errian.
- J.—Tira ba! Orain izan duten zorion onekin, denok poztutzen gaituk errian, eta, nik beñepein, Pedro-Migeli pozaldi luzena opa zioat. Bejondeiola.
- M.—Aren etxera joan bear ko dek bosteko ematera. Ba-dakik Pedro-Migelik ez dala, gu bezela, taberna-zulotan ikusten.
- J.—Ez, Manuel, ez! Etzedukek gure antza aundirik! Deabruaren bizarra!
- M.—Egia esaten diat, Joxe! Neri "zein jarriko ukek alkate errian" esango balidate, Pedro-Migeli emango nitxiokek botoa. Martiñen aitari. Ori dek gizona, ori!
- J.—Bai! Alaxe da, bañan ez diat uste, semearekin oso pozik dagonik. Lengoan ala esaten zidan: "Nere Martiñek lanerako gogo aundia-goa, eta zurrutarako txikiagoa balu!"...
- M.—Guk ere (ez al zaik iruditzen?) obe genikek gutxixego edango bagendu! I baño... zer dek ixtillu ori?...
(Martiñen amalau lagun mutil-gazte sartzen dira: "Gabon, jaunak!". "Au dek, au suertea izan duana!". "Aprobetxa zagon, motel!". "Aufa mutillak!". "Fermina, ekartzan ardorik onena". "Gora Martin!". "Bejondeikela Martintxo!. Eta beste orrelago gauzak esan bitzate nastuan eta zalaparta bizian).
- JOXE.—Ikusten? Martin dek. Lagun-taldearekin zetorrek!

(Martíñen lagunen ixki-salda: "Fermina! Txuri batzuk onera! ". "Azkar, neska! "...).

FERMINA BIZIRO ASARRE.—Ez dizuet emen ezer serbituko! Zer da au? Maia atarian daukazute jarria bai, eta ara jana ta eraria eramango dizkizuet. Itoko bait-naute!

MUTILLEK.—Arrazoi dik. Goazemazute maiera. I, etzak bultza! Gora Martin! Kanta pixkat egin bear diagu! (ATARIRA DIJOAZ). (BOTELLA-SOÑUA ETA **IJI-UJU ONDOREN**, KANTARI ASTEN **DIRA**). (AKORDEOI SOÑUA, ZARATA AUNDI GABE).

"Ameriketara joan nintzan, xentimorik gabe,
andik etorri nintzan, maitea, bost milloien jabe.
Txin, txin, txin, txin diruaren otsa
orrek ematen digu, maitea, biotzean poza".

(Au dana atarian kantatzen dute. Bitartean, mikrofonotik bertago, Joxe ta Manuel izketan lengo moduan jarraitzen dute).

MANUEL.—Etzeukeagu gaztedi txarra! Mutil bikañak gureak! Antxonio ikusten al dek?

JOXE.—Begiratu ederrak egiten zizkiok Fermiñari. Emakume tentea!
M.—Eta Migel? Katedraleko kantore bear likek. Ta Pello? Oyek dira gazteak, oyek!

J.—Denak, motel! Zein baño zein! Orrelako mutillak ditugun artean, etzaiguk Euskal Erria galduko!

M.—Ala nai dezala Jainkoak!

MARTIN.—Barkatuko idazute! Ergela ni! Manuel! Joxe! Ez bai-zaituztet ikusi sartzean!

M.—Besterik falta!

(Akordeoi-soñua).

J.—Zorionak, Martin! Ori dek suertea!

MARTIN.—Bai, arrania! Ez nuan sekula, orrelako diru-pillarik esku artean ikusiko nuanik espero. Eta nun orain dana golpetik!

MANUEL.—Eseri adi gurekin, motel, pixkatean. Gero joango aiz lagunetara.

MARTIN.—Gurekin afaltzea gusto badezute?

J.—Ez, ez, Martin, ez! Gazteak gazteekin obeto zaudete, eta ni etxera aurki nitxiek. Bañan, dana dala, eskarrik asko, Martin!

MANUEL.—Martin! Eseri adi, eseri gure ondoan. Lagunak kantari, eta soñua arro dabillen bitartean, zedozer galdetuko nitek, uzten badiguk...

MARTIN.—Tira, tira, okerren bat egin al det? Orixe bekozkoa jartzen dezutena!

JOXE.—Ez, Martin! Ez adi orrela jarri ! Asko maite augu, eta vaxo-erdi bat alkarrekin edatea...

MARTIN.—Bai! Bai! (NESKAMEARI DEITUZ) Fermina! Ekarri beste botella, eta neretzat vazo bat. Ez ito, neska! Trankil ibilli!

MANUEL.—Olaxe ba, Martin. Iretzaz itz-egiten aritu gaituk, Joxe ta biok. Iretzaz eta ire gurasoetzaz.

MARTIN.—Eta zer esan dituzute?

FERMINA.—Ementxe vasoa, eta etxean dedan ardo-botellarik fiñena. Ardo onek, ez dizute, ez, kalterik egingo! Eta... ikusten al dezute ardi-tropa ori nola ari dan berotzen? Au dek umoria!... Ja... Ja... Ja... (BIJOA).

MANUEL.—Ba al dakik zer esaten genduan? Famili ona zeratela. Sagar-mendi esku onetan arkitzen dala, eta orain gañeratu zaizuen diru onekin...

MARTIN.—Bai, ori ala da bañan...

JOXE.—Zer?

MARTIN.—Bakoitzak bere asmoak dauzkala-ta...

MANUEL.—Zer esan nai dek!

MARTIN.—Zuekin fidatuko banintza! (AU IXILKA DIO).

JOXE.—Motel, itz-egin zak! Guk ez diagu ezer arrotuko.

MANUEL.—Emen esana, emen gelditzen dek!

MARTIN.—Ez dakit ba, ez dakit! Ni basarritz, eta basarriko lanez one-raño nago (LEPOA IKUTUZ).

MANUEL.—Basarritz aspertu aizela? Eta zer asmo dek?

MARTIN.—Zuek ez iñori esan e?, bañan aspaldi emendik alde-egiteko asmotan ibilli naiz. Orain arte ez diot iñori esan. O! Zenbat aldiz amets-egin izandu det... barku batean ninjoala... urrutira ninjoala... itxasoz-itxaso... ezagutzen ez ninduten tokiren batera...

JOXE.—Biajatzalle augu beraz! Baztarrak ezagutze ori ez dek gauza txarra.

MARTIN.—Ez! Ez! Nere ametsetako ibiltzeak, ez ziran joan ta etorri egiteko biajeak.

MANUEL.—Zer ziran ba?

MARTIN.—Erabat alde-egitekoak! Mendiz aspertu naiz! Basarritz aspertu naiz! Gerria okertuta lan-egitez aspertu naiz! Atxurrak eta atxur-ondoak! ! Neri ematen didaten nazka!...

JOXE.—Eta zer egiteko asmo daukak beraz?

MARTIN, ASKO ARI DA EDATEN, ETA BESTE VASO-ARDO OSOA GOLPETIK ARTUAZ, BEATZA EZPAÑETAN IXIL-KIÑUA EGIÑEZ, DIO.—Gordeko al didazute sekretoa? Nere lagunetan iñork ez daki. Ixilik gordeko al dezute esango dedana?

BIAK BATERA.—Bai, motel, bai! Itz-egin zak, lasai!

MARTIN.—Ni ba-nea emendik! Gazte naiz, eta gazte-griñak darabizkit gorputzean. Gazte bezela bizi nai det. Al dedan gutxienik lan-egiñez, eta al dedan geienik atsegin artuaz. Zertarako da, bestela, mundua? Mundu eder zoragarri ori? Gu emen soroan atxurrean konkortu gaitezen? Ez! Ez! Nik baditut nere asmoak, eta ala fedea!, oraintxen iruditzen zait egokitasunik bikañena etorri zaitela. Nik emendik, lenbailen, alde-egin bear det!

MANUEL.—Martin! Martin! Gaur geitxo eraten ari gaituk, eta ez dek ardoa lagun ona izaten. Bizi guztirako gauzak erabaki bear diranera beintzat. Iri ardoak kalte egin dik, eta oker ari aiz, oker itz-egiten.

JOXE.—Ez Martin! Ik ezin dezakek ori egin! Ik basarria ez dek ondazten uzterik! Sagarmendi ederra ik amilduko?

MARTIN.—Gelditu ditezela zarrak! Eta ezin dezatenean, saldu dezatela ta kito! Nik nere bizimodua eraman bear det! Nerea!... Nola, ez dakit oraindik; bañan, batez ere kinielak tokatu zaizkitenean, bide zabal-arrigarri bat iriki zait. O munduko bizimodu askatuaren gozoa! Nik orixe probatu bear det...

JOXE.—Eta gurasoak? Pentsatu al dek Martin, nola atsekabetuko diran Pedro-Migel eta Joxepa-Antoni? Gaixoak! Urte oyetan! Ez al dek ik ori egiteko biotzik izango, Martin! Aita bati, ama bati negar-egiñazten diona, Jainkoaren maldizio-pean eroriko litzake!

MARTIN.—Tira, tira, tira! Ez gaitezen orrela asi! Zer! sermoi-zaletu egin al zerate? Nik uste, maldizioa ba al dakizute zeñek mereziko luken? Agure-atso batzuen malko batzugatik, bere bizia ondutzen duanak; berari dagozkion atsegin-pozak probatu gabe uzten ditua-

nak. Orixe da madarikagarri! Ez, ni bezela, txoria kioletik aterazten dan gisan, askatasun-billa saiatzen dana

Aitak eta amak negar-egingo dutela? Utziko diotet bai, pañuelo batzuk erosceko ainbat diru. Ja... ja... ja... (NESKAMEARI DEITUZ).

Fermina! Beste botella!

ATARIAN SOÑU TA KANTA ADITZEN DIRA. MARTIÑEK OIU DAGIE.—Eta zuek, adiskideok, jan ta eran zazute suelto! Gaur asten da nere bizimodu berria!

BAZKALDARRAK ANDIK: "GORA MARTINTXO". "AUFA, MOTTELLAK! ". "KANTA DEZAGUN". KANTARI ASTEN DIRA.—

Boga, boga! Mariñela
Joan bear degu urrutira!
Bai indietara!"

MARTIN.—Bai! Urrutira! Aita-ama zarren begietatik urrutira!

MANUEL.—Joxe! Joxe! Zer ari gera entzuten! Goazemak etxera!
Martin gizajoa! Martin madirakagarria!

(Boga boga musika joaz bukatu).

Oarra. Irrati-lan onek amabost saio dauzka. Irun'go "Urrezko Gaztelua" irabazi zuan 1975 garren urtean.

Gipuzkoa'ko edesti-gaiak euskeraz...!

ELOSEGI'TAR JESUS

LEKUONA APAIZ JAUNAREN OMENEZ

Gipuzkoa'ko Agiritegi-Nagusian ari gera aspaldi ontan Gipuzkoa'ko edestiari dagozkien zenbait berri aztertu naiaz. Amaika gertaera jakin-garri jaso ditugu ta txukun-txukun gure lan-txarteltxoetara irauli! !

Gertaerok erderaz idatziak izan arren, euskeraz egin eta mintzatu-tako solaseen aldakuntzak dirala, askotan beintzat, ezpai gaber sinis dezakegu. Arlotea izan nunbait, orduan, euskaldunen trebetasuna, euskeraz entzundakoak zeatz eta txuxen euskeraz idazteko. Gaztela'tik eldu zitzaigun ekin-bultzadak gañera, erderaz idaztera beartuak baizeuzkan gure ziñaldari aspergaitzak... (Ta orain ere bai...!).

Ta ara zer bururatu zaigun, Lekuona apaiz-jaunaren omenez, gaur lerro auetara ekartzea...

Garai batez erderaz idatziak izan ziranak, eta gaur gure Agiritegi-Nagusian gorde oi diran zenbait agiri, euskerara biurtzea! Txukuntasunari zor zaion menpetasuna gordeaz; itz zarpail zenbait baztartuz eta itz egoki zenbait onartuz. Onela, eta zuzenki bidenabar, gure euskerari oore ta on damaiogulakoan.

Euskeraz motx dagonarentzat, ala ezjakiñarentzat, neke berdiña baitu itz traketsa ikasi, ala... itz txukun-egokia ikasteak...!

Gogoa bear ortarako... ta euskalzaletasun zuzena... ta euskera zarrari bearrezko zaion itzala ta maitasuna... guk uste beintzat.

Azken aldean dijoa alako iztegitxoa... gaiok jorratuz osatu deguna ta iñoren azterketa-gai izateko, bear bada, gauz izango dana. Or jungo da beintzat.

Ta asi gaitezen beste gabe.

CALAMIDADES PUBLICAS. INCENDIOS, TERREMOTOS, CAIDA DE RAYOS, RIADAS, ETC.

EZBEAR NABARIAK. SUKETAK, LURRIKARAK, TXIMIST-ZARTADAK, UGOLDEAK, T. A.

1553. At. 1, Ar. 22, L. 1.—*Alegi'ko uriak oroit-idazkia. Erria —suak ondoren— ber-eraikitzeke, amabi urteko epeaz laguntz-gisa, sukal-zergaz aske izateko luzapena eskatuz.*

Jaun txit agurgarriak.

Alegi uriko izenean, endore-orde dan Iraçuzta'tar Simon'ek DIO: Guziz suak artua izan zala erria, ta etxeak espaloiz ala lur-landuz egin zitezen, Eskualde txit zindo ta zintzo onek, Batzar Nagusietan artutako erabakiez, erriari lagun agin nairik, zenbait urtez azke utzi zuala Alegi'ko erria, Gipuzkoako zerga-banaketatik letorzkien ordain-bearrez. Ta laguntza ori dala bide, lautatik iru, espaloiz ta arri-landuz ber-eraiki dime-la alegitarrek etxe berriak... ta orain eraiketan aurrera jarraitu naiaz... ez baitimzte etxe guziek eraiki... jaki ta lan-gaietan garesti-aro latza izan baita Gipuzko'n... ta bide ta galtzadatan asko txautu bear izan bait'du erriak bereetatik... beorri,

OTOI diogu, onar dezala beste amabi urtez, ala beorrek erabaki anbat urtez, Alegi'ko erri oni zerga-uzte-aro ori luzatzea...

Errenderi'n 1553'ko Jorrailla'k 22. Iraçusta'tar Simon'ek aurkezm zuan eta bertan ageri danez eskatu... Ta Batzarrak esan: eskariak aurrerabiderik ezm. Lekuko; Iriçar'tar Martin eta Akorda'tar Juanes, erri-tarek.

1592. At. 1, Ar. 22, L. 2.—*Urte ontako ugolde aundiaz. Zubi batzuek eramanak, Bergardn, Legazpi'n, t. a. Zenbait agiri.*

Bergara urian 1592'ko Jorrailla'k 29. Gipuzkoa, Eskualde txit zindo ta txit zintzoko, uri, endorego ta ibarretako ordezkari zaldun eta aitorensemeak Batzar Nagusian bildurik, Euskalde ontan Bakaldun jaunaren zuzenlari degun Bergara'tar Andoni baidunakin batean, Bakaldun gure jaunaren laterri-batzarkide Idiakez'tar Jon'en agintariaren bidez ni Tapia'tar Jon Lopez B. g. j.ren ziñaldari ta Batzarretako ziñaldari-zeatz

naizelarik, eta lekukoen aurrean, ari ontako eskaria aurkeztu zuten Mendaro-ibarrekoak, aipatutako Batzarrari:

Biota'tar Aparizi'k Mendaro-ibarreko biztanleen izenean eta Elgoybar-Mutriku-Deba'ko erritarrenean, aginte ta itzal aundiko Batzar orrera azaltzen naiz eta,

DIOT, Done Matai gaueko Ugolde aundi ta ibai altxatzeak —1593'ko Agorra'k 21— ibar artako zubia eraman zuala. Ta geroztik berria ber-eraiki eztalako, ogei gizaseme baño geiago il dirala gure Jauna elizakoz artu gabe, ezin eraman izan zaielako; ta orain ere ba'dirala gaixoak, beste ainbesteko kaltean arki ditezkenak. Ta ibaia aunditua eldu baita, ta ur gutxiz ere, bere oge-txokotik zabaltzen baita, ezin alaz ala txalopaz nere lagunak igaro dezakete... ta igurumarikoak bakar-bakan-duak daude ta naiko lan dute...

OTOI diogu: ordezkari zintzo ta barren onekoa izendatu dezala beorrek, iru erri aieri eragin dezaien, oi danez, zubi berria egin dezaten epe labur eta ongi mugatuz, eta adierazi garaiez egiten ez badute, aien zizkuz egin eta eraiki dezan. Ontan, zuzena eske dagit.

Ubilla irakastun.

Barrena'tar Jon Martinez, Segura'ko endore-oiak, Legazpi-ibarreko guzieri aditzera ematen diet:

Agirre'tar Domeka, ibar artako zin-gizona, azaldu zala nigana ta, ibar artan ziran lau zubi eraman zituztela jun dan urtian (1593) izan ziran ugolde ugariak, adierazi zirala. —Mendaraz-Zabalotegi-Mantxola ta Plazaola'ko zubiak—. Eta errege-bideak era bai, ibai ta ugolde-ertzean ziranak, eramanak izan zirala; ta geroztik, galbide aundiz baño ezin beraietatik ibili zintezkela gora-bera zebiltzan ibartarrak. Eta ortaz galera aundia eldu zala ibarrari ta aundituz jungo zala galera, zubiok berriro eraikiko ezpalira.

Eta eraikitze ontarako ez ontasunik ez erri-puskarik etzuela Legazpi'k, zorpean zegoelako. Orregatik, ibartar eta auzotar artean zerbait sari-eskea bearke zala egin, eta orrela eraiki, zubi berriok eta errege-bideok. Eta ontarako gertu zegoela Legazpi argibide-txostena emateko, eman zuan bezela, Bergara'ko Batzar'era azaltzeko ta bear zan baimena bertan irixteko.

Ta nik, au ikusirik eta jokoia sendotze arren, agint-agiri au eman nuen, Legazpi ibarreko Eliz Nagusian eldu den leen-igandean adierazia izan dedin; ta iñork ezer aurkakorik ba'lu zerga-banatze au ezezteko, Batzarrean azaldutako egun bigaramonean adierazi dezadan... epe ori igarorik, obekien deritzana erabakiko dalako.

Segura'n egiña 1954'ko Jorrailla'k 22.

*Barrena'tar Jon Martinez
aren aginduz, Legoybia'tar Santxo Perez.*

1597. At. 1, Ar. 22, L. 3.—*Getari'ko uriak oroit-agiria. Erabat suak artua izan dala ta ogei urtez sukal-zergaz aske-izatea eskatuaz.*

Eiçaga'tar Martin, Getari uriko endore-oiak, DIOT;

Beorri ezagun zaionez, aurtengo Ilbeltza'k 5, uri ontan izan genduan sua dala-ta, uritar eta auzotarrak alako kalteak izan-eta, or dabil-tzala geienak, bizilekurik gabe txirotasun eta bear gorria jasanez. Ori ala dalarik eta uri onek ez erri-puskarik eta ez mozkin tajuzkorik ez du-lako, ESKE TA OTOI DAGIOT sute garaiez, oi duan bezela, onetsi de-zala, gu ogei urtez sukal-zergaz aske gaitetzela. Artara bailuke zure uri onek esker asko beorrengandik

Eiçagdtar Martin.

Elgoibar'en 1597'ko Jorrailla'k %. Onets bedi asketza.

1617. At. 1, Ar. 22, L. 4.—*Bergara'ko uriak oroit-agiria. Erabat kixkalia izan dalako, Eskualdearen babesa ta laguntza eskatuaz.*

(Zestua'ko Batzar Nagusian aurkeztutako azalkuntzaren zatia. 1617, jorrailla).

...su-kixkaltze guzizkoa izan degu emen eta ormatzar barruan genituan lau etxadiak erre dira ta amabost etxe besterik eztira zutik gel-ditu ta naiko ebainduak berak, zarberritu gabe bizilekurako gauz ezti-ranak. Ta delako sua, gaueko amabi-ordubata bitartean izan zan, urita-rrak leen-loak artuak zituelarik ta Aste-Donea dala-ta naiko nekaturik. Ta alako aize indartsu ta zakarra zebillela, naiko lan izan zuten urita-rrek beren burua gerizatzen. Etxeetan zituzten erredi, jantzi ta ondasu-nak galdu ta kixkaliaz, kalte aundi ta nabarmenak izan dituzte... ta

bizibide ta lantegietan erabat aukera gabe geldim dira. Ta berrogeita-mar milla dukateko galera etorri zaiote su-kixkaltzea dala-ta... Ta ormatzar barruko uritarrek (gutxi batzuek ezik) zerkin ez dute etxe ber-eraikierako, ta uriak berenetatik lagun nai izanda ere eziñean dago aspaldi ontan izan dimen ordaintz berri ta aundiak dirala bide, bai auzietan bai beste zenbait gauzetan eta Eskualde ontara bakal-gizakiak etortzeaz Beorrek ongi dakian bezela. Ta one'.a Bergara'k Beorregana jotzen du —Beorren zati gallenetakoa danez— inka larri ta aundi ontan laguntza eske, ber-eraiki ondoren, bizileku biur dedin. Jaungoikoaren eta B.g.j.ren oorez eta onez bait'da uriak ongi gizakiz ornimak izatea ta edozertarako gertu, zernai eldu dalarik ere.

Ortan izango baidegu Beorregandiko esker berezia gure ongi-naia or dijoalarik.

Lasalde'tar Kepa, baiduna.

1654. At. 1, Ar. 22, L. 5.—*Azkoiti uriak, auzo bat erre zaiola-ta agiria.*

Gipuzkoa, Eskua'de txit xindo ta txit zintzoa.

Çarauz Jausoro'tar Martin eta Idiakez'tar Xptobal nere semeen bidez, beorregandik semeak arkitzen duten errukiaz babesturik, egokitu zaitan ezbear negargarria beorri adieraztera ausartzen naiz: auzo oso bat, biztanlez ornimena errian nuena, erre baizait zorigaitzoz. Otoi dagiot samurki entzun dagiela ta erabaki dezala gure iraupenerako obekien derizkion bidea, bat-bateko sua dala-ta beartasun gorrian gelditu diran uritarren arnasbiderako. Guzia beorren osperako izango da-ta.

Azkoiti'n, nere Bilkura Nagusian 1654'ko Azaroa'k 1.

Azkoiti, uri zindo ta zintzoaren izenez,

Çumaettdtar Iñaki'k.

I Z T E G I A

Agintari	Comandante	Ala	Gabarra
Aeint-agiri	Mandato	Aldakuntza	Cambio
Aginte	Autoridad poderío	Are'bide	Información
Agiri	Documento	Ar(lo)	Negociado, N.

Agiritegi Nagusi	Archivo General	Arlote	Desmañado
Aitorenseme	Hijosdalgo	Aspergaitz	Incansable
At(al)	Sección, S.	(Nere) Lagunak	(Mis) Partes
Aurkeztu	Presentar	Lan-txartel	Ficha de Trabajo
Auzi	Pleito	Laterri-batzarkide	Consejero de Estado
Azalkuntz	Exposición, presentación	Lekuko	Testigo
Aztertu	Examinar	L(okari)	Legajo, L.
Baidun	Licenciado	Lurrikara	Terremoto
Bakaldun	Rey, Monarca	Maitasun	Amor
Bakal-gizakiak	Personas reales	Menpetasun	Subordinación
Bakar-bakandua	Solitario	Mczkin	Renta
Barren	Conciencia	Nabari	Público
Batzar Nagusi	Junta General	Oge-txoko	Cauce, madre
Ber-eraiki	Reedificar	Ondasun	Hacienda, ajuar
Bereak, Berenak	Propios	Ordez kari	Procurador, comisionado
Berri	Noticia	Ormatzar	Muralla, muro
Bidenabax	De paso	Oore	Honra, honor
Ebaindu	Maltratar	Oroi-idazkia	Memorial
Edesti	Historia	Otoi diogu	Suplicamos
Egoki	Acomodado, propio	Puska	Propio, dominio, propiedad
Endore-orde	Teniente de alcalde	Sari-eske	Petición impositiva
Endorego	Alcaldía	Solas	Conversación
Epe	Plazo	Sukal-zerga	Foguera
Erabaki	Resolución, auto	Suketa	Incendio
Erredi	Mueble	Trakets	Torpe, grosero
Errege-bide	Camino real	Trebetasuna	Destreza
Eskari	Petición	Txukuntasun	Nitidez, propiedad
Eskualde	Provincia	Ugolde	Riada
Espaloi	Argamasa	Uri	Villa
Etxadi	Valle	Zaldun	Caballero
Ezbear	Calamidad	Zarpail	Grosero, ordinario
Ezpai	Duda	Zeraa-banaketa	Repartimiento
Gai	Tema	Zersa-uzte-aro	Relevamiento
Gerizatu	Salvaguardar, librar	Zin-eizona	Jurado
Gertaera	Acontecimiento	Zindo	Noble
Inaurumariko	Circunvecino	Zintzo	Leal
Irakastun	Doctor	^•""Idari zeatz	Escribano fiel
Irauli	Transcribir	Zizkuz	Por cuenta
Itzala	Respeto	Zuzenki	En justicia
Iztegi	Diccionario	Zuzenlari	Corregidor
Jaki	Alimento		
Joko	Causa, Asunto		
Jorrraru	Manejar, manipular		

Zaude., Maixu

ETXANIZ'TAR NEMESIO

Eske bat egin didate nere lagun on batzuek: Lekuona'tar Manuel apaiz lagunari eskeiñi nai dioten omen-liburu batean nere erakutsitxo bat opa izan dezaiodan. Eske atsegiña neretzat eta pozik betetzekoa, Lekuona Zarra aspalditik ezagutzen degunontzako. Arrisku bat ba-da, ala ere, onelako idaz-lanetan: Denok gai bera artu ta bein da berriz errota berari eragiten aritzeko arrixkua, alegia.

Arrisku orretan erortzerik ez nuke nai; ta zarroi kontu zarrak gogoratzen zaizkigun ezkeru, nere bizitza-ariari jarraituaz bete nai nuke nere lagun-opari au.

* * *

Irurogei urtetik gora goazeno, gozo zaigu gure bizi-koxkak argitara atera ta oroitzetan murgiltzea. Noiz ote-zan?...

1913 garren urtean, nik amairu urte. Amaika urtedun nintzala, lenbizi Lekarotz'era, latiña ikastera. An, apaizgorako erakusketak ematea utzi zuten ezkeru, urrengo urtean Comillas'era. 1912'garren urteko udara-aldian, apaizgai zarrago batek, gure dotriña zarraren euskera mordoilloa adierazi zidan. Bereala artu ninduan bere saretan euskaltzaletasunak. Andik aurrera beti ere, gure euskal-saillean, milla oztoporen artean lan egin izan degu.

Amalau urte bete nituanean, mesede aundia egin zidan zeruak: ORIXE zana, apaizgai-zai ekarri ziguten Comillas'era. Guk lendik zerbait entzuna genduan Orixe'ren euskal-gaietarako esku ta jatortasuna. Etzan, beraz, arritzekoa arekin bereala gure lagunarde estua sortzea.

Euskalerriko apaizgaitegia, orduan, Gasteiz'en zan. (Naparroa artean lotan zegoan). Oiña'ko Jesulagunen Ikastetxe Nagusian ere, baziran euskal odoleko ikasleak, euskera ikasten gogoz ari ziranak. Andik eta emendik euskal ikasle guziok, alkarren berri jakiten genduan. Ala mamitu zan nere inguruan euskal giroa.

Ordurako Gasteiz'en talde bizia ari zan euskal-lanetan zailtzen. Ala jakin genduan, Gaisteiz'ko apaizgaitegian, nolako lan ederra egiten ari

ziran gazte batzuek, Barandiaran'dar Joxe Mikel eta Lekuona'tar Manuel apaiz jaunaren gidaritzapean.

Gymnasium aldizkaria... Kardaberaztarrak... Dena pozgarri zan guretzat eta inoiz alkar jotzen ba'genduan, gure alkartasuna sendotzen saiatzen giñan. Gero...

Urte asko joan ziran. Euskalerrria anai-artekeo gudate negargarrian odolusten joan zan. Euskal-giro guziak itota zeuden urte larri aietan. Guatemala'tik, Zaitegi apaizak EUZKO-GOGOIA bialtzen zigun. Aren girotan, lagun berriak egin nituan. Ordurako Donosti'ra aldatu nuan nere bizilekua, ta emen Lekuona adiskidea sarriago ikusteko aukera sortu zitzaidan. Egun batean au esan zidan:

Biar Atotxa'ko prantzizkotarren konbentuan, Mitxelena Xalbatore praille gaztearekin biltzeko gaituk. Egundoko olerkari yayoa dek praille zarauztar ori, ta ARANTZAZUKO poema zoragarriaren zatiak entzuterat gaxixik.

Ez nuan geiagorik bear aiengana joateko. Ni, ordurako, Euskal Abesti berrien premia sumatuta nenbillen. Asi zaa Mitxelena Xalbatore bere Arantzazu poemako bertsoak ixurtzen. Eta nik, ordurako egiñak neuzkan euskal-itzez jantzitako kanta berriak ere lagun-artean bota nituan. Aiek, txundituta entzun zituzten nere abestiok, eta nere lana aurre-ra eramateko zirika ninduten.

Giro aretan sortu nituan nere zenbait liburu ta liburuxka: KRIS-TAU IKASBIDEA BERTSOTAN, NOLA IDATZI EUSKERAZ (1950'go Uztaillean); KANTA-KANTARI (1951'go Ekaiñean); IZEKO ABERATSA ta IRULEAREN NEGARRA (1952'go Urrillean) ta nere azkenengoa: LUR BERRI BILLA... (1967'an).

Andik aurrera, don Manuel izan da gure artean, euskera zerbait landu degunon zirikatzaile ta aize-emaille. Ari eskerrak, ordurarte ain gutxietsiak genituan Bertso Zarrak eta gure erriko koplak zarrak merezi zuten leku goia artu zuten.

Edozer euskal-gai aitatzetakoan, alako goxotasuna ta argi bizia ematen daki gure Maixu aundi onek. Eta orain...

Larogei urtera urreratu geran agure gixajuok zer esango degu? Euskaltzaleon artean, alako giro negargarria sortu zaigu euskal-saillan... Ta alperrik da saiatu nai izatea. Gure urteak ez dute gaztetako kemen eta indarrak lanerako.

Ala ere, Lekuona adiskideari zor diogun omen onetan, ez det nere

burua izkutatu. Ta Jainkoak lagun dezaigula euskaltzaleoi kataska ontatik onez ateratzen!

Baiña gure zoritxarrerako or degu

" H " BEDEINKATUA

Guretzat, auzi au garbi baiño garbiago dago. Euskerarik indartsuen eta zabalduenari ere, bi erderen eraso gaintzea kostako zaio. Bidasoz iparraldeko euskeraren egoera, larria ta estua da ziñez. Gure aldeko euskerak ere, kinka gogorra du il-zorian ez galtzeko. Egoera ontan, gure EUSKERARI OZTOPO berria ta zaila ezartzea, azkenengo zatzatekoa ematea da.

Esaera zarra zabaldua ta ezaguna da: "Primum esse, deinde philosophare" Lenbiziko lana, zerbait izatea... gure izkuntzaren bizia aurrera ateratzea; gerokoa, pilosopikerietan urtutzea. Eta orratx: Arantzazu'n bildu giñan lau katuk, euskaldun geienen euskera baztatu nai izan genduan, eta euskerarik aulena nagusi jarri. "H" orren korapilloa, euskaldun geienek ezagutzen etzutena, gure erri gizajoari leporatu zitzaion iru eguneko jardun-aldi aietan.

Arnasaz bete ezinda degun gure euskera gaixoari, "permanentea" egiten asi giñan. Ta gaixoak oxijenua bear itoko ezpada.

Baiña gai onek kiratsa dario ta utzi dezagun eztabaida aspergarrri au...

Lekuona Zarra bere bizi guziko lanekin, gure omenez eskertu bearra degu. Jain'.oari eskerrak, aren antzeko bakan batzuei zor zaie, gaur EUSKERA BATU TA ZENIZUDUNAK oraindik irautea. Jarrai dezagun bide orretan. Ori izango du don Manuel'ek bere lan guzien ordaiñik onena.

Zaude, Maixu
 oraindikan
 gure erriaren gidari
 euskal-alorra
 larri baitegu
 eutsi eziñik lanari.
 Jaunak eraman
 gaitzala zuzen,
 zu zaitugula lemari! ! !

Zalduendoko «Markitosen» berpiztea

GARMENDIA TAR JUAN

Denok ondo dakigunez, 1976 garren urtea bisustu da. Orrela ba, otsaillaren 29 garrengo egunean, Kinkuagesima igandez ain zuzen, Zalduendoko Iñauteria ospatu zen, erritar eta ikusleak anaikor ikuskizunen inguruan bildurik. Erriko bi gizon jatorrei esker, Blas Arratibeli eta Martiniano Martinez Ordoñanari, ain zuzen, berpiztu zen berrogei bat urtean, eta iaz arte, aaztuta igaro zen oitura zaar bat, ikusmira polit eta interesgarri bat.

* * *

Arabako urixka onen Iñauteria izen andikoa izen zen, azkenik aaztu xamarra egon bada ere. Zalduendoko Iñauteria "Markitos" izeneko panpiñarekin eldu da guganaño.

Aipatutako egun ortan ikusi genuen "Markitos" delakoak metro bat eta irurogei zentimetro or nunbait dim goibean. Zurezko ankabidun zutikako bat zeukan barrutik. Matxarde onek osatzen ziman burua, gorputza ta anakak; makil batek bizkarra, ta besoen zaña burdin-ari batek. Alkandora, jerseia, galtzak eta esku-estalkiak —denak belarrez beteak— eta gañetik jakea, jantzi zizkioten. Antzinan lapiko bat ipintzen zioten burutzat. Egun, egur zati bat urkillan sartua eta trapuz estalia, kartoizko arpegia duela.

Gizaki itxurako bitxi onek txapela darama eta zapatak oñetako, naiz eta leen larruzko abarkak oimera. Egundoko paper-txoria, lepoko ederra ta txamarra egalean lore bat, edergailutzat daramazkila.

Aipamtako Martinianoren etxean, erriko gazteen biltoki izan zen lekuan, antolam zuten "Markitos". Jende aurrean agertzeko eguna iritxi zenean, Karnabal igandez, etxe ortara zalditxo bat eraman, eta "Marki-

tos" zegoen alboko gelan laga zuten. Aberea gaztea zen, ots, oso biurria; bi zintzarri zituen —kopetatik eta lepoko uztaietik zintzilik—, marraztutako oestalkiz eta esku-lorez apaindua.

Atadian, etxe ormaren inguruan, gurdi bat ageri zen, bizpairu oegañekoz eta paper ikuskariez dotoretua. Gurtetxean nasa andi bat arkitzen zen, sermolariarentzako ain zuzen. Arratsaldean, jostagailuaren bukaberan, izlaria bai dugu mintzatzekoa.

Etxe barnean, bere gela illunean, "Markitos" zai dago. Bere agerpenaren zai. Bereala, eguerdi garaiean, txistukrien kalez-kaleko doñua geroz eta garbiago entzuten genuan. Lau soñujole ziran, eta beraien aurrean gazte mordo bat dator jauzika. Orduantxe, bat-batean, etxeko ate zabalean, zaldia agertzen da mutiko bat gañean duela. Gazte au zomorrotuta edo "porrero" jantzia doa, "Markitos" berekin darama ondo eldurik. Txistularien eresiz inguruak alai direla, kalejirari asiera ematen zaio, antzinako oitura berezi bateri jarraimaz.

Eliz inguruan eman zitzaion azkena ibillaldiari, muño baten gañean eta Zaldueendoko jauregitik urbil. "Porreroa" bere panpiñarekin antxe lurreratu zen. Bereala "Markitosi" sei metroko aga edo "lata" baten mumrra sarm zioten ankatartean, eta "lata" onen bekaldea lurrean tinkam, iru olez sendoma uzten zutela.

"Markitosen" laguntzalea, zaldigañean, beste lau-bost-bat "porrero" atzetik zituela, astiro astiro urruntzen jua zen. Eta gauz bera egiñ zuten beste jai-taldekoak, gizaki tankerakoa bakardade osoan gelditzen zela aga muturrean txorizugarri andi baten antzera, arratsaldeko irrigarrien saiora arte. Gazteek, soñujotzalleek eta erritar mordo batek, beren alkatea buru zutela, jatetxeko bidea arm zuten.

* # •

Jostagailuak atsalderdian jarraitu zuen. Goizeko etxe beretik irten, eta "Markitos" engana joan zen "porrero" taldea. Talde aren aurrean "Cenicero" eta "Barrendero" izenekoak azaltzen ziren, soiñeko beltzez jantzirik. "Cenicero" auts-ontzi bat zeraman erdi-betea ta garbitzaleak erratza itxurako tresna bat. Ondoren an zijoazten ere soñujoleak, bi txistulari, atabaleroa ta auspo-soñu edo inpernuko auspojtzallea.

Auen atzetik gurdia, beorra tirakai zuala, ta gurtetxean nasa, izla-

ria barnean zeramala. Sermolaria kapelu tankerako kartoi-txanoarekin, eta longaiñekoz jantzia. Bereala aitton amonak, "Markitosen" gurasoak ain zuzen, bi "porrero" batbestearen gañean, beltz beltz jantzita ta kartoizko arpegikoarekin.

An zijoazten ere artza ta ardia, bi "porrero" ardi larruz ta arpegikoz antzaldatuak, eta beste bi "porrero" ibilleraz trakets eta baldar, parregarri, belarrez betetako zakueta sartuak, Lantzeko "Ziripot" ize-nekoa gogoratu naiean.

Azkenik erriko mutil eta neska gazteak, bein eta berriz abesten: "Funtziotikan gatoz, Iñauteri funtziotik. Umore oneko jendea gara Zalduendokoak".

"Markitos" gurdira jaso ta, Iñauteri taldeak berarekin jarraitu zuen, Dorre Artzeko enparanzan, zugaizti ttipi batera eldu arte. Emen amaitu zen ibillaldia, ta panpiñak entzun izlariak egiten zion solasaldi xelebrea; ardo edanaldi batzuek egiñez, nasa barnetik egiten zion prediku bildur-garria. Anitz lekukoren aurrean, "Markitos" errudun izan zen.

"(...) Alde, alde zoritxarrekoa: irekin ez nauk errukituko.

Emen egin dik ireak, orain ordainduko dituk larrutik, egindako gaiztakeri guztiak".

* * *

Sermoi ondoren berriro ekin zioten soñujoleek, eta txontxongilloa lurrean laga. Metalezko ontzi uts batean tinkaturik, gasolinaz busti ta su eman zioten. Eta bat-batean bere inguruan gazteak biraka dantzatzen ziran, eta garbitzalea, artza, ardia t'abar beren gisara xelebrequerietan ziarduten. Aittonak legortzen zizkion bitartean amona kupituari mal-koak. Zamo-taldea berriro abiatu zen kalez-kale, "Markitos" bakardade osoan utzirik, garretan kixkaltzen.

Andoain'go erriak Lekuona'tar D. Manuel'i agur bero bat

BASARRI, GOTZAI SETIEN JAUNA
ETA GOÑI'TAR JOSEBA'REN IDAZ-
LANAK

1975'ko apirilkeko 27'an, Andoain'go kristau taldeak Lekuona-tar D. Manuel apaiz jaunari agur berexi bat egin nai izan zion, euren errian ia ogei urte igaro-ta, berrero bere Oyartzun jaioterrira joateko asmoa artu duanez gero, Berrospeko kapellautzako apaiz lanetan atsedeen edo jubilazioa armaz.

Lekuona jaunari apaiz-lanak naiz eta berez erri ontako parroki ta pastoraltzako lanekin zer ikusi aundirik izan ez, ain aundia izan da apaiz onen itzala ta izena euskal kultura gaietan; ain zabalik andoaindar askok izan dituzte irikiak Lekuona jaunaren etxeko ateak eta batez ere bere biotza, nunbait orain ezin etsipen errezik artu, apaiz langille onek utziko dien utsunearekin...

Los actos se desarrollaron en un clima de extremada sencillez y armonía religiosa: una solemne Misa Mayor presidida por el Sr. Obispo Auxiliar teniendo a su lado al homenajeado y a una decena de sacerdotes; los niños de la Ikastola de la localidad llevaron el peso de la ejecución musical; el bersolari *Basarri* en el momento de la oración de los fieles recogió puntualmente el latido fervoroso de la fraternal asamblea en dos versos de sobria religiosidad popular.

Mons. Setién en su homilía perspicaz y profunda planteó con toda claridad y rotundidad el tan debatido tema actual de si es posible y conciliable una fe cristiana coherente y seria con el cultivo de los valores de la cultura vasca y una dedicación seria y comprometida en la defensa de los intereses del pueblo, poniendo como ejemplo humilde y recio el testimonio personal del sacerdote a quien se rendía dicho homenaje.

Seguidamente el sacerdote Joxeba M. Goñi, profesor de Historia Eclesiástica de nuestro Seminario, glosó la significación histórica y cul-

tural de la obra literaria de Lecuona encuadrándola en el complejo y conflictivo marco ambiental en el que hubo de desarrollarse; subrayó con fuerza la variedad de campos en que la insaciable curiosidad humanista y artística de Lecuona se prodigó, aunque haya de admitirse que su trayectoria como investigador se cerraba sobre todo en los límites precisos de la cultura (historia, etnografía, literatura, folklore, etc...), local, diocesana y vasca.

Una comida popular y fraternal con más de doscientos comensales puso de manifiesto las simpatías andoaindarras para con Lecuona; un sinnúmero de regalos (preciosas colecciones de libros, una réplica de la imagen de Ntra. Sra. de Aránzazu, etc...), corroboraron la impresión del grato recuerdo que el paso humilde de este ejemplar sacerdote deja en una comunidad cristiana de nuestra diócesis.

Lekuona jaunak, Elizbarrutiko Liturji itzulpenetan egindako lanez gain, beste euskal kulturako atal asko landu ditu: kondaira, etnografia, arte-gaiak, literatura eta abar. Gazteiz'ko Apaizgaitegiko 1918'garren urtetik asita —ordukoa da bere lenengo euskal lana: *Estudios de Métrica Vasca*— bere goieneko liburu ederrenetik: *Literatura oral euskérika* jarraituz, erriaren bestsolaritza zer dan eta nola eratzen dan arazoa izan da bere azterketarik zorrotzena.

Gerrako urteetan, Lasarteko Brijidetako mojatxoeren komenman bost urtez izkuterik egon ondoren, Kalahorra aukeratu zuan ezarritako zigorra ordaintzeko erbeste-leku bezela. Rioja'ko iri ontan iñoiz gure Elizbarrutiko buru izan zanez gero, miatu ziman ango artxiboko paper zahar eta dokumentuak Lecuona jaunak; lan aieri esker, Rioja bertako zenbait eliz-etxeen kondaira idatzi zuan eta *Berceo* aldizkarian ixuri ziman bere lanari esker lormentako jakinduriak.

1956'ko urtean itzuli zan berriro gure Elizbarrutira eta ain zuzen Andoain'en Jesusen alabeen Berrospeko komentuko kapellautza-lanak ogei urtez eskeini dim. Urte auek izan dira emankor eta beteenak euskal kulmrari buruz: olerkiak dirala, batez ere umeen gaiekoak (*Jesu Aurra- ren bisitza. Erresidun aur poematxoa, bost kantetan*); kondaira lanak, batez ere, eliz-etxeetakoak (Lasarte ta Andoain'go Eliz Nagusiaren Kondaira); arte gaiak (bi Greco'ren marrazki berak antz-emandakoak); zenbait gure Elizbarrutiko apaizeri irudi bati buruz emandako iritziak; Astigarribia'ko leio pre-romanikoa dala-ta, oraintsu, Alzo Azpiko orma zahar bat antziñako eliz arrastoa ote dalakoan eta abar...

D. Manuel Lekuona baita ere, itzultzalle; ez bakarrik Liturji-lanetan, baita beste era eta gai askotan ere; emen bakar bat izendatu nai genduke: Escudero musikolari ospetsuak eramtako euskal-opera *Zigor'* en gure apaiz jaunak egindako lana; alegia musika jarri ondoren berak sorm zuala letra soila, musikak jartzen zion mendea egin bearrekoa.

Azkenik, Lekuona jauna, Euskaltzaindiko degu, 1950'garren ezkerroz. Bere sarrerako mintzaldia izan zan *Gorotzikatik Gurutzeagara*. Bazkun ontan ere, lana zein trebe egin duan jakiteko, naiko izango degu esatea, Euskaltzaindiko buru izatea iritxi zala.

Oyartzun'go giroak eta Jainko laguntzak opa dezaiotela gure apaiz bikain oni zahartzaro paketsu ta luzaro bat!

(Donostia'ko Gotzaitegiko Aldizkari nagusiatik artua: Mayo-Junio 1975. N.º 303. Año XXVI, pp. 388-390).

BASARRI-REN BERTSOAK

OFERTORIOAN

Zeru ta lurren
 Jaun da jabea,
 guri begira dagona,
 ta meza santu
 eder goxo au
 emen eskeintzen zaiona.
 Au da gaur kantuz
 bertsolariak
 eskatu bear diona,
 O Jaun altsua
 gorde zaiguzu
 D. Manuel Lekuona.
 Jaun Lekuona
 beti izan da
 Jauna zure ordezkari,
 zure bideak
 zabaltzearren,

egin du lana ugari.
 Sinismenari
 eusteko eta
 jarraitzeko egiari,
 olako seme
 argiak eman
 gure euskal erriari.


JAUN ARTZE ONDORENEAN

Jauna otoitz egiña
 gera gogo onez,
 entzungo zenduala
 gaude itxaropenez.
 Mezaren bukaera
 eskerrak emanez,
 Jauna gorde gaitzazu
 gorputz ta animez.
 Beste eskari bat nik
 azkenik barrendik,
 bizi-pozik ez dago
 askotan iñundik.
 Erri zar onek bizi
 nai luke oraindik,
 laño beltz illun danak
 uxatu gugandik.

SETIEN GOTZAIAREN ITZALDIA

D. Manuel, apaiz eta lagun maiteok.

Pozgarri da erri batek, bere seme bati omenaldia nai egitea, Baita ere, egin bearra izatea. Pozgarri da ere ortako, erriaren atal edo erritar izatea. Egoki ta pozgarri da olako egunean, euskaristi santua elkarrekin egitea ez era ortako omenaldietan meza santua jartzea oitura dalako; ezta



Ovartzun. 196T-IV-23. Lekuona jaunaren meza-bemkoaren urre-etzaietan, D. Manuel esker-itzak irakurtzen.



Oyartzun, 1907-11-23. Leen aiatuako jai-egunean, Lekuona jauna. Donosti'ko (otzai Jlereziartua iaunarekin Elizara irixten da.



Albistur, 195S. Lekuona jauna, begi zorrotzez, Albistur'ko eliz atarian erti-gai zerbait arretaz aztertzen... (adiskideez inguratua)

karrik begiratzten dionak, ala Joinkoa aaztu gabe, benetako sinismenez gizona ta erria begiratzuz neurtzen dituanak?

Egia da kristautasunak aldaketak izan bear dituala, eta aldaketa oiek sortzen ari dirala; egia da erri-bizitzak eta errikoitasunak aldaketak bear dimala, eta pixkaka pixkaka badimala. Baña ezin esan, egiz jokam nai ba degu, jokabide guziak garbiak eta giza-jokabideak dirala.

Baita ere, badakigu, bereziki orain, Estado de Excepción, deritzen dan une ontan, nolako arrixku aundiak gabiltzan, pertsonaren eskubi-deak aazm eta zapalduaz, agintarien indarra sendom eta zabaldu egiten dala ta.

Nundik askatasunik aundiena gure barrenari, gertakizunak eta gauzak bear dan mallan jartzeko?

Gure askatasuna galdu ez dezagun, gure gizatasunari eutsi dezaio-gun, benetako sinismenak laguntza aundia emango digu, lanerako kementa kendu gabe.

Itxaropen sakona eskeñiko digu, benetan sinismenak, gure errikoitasunean sartzen ba degu. Euskaldunen artean, kristau sinismenak zer ikusi aundia dauka, ala ere nik badakit gaur ez dala guztientzat egia, esan oi dana; "euskaldun fede-dun".

Gaur gure erriaren alde jokatzen ari diranen artean, sinismenarekin ezertxo jakin nai ez dutenak badira, baña erriagandik ajola aundia zaidalako, nere erria maite detelako, sinismenagatik ajola aundia zait, nere erriarentzako oinarri, eskubide-imrri eta itxaropen jatorrenak, sinismen jokabidean artzen ditudalako.

Eta nik, au aitortu bearra daukat, egiz jokatu nai ba det, bai gotzai bezela, bai apaiz bezela, bai kristau bezela, eta bai euskaldun bezela, onela pentsatzen detelako.

Norbaitzuk irriparretxo bat egingo ba dute ere, nik au esan nai eta au esan bear det, nere bizitzaren oinarri eta arrazoi argi eta itxaropen pentsakera au dalako. "Nigan dagona —dio Jesus'ek— frutu ugaria emango du", eta Juan apostoluak esan digu "gure kontzientzia baño aundiagoa dan Jaungoikoa".

Ikusten dezu D. Manuel, zutzaz itzegin bearrean, beste gai auek aitam dimdala. Ez da nere gogokoa izaten, omenaldia eskeintzen zaiotatzaz asko itzegitea, batez ere apaiza balinbada. Uste det zure biotz barruan dauden pentsamenm eta gaiak argitaram dimdala. Uste det au

izan leikela zuretzako omenaldirik ederrena. Gutako bakoitzak geure jokabidea aztertzea eta garbitzea.

Ezin bukam gaur euskaristi au, otoitz bero bat egin gabe, ortara etorri bai gera:

- Otoitz bero bat D. Manuel-en alde, Jainkoak bedeinka dezala. Eskerm dezala egin ditun lanagatik, izan diman jokabidegatik
- Otoitz bero bat gure erriaren alde, itxaropena galdu ez dezan, eraman bear diran onenbeste neke gogor, zaill eta samin oietan.
- Otoitz bero bat gure erriaren alde jokamaz, ainbeste lan ta neke eraman dituztenen alde.
- Otoitz bero bat eskatuaz, gure errian sorm, indarm, ugaritu ditezela, beren errikoitasuna ta beren sinismena benetan artzen dituzten giza-semeak. Errikoitasuna sinismenean eta sinismena errikoitasunean itxasita.

Ala izan dedilla.

DON MANUEL LEKUONAREN OMENEZ

GOÑITAR JOSEBA, APAIZA

SARRERA

Gotzai Jaun agurgarri! (1).

Don Manuel apaizkide maite ta gaurko jaialdi onen abea.

Andoaindar lagun eta gañerako jaun eta andre guztioi, agur!

Zuen eske bateri zaputuz egiten jakin ez dedalako; Don Manuel Lekuonari buruz, bein eskam didaten mesede bateri uko egiteak kezka ematen zidalako, ta, bear bada, lotsagabe xamarra naizelako... emen naukazue, andoaindarron ordez eta izenean, Don Manuelen ohorez, bere bitzta ta egintzaren urratsak bildu naiean, gogoangarri ta ederrenak aipatzeko ta txalotzeko asmotan.

Ba zan —egitan, ziñ egin bearrik ez!— nik baño egokiago arlo

(1) Mintzaldi au, Andoaingo Elizan esan zan, 1975'kc apirillaren 27'an, Meza Nagusi ondoren. Setien'dar Jose Maria Gotzai jaunak meza eman da, billera onen mai-buru izatekoa zan. Tamalez, azken orduan beste eginkizun batek beartu-ta, etzuan gure artean gelditzerik izan.

gozo au egin zezakeanik; nik baño maizago ta sakonago Don Manuel-ekin artu-emanak izan dituenik; bañan... *historiadorea* bear omen zanta; gure euskal-kondaira azterm lezakeen norbait, kondaira zuloan illik geldimtako ingurumenak berriro piztuta, zutik jarri zezakenen bat, gizaldi ontan, euskal-kultura ta egoeraren gertakizuneri bizia ezarri lezaio-kenen bat, Don Manuelen bizitza argiro ta oparoago miresteko.

Izan ere, Don Manuelen euskal-lanak eta apaiz-bidea bear dan ego-kitasunez aipatzeko, garai bateko arazo ta ingurumenak aitatu bear. Marrazki eder batek, bere bikaintasun eta ederra azaltzeko, quadro eder bat apaingarri bezela eskatzen duan bezela, gizon bsten jokaera soillak, ba-kardadean egindako aukeramenak, bere baitan jokaturako burrukak neur-tzeko, ingurumeneri eldu bear nai ta naiez.

Zer eta nolako euskalzale ta apaiza izan dan Don Manuel esatea, ez da lan ariña! Egia esan, zabal eta argi mintza nazaizuten, naiago nuke, une ontan, bera emen ez balegoke. Izan ere, axaletik bederen, ondo-txo jabetzen naiz, nolako lotsa ta izerdi otza eman lezaioteken, beraren gogoangarri esan bear ditudan goratzarreak. Orregatik, ez dut esan lite-kean guztirik esango; ez da erdirik ere, berari lotsarik ez ematearren. Beraz, esan nezakeana bakarrik, gutxi nola nai ere.

Antzo ta alderdi asko ditu Don Manuelen nortasunak, euskalzale bezela; ez da euskal-kulmra gaietan zatirik, berorrek ukim ez duanik; euskal-gaietako lau ertzetara begi-belarriak barreiatzeko ortan, ez du, bear bada, euskalzale guztien artean iñork gallendu; "*nihil humanum alienum a me puto*" zioten erromatarrak; oraingo ontan itzuli genezake esanaz "*euskerari dagokion atalik ez da, Don Manuelek begiratu mai-talerik kokatu ez dionik*". Olerkari apurtxo bat, antzerkilari ere bai; etnologiari eutsi, arte-gaietan begia zorrotz; kondairan berriz etengabe-ko galdera miña; idazlari garbia, maixu argia, zallena ere erresten da-kiena... eta doai oiek danak osamaz, apaiz zuzen ta sinismenduna! Az-kenik, danak nagusimaz, bere gizatasuna, bere giza-itzala.

Euskera ta Euskalerrriaren alde lan egiteko asmoa gaztetan arm-ta egindako aukerameneri eutsitzen jakin izan zutenak, zoritxarrez badi-joazkigu... Lopez Mendizabal bat, D. Joxe Migel Barandiaran eta abar. Gaur euskal-kulmra bizi bada, zerbait oraindik baldin bada, aueri zor zaie. Gaur euskera-gaiak aitatzea ta oietan lan egitea, *moda* arin bat ote dan esateko ere banago. Gizon auek berriz, guzia arrixkam zuten: etor-kizun, osasun, familia ta lagunak, inguruko giro guzia euskera ta Eus-

kalerriaren aurka jarri zan garaiean. Orretxegatik bear diegu, batez ere, gure esker ona.

OYARTZUN JAIOTERRI

Oyartzuarra degu Don Manuel. Dotriñan bezela galdetuko bage-nioke: "Zu, zein zera?". Erantzuna ez legoke asmatu bearrik: "Ni oyartzuarra Jainkoari eskerrak". 1894'garren urtean "Etxe txiki" izene-ko baserrian jaioa. Eta ain zuzen, Don Manuelek bere jaioterriari zenbat zor dio jakiteko... Oyartzunek bere nortasuna nola oretu ta ezitu duan jakiteko, Don Manuelek berak, bere jaioterria dala ta, Ayalde margolari, nere erritarraren omenez eskeinitako itzaldi batetik artuta-ta, bere itz berberak erabilliko ditut, nere oraingo asmo ontarako zerbait moldatuak:

"Nik zuri, zuk neri. Gizaera kontuan, zer eman zion Oyartzunek Don Manueli?, eta zer Don Manuelek Oyartzuni?"

Zerbait ematen digu beti guztiyoi, jayo edo bizi geran erriyak. Denak bizi edo jayo geran erriarentzat begiya erne eukitzen dugu beti; begiya erne eta biyotza xentikor. Jayo geran erriyaren egoerak gogor jotzen du gure begi-niniya, eta erriyaren biyotz-taupakadak ere sakon jotzen dute gure biyotzaren ondua... Eta ola sortzen da biyen artian "*sintonía*" esaten diyogun biyotz-egoera eder bat" (Orain arte Don Manuelen itzak).

Don Manuelek Oyartzuni zenbateraño zorra dion jakitea ez da lan samurra. Dana dala, eta gerokoak geroko, bere euskal-miñaren zimikorik aundiena jaioterritik datorkiola esan leike.

Oyartzun erriak baditu zenbait alderdi lilluragarriak: lehenik *paisajia*, lurralde zoragarria; mendi artean irikitzen dan ibar eder eta zelai zabal bat. Oso goitik asi ezkeroz, Ayako Arri, Jaizkibel eta Añarbeko, Napar mugako mendiak gordetzen dute; bañan aldexeagotik inguratu-ta, nere iritziz alegia, Urkabe menditik ageri zaigu ederren Oyartzun: ikuskari zoragarria, lerro neurritsuak, mendixka legunak, muñoak ez nabarmenak, aldapak aukeran ariñak; dana neurritsua. Badirudi, begien jolas eta lasapenerako sortuak izan dirala mendi ta muñoak, zugaitz, bide ta errekek, aldapa guztien bizkar eta gibelak. Kabi ortan jaiotako umeak, nola ez artista-izaera, sortze-une beraxetik bereganatu? Don Manuel artista danez gero, Oyartzuni zor diolakoan nago, bere artista izate au.

Bestetik, baserri erria degu Oyartzun. Esango nuke, baserri giroa

garbiro ta sakonago gorde izan oi duan erria. An, oraindanoxe, azken amar urte auek arte, kale giroak ez du baserri giro ta egoera zapaldu ta urratu; alderantziz, baserri usuarioak eta baserri izaerak estali du kale giroa. Beste barrio edo auzoen mende bizi izan oi da, egoera eta oitura aldetik, "Elizalde" auzoa.

Ona bada, baserri erri bat, bere nortasuna, bere baserri izena eta izaera ukatu eta lotsaz gorde ez ezik, pozik azaldu eta nun-nai aitortzeko zale dauden erritarrak. Bere erria maite ta bere erriataz illarraintzen dana da Oyartzuarra. *Patria chica* edo ego motxeko erri-miñik iñoiz izan bada, oyartzuarrak berekin du.

Eta erreteriar naizen batek esaten dizue ori, au da, auzoko testigu batek, —auzoko ezik etxe bereko anaiak izan giñan batek— (gure antxiñako asarreak, Don Manuelek, bere erriaren historian ain ondo aztertuak dim, gaur, zorionez, azarre aiek ahaztuak ba daude ere). Eta, zer nabaritzen du, nere garaieko erreteriar batek? Oyartzuarrak bere izaeraren arrunkatxo ta agertu-naia, bere *paternalismo* ttanto batekin-ta guzti, ba duala, batez ere, kalekumeenganentzako. Zer uste duzute, baserriak, baserri umeentzat naiko bizibiderik sortzen ez zuala-ta, eguneroko ogia irabaztera Erreteriko eta Pasaiako fabriketara etorri bear zutelako, oyartzuarrak, otzandu izan oi zirala, beren zoritxarrari begiramaz?

Ez orixe; alderantziz, errukia ta biotz beheratasunez beteak mintza oi ziran *kale gorriyan* bizi ziranetaz. Ah... gizarajoak! an beheian... Erreteriko zuloan bizi diran zoritxarreko aieri... errukia; fabrika zikiñetako otsa ta tximinietako illaunpean bizi diranen aldean, Oyartzungo atsegiña ta zoria berriz! Emengo eguzki disdiratsu, emengo aize gozo ta osasungarri... eta, batez ere, emengo oimra garbi eta emengo kristausinismen bizia! Ba dakit, bai, argumenm ta arrazoi auek, gure artean ezik, beste leku askotan ere zabaldu zirala; eta zerbait geiago esan nairik, aitortu leike, ez zirala izan baserritarrak berak sortu ta sumamtako arguyuak, orduko *integrismoak* sortu zimn; obekiago, errietako buru egiten zuten *kazikeak*... eta noren mende egon zitekean orduan gure Oyartzun?

Dana dala, eta gure gaiari jarrai daiogun, Don Manuelek bere jaioterritik jaso dituala, nere iritziz, berekin ain oparo diman bi doairik nagusienak aitortzea naikoa dugu: batetik, bere arte-ixuria, arte gaietako leia; bestetik, errikoitasuna, baserri egoeraren sena ta muinik mardulena.

Lehenago aitatu degu, *paisaje* edo ikuskari batek nola orem eta ko-

loretu lezazkean gure sentimenmrik sakonenak. Orain berriz, baserriar oberenen biotza gordetzen dala, oso osorik Don Manuelen sotana azpian, esan bearrean gaude. Don Manuel pozik ikus nai duanak, eraman beza ibillaldi bat egitera... ez asfaltoan zera! ; igo zazu, mesedez Gipuzkoako edozein muño ta mendi gallurrera, ta an ikusiko dezu, bere biotza ta begiak auspoa bezela zabaltzen. Antxe itz-jario biurtuko zaizu; base-rieri begira, berde-kolorean begiak murgiltzen dimla, edozein artzai edo artaldeen ezkil-otsa ta durunda doñuak ausnartzen dimala. Itz batean, Euskalerriko zelai ta mendiak sortzen dute bere baitan egitazko *sinfonia* ta egoerik jatorrena.

Don Manuelek, bere sasoirik onenean, erabiliko dituan gaieri buruz; euskal-kulmra aztertzean egingo diman laneri buruz, atal ontan esandako guzti auek, garrantzi aundia dute.

EUSKAL-LITERATUREN PIZKUNDEA

Don Manuel jaio zanerako, euskal-literamraren pizkundea asia zan. Gazteizeko Apaizgaitetxean —Baliarraingo urteak ahazm gabe— latiña, filosofia ta teoloji-ikastetak bukatu berriak ziman, euskal-kulturako gogo berri batek, dana sutan goriturik jarri zuanean. Esan bearrik ez, nundik zebillen gure omenaldimtako lagunaren biotza. Nik dakitenez, Don Manuelen lehenengo idaz-lana garai artakoa da; ain zuzen, Seminarioan bertan, 1918'garren kurso-asieran egindako itzaldi nagusia "*Estudios de métrica vasca*".

Izan ere, Europa zaharrean ta ludi osoko erri ta nazio geienen antzera, gure artean ere, abertzaletasun-erasoa ta errikoi-kulturaren gogo, baturik azaldu ziran. Katalanak aurretik zirala, euskaldunak ere, gure gizaldi onen asieran, bide berdiña arm zuten. Zer asmok eragiten zien gizon aieri? Erriaren nortasuna aitorm naiak; bear zan ainean kondaira ezagum naiak; sabel-izkuntzak bear bezela zabaldu, edertu ta zaindu naiak, erriaren nortasuna beste erriengandik bereisteko ta ezaugarazteko. Orregatik abertzaletasuna eta kulmra-zaletasuna ain baturikako arlo bat bezela azaldu ziran; atal batek bestea zirikatzen zuala.

Izan ere, Euskalerriri dagokionez, danok aitormko genduke, kezkarik gabe, zer garrantzi duan euskera gorde ta zabaltzeak eta zenbaite-raño dan gure izkuntza maitea, gure euskaldun nortasunaren ezaugarritza, ezaugarririk argiena eta sakonena!

Pizkunde onen asieran, euskera-laneri bultzada kementsua eman zionik, norbait izendatu bear izan ezker, bi izen nai ta naiez aipatu bear: Arana ta Goiri'tar Sabin eta Azkue'tar apaiz jauna. Lenengoak, politika gaietan lan asko egin izan bazuan ere, etzuan gutxiago landu gure izkuntza zaharra, bere arazo zorrotzenetan mulgilduaz, euskera berri bat, garbiagoa eta txukunagoa, beste inguruko izkuntzat erantsi zizkionten kutsuak bazartuaz. Bere leloa ta burruka, euskeraren erderakadak eta mordollokeriak bazartzea izan zan, euskeraren berezko sustraiak bi-Uatuaz eta izkuntza berari darion arnasetik itz berriak sortuaz. Berorren aukerak eta iritziak, beti onenak eta zuzenenak izan ez ba ziran ere —askok etzituzten ontzat eman bere *Ixendegi* famatuaren aukeramenak—, iñork ez dio ukatuko Arana jaunari —ezta politika gaietan bere etsai zirenak ere— berari esker, erriaren gizaldietako lo zorroa, bere deiaz bukatu zala, ta Euskalerrri osoari, izkuntza ta kulmra aldetik erabateko dardara ta astin-aldia eman ziola.

Azkue apaizak berriz, beste bide batetik landu zuan euskal-gaia. Bere arloa izan zan, euskeraren azken ondarrak bildu, erriaren biziaren apurrak jaso; esku artetik dijoazkigun uraren antzo, galtzen ari ziran zenbait ondare batu, erri-arnasari eutsi nairik. Galtzeko zorian zeuden oitura zahar, esaera, sorgin-mirariak, erri xumearen amets eta gezurrezko usteak, eta abar...; dana bildu ta eratu aspaldiko arrobi paregabe ori, gaurko eta ondorengoentzako oroigarri ta eredu nolabait izateko asmotan.

Gai aueri buruz, orain-arte egin diran bilduma nagusienak gizaldi ontan egiñak izan dira: Azkue jaunak egiña, Aita Donosti musika atletik egiña, bi euskal-prantsezek egindakoa ta Don Joxe Migel Barandiaran gidari zala, taldean osatua. Azkenengo lan ontan ere, gure Don Manuel arkituko degu berriro ere.

Danetan zabalena ta luzehena, langille arrigarri ta porrukatua zan Azkue jaunak egiña da; etzuan, noski, bakarrik lana egin; laguntzakan eta emen billam zituan; ala ta guztiz ere, bere bildumak ezur eta arri uzten gaim; bi liburutan zatitu zituan "*Cancionero Popular Vasco*" deritzana bat eta "*Euskalerrriaren Yakintza. JIteratura Popular del País V#sco*" bestea; or arkituko dituzute nai-añean erriaren abesti zaharrak, bai maite-min kantak, bai moskor kantak; iñauteri jaiak, mindura kutsukoak; seaska-girokoak, lirika ta epika ikumkoak, erlijio gaiekoak, eta abar...

Bigarren bilduma, Aita Donosti musikalari ta kaputxino ospetsu

zanak, egiña da; izena "*Euskal Eres-Sorta*"; musikalari zorrotza ta arnas aundiagokoa zanezkero, Azkuek baño lan bikainagoa egin zuan musika aldetik, naiz eta bilduma urriagoa izan.

Irugarren lana —Bidasoa aruntzeko gure anaietaz ahaztu ez gaitezen— Dufau eta Barbier bi euskal prantsezek egiña izan da. Bat lapurditarra zan, benaparra bestea. Beren arloa bukatu gabe utzi bazuten ere, ba dago bilduma orretan ipui eta edesti ederrik.

Azkenik, Don Joxe Migel Barandiaranek zuzendu zuana. Lan oneztaz ordea geroxeago berriro mintzatuko naiz. Ikus dezagun orain, zer eta nolako giroak erreztu zituan lan astun auk. Zalantzik gabe, esan leike, euskera-laneri bultzada kementsu bat ematearren izan dan gertakizunik bikainena, Oñatin 1918'garren urtean, lenengo euskal-ikasketa saioa (I Congreso de Estudios Vascos) izan zala. An bildu ziran Euskal-lerri guztiko lau Diputazioen agintari-pean, Bidasoa aruntz eta onuntzako euskalzale geienak. Don Manuel ere an izan zan, 24 urteko gaztea izan arren. Etzan oraindik mai-burura igotzeko izen aundiko euskalzale aietako bat, bañan bai Oñatiko batzarreko frum ospetsuenetakoa. Bai orratik indarrez eta asmoz ornitu, andik aurrera lanari gogoz ekiteko!

Egun aietako giroa nolakoa zan jabetzeko, bearrezkoa da orduko kronikak irakurtzea; asierako saioari Errege Alponso XIII'garrenak ez bestek eman zion sarrera; orduan ixuri zítuan erregek, euskerari buruz, emen oroitzea ain oker ez datozen itzak:

"Cultivad vuestra lengua, el milenario y venerable euskera, joya preciadísima del tesoro de la humanidad, que habéis recibido de vuestros padres y debéis legar, incólume a vuestros hijos".

Une artan, Euskaltzaindia sortzeko asmoa artu zan eta bai laister sortu ere. Don Manuelek berriz egun zoragarri aiek nola igaro zituan jakin nai duanak irakurri beza, idatzirik utzi ziguna Oñatiko Kongresoko Urre Estaietarako lantxo batean: "ni ere an nintzan. Apaiz gazte; Gazteizko Apaizgaitegiko euskal erakusle... Euskaltzaindia Oñatiko Unibersidadeko Sala Nagusian, Areto ederrean, jaio zan... ikusten nago oraindik Sala artako Mai-Burua ta mai-burutakoak: aingeru irri tristea expansionetan beti zeraman Txomin Agirre erdian; itzal aundiko Azkue aundia aldamenen; Elizalde ille-gorri bizi urduria bastertxuan; Olabide aita patxarakoa an nunbait...". Azkenik, Akademia sortzeko asmoa eta bearrezko burruka: "ikustekoa zan Elizalde... eskuak dal-dal esaten... **ain**

anaikiro ta ain gogoz alkarrekin jardun genduanok, bakoitza geren txokora itzuli baño lehenago, Euskal-Akademia sortu bear zala". "Ni —amaitzen du Don Manuelek bere lantxoan— nere Gazteizko lanetara itzuli nintzan". Erantsi dezaigun guk, Gazteizera, euskal lanetara.

VITORIKO APAIZGAITEGIKO IRAKASLE OGEI URTEZ (1917-1936)

Apaizak erriaren Jainkoagana zuzentzeko ardurak izan duan ezkeroz, betidanik erri xearen izkuntzan mintza izan oi da, eta gure artean, azken gizaldietan bederen, apaiza izan dala euskera ederm ta egokitu zuana, lehenago aitam degun euskal-kulturaren pizkunde orren aurretik; eguerdiko eguzki nabarmenari illun beltza deim nai diotenak bakarrik ukam lezateke egi au. Ba dira, gure artean, gaur egun batez ere errealtate oni saiets egin nai diotenak. Bejondezaiela! Apaizak, gure arteko eliz gizonak, euskera maite izan duten agiria, ez da Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz izen aipam auek beren artetik sorm diralako bakarrik agortzen, baizik eta, batez ere, gizaldiak zear, eta nunnaindiko Euskalerriko baztarretan, apaiza bakarra izan dalako, ofizialkiko gertakizunetan eta plaza-argian euskeraz mintzam izan dana. Beraz, apaiza, eguneroko dotriñaren bidez eta iganderoko sermoiaren bidez izan da, erlijioko gaiak garrantzitsuenak diranez eta apaiza giza-mailean gizon *ikasíya* danez, izkuntza zaharraren itzal eta gordairu.

Orregatik, apaizak, euskal-kulmrraren pizkundera sortu zanerako —euskal-gaietan oso trebetuak bai-zeuden— laisterka ta gogotsu ekin zioten lanari. Ain zuzen, Gazteizko Apaizgaitegia datorkit burura eta etxe artan Don Manuel euskal-irakasle bezela. Urte aietan, urte sasoirik onenak alegia, ango anai arte ta apaiz giro ederrean, zabaldu ziman euskera ta Euskalerrri gaietako bere gogo ta amecsik beroenak. "Bazan orduantxe Gazteizko Apaizgaitegian kulmra-lanerako gogo; —aitortu du Don Manuelek orain denbora asko ez dala berak egindako itzaurre batean— ikastola ofizialetan erakusten zanz gain, igertzen genduan beste ainbat gauza ere ikasi bearra zegola..." "...instituzio oiek etziran goitik-beerakoak izaten; betik-gorakoak baizik. Etziran ezartzen; *sortu* egiten ziran: ikasleak berak sortzen zimzten". Ona nola jaio zan 1924 garren-go urtean *Kardaberaz* bazkuna, gaur egun, berriro Don Manuel buru duala lanari ekin dion bazkun berbera, alegia.

Apaiz-tradizio onenean, beraz, tinkam-ta, Don Joxe Migel Baran-

diaran, Seminario bereko irakaslearen mende, garrantzi aundienero lan bati asiera eman zioten apaiz eta apaiz-gaiak alkaturik. Arloa: gure erriaren sena etnolojiaren bidez aztertzea. Ortarako etnolojiko laboratoriorio bat eraiki-ta, an dijoaz apaizgaiak udaran Euskalerrian zear, baserriz baserri zulo izkutuenetaraño, emengo iotura zaharrak, ango sorgiñ-kontuak, besteko ipuiak... Arlo ari esker "*Anuarios de Eusko-Folklore*" deritzan 13 liburu aleko bilduma osatu zuten.

Esan bearrik ez, Don Manuel lan aietan erdiz erdi murgildu-ta zegoala eta bere gain Oyartzungo ballarako bilduma-lanak erori zirala. Erriaren alde ixuriegia arkitzeak ba zituan orduan ere bere arrixku ta akatsak. Euskal-gaietan erabat finkatzea... euskera-kultura profesionalki antzo lantzea... ez ote zan, nolabait bederen, politika egitea? Oraindik geiago, garo usaieko gaiak goraltzea ez ote zan parragarritzko bidea aukeratzea? Ez ote zan obeago euskera izkuntza bere auleri-miñez iltzen ustea? Ba ziran bai, onela mintza ta benetan era ortan pentsatzen zutenak eta aitzakia etorriko zan —gerra ondoren alegia— arrazoi auen ondorenak gogoratzeko. Euskeraren langille ezik, garai artako zenbait gizon, euskeraren martiri izan zirala aitortzeko garaia ba-dator.

Gerra aurreko urteetan, Don Manuelen lanak iturriko ura lez datozkigu: aitatu det lehenago Metrica Vasca'ri buruz egindako itzaldia. Geroxeago, 1921'ko urtean *Antzerti* zeritzaion aldizkarian *Eun dukat* izeneko antzerkia argitaratu zuan; lan kutuna benetan Don Manuelentzat, besterik ez bada ere, gerran ilko zuten bere anai apaiza Don Martiñekin batera izenpetutako lan bakar auxe ondcrenerako gelditu dalako, ner ustez beintzat. Gero dator lehenago aitatu degun *Kardaberaz* bazkunaren sorrera. Gaur egun, fotokopiaren bidez talde onek argitaratu ditun orduko arpidedunak ikustean, an arkituko genituzke edozein gaurko gure errietako apaizen izenak; nik arpidedun aietako baten izena bederen izen-datu nai nuke, lehenengo lerroan dagona gañera, Tolosa'ko seme *Zun-zunegui'tar Joxeba* (onela idatzia), gero urteak aurrera, Vitori'ko Teoloji-lanetako Fakultadea eraikiko zuan ainbeste apaizen irakasle maitea, orain berriro illa.

Garai artan bukaera eman zion Don Manuelek, bere izena geien jaso ta goratuko duan liburuari "*Literatura oral euskérica*", bertsolaritza zer dan eta gure bertsolarien etorria aztertzen duan liburu sakona. Liburu txikia neurritz, bañan mamiz ta sentsuz betea. Don Manuelek berak aitortuko dizu bere liburuxka ori gure artean. *klaúko* bat biurtu dala. Li-

buru orrek argitzen du, sagardotegi bateko edozein bertsok duan meritu-tua, nolako teknika pean eta zer oztoporen bidetik igez eginda dijoan bertsolarien ixuria. Liburu oni esker, gaur Euskalerriak berri badu, Muxarro ta Xenpelarren eztabaidataz; Xenpelar eta Iparragirren alkarrekiko zirikadataz. Luis Mitxelena jaunak, liburu onen bigarrengoz argitaratzekoan ziona irakurriko dizuet:

"Bere sailean, ez dugu izan geroztik (liburu) aren ordezkorik, ezta inguratzekorik ere. Eta orain, agerraldi berrian osaturik dator erri-teatro zatiak erantsirik: Zuberoako pastoral batenak eta Bariutia'ren /icío'arenak Euskal-gauzetarako gogcrik duenak, irakur beza lehen liburu aberats bezain argi au, ezagutzen ez badu. Ezagutzen duenak ez du ezer esan bearrik; bein ta berriro joko baitu, iñork eragin gabe, iturri garbi orretara" (Encl. Vasca, vol. V. III. pág. 556).

Bada azkenik, beste lan bat, Don Manuelek ixil-ixillik parte bere-xia bere sorreran izana ta oso gutxik gogoan izaten dutena, Santa Krutz apaizaren bizitza, Don Juan Olazabalen izenarekin argitaratua. Gaur egun liburu au aurkikaitza dala-ta, zuen artean ni entzuten dagon bateri esker, egun auetan nere eskuetan erabilli dut. Olazabal jaunak aitortzen du atzen-itzetan Don Manueli esker idatzia izan dala liburua; izan ere, Oyartzungo ballaran baserrietako oitura zaharrak jasotzen zebillela, Santa Krutz apaizaren zenbait gudari ta lagun ezagututakoan beren aotatik entzundako berriak jaso-ta idatzia izan zan liburua. Bañan jaso ezik lautatik iruan materialki ere liburua Don Manuelen eskutatik irten zan.

ERBESTEA (1936-1955)

Bat batean, Don Manuel Valdegovia'n, Arabako auzoan, Gotzai Jaunari, gotzai-lanetako idazkaritzan laguntzen zebillela, etorri zan etorri ere gerra; eraso ta ekaitz beltzenak estali zuan Euskalerra lurra. Zori negargarria zenbaitentzat, batez ere Don Manuel eta bere antzeko askorentzat: bi anai galdu —bat apaiza—; bere buru ta bizia arrixku gorrian eta guzia okerbidez jarduteagatik, bere euskal-lanak eta euskal-kulturako ametsak, lurperatzeko arrixku betean. Gizonen giarra orrelakotan ezagutzen dalako, Don Manuelentzat epe illun artako urteak etziran utsean geldituko, baizik eta bere kemenak eta biotza negarrean ezitzen dakienaren antzo, indar berritua irtengo zan.

Jainkoak ala nai-ta, adiskide leial bati esker, ain zuzen Lasarteko Brijidetako lekai-me-etxeko kapellaua zan, Antonio Abauntz apaiz jaunari esker, mojatxoen komenm berberan igaro zituan, gure lagunak, bost urte inguru. Nobela zaleak eta biotz-ondoko impresioak opa dimztenak badiute Don Manuelen bizitzari buruz nun arkitu nobela-kutsuko zatitxoa. Ona bada, gure Don Manuel erbestean Lasarten; bere erri ta erritarren erdian... izkutatua. Lau paretta inguruan ezik, bi paretak usten duten utsune-erdian, Lasarteko mojatxoari esker, Ebangelioko agindua, larri dagoanari eskua luzatzea ondo aski ikasitako lekai-meen artean.

Gerra otsak eta gorrotoak guztia gallenrzen zuten garaiean, jakin izan zuan Don Manuelek ixil-unerik sortzen bere baitan, bere biotz garbia uhain gogor aietatik gaitzik eta loirik gabe ateratzen; ez noski kezka ta asperenik gabe; bai ordea, bere buruari gogor egiñaz; euskeraz esan oi dan bezela *ek:ña eziñaz egin da*.

Erbesteko garai kezkatu aietan bai ote euskal-laneri ekiteko almenik? Bai, arritzeko bada ere. Ba dim Don Manuelek zenbait lan, mojatxoen komenman egiñak edo an izenpemak. Lasarteko urteak etziran erabat agorrak izan euskal-literatura eta euskal-edestiantzat. Ain zuzen, urte aietako *fecha* ta Lasarteko izena darama, bere erriari eskeinitako edesti monografian *Del Oyarzun antiguo* izeneko itz-aurreak; Lasarteko lenengo illabeteetako *fecha* daramakilako, asmam leike, gerra asterako liburu eder au bukatua edo bukamxea zuala.

Billatzen duanak arkim egiten dualako, eta komenm barruan billam-minik falta etzualako, *Rafols* moja sonamari buruz, Republika garaiean ainbesterañoko ota ta zalaparta sormtako profezi ta agertaldiari buruz, urram txiki bat eman zion Don Manuelek, gezur-usaia zerioten idatzi aien urratsak, beste liburu batengandik zatozten susmoa sortuaz. Denborak eta batez ere Erromako Elizaren epaiak arrazoia emango zion. Bere lan au *Ciencia Tomista* Salamankako dominikoen aldizkari izen aundikoan aurkitzen da.

Zer egingo komentuan, mojatxoen bizi-moduari begira, sinismen-laguntza ta apaiz-lana eskeini ondoren? Une ontan, Don Manuel olerkari biurm zitzaigun: mojarren bizitza xume ta aingerukoien olerkari. Moja auek gizon onengandik beste eskerrik iñoiz izan ez balueke ere, naikoa luteke ordain antzo, bere bizitza-giroa kantamko zuan olerkari garbi onen abotsa ta eresia.

Zer sendagai oberik biotzeko zauriak sendatzeko, olerkiak egitea

baño? Begi garbientzat, dana elur antzo dalako, artista tankerakoentzat dana lilluragarri ta zoragarri gertatzen dalata-ta, Don Manuelek izan zuan lekaimeen bizitzako uneak poesi-lerroetan finkatzeko astirik. Andik urte batzutara argitara *Gerrateko nere amabi kantak* izendatu zuan liburuxka ura. Gerratekoa garaia bakarra, gaiaez ordea, pakea ta sinismena dariotenak; zeru-girokoak, ez ordea polbora usaiekoak; an, komentu barruan, atabal-ots eta gerrako turuta-soñuak ondo uxamrik zeuden eta zorionerako, baita Don Manuelen biotzetik ere.

Poesi bakoitza moja bateri eskeiñia dago; Nobizien maixtra dala, komentuko tornera dala, bordatzallea edo sakristaua dala... Ona zueri irakurtzeko neronek aukeramtako zatitxo au: Sor Santa Maria Magdalena josmnari eskeiñia, jozmndegiko lanari buruz. Ama Birjiñaren susmoak eta beldurrak, bere Seme Jesusen azken bukaera gogorrean, oroi-m-arazten dizkio olerkariak mojatxoari; artean, ona zer gerta gure moja jostunari:

Bein, josmndegira
eldu zanean
ta (bastidorea
belaun-gañean)
txisti eta *txasta*
asi lanean,
asi bezain laister,
une berean,
malkotxo bi zeuzkan
begi-ertzean.
Eta maixtrak, zer zun
jakin naiean,
—"Zer dezu, maitea?"
galde egitean,
berak ere etzekin
zer zitekean...
...muestratzako zeukan
markadorean,
len letrak bezela,
letra ordean,

Gurutze bat orain...
...ta Gurutzean
Jesus odoldua...
Ta ura ikustean,
Maritxo gaixoa
(ezin bestean)
negarrez zegoan
negar batean...
Ta bera negarrez
dagon artean,
aingeruak, aren
bestidorean
(*txisti* eta *txasta*
eten gabean)
seda fin-fin morez
jardun lanean
Gurutz bat bordatzen;
ta Gurutzean
Jesus more-more,
illotz antzean.

Komenmko bost urteko erbestea naikoa etzala-ta, orain asiko zan

egitazko erbestea, Euskalerritik kampa, Kalahorra lurraldeetan, au da Euskalerriko muga berberan. Kalahorrako hospitalean jaso zuten Don Manuel ume-zurtz antzean eta an igaro zituan bere bizitzako ia amalau urte. 1941'ko urtean gertatu zan esandako au; Alegiko biotz oneko emakume baten laguntzaz joan zan Riojako eguzki beroaren erraiñuak artzeko eskubidea, beldurrik gabe izan zezan.

Kalahorra erbeste leku bezela, nork auk-iratu zuan jakiterik ez dut izan. Ez dakit Eliz agintariak edo Don Manuel berberak egindako aukera izan zan. Bañan beldur naiz, historiadore-miña barruan zeramanez, berak egindakoa edo bere leia geiegi ezagutzen zuan edonork egindako aukera izan ez ote zan. Izan ere, Don Manuelek Riojan erbesteko zigorra betetzen zuan artean, bere bizitzako bi gogo bero bete zezazkean: bat, bere ainbat adiskide ta ikasleen antzo zigorra zer zan ikasi; ez bai zan bere *kasoa* bakarra: gutxi edo geio, aldeago edo urrutiago beste gure arteko apaiz askoren gerrako ondorena izan zan.

Beste aldetik, Kalahorran zeukan Don Manuelek gure antxiñako Eliz-Barrutiko buru izan zanez iri au, gure sinismen kondairako zati geientsuenean beintzat, kondairako artxibo ta paper zaharrak. An zegoan, batipat, gure Eliz-kondairaren arrobia! Beraz... berriro ere lanera! Berriz ere euskal-gaietan erabat ixuria, oraingo ontan historia edo edesti gaiak, ez ordea Euskalerrikoak bakarrik, baita ere Rioja lurraldeko gaiak ere. *Berceo* deritzaion aldizkarian aurkituko dituzute Don Manuelen zenbait lan: *La Catedral de Calahorra*, *La Iglesia de San Andrés de Calahorra*, *Iglesia de Sant'utgo de Calahorra* eta abar.

Gure Eliz-barrutiari buruz, etzuen oraingo ontan ale lodiko libururik erne; bai ordea bere izerdi ta lan askoren nekea besteeri opa ta eskeini. Galdetu bestela, Deuston katedratiko dan Mañarikua apaiz jaunari, Euskalerriko asiera asierako kristau-bizitzaren egimrak eta Eliz-barrutien sorrera arazoetan sartu danez, zer laguntza izan zuan Don Manuelen esperientzitzoarekin. Galde baita, Don Pio Montoya, apaiz jaunari, berak orain orain argitaratutako liburua *El clero vasco y las guerras civiles*, nola egiña izan dan, Don Manuelek Kalahorrako urteetan billatu ta banatutako dokumentuekin ez bada.

UDAZKEN EMANKORRA (1956-1975)

Riojako erbestetik Andoaina; Berrospe-etxeko kapellau bezela izen-

datu-ta iritxi zan 1956'ko urtean zuen artera, Jesusen alaba mojatxoari bere apaiz-!ana es^eintzera, ama fundadora izan zan Kandida Cipitriaren jaiotetxe berbera. Berrospe etxe ortako kondairaren arazoak ezagubide izatea Don Manueli zor diogu.

Bataz beste esan leike, Andoainen igaro dituala Don Manuelek, euskalgaiari buruz beintzat urte emankor eta aberatsenak eta ia ia bere bizitzako urterik luzeenak: gau illunaren ondoren... goiz argia. Euske-raganako gogoia ta zaletasuna berriro piztutzen asi ziran neurrian, berriz ere Don Manuelen itzala euskal-gaietan zabaldu zan, txalo ta gorlpen batzuen bearrean, bera ez ba zegon ere.

Gipuzkoara berriro itzulitakoan, zein sendoak ziran Don Manuelen baitan, euskerari ta euskal-kulturari bera zan eta zeukan guztia eskeintzeko, alkar ainbat maite zuten Joxe Artetxe jaunaren libururen batean irakurria gogoratuko dizuet; Beinola Donostiko kalean alkar ikusi du-te; Artetxe oso *pesimista*, ia negarra zeriola, bere biotz aundi ta zabala idiki dio Don Manueli: "Don Manuel... gure garai bateko ametsak... dana galduta dago! ; zer egin genezake!". Don Manuelen erantzuna: "Joxe, lan egin nai duanarentzat, garai guztiak onak dira... jarrai lanari! besteak beste, etorkizuna ez dago-ta iñoren eskuetan...". Ona Don Manuelen giroa ta barruko indarra; gaztegiroa ta sasoia, adimen osasuntsu ta lerdena zuen errira etorri zanezko garaiean.

Nundik asi eratzen eta banatzen udazken emankor ontan egindako lanak? Izan ere, lau ertzetara ta gai guzietara zabalduak daude. Beraz, Don Manuelen baimenarekin, gaurko *Kardaberaz* bazkunak bere lan guztiak bildu ta argitaratzeko asmotan dabillenez gero, *Obras Completas* edo bilduma ortarako Don Manuelek berak egin duan banaketa azalduko dizuet, jakiñarazteko bere iritzi berberaz, bere lanak nola banatu bearko liraken. Zortzi atal ditu zatiketa onek: 1) Kritika-apurra; 2) Kondaira; 3) Etnolojia; 4) Kultura; 5) Olerkiak; 6) Antzerkiak; 7) Eusko-literatura; 8) Erderazkoak. Aueri guztieri beste atal bat erantsi bearko genioke: itzulpenak. Argi eta garbi ikusten dezute, Don Manuelek landu ez duan gairik ez dala; dana dala nagusienak noski: Kondaira edo Historia; Arte-gaiak; Etnolojia ta Euskal-literatura. Barka arren guztiak ez aitatzea, luzaroegei mintza ez nadin.


Literatura-gaiak lehenago zerbait aitatu dimt. Naikoa dedilla. Ez nuke ordea ixillik utzi nai, Don Manuelek umeentzako olerki xume ta xotillentzako izandako etorria ta leia. Ba da liburuxka bat *Jesu Aurra-*



Zegama, 1959. Kliz-nagusiko aldareari begira, ta nola begira, erriko apaizaren adierazpenak arrelaz entzuen ditu... fba ditu ere, emen, inguruan adiskideak).



Ovartzun, 1967 IV-23. Leen ailatulako jai-egunean. Lekuona jaunak liereziarhua aotzai azuraarriari diosala emalen die...



Oyartzun, 1977-1-25. Lehuona jauna, dan bezelaxe, irripartsu ta begi erne. (Tolosa'ko Gorrotxategi'tar J. Muri'k, argazkia).

ren bhitza. Eresidun aur poematxo, bost kantetan, obeagorik eta egokia-gorik eram ezin leikena; poematxo au, ain zuzen, andoaindar bi nexka-tillari eskeinia da.

Historia aldetik Don Manuelen nortasuna azaltzen zaigu, ez baka-rrik zenbait liburu osam ditualako —emen orain zaintzen ta gordetzen gaituan Elizarena ere berak egiña da—, baizik eta, batez ere, Gipuzkoako ta Euskalerra guztirako kondairari buruz, zer *metodoloji* edo zer lan-erak aurki eta zer oztupo bidetik aldentzen jakin bearco genduVen; bein eta berriro berak gogoram nai izan digu, ez dala naiko idatzitako dokumenmrik ez izatea, gure antziña saraieko gertakizun asko bein betiko ez-ezagunak eta illunpean mende geldim bearco dutekean etsipena artzeko; gure kondairak —dio jakintsuak— badu beste iturri ta biderik, egizko argi-bidea ekar dezatekenak: arkeolojia sdi bidez, arrian gizonak utzitako ezaugarri ta urratsak; etnolojiak arkitzen diman oimra ta oimra-legeak; geografi ta toponimiak azaltzen dizkigun zenbait euskal izen; aoz ikasitako tradizioak eta batez ere *instituzioak*, erriak sorm-ta erriak erabillitako egitura ta araudiak. Euskalduna itzez murrizta izan bada ere, ezin esan leike kondairik ez duanik.

Arte-gaietan bear bada Don Manuel bizkor ta irrika beroenez azaldu izan zaigu. Gai ontan bere izaera neurritsu ta patxaratsua mugak iñoiz austekotan, orainso onetan autsi ote diman esango nuke. Ba ditu, iñork ukamko ez dizkion *intuizio* edo begi-kolpe bikañak: bi Grecoren kuadro, berak lehenik antz-emanak dira: Dorletakoa bat eta Iraetakoa bestea. Astigarribiako *prerrománico* leioa dala... Don Manuelen poza arri zahar bateri esker, gure Gipuzkoako kristautasunaren asiera, agiri ori dala-ta, iñork amesm zezakeen baño askotaz atzerago itzuli zeikeala ikustean.

Ba dakit nik, *intuizioa* geixko erabilli ote duan susmoa nor edo nork eraso izan oi diola. Besteak beste esango nuke, *intuizioa* zein bearrrezko dan bizi berri bat, bide urratuak, jakiñegi eta ezagumegi deritzaizkigun gaiari, ikum bizigarri bat emateko. Ortan saiatzen dana, beti izango da jakintza-gaietan ongi-etorria.

Ba da arte-atal bat Don Manuelek oso berexiki maite duana, eskultura alegia; eliz-imajiñ eta sanmen irudiak batez ere. Ez da Gipuzkoako ta Euskalerra baztarretan Don Manuelek patxaren eta luzaroan miam ez duan eliz-imajiñik eta asko esmtzen banazute, tsango nuke, ez dala iru-dirik, buruz, oraintxen bertan berak nolakoa dan, nork egiña, eta zer

meritu dituan esango ez ligukenik. Irudi baten aurrean Don Manuel ikusi ez duanak, ez du Don Manuel ezagutzen: nik neronek oso gogoan jaso dut gure lagunaren jarrera irudi baten purrean; emendik ikutu, andik eta bestetik so egiñ, legunki loxindu; arnasa estu-estuan irudiaren egillearekin bat-batean alkarizketan jardun... goitik behera, behetik gorra, bein eta berriz, arri eta ezur mirestu-ta. Bada esaera bat, berarekin ainbat Elizatan ibilli izan oi dan Arrazola'tar Asuncion mojarengandik neronek ikasia, alegia, Don Manuelek irudi baten aurrean sarritan esandako leloa "*aquí tiembla el misterio*", emen goi-dardara nabari.

Don Manuel baita ere euskal-itzultzalle. Batez ere, eliz-gaietako itzultzalle. Ez ordea orain-orain asitakoa, azpalditik baizik. Gerra aurretik, Elizbarrutiko kristau-ikasbide nagusia bere zuzendaritzapean euskeratu zan. Zer poza Don Manuelena Andoaina etorritakoan, euskal-sukalde batean bizitzen jarri-ta, bertako umetxoak, alajaña!, berak itzultitako *Salve Regina* berbera, egunero errezoan...! Bagera ume geiago mesede au zor diogunak: nik neronek, Jaunartze Nagusirako dotriñ uraxe ikasi nuan eta baita buruz oso-osorik ikasi ere. Zer egun egokiagorik gaurkoa baño, Don Manueli bere itzulpen aren nere esker-ona azaltzeko?

Itzulpenak aitatzekoan, ez ditugu aztu bear bi lan oso berexiak: Escrivá de Balaguer, apaiz ain ezagunaren *Camino* (Bidea) deritzan liburuxkari, euskera-itzulpenean ikutu bat eman zion. Bestetik, Escudero musikarari famatuen *Zigor* operari, letra Don Manuelek jarri zion. Oraingo ontan, itzuli ezik, letra aldetik dana berea da; izan ere, musikarariak sortutako musika-zatitxo bakoitzeri argumentuaren aria artuz, letra egilleak, ondoren letra ezartzen zion.

Batikano Bigarren Batzarreko giroan, euskera liturji lanak eratu bear zirala-ta, nor aien buru jartzeko Don Manuel baño euskal-itzulzale obeagorik? Esan leike, lan au izan dala, bere bizitzan egin duan lanik ederren eta gozoena, alegia, Jainkoari zuzentzeko, kristau-erriak erabilli bear dituen itzak billa ta aukeratzea... Lana etzan erreza; Don Manuelek itzaldi batean esan digunez: "Arazo ontan, ezta-baida itzalak izaten ditugu. Une ortan egiten ditugu, baita, gure batasun saioak ere: ea bizkai, giputz, napar eta Baiona-aldean, elkarren arteko bestela Votasun ta diferentziarik gutxienean gauza nola esan litekean...". *Aita Gure* berria egiteko garaian, Don Manuelen erresponsabilidadea zenbaraiterañokoa zan antz-emanodiogu, berak *Zeruko Argian* beinola ezarri zituan itzetatik: Erromatarren Imperioa antzo "*tantae mollis erat romanam con-*

dere gentem ", esanez bezela, indar guztiak kokatu zirala al-zuten ondoen beren ametsa lortzeko.

Azkenik, Don Manuelen bizitzari buruz, aitatu bearko Euskaltzaindikoa dala; 1950 urtean izendatua euskaltzain. Bere sarrerako mintzaldiko gaia berriz *Gorotzikatik Gurutzeagara* izan zan. Bazkun onetan lana zein trebe egin zuan ezagutzeko, iru urtez Euskaltzaindikoko buru izatera iritxi zala da agiririk onena.

ZER TA NOLAKO APAIZA TA GIZONA

Beldur naiz, egia esan, Don Manuelen giza doaiak eta apaiz jokaera bear litzaken neurritz goraltzea asmatuko ez ote dudan.

Iru atal aitatuko ditut laburki:

—*here irakasle doaiak*: asko dakienak argi eta garbi erakusten ere jakinten duala, zion Balmesek; eta itz-jarioan illuna dana berriz, ez-jakiña edo bear dan ainbeste ez dakielako dala. Don Manuelek irakasle ta azalpen doaiak neurri bete-betean ditu. Berari zerbait galdegiñez inguratu diranak, ondotxo dakite, zein txukun, zein argi begien aurrean aurkeztuko dizkien arazo ta gai illunenak, eztabaida zorrotzenak. Eta ori bakarrik ez! Maixu aundia izateko ez da naiko gauzak ikasleeri erakustea; gauzak paper gañean betirako finkamak eta esanak daude. Ain zuzen, bere *afizioa* ta gogoa ikasleeri ezartzen dakiena, bere jakintza miñez, ikasleak kutsamz lomrik usten dimen gizona da, maixu ospetsua.

—*Eliz-gizona*-. Norbaitek pentsa lezake, emen gaur goraldutako egintzak, Don Manuelen lanak, burrukarik gabeko bizitza errez ta lasai batean bizitzeko aukera izandako batenak dirala. Zein urrun zantzu oietan dabillena. Don Manuel eta bere garaieko zenbait apaizek, gosea ta bear gorria zer dan badakite; negargarrizko uneak jasan izan dituztelako. Izan ere, euskera zaleak zirala-ta... inoiz irainduak, geroxeago baztarmak eta luzaroege ahazmak egon dira. Elizak berak gai oni buruz errua berekin du; nor bada berak ez izatekotan? Ba dirudi Eliza Amak onelako apaiz eta serbitzaritaz iñoiz lotsam egin izan dala eta... banago esateko, Elizak apaiz aueri agindu zien *congrua* edo berez zor zitzaiena ere, sarritan ukatu egin diela. Salaketa au egitea, norbaiti ausardikeri aundiegia dala iruditzen bazaio, erantzungo diotz, emen aurrean (1) gure

artean dagoen Gotzai Eliz-agintaria egi onetaz jabetua dalakoen usteak bultzatzen naula, au esatea.

—«ere *iritzia*; azken azkenik, nere iritzia Don Manueli buruz itz batean: irripar gozo, pake, giro jarrera guztian, burdiñez oretutako gizona degu Don Manuel; oni esker, bere garaieko odol-beltzeko irain eta gorrotoeri ona egiñaz erantzuten jakin izan du. *Vince malum bono*, dio Liburu Sanmak, au da, gaitza ona egiñaz mendera!

Hitler gaiztoari, gotzii batek erantzun zionetik armko ditut nere itzak, Don Manuelen gorlpenez jai eder au ospatzeko: "Zu mallna bazera, ni azpiko burni-orma, edo inguria nauzu. Artzazu etsipen, mallua lehenago porrokatzen dala, inguria baño!

Zintzotu

INSAUSTI'TAR SEBASTIAN

Manuel Lekuona apaiz jaun agurgarriari omenaldi bat egin nai diola Kardaberaz taldeak eta orra ni ere zurunbillo ortan sartua. Lerro oiek irakurri ondoren denbora galdu dezutela usten ba-dezute, barkatu, nere errua ez-da ta.

Lekuona zaarraren trebetasunak asko eta era guztikoak dira, bañan batez ere iru berezi-bereziak dimla esango nuke: Arte edo ederti gaiean, kondaira eta izkuntza aldetik. Irurak ondo aztermak dauzka, goi mallako maixu izanik bakoitzean. Nere gaurko lan ontan iru oietatik bi bakarrik armko dimt begitan, kondaira eta izkuntza, ez noski maixuari ezer erakusteko asmotan, baizik berari poz emango dion solas-aldi bat egitearren. Nere asmakisunak xelebrekieriak dirala esango dezute, ala ere or nijua crrrenbeste askatasun badalakoan gaurko egunez.

Orain esatera nuana auxen da itz gutxietan: ZINTZOTU itz orrek gaur bide zuzenera etorri (erderaz: corregirse, enmendarse) esan nai ba-du, beste zer edo zer agertzen zuala asieratik, alegia: erru gabea zala norbaitek ziñez edo juramenm egiñaz asaldu; aldare aurrean zifi egin-da bere burua garbitu. Susmo txarrak bere gain bildu zimanak, elizara jua eta gende askoren aurrean itz emanez, salatzen zizkioten erruak berak egiñak etzirala agertu. Era ortan bere burua zintzotzat ematen zuan, zintzom egiten zan.

LARTAUN-GO ESTEBAN SANTUA

Bere erriaren kondaira zala ta, liburu bikain bat atera zuan on Manuelek orain urte batzuk. "Del Oyarzun antiguo" liburuaren izena, Gipuzkoa'ko diputazioak argitara emana bera. Liburu orretan agertzen digunez Lekuona jaunak, Oyartzun'go parrokia, Esteban sanmari eskeñia, ziñ egiteko aukeratuak zeuden eliz oietako bat izan zan. Berak ongi asko ziñatze orri buruz esandakoi zer edo zer erantzi naiean nator orain, ezer gutxi balio ba-du ere.

Gentillen kutsua zuten oitura zarrak gaintzeko asmoakin artuak izan omen ziran ziñatze oiek, ta leikena da, ez zarrak bakarrik bai txararak ere askotan agertzen zaizkigu alako oiturak gaur. Eskutan ikatz kiskalia arm eta erre gabe gelditu ezker, berak errua etzuala egiñ adierazten zan. Berdiñ eskuak ur irakiñetan sarmta; salatzallea susmo txararak bere gaiñ zituanakin burrukan jarriaz eta garaille zana erru bagea, eta olako zenbait astakeri.

Beste aldetik, Gipuzkoan gaizkilleak zigortzeko legeak gogortxuak zirala ezin ukam. Lapurretak, giza-erailtzeak eta gañontzeko oker ikaragarri asko urrutiko mendi eta basamormetan, bide galdu eta errietatik aparte egiten bai-ziran. Oker oien testigurik eza zan betiko leloa eta zeñek egin ziman ezin asmatu. Ori ala izanik, gure arteko lege-zarrene-tako bat probintziko Hermandadian zazpi alkate jartzia izan zan, 1375 garren urtean armtako erabakia alegia. Alkate oiek etzuten lege-gizon izan bear, baizik erriko gende prestuen artean eta erriak berak aukeramtakoak.

Edozein erru etzan aien esku jarri biar, oker bereziak, azmnak eta aundiak baizik; au da: giza-iltzea, etxea edo eliza puskamaz lapurtzea, andrea bortxatzea, etxeak edo uztak kiskaltzea, igaliak dituzten arbolak eta errementarien lan tresnak txikitzea. Bost erru oiek ziran Hermandadeko alkateen mende jarri bear ziranak. Gañera berriz, basamortuetan eta mendi ta bide urrutikoetan egindako gaiztakeriak bear zuten izan. Uri-esi edo erri aundietan (erderaz: villa) gertamtakoak, bertako alkate jaunak epaitu eta zigortzen zimzten.

Auzia ere etzan beste alkate jaunak moldatzen zuten bezelakoa. Ori bai, egia jakin bearra zuten Hermandadeko alkateak al-zan uts-egiterik gutxienakin epaia eman baño len. Ortarako eta geienetan testigurik izaten etzala esan degunez, aurrenetik azterketa sakon bat egin bearrean arkitzen ziran. Norbait salama izan ezker, edo ta erritik igesi zebillela, edo ta odolez zikindutako ganibeta edo aiztoa zemakila ikusi ote zuten, eta orrelako zuzmurrei garrantzi aundia ematen zizkioten.

Erritik kampaora ba-zebillen, Hermandadeko alkateak deim eta beren aurrean agertzeko ogeitamar eguneko tartea ematen zioten. Aurreneko bederatzi egunetan azaltzen ez ba-ziran (600) seireun txanponen multa esartzen zioten; beste bederatzi egun agertu gabe egon ezker, auzian egindako gastuak bere gaiñ arm bear ziman; eta azkeneko bederatzi egunetan alkateen aurrera etortzen ez ba-ziran, iru egun geigo emanik da-

mutzen ote zan ikusteko. erruaren egilletzat agirian jarria izaten zan. Ordutik, iñork edozein tokitan billatzen zuala ere, orrela salatutakoa eta epaimtakoa iltzeko eskubidea izaten zuan.

Epaia emateko, berriz, bi alkate alkar armta bear ziran gutxienez, eta biak alkartzan ez ba-ziran irugarrenari deituko zioten. Ala ere, Hermandadeko alkateak gaiztoz edo ta zuzentazunik gabe epaia ematea ba-zitekean. Orduan alkate oien kargu Hermandadeko batzar nagusiak artzen zuan, eta errudun agertu ezker bai merezi añeko zigorra eman ere. Alkate oien epai zuzena berriz, erregearen eta bere konsejuaren epai-maiera jasua bearko zun izan eta ez bitarteko edozein epaimaietara. Valladolid'ko Txanzilleriak, esate baterako, etzuan zer ikusirik Hermandadeko alkateen epai oiekin.

Erruaren egillea nor zan jakiteko beste galerazpen aundia ere ba-zan gure artean. Alegia, ez salatua ez eta ere okerraren testigutzat emanak ezin bearm zirala aitortzea gogorkeriaren bitartez. Gipuzkoar guztiak aitonen seme (erderaz: hidalgo) bai-ziran, eta olakoei zigorra ematia legeak debekama zeukaten. Beraz, gaizkillea esagutzeko makiña-bat estroposo ba-zan gure probintzi ontan garai aietan, ez orain bakarrik.

Gauzak orrela izanik, ez degu arritu bear bere burua susmo txarretik libram nai zuanak, zin-egiñez edo juramenmaren bitartez bide ortan jartzia. Orain ulerm edo konpremm leike ortarako eleiz batzuek aukeratzea. Beste modurik ezin billatu, eta nolabait bere burua erru-gabea zala agerm bear, eta nun indar geiagokin eliz barrunean eta Kristo sagarama jartzen zan aldare gañean baño!

Eta zer dala ta Oyartzun'go Esteban sanmaren Eliza ortarako auke-ram? Orain ere nere iritzia eman bear, ezer asko balio ez ba-du. Len esan detanez, erru ikaragarriak eta erritak kanpo, baso, mendi, eta bide galduetan egiten ziranak, zigortzen ziran auzi modu onekin; Hermandadeko alkateak eta ez erri aundietakoak auzi oietan epaille; eta azkenik ziñ-egite edo juramenm emateak berekin zuan azmntasunari beste zailtasun pizka bat erantsi naia izango zan noski. Hermandadeko alkateak etzuten erri aundietan aginpiderik batere, ez zetorren ba ondo erri oietako eliza aukeratzea, baizik eta ballada bat izanik auzo asko zuan erri zabal bat zan aukerakoa. Bestetik, berriz, Oyartzun probintziaren izkin batean zegoan erri geienetatik urruti, eta bertara joaketo asmoa benetan arma bear zun izan. Erruarekin salamak zeudenak abitzearekin bakarrik agertzen zuten norañokoa zuten bere burua garbitzeko gogo.

NOLAZ ZIN-EGIN

Zin-egite oiek edo juramenmak nun bear ziran ikusia degu. Ara orain zer agindu bete bear ziran ortarako. Probintziko batzar nagusia 1415-garren urtean bildu zan Donosti'n eta orduan egindako lege bilduman agiri dira. Gero andik berrogei urte igaro ondoren (1457) beste lege-bilduma batian berrim eta osatu ziran.

Kaltea jasan edo supritu duanak, zeñek egin dion eta zeñei errua bota ez-dakilakoan gaude. Ala ere, izan diteke norbait salatua edukitzea. Onen izena agertu bear dio aurrenetik Hermandadeko alkateari. Une ontan asten da erri-gizon au bere lanean. Lenengo egin bearra auxen du: salatzalleari deim eta ez gaiztoz baizik egitan eta ala dalakoan salatzte ori egiten diola, agertzea beartzen du. Au da: bear ba-da alkatearen aurrean egindako juramentuz esango du, persona orren aurka zuzmurra aundiak dauzkala.

Ori aditu ondoren, alkatearen bigarren egitekoa dator: salamtako gizon edo emakume orri deim eta Oyartzun'en izan bearko dun eguna izendam. Berdin erri ortara bildu-arazi bearko dim bai salatzallea eta bai oni zuzmurra txarrak adierazi dizkioten testiguak. Salatutako gizon-ema-kumeak ere ekarri dezazke bere alde testiguanza egingo dutenak. Orra ba Oyartzun'en bildu bost eratako personak: Hermandadeko alkatea erdin dutela, alde batetik salatzallea bere testiguaz inguraturik, eta beste aldetik salamtakoa berak ekarritako testiguakin.

Lartaun-go Esteban sanmaren elizara sartu dira danak eta aldare nagusian egongo diran gurutze eta Evangelio sanmen aurrean erru gabea dala ziñezteko aginduko dio Hermandadeko alkateak salamtako gizon edo emakumeari. Gaizkille ez dala zin-egin ondoren, oraindik salatzalleak eta onek e. arritako testiguak egingo dien galdera guziei bear bezela erantzungo die. Bere burua garbia dagola asaltzeko naiko argitasun egin duala Hermandadeko alkateak aitortzen ba-du, ori orrela dalakoan egon bearko du salatzalleak ere eta zuzmurra guztiak salamtakoan gañetik kendu.

Oyartzun-go e'izan bear dan garaian baldin salatzallea agerm ez, ala ere Hermandadeko alkate eta beste gizon presmen aurrean egiña izan ezkeru salamtakoaren ziñestek edo juramenmak balioko du. Bañan Oyartzun'en agertzen ez dana salamtakoa izanik, edo ta onek bear añian

bere burua garbia uzten ez ba-du, orduan okerraren egilletzat emana izan diteke eta beraren aurkako auzia sortu.

Nola-nai ere len esan degunez Oyartzun'go errian juramentu oiek zirala ta gende pillo bat biltzen zan eta geienak salatzalleari laguntzeko. Onen txanponak dantzatzia ez da-ba arritzekoa. Eta asieratik, zin-egiñez bere burua zintzotzat utzi zuanari eguneko bi errial eman bear zizkion soldata. Legeak zionez, b: egun gutxinaz bear zituzten bere etxetik atera, Oyartzun erriaraño etorri, Esteban sanmaren elizan ziñ-egin, eta berriro berea biurtzeko. Iru egun bearko zituztenak ere izango omen ziran probintzian barrena. Testigueri sor zitzaiona etzun legeak markatzen, eta Hermandadeko alkateak neurtu bearko zuan. Neurketa bera egin bearra zegoan, oñez ezin eta saldiz juan bearrean arkitzen ziranantzat. Berdin baita-ere morroiak ekartzeko oimra zuen Aide-nagusi edo jauntxoekin. Oientzako eguneko bi errialak soldata motza bai-zan. Alkateari berriz zenbat eman bear zitzaion ez da iegean oso garbi agertzen, bañan lau errial izango zan noski, beste modu ontako lanetan soldata ori jarria bai-zeukan.

Ziñ-egiteko oitura oiek indarra galduz joan ziran, gendiak Elizari begirunea galtzen zijoazten bezela. Orrengatik 1696 garren urtean argitara emandako Lege-zarren liburuan ez dira geigo agertzen. Ordurako Hermandadeko alkateen eginkizuna ere oso moztua bai-zegoan.

* * *

Bukatzer a noala, berriz ere asieran esandakoari eldu nai diot. Zintzoa zala agertzeko ziñ-egiteko bidea bakarrik edo ta biderik garrantzituena zuten garaietan sormtako ítza dala derizkiot ZINTZOTU ori. Eta orduko esan naia etzan noski oraingoa; zintzotu, au da: bere burua garbim, zintzoa zala agertu; eta ez on-biurm gaur artzen degun eran. Izkuntza gaietan utsaren urrengoa naizela jakin da, iritzi au ematera ausardim naiz, eta itxurik gabea ez dala iruditzen zait. Maixuak zer ote diote?

Gure artean itz-emateak duan garrantzia, antziñako oimra ortatik datorrela esango baluke norbaitek, amor emango nioke. Alegia euskaldunak emandako itza iraunkorra dala, ez dala errez ukatzekoa.

Lekuona'tar Manuel, Euskaltzain- burukondoa'ren omenez

INTZA'R DAMASO AN.

Lekuona'tar Imanol (Manuel) apaiz jaunari Euskalerrriak zor dionaz, bere seme guztiak inguratu dezagun omenez.

"Euskaltzaindiaren Gizaldi-Erdi Betetzea"n, Oñati'n Euskaltzain-buru zanez, egin zuan mintzalditxo bat.

Berortan adierazi zuan, Oñati berean, 1918-gn. urtean sortu zala Euskaltzaindia. Egun artan ere antxe zala berori, "Apaiz gazte, Gazteiz'ko Apiazgaitegiko euskal-erakusle".

Ordun, Gasteiz'ko Eliz-Barrutiko Kristau-Ikasbidea euskeraratu, zuan. Mujika Gotzai ospetsuaren Artzai-eskutzak ere euskeraratu zituan. "Jesus Aurtxoaren bizitza, Eresidun aur-poematxoa "k ordukoa dirudi.

Ordutik onuntza gaurdaño egin eta argitaratu dituan liburuak, liburu pixkak eta aldizkarietan jalki dituen idazkiak, nork esango dizkigu?

Euskaltzain-Buru zalako Bayona'n, Iruña'n, Gaizteitz, Bilbo, Donosti, Arantzazu eta ainbat tokitan egin dituan itzaldiak zerbait ba-dira.

Euskararen batasunari buruz ze buruausteak eraman zitun Euskaltzainburu zegoenean!

Arantzazu'ko batzarreak sortu zuten naaspilla zuzentzeko, guztiori zegokigun biderik egokiena ta bearrenezkoa erakutsi zigun. "AbeTA"ri buruz Euskaltzaindiak azterpen patxarazkoa bear zukela oraindik.

Euskaltzaindiak 50 urtetako "Abeza" zoragarria bai-zuan orduko. Gure Euskaltzain-Burukondoak guztion batasunaren onerako lanari darraikio. Gure iru Eliz-barrutietako Gotzaien erabakia betetzen duten Liturgi-Itzultzalleak, orduzkerok. 1968'ko gabonillaren 4'ean Iruña'n Euskaltzaindiak egin zuen batzarrean, Lekuona berak itzezin zigun aurrena. Ordun jakitea eman zigun urte artan berean amar edo amabi billera egiñak ziruela Liturgi batzordekoak. Batzorde onek ez al dagi euskeraren batasunerako dagiken lanik ederrena, norbaitek adierazi digunez? Aipatu dedan itzaldian Lekuonak esan zigun: "Erromatik ezartzen dizkiguten gaiakin ba' degu lau urterako lana".

Geroztik zenbat batzarre ta zenbat lan, zail baño zaillago, ez ote dituzte egin? Ortxe dugu, ordea, Lekuona jauna, langillen buru bezela, bere muñak urtzen, betiko nai dan lan eder ori burutzen.

Garmendia Jaunak, uste ez nuan eskari bat egin zidan omenaldi ontarako. Zerbait nere aldetik egin nezan. Ortarako, pozik egingo. Baña zer egin ote nezake, nion nere baitan

Este interesante "Papel de Advertencias" al cual estamos refiriéndonos en un corto resumen, textualmente termina así: "...y finalmente cuidarán de que acabada cada ancla vaya bien rebatida, así por un lado como por el otro y que salga en todas sus partes de las dimensiones que están prescritas, y del peso que se pida a muy corta diferencia para la facilidad de su manejo y seguridad del Navío a que se aplique".

De las aproximadamente 65 ferrerías que a mediados del siglo XVIII existían en Guipúzcoa, las dedicadas a la fabricación de anclas estaban la mayor parte situadas en las cuencas bajas de los ríos Oria, Leizarán, Urumea y Oarso.

Las principales se conocían por los nombres de Arrazubía, Fagollaga, Ereñozu, Picoaga, Amasola, Agaraiz, Lasarteola, Renteriola, Olaberri, etc. hasta un total, según la documentación mencionada del Ministro de Marina de Guipúzcoa, de 18 ferrerías de anclas.

Los nombres de los fabricantes o asentadores "olajaunak" eran los siguientes:

Familia de Guilisasti (Arrazubía-Aya), Miguel de Iriarte Belamendía (Urnieta). Juan Miguel de Zatarain (Lasarte). Sebastián de Labayen (Fagollaga-Hernani). Jerónimo de Goicoechea, Manuel de Ibarrola y Pedro de Zatarain (Usurbil). Martín de Legarra, Martín de Ameztoy y

dabal garaiez baizik. Bigarren beroketarako lan-aolku zenbait: "beso-izardiarenak" izenekoak, gogoan bear diran oar asko gogoratuaz, biotzeraño (beroa) eldu dedin, gurutzea zangoan ondo batua gerta dedin eta, ondoz, aingura erantzun aundienekoa. Ontarako, Gilisasti aita-semeak bizi ziran garaiez —Juan Fermin eta Juan Antonio semea— erabillitako lan-jokoak eta erantzun-itzak (garantías) gogoratzen eta aolkatzen ditu, ta oroitarazten, ildakoen ondorengoeri, zenbait urtez geroz, bialitako ingura-andana ukatu zitzaiea. Ikas-aolkuak datoz, beroketa ta mailluketari buruz... gurutze, beso ta biotzean... aingurari sendotasun aundiena eransteko. Beroaldi bakoitzean nola jokatu bear dan, aritz-egur-ikatza erabilliz burnia erre ez dedin... "flogístico"k zatiak ernatu ditzan.

Laburki aipatzen ari geran "Papel de Advertencias" ikasgarri au onela amaitzen da: ... "azkenik aingura bakoitza, egiña dalarik, ongi bir-mallatua (rebatida) juango da, bi aldetatik; eta zati guztietan itundutako neurrikoa dakrik, ta eskatutako azta-pixukoa; aisa erabillia izan dedin; ta dagokion ontziaren babesgarri osokoa.

65 ola gutxi-gora-bera ziran Gipuzkoa'n XVIII'gn erdi-aldean. Ainguragintzan ari ziranetatik ziran, zeintsenucak beintzat, Oria, Leizaran, Urumea eta Oarso ibaien bei-sakanetan zeuden.

Nausitsuenak, auetxek: Arrazubia, Fagollaga, Ereñozu, Pikoaga, Amasola, Agaraz, Lasarteola, Renteriola, Olaberri, t. a. 18 aingura-olatarano, "Ministro de Marina"ren aipatutako agiriak digunez.

Olajaunek, auetxek ziran: Gilisasti sendia (Arrazubia-Aya), Iriarte Belamendia'tar Miguel (Urnieta), Zatarain'dar Juan Miguel (Lasarte), Labayen'dar Sebastian (Fagollaga-Ermani), Goikoetxea'tar Jeronimo, Ibarrola'tar Manuel eta Zatarain'tar Pedro (Usurbil), Legarra'tar Martin, Amezttoy'tar Martin eta Arteaga'tar Millan (Villabona), Egaña'tar Martin, Rezabal'dar Santiago, Barandiaran'dar Martin Felipe eta Amezttoy'

Millán de Arteaga (Villabona). Martín de Egaña, Santiago de Rezábal, Martín Felipe de Barandiarán e Ignacio de Ameztoy (Hernani). José Ignacio de Gamón (Rentería) y Manuel de Larrandobuno (Tolosa).

Generalmente las ferrerías de anclas comprendían 2 departamentos o secciones. El primero estaba constituido por el horno (sutegi) de obtención del hierro por "reducción" del mineral y carbón vegetal en forma de "agoa" incandescente, para convertirlo seguidamente a golpes del gran mazo (mallua) en forma de tochos o grandes barras, en nuestro caso, materia prima para la fabricación de anclas. En esta última operación se empleaba el martinete compuesto a su vez de sus principales mecanismos como la ardatza, gabiardatza, gabimallua, etc. La inyección del aire al horno principal se efectuaba por un gran fuelle o barquín (auspoa) movido generalmente por la misma gabiardatza de la ferrería. En algunas de éstas se efectuaba el soplado por las entonces modernas trompas (Aizearkak) perfeccionadas en aquella época por los técnicos de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

El segundo departamento correspondía al del forjado y acabado de anclas, partiendo de los grandes tochos y barras. Estaba compuesto generalmente de hornos o fraguas de calentamiento y uno o dos martinetes.

El conjunto integral de estas dos secciones de las ferrerías de anclas, estaba accionado por la gran rueda hidráulica (erruedia) movida por agua y conducida ésta a la ferrería por un canal desde la presa del río.

El número de operarios (biargiñak) de cada ferrería de anclas, que variaba según su importancia, estaba compuesto del maestro (maiusba), del fundidor (urtzalle) para la obtención del hierro en forma de "agoa", los forjadores (iyelek) de tochos o anclas, el que manejaba (tzikizalle) las tenazas (kurrikak) de sujeción, el que se ocupaba (mealte) de la cadena de entrada de agua (tximbo) para regular los golpes del gran mazo (gabimallua) y el pinche o marmitón (gatzemallea).

A estas ferrerías mayores se las denominaba en general "zearro-lak". Las de menor producción no poseían más que un martinete con el cual se forjaban indistintamente, la "agoa" para convertirla en tocho o grandes barras y los distintos tipos de anclas. Existían también herreras auxiliares (olatxuak) las cuales recibían de otras, el hierro o tochos para forjar pequeñas anclas.

tar Ignacio (Ernani), Gamón'dar Jose Ignacio (Errenderi) eta Larrondobuno'tar Manuel (Tolosa).

i

Ainguraolak, geienetan, bi gela edo zati izaten zituan. Lendabizokoa, sutegia, meatza egur-ikatzez soilduz (reduciendo) burnia sortzeko, agoa goritua itxuran; bereala gabi-malluko tantaketoz txongot (tocho) aundira biurtzeko; ainguragintzarako leen-gaia. Ontarako gabia erabiltzen zan eta bere zatiak: ardatza, gabiardatza, gabimaillua t. a. Sutegira aizea, auspoz eragiten zan, geienetan gabi-ardatzak berberak erabillia. Zenbait olaetan, garai artan sortu-berriak ziran aizearkaz eragiten zan aizea, "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País"ko antze-jakintsuak bikaindutako aizearkaz.

Bigarren gela, burni-lantzeari ta ainguragintz-amaierari zegokion txangot aundiak leen-gai izanik. Beroketarako, geienetan, sutegi-labea ta bat-bi gabi-maillu.

Aingura-olako tresneri guzi-guzia, ur-errueda aundi batek eragiten zuan; ibaieko presatik, ubidez, zetorren urak eragiña bera.

Lantegi bakoitzeko beargiñen kopurua, garrantzi-arauez ez-berdiñak, onela ziran: maisua, urtzallea (burni-agoa egiteko), iyeleak (txongot-gintzarako), txikitzaile (kurrinka-tenezak zerabilzkina), meatzalle (txinbo'ko kateak zebilzkinak uraren indarrez gabimaillua taiuz (con regularidad) erabiltzako), ta gatzemallea (marmitón).

Ola aundi oiek, izenez, geienetan, "zearroak" ziran. Ola-txikiak, mallu bakarra zuten ta artaz baliatzen ziran, naiz ago<» txangote'era biurtzeko, naiz zernai gisako aingura-lanketan. Ba-ziran ere laguntzarako-olak, olatxoak, ta auek besteetatik jasotzen zuten burnia, naiz txongota, aingura txikiak lantzeko.

Desconocemos antecedentes históricos de la fabricación de anclas en Guipúzcoa anteriores a la época que nos referimos en este trabajo. Únicamente poseemos en datos de Isasti, en su obra escrita hacia el año 1625 y que al referirse a la Villa de Usurbil, dice textualmente:

"También hay comodidad de la ferretería por las ferrerías y martinetes que hay en su comarca y fraguas particulares de ancorería en el barrio de Urdayaga, Guilisasti y Berreyarzagoyena, por todo lo cual se fabrican en la canal de Usurbil más naos que en otras de Guipuzcoa".

Teniendo en cuenta que siendo el hierro o el acero el principal producto intermedio obtenido en las ferrerías con destino al forjado de anclas en las mismas, no hay duda que la buena calidad de aquella materia prima, fuese del todo indispensable para que las anclas fabricadas resultasen perfectas y de toda garantía.

Por ello nos vemos obligados a referirnos antes de terminar este conciso trabajo y de la manera más breve posible a las actividades técnicas, desvelo y sacrificios, en la misma época de fines del siglo XVIII de la "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" por medio de sus propios socios y profesores del Real Seminario de Vergara en lo que respectaba a la obtención del hierro o acero con la máxima calidad o garantía.


No hay duda de que, de los documentados trabajos, estudios, memorias, análisis, informes, etc, referentes a la minería y obtención del hierro o acero en las ferrerías vascas, efectuados por la mencionada Sociedad Bascongada, y publicados en sus "Extractos" se beneficiaron también todas las ferrerías guipuzcoanas de fabricación de anclas, en aquella época de fines del siglo XVIII.




Ruinas en la actualidad de la parte del canal y accionamiento hidráulico de la Ferrería Arrazubía en Ava (Guipúzcoa) y en la que fabricaron los Guilistis sus famosas anclas.




Representación simbólica de la fabricación de anclas en las ferrerías de Guipúzcoa en el siglo XVIII.



Acoplamiento y soldadura de la caña (zango) y la cruz (gurutze).




Operaciones finales en el forjado del muela.



Tfz^FIS

Forja v soldadura de la uña 'otzamar).



I rabajos de la forjn en la eruz 'gurutze).

Lan ontan, Gipuzkoa'ko ainguragintzari buruz, aipatzen ditugun garaieko baño edesti-gai zarragorik ez degu ezagutzen. Bakarrik, Isasti'k, 1625 inguruan idatzitako idazkian, Usurbil erriaz ari dalarik diona. "Burniterirako (Ferretería) ba-da aisatasuna Gipuzkoa'n, bertan diran burni-olak eta gabiolak dirala bide, ta Urdayaga, Gilisasti, ta Berreyarzagoyena auzoetan zenbait olajaunek ainguragintzarako dituztenengatik. Ori dala-ta Usurbil'go ubidean, Gipuzkoa'n iñon baño giego ontzi egiten da".

Burni ta altzairua bai-tira burni-oletan, ainguragintzarako egiten ziran bearrezko gai berezienak, garbi ta garbi ageri da leen-gai oien bikaintasuna txit naitaneiezkoa zala egin-aingurak gain-gañekoak eta erantzun osokoak izan zitezten.

Orregatik, lan labur au amaitu baño leen, oso motx bederen, "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País"ko bazkideak, eta Bergara'ko "Real Seminario"ko maisuek XVIII'gn mendeko azkena aldean egindako alegiñak, ekintzak ete nekea aipatzea dagokigu, burnia ta altzairua bikaintasun eta erantzupen osoz egiten irixteko buruz egiñak.

Batere zalantzarik ez degu aitortzeko, aipatutako "Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País"ekoak egin zituzten lan, ikasgai, oroit-idazti, azterketa, txosten t. a., Euskalerra'ko meazketa ta burni-altzairugintzari buruz-buru, ta bere Laburpenetan (Extractos) agertu zituztenak, on aundia ekarri zietela XVIII'gen mendeko garai artan ainguragintzan ari ziran Gipuzkoa'ko burniolaeri.

Eliza'ren edestitik atal bat: Martin Luter

LATIEGI'TAR BIZENTE

(Aspalditik ari naiz Eliza'ren Edestia euskeraz idazten. Aurreratu-xea daukadan liburu ortatik, gogorik onenarekin eskeintzen diot atal au D. Manuel Lekuona maixuari. Berak erakutsi zigun Euskera; berak euskaldun izatearen poza sentiarazi. Idazle bikaña; irakasle egokia; igure D. Manuel adiskide maite zaarra! Ez det ezagutzen Euskeraren alde berak aña lan egin duanik. Bedi beretzat gure eskerrik onena eta jakin beza zenbat maite degun).

MARTIN LUTER

LEON X'a (1513-1521).—Sixto IV'ak eskomikatutako Lorentzo Medizis "Bikaiña", Florentzia'ko Lendakari aren semea zan Leon X'a. Iru urte zituala Birjaiotzako olerkari aipatuenetako bat eman zioten irakasle. Sei urtetan Eliza'ren fede-emaille nagusi egin zuten, eta andik bereala lau lekaidetxetako abata ere; amairu urterekin..., kardenal!

Gizon gazte zala aberats, baña lizunkeriz zikindu gabe, Erroma'n bizitu zan berak eraikitako jauregi eder batean, yakintsuen artean esku zabalez dirua ixuriaz. Florentzia'ko Errepublikaren Lendakari ere izan zan aldi batean, eta pozik bizi izan ziran aren agintzapean florentziarrak.

Buruz landua, edertilarien laguntzalle naroa, borondate onekoa, Birjaiotzako gizaseme bezela bizitzaren maitale sutua zan, naiz-ta, beste asko ez bezela, bera oituretan garbia, otoitz-zalea eta ziñezko sinistuna..., baña beratza, aultxo, biguñegia izan! Auxe zan Leon X'a Martin Luter'en garaiako Aitasantua.

"Goza dezagun aitasantuketa
Jainkoa'k berak emana degu-ta",

zan, auzi larriak amaitu ondoan maiz erabilli oi zuan esaera. Ta gozoki joan oi zan edertilarien jardunetara, musiko edo ereslarien entzutera,

antzertien ikustera. Bera ere bertsoegille izaki...! Baita eiztari amorratua ere.

Ua zan ua egiazko urre-aro, Erroma'n bizi ziran guztientzako! Nork uste izan, ekaitza ain urbil zegoanik?

PROTESTALARITZA.—Lau burutan sortu zan protestalaritza, lau izan bait ziran protestalariak; ia lauak aldi berean, baña bakoitza bere alde-tik. Lau gizon auen izenak Martin Luther, doixtarra, alemanitarra; Yon Calvin, frantziarra; Ulrik Zuingli, suizarra; Enrique VIII'a, Ingalan-derriko erregea.

Ez zuten lauak pentsakera bera. Lokarri batek bakarrik lotzen zituan batera, lauen gogabideak. Lokarri ori, Erroma'ko Aitasantua Eliza'ren burutzat ez aitortzea zan. Lauak izan ziran elkarren etsai. Izan ere, ain ziran ez berdiñak! Izena berriz, Protestalari izena, usteezean bezela sortu zitzaien. Ara nola:

Martin Luter aitasantuaren aurka jeiki zan bezain laister, asi zan Karlos V'a Inperatorea bere Alemania'ko erridietan pakea ezartzeko, lutertarrei, goxoki, aoa itxi naiean. Ortarako, Spira'ko urian 1529'an bildu zan "Dieta" edo inperioko Batzar Nagusiak sinispideaz aldatzea galerazi zuan. Biziro egin zuten lutertarrak, debeku orren aurka osteketa edo protesta. Orretxegatik, lutertarrei leenik, eta gero, aldi artan Aitasantuaren aurka altxa ziran guztien jarraitzalleei, "Protestantes" deitu zieten latíñez; "Ostelariak", "Protestalariak".

Enrique VIII'az beste ostelariak ba zituzten bi gogapen alkarrekin berdiñak: "Idazti Deuna kristau bakoitzak *bere erara* ulertu lezakeala, (ortarako Ats Gurenak bakoitzari bakoizki argi egiten diolako)"; eta, "sinismenak *bakarrik* salbatzen gaituala (obra onak bearrekoak ez diralako)", sinistea.

MARTIN LUTHER.—Alemania'ko Eisleben izeneko urian jaio zan Martin Luter, 1483'garren urtean. Bere aitak meatzetan lan egiten zuan, eta Egiazko kristaua, baña gogorregia omen zan.

Mutil azkarra irten zan Martin, Erfurt'eko Ikastola Nagusian egin zituan ikasketak agertzen dutenez. Ockham'en Filosofia erakusten zan Ikastola artan. 1505'ean artu zuan Luter'ek "Irakasle" izateko baimena: "Doctor" izateko eskubidea, latíñez esan oi zanez.

Gazte-gaztetandik izan zan Martin Luter adimenez zorrotza, baña gogoz bildurtia, eta ikara ta estutasunetara okertua. "Irakasletzarako" baimena artu zuanean ere, poza baño larritasun geiago senti omen zuan

biotzean, andik aurrera erantzunbear zorrotzagoa izango zualako Jainkoa'ren aurrean.

Urte ortan bertan, inguruan lertu zitzaion tximist izugarri batek, bizi bildurtu zuan, eta tximistaren argia itzali bezain laister, lekaide, fraile, sartzeko eskeintza egin zuan. Uste bait zuan, munduan jarraiturik ez zuala bere animarik salbatuko. Ainbestekoa zan Jainkoa'ren epaiketari ta inpernuko suari zion bildurra. Orrela sartu zan Erfurt'eko agustindarren lekaidetxean, naiz bere aita meatzalleak eta bere adiskideak ez orrelako rik egiteko esanda-esaten.

Lagun onak eta irakasle atsegiñak arkitu zituan agustindarren artean, eta pozik bizi izan zala bertan, dio Martiñ'ek berak. Ala ere anima salbatuko ez ote zuan bildurra berekin zeraman errañetan, eta gogoz ekin zion otoizketari ta penitentzi-egiteari. Oso penitentzi gogorrak, berak diona egia bada.

Len filosofia bezela, orain teologia ere Ockham'en erara ikasi zuan, eta iritxi zan apaizgora. Alperrik egin zituan aitak, berriz ere, egiñalak asmo oiek Martiñ'en burutik kentzeko, bere semea frailetarako jaio ez zala, ta apaizegite ua "deabruaren lana" zala esanaz. Gogorragoa zan nunbait aita baño, semea. Gero ere, semea Eliza'ren aurka altxa zanean, berarekin eraman bait zuan aita zárta erejiara.

Apaiz egiñik, Witemberg uriko Ikastola Nagusian filosofia erakusten ipiñi zuten.

Bitartean, Idazti Donea ikasten gogotik saiatu zan eta yakintza au lorm zuanean Idazti Donearen erakusketa bere eskuetan arm zuan Witemberg'eko Ikastetxe Nagusi artan.

Izan zan Erroma'n ere, bere lekaide-lagundiaren auzi batzuek zuzentzera joana. Ta erromes bezela, eraspén beroaz ibilli zan, bertako Jauretze ta toki doneetako bixitak egiten. Bi illabete egin ziman urian 1510'etik 1511'ra. Ez zitzaion noski atsegin izan Julio H'aren Erroma'ko bizikera lizuna, baña begi paketsuaz eta patxada osoz ikusi ziman ango eliz-gizonen dirukeri nabarmen eta nolabaiteko oimrak. Ez zuan animaren baretasunik galdu, are ta gutxiago sinismenaren aurkako zalantzarik sumam bere biotzean.

Andik lau-bost urtera izan zan Martin Luter'en gogamenaren iraultza. Orduan zart-egin zion bere barrunbeko izakera guztiak. 1515'tik 1516'era, Paul Doneak erromatarrei idatzitako epistolaren azalpena egiten ari zan Witemberg'eko Ikastola Nagusian. Ta orduantxe gertam

omen zitzaion berak "Torreko Arkikuntza" esaten duana. Bere lekaide-txean, torrean, epistola aren itzak buruz jorratzen ari zala, idoro omen zuan bá, uste gabean, salbamenaren izkutukia ulertzeko berak ain gogoko zuan argia. Larri ta estu bizi omen zan artean betiko inpernuaren bildurrez. Orduan jakin omen zuan, ziurki, salbatuko zala. Jakin omen zuan baita, zergatik zalantzarik gabe salbatuko zalakoaren ustean lasai bizi zitekean ere: Jainkoa'k Kristo'ren santutasunez jazten zualako. Entzun dezaiozun berari:

"Irrikatzen zegoan nere gogoá Paul'ek Erromatarrentzako idaztian ziona ulertu nairik. Eta artean ulertu ez banuan, ez zan noski ulertu-nairik ez nualako, nola argitu ez nakialako baizik, idazti artako esakizun au: 'Bertan, (ebangelioan), agertzen da Jainkoa'ren Justizia'. Izan ere... ain gorroto nituan nik bi itz auk...: Jainkoa'ren Justizia...! Uste bait nuan, bi itz oiek, —ala erakusten zuten irakasleak eta—, Jainkoa'ren baitan dan Justizia adierazten zutela. Jainkoa bera done egiten duan Justicia; Jainkoa'k pekataria galtzeko erabiltzen duan Justicia. "Justitia activa".

"Estu neukan nere barrua, ikusten bait nuan, naiz nere lekaide-bizitza errugabea izan, pekatari nintzala Jainkoa'ren aurrean, eta nere penitentzi-ekite guztiekin ezin nentzakeala Jainko ori baretu".

"Ez nuan nik, ziurki, Jainko'rik maite; ez. Gorroto nion Jainko orri; pekataria zigortzen duan justiziazko Jainko orri. Naiz aotik biraurik irten ez, amurruz betetako ixiltasunean jeiki oi nintzan ikara zekarkidan protestan, Jainko orren aurka. <Ez ote da naikoa, galdetzen nion nere buruari, ez ote da naikoa pekatari gaixook jatorrizko pekatuaren ondorioz betirako galduak izatea? ta Amar Aginduen Legeak gañera botatzen digun zamaren azpian bizi bear izatea?... Auetaz gañera, „samiña samiñaren gañean ezarri bear al digu Jainkoa'k Ebangelioaren bitartez, bere asarrea ta justizia gure buruetara irauliaz? Amorraturik zegoan nere kontzientzia, basa-pistien antzera. Ala ere, ari ta ari nebillen nere atsekabeen, Paul Donea'k zer adierazi nai zuan jakin naiean".

"Bi itz aien inguruko beste itzei begira asi nintzan arte. Esakizun osoak onela bait dio: 'Bertan agiri da Jainkoaren zuzentasuna, justizia; idatzita ere bait dago, gizon zuzena sinismenak bizi duala".

"Orduantxe asi nintzan ulertzen, Jainkoa'ren zuzentasuna, justizia, gizon fededunak, "zuzen" bizitzeko, sinismenaren truke Jainkoa'ren doai bezela Jainkoa'gandik artzen duan Zuzentasuna dala. Argi ikusi nuan

esakizun osoaren zentzua auxe dala: "Ebangelioak, Jainkoa'ren zuzentasun "pazientziazkoa", "Justitia pasiva", erakusten digu: Zuzentasun orrekin, Jainko errukitsuak "zuzen" egiten gaitu, fedea bitarteko degula; idatzia bait dago, zintzoa sinismenaren indarrez bizi dala".

"Berriz jaioa bezela ikusi nuan nere burua, ta zeruko ate zabaletik barrura sartu nintzalaren poza sumatu nuan. Idatzi Done guztiaren arpegia erabateko itxura berrian agertu zitzaidan".

Asi zan Luter, ezkutuan ta arreta aundiz, gogapen auek zabaltzen. Laister ipiñi zitzaion bere alde Karlstadt apaiza, Witemberg'eko Ikastetxe Nagusiko irakaslea; baita ikastegi artako gazte sail bat ere, eta Luter'en lekaidetxeko praille batzuek. Ba ziran erriko jendeak ere, aurreneko lutertarren artean. Sua laister lertu zan.

1517'garren urtean asi zan, Alemania'n, Leon X'ak emandako Barkapen edo Induljentziaren zabalkundea. Yon Tetzal domingotarra zan zabalkunde ori Luter'en belarrien ondoan egin bear zuana, Brandenburg'etar Alberto Goigotzaiaren agindu pean.

Ondo ezagunak ziran kristau guzientzat Barkapenak, eta Baita barkapenen oñarritzako dotriña ere. Ama Birjiñak eta Santuek, baña batez ere Kristo'k, irabazitako meritu neurrigabeak Eliza'ren eskuetan daude, altxor edo aberastasun aundi bezela. Aitasantuek, eta gotzaiek ere, ba dute aberastasun ori kristaúei emateko eskubidea, otoitz, limosna edo beste ekintza on baten truke. Barkapen ori, pekatu aitortuengatik purgatoriorako gelditu leiken zorra ordaintzeko da. Orregatik, Barkapena irabazteko pekatariari aitorketa eskatzen zaio. Eta biziok eta illak Gorputz bat egiten bait degu, Barkapen ori garbitokiko animen alde eskeñi leike mundu onetan senide batek bere senidearen zorra ordaindu lezakean bezela. Gauza maitea izan du beti Eliza'k induljentzia; baita kristau erriak ere.

Baña Berjaiotzako Barkapen-banatze aietan ez zan dana gari garbi. Ikusi degu zenbatañekoa zan eliz-gizonen diruzalekeria, saltzen ere bait zituzten diruz, batere lotsarik gabe, gotzaigoak eta Eliza'ren beste karguak. Induljentziak berak ere, limosnaren truke ematen ziran askotan, eta orrela, diru-iturri naroa ziran eliz-gizon aientzat bein baño geiagotan.

Luter ainbeste asarratu zuan Barkapen au Julio II'ak 1507'an, Erroma'ko Kepa Donearen Jauretzea egiteko, sortu zuan. Leon X'ak osteria induljenti au zabaltzea erabaki zuanean Brandenburg'eko Alberto izendatu zuan, zabalketa ori Alemania'ko lurralde batean zuzentzeko.

tzek zaurim duten persona baten sikologia zan, eta gaixotasun edo auleri orrek bein baño geiagotan eramane zuan Luter izutua erotasunaren atariraño, eta agian, batzuetan, aruntzaxeago ere bai.

Orretxegatik egin zion miñ aundia Tetzelen izketak. Uste bait zuan berak, "Torreko Arkikunde" artan, salbamko zalako eskiertasuna betiko lorm zuala; ta, orain, induljenzien arazoa, ziurtasun ura guzia zalantzan ipintzera bait zetorkion.

Gañera, Tetzelen izkera ariñak osoro asarrem zuan. <Ez al zan, bada, bera, Luter, bizitza guztian burruka beltzean ibilli pekatuen atzaparretatik ezin aldegiñik? <Nondik zetorren lekaide domingotar **ura** txanpon bat kutxatillara botatzea naikoa zala esanez pekatuetatik libratzeko?

Esaten zuan Tetzelen, bearrekoa zala aurretik pakamen damua eta aitorketa; ta ori jakin zuan noski Luter'ek. Gañera ;;ez ote zuan ikusten urrezko txanpon bat kutxa batera jaurtitzea gauza errexegia ba zan pekamen barkamena irixteko, berak aipatzen zuan "Kristogan siniste uts" ura ez zala askoz zallagoa?

Luter'en problema sakonagoa zan. Luter'ek ez zuan pekatuak zeren truke barkam galdetzen; limosnaren, damuaren ala sinisminaren truke. Luter'ek galdetzen zuana zera zan: ea pekatuak barkam zitezkean; eta ezetz erantzuten zuan. Pekaturik ez zan barkatzen, ez zan deusezten. Jainloa'k berak ez zituan pekamak barkatzen; Kristo'ren zintzotasunez "estali" egiten ziman, eta, Kristo'k pekatu oien zorra ordaindu zualako, kontuan ez arm.

Au sinisteak ekarri zion animako pakea; bere pekatuak aundiak eta gañetik-ezin-kenduak izan arren, Kristo'ren merimak askoz ere aundigoak ziralako, ziur zegoan Jainkoa'k ez zizkiola konman armko.

Ziurtasun ori barkapenen arazoak urram zion. Luter'en aurreneko gauza induljenti-zabaltze artan zer ikusirik zuan guztiari idaztea izan zan. Brandenburg'etar Alberto Maguntzia'ko Goigotzai ta zabaltze aren zuzendari zanari; Luter'ek bere artzai zuan Brandenburg'eko Gotzaiari; Maguntzia'ko Printzipe Autalariari, (Printzipe Autalari esaten zitzaien Inperatorea autatu edo aukeratzeko eskubidea zutenai).

Ez zioten erantzun. Gero Luter'ek esango du, orretxegatik, erantzun ez ziotelako, ezarri zimala Witemberg'eko Ikastola Nagusiko atetan bere "Thesis" edo "Esari" ezagunak. Ez da egia. Uts egiten dio nunbait oroimenak gai ontan, "Esariak" atean ipintze ori, bigaramonean bertan

egin bait zuan, 1517'aren Done Guztien egunean. Egun au artu oi da Protestalaritzaren sort-eguntzat.

"Esari" oietan purgatoriorik ez zala, ta, ortaz, barkapenak alperrikako gauzak zirela; eta Eliza'k pekatuak barkatzeko almenik ez zuala, zion Luter'ek; ba zituan ziri ozpiñak ere aitasantu ta eliz-gizonen diru-gosearen aurka.

Illabete batzuek lentxeago idatziak zituan Karlstadt'ek, dotriña bera zeramaten beste 127 esari. ^Bere lagunaren atzetik gelditu nai ezak eraman ote zuan Luter bere 95'ak argitaratzera? Dana dala, latinez idatzi zituan, agian, dotriña berri ura erriari iristea nai ez zualako, bere aldakuntzaren asieran beintzat.

Teologiarientzat bakarrik ari ba zan, laister erantzun zioten auek.

PROTESTALARITZAREN ERNETZEA.—Oroi ditzagun erlijio-iraultza onen aurreneko momenturik garrantzitsuenak:

—1517, Azaroa, Done Guztien eguna. Luter'en "95 Esarien" agerpena.

1517, Abendua. Konrand Koch "Wimpina"k, Luter'en 95 "Thesis" aien aurka 56 "Antithesis" edo "Esari-aurkako" antolatzen ditu. Wimpina au apaiza zan, Frankfort'eko Ikastola Nagusiaren zuzendaria.

1518, Ilbelta. Yon Tetzl'ek Wimpina'ren 56 Antithesis auek argitara ematen ditu.

Luter, Saxonitarra zan. Wimpina Brandeburgetarra. Alemania'ko bi laterri auen alkarrenganako bekaizkeriak bai omen du zer-ikusi protestalaritzaren aurren momentutako "aозko" gudaketa ontan. Ain gera txikiak gizonok eta eta ain dira koxkorrak iraultza aundiennen asierak ere.

1518, Udaberria. Luter'ek "Induljentzien Sermoia" egiten du, barkapenak alperrikako siniskari balio-gabeak dirala esanaz.

—1518. Sermoi orri, Tetzl'ek alemanez idatzitako "Jardun" batekin eta latinez edatutako 50 "Esari"rekin erantzuten dio.

1518. Yon Eck, Ingolstadt'eko Ikastetxe Nagusiko irakasleak "Adnotationes", "Oarrak", izeneko liburua idazten du, Luter'en gogaeta eta Hus'en erejiaren arteko berdintasunak agertuaz. Yon Eck domingotarra, gizon ospetsua zan, diruagatik korrittua jasotzea zillegi zala erakusten leenenetakoa. Luter'en adiskidea izan zan. Baita Babiera'ko Dukearen eta Eichtat'eko Gotzaiaren laguna ere. Ain zuzen Gotzai onek eskatu zion "Oar" aiek idazteko, ta ori egitean Gotzai au izan zan Luter'en aurka lenen zutitu zan Eliz-agintaria. Besteak lotan zeuden.

1518. Luter'ek amorruez erantzuten dio Eck'eri, "Asterisci" edo "Izartxoak" idatziaz.

—1518. Brandeburg'etar Alberto Maguntzia'ko Goigotzaiak, (induljentziengandik jasotzea uste zuan diru-uzta arriskuan zegoala ikustean ikaram zan nonbait-eta) Martin Luter biurri ura Aitasanmari salatzea erabaki zuan. ; Noizbait...!

Leon X'ak ez zion arazoari garrantzi geiegi eman, lekaide teologizaleen arteko ixkamilla utsa zalakoan. Staupitz agustindarren zuzendariari Luter urduri ura baretzeko agindu ondorean, lasai jarraim zuan bere bizikera ariñean, noizbeinka gotzaigoren bat salduaz, dirua sortzeko.

1518, Jorrailla. Heidelberg urian agustindarren batzarra. Leon X'aren agindua adierazten zaio Luter'i; eta onek bere burua defenditzen du, berak egiazko teologia, "Gurutzearen Teologia", arkim zuala esanaz. Teologi orren mamia: Pekatuei buruz, "askatasuna" itz utsa bertzerik ez dala, gizona nai-ta-naiez beti pekam egin bearrean arkitzen dalako. Bañan ez omen du orrek garrantziarik, gurutzearen meritueta sinistea naikoa bait da anima salbatzeko. "Siniste" orrek, eta ez, "egite onak", salbatzen omen du gizona.

Agustindar askok onarm zuten, Luter'ek agerm zien sinisbide berria. Staupitz bera, agustindarren zuzendari nagusia, Martin Luter'en lagun ta adiskide kumna zan aspalditik. Orregatik, batere eragozpenik gabe, iare ta garaille irten zan Anai Martin batzar artatik.

Garaille...! Izan ere, bere alde zuan Alemania'ko agustindarren Probintzi osoa. Bere alde Witenberg'eko Ikastola Nagusiko irakasle ta ikasle geienak. Aren alde jarri zan Bucer teologilari domingotarra... Orduntxe idatzi zuan Luter'en ikasle batek "Disputatio", "Jarduketa" izeneko liburua, Irakaslearen gogapenak zabaltzeko.

—1518, Maiatza. Luter'ek "Induljentzien balioari buruz Erabakiak" edo "Resolutiones de virum Indulgentiarum" idatzia idatzi, ta Aitasantuari bidaltzen dio. Libuaren eskeintza egiteko itz goxo apalak darabilzki, baña argi adierazten du bere "erabakiak" ez aldatzeko daukan asmoa ere.

1518. Asten da Erroma'n Luter'en aurkako epaiketarako auzia osatzen. Auzi ori asteko bearrekoa zan, teologilari batek epaim-bearraren gogapenetaz bere iritzia idatzita ematea. Idatzi ori Prierias domingotarrak egin zuan, ta izen au eman zion: "Dialogus in praesumpcosas M. Lutheri conclusiones de potestate papae", "Aitasanmen almenari bu-

ruzko, M. Luter'en gogakizun arroxkoetaz alkarrizketa". Izenak berak jakinarazten duan bezela, Prierias'ek lan ortan Luter'en esakizun guztietatik aitasantuaren eskubideen aurkakoak ziranak bakarrik artu zituan kontuan. Orduango eliz-gizonak teologilari baño legedilari areago bait ziran.

—1518. Garagarrilla. Luter'i Erroma'ra etortzeko agintzen zaio, bere esakizunen konm ematera. Ba zirudian Luter'en ixkamilla laister amaitzekoa zala. Alemania'ko Maximilian Inperatoreak ere, Luter'en aurka Inperioko Legeen araura ekiteko agindu bait zuan. Baña...

Luter'ek bere aldera ekarri zuan Saxonia'ko Printzipe Autalaria. Printzipe au Federik "Yakintsua" zan, Erroma'ko eliz-gizonak begi onez ikusten ez zituan gizona. Orretxegatik ez zuan bere laterrian Induljentzia zabaltzeko baimenik eman

Maximilian Inperatorearekin asarre zebillen Federik Printzipea. Maximilian'ek, bere ondorengo bezela España'ko Karlos I'a aukeratzea nai zuan. Saxonia'ko Printzipe aukeratzalleari ez zitzaion atsegin Maximilian'en asmo au, agian berak ere Inperatore izateko gogoia zualako. Printzipe onen ezetza garrantzi aundikoa zan Maximilian'entzat, inperatore-egilleen arteko baten ezetza bait zan. Ta politika-ixkamill ontan urtu zitzaion Maximilian'i, Luter'en auzia len-bait-len amaitzeko gogoia. Printzipe saxonitarra Luter'en adiskidea zalarik ez zitzaion Maximilian'i arrekin asarretzea komeni.

Gañera, Leon X Aitasanma bera Maximilian'en aurka jarri zan, ez bait zuan Karlos I'a Inperatore izatera iristerik nai, Eliza'ren Laterriak Karlos'en mendean geldimko ziralakoaren bildurrez. Karlos I'a léndik Gaztela, Aragoi, Naparroa eta Napoles'ko errege zan, eta Milan'go Jauna. Ontaz gañera Alemania'ko Imperatore izateak esku aundia emanço zion, Italia'ko iparraldeko erridietan. Ez zitzaion aitasanmen politikari komeni orrenbesteko indarra gizon baten eskuetan ipintzerik, batez ere gizon orrek Eliza'ren Laterriak ipar eta egoaldetik bere gudarozteen artean arapatzen bazituan.

Leon X'ak Inperioaren Alkia Saxonia'ko Printzipe Autalariari eman nai zion. Luter'en lagun eta eusle zan Federik "Yakintsua" bera nai zuan Inperatore egin... ;A nola zebillen Eliza'ren politika!

Násketa aundiegiak ziran auek, bai Maximilian'entzat, bai Leon X'arentzat, praille berrikerizale baten esamesetan pentsatzeko. Politika'k salbam zuan Martin Luter.

Bildur bait zan au, Erroma'ra joan-bearragatik..., bere lagun eta Jaun Federik Printzipeak lortu zion, Erroma'ra ordez, laister Augsburg'-en biltzekoa zan Dieta edo Inperioko Batzarrera presentatu aal izatea. Eman zuan ortarako baiezkua Maximilian'ek. Baita Leon X'ak ere. Biak zeukaten Federik "Yakintsua"-ri atsegin emateko gogoia, ikusi ditugun arrazoiengatik.

Dieta artan Bio'ko Tomas "Kaietano" Kardenal domingotarra izanen bait zan Aitasantuaren Ordezkari, berari eman zioten Luter'i entzun eta erantzuteko eskubidea. Maiteki artu eta eragozpenik gabe praille urduri arri bere lekaidetxera itzultzen lagatzeko agindu zioten.

Ostera Luter'en alde ipiñi zan politika. Izugarrizko ospea ematen bait zion, Erroma'ko auzi-gela ixil batean ordez, Inperioko Batzar Nagusi batean, Inperioko gotzai ta printzipe altsuenen aurrean itzezin aal izateak. Izan ere, gauzarik garrantzitsuenak bakarrik erabiltzen ziran Dieta baten aurrean.

1518, Urrilla; Augsburg'eko Dieta. Agertu zan Luter. Kaietano'k auxe eskatu zion: Aitasantuak Induljentzien bidez Kristo'ren merituak kristauen artean zabaltzeko eskubidea bazuala, eta sakramentuak sinismenaren adigarri uts ez zirala aitortzea. Ezetz erantzun zuan Luter'ek; ala ere Ikastola Nagusien iritzia gai oietaz, eta besteetaz, onartuko zuala agindu zuan. Eta espetxeratuko ote zuten bildurrez, —Hus'i gertatua oroituz-edo—, iges egin zuan andik "notario" edo fede-emaille baten eskuetan "e papa non bene informato ad melius informandum", "gaizki oartu zuten Aitasantu batengandik obeto oartu bearra zan Aitasantuaganako" deia egiñaz.

1518, Azaroa. Epaiaketa gertutzeko lanak aurrera zijoaztela-ta Alki Doneak Luter Erroma'ra eramateko agintzen du. Federik "Yakintsu"ak, ordea, Luter Saxonia'tik ateratzeko baimena ukatzen du. Luter'ek bere auzia Kontzilio Ekumeniko batera eramateko eskatzen du.

1518, Azaroa. Leon X'ak Bulda bat argitaratzen du, Kaietano'k idatzia. Bulda orrek induljentzien egiazko dotriña adierazten zuan.

—1518, Azaroa. Bulda orri Luter'ek, ostera, Kontzilio Ekumeniko bat eskatuaz erantzuten dio.

—1518, Azaroa. Leon X'ak "Urrezko Arrosa", Eliza'ren saririk aundiena, Saxonia'ko Federik "Yakintsua"-ri ematen dio, agian Luter'en auzi onetan printzipe ura Eliza katolikoaren aldera ekartzegatik. Aitasantuaren jauregiko laguntzalle bat, Karlos Miltitz, izan zan sari ori era-

mateko aukerama. Gizon iaioa zan, baña, arroxkoa. Sartu zan bere-kasa Luter'ekin alperrikako jardunetan. Maiz idazten zuan Erroma'ra. Bere idazkietan Luter'en auzi guztia konpontzeko bideetan sarturik zegoala sinistearazi zuan, orrela Erroma'ko Epailleen begiak lausotuaz.

—1519- Ez zan gertakizun berririk izan aurreneko bost illabetee-tan. Ixilik dago Luter, baña bere ikasleek, batez ere Karlstadt teologila-riak, gogor dagite lan "luterkoitasuna" zabaltzen.

—1519, Garagarrilla ta Uztaila. Eck'en eta Karlstadt'en arteko jarduna; Luter'ek bere "95 Esariak" agertu ezkeroztik, ostelaritzaren sortze-aroan jazotako gertakizunik garrantzitsuena.

Gertakizun au ondo ulertzeko, oroi dezagun Saxonia'ko errialdea bi Laterritan zatiturik zegoala. Laterri oíetako baten buruzagia Federik, "Yakintsua" zeritzaion, Printzipe Autalaria zan; Lutertarra. Beste Late-riarena, berriz, Gorka Dukea, katolikoa.

Gorka Saxonia'ko duke onen lurraldean, Leipzig urian, izan zan jardun au, eta Dukea bera izan zan billeren lendakari. Azkeneko bille-retara Luter bera ere etorri zan, bere lagunekin. Auen artean, aurreneko aldiz agertzen da Pelipe Melanchton, gero ain teologilari ospetsua izan-n dana, lutertarren alderdian.

"Aitasantuen almena" eta "giza-naimenaren askatasuna" izan ziran alkarrizketa aietako gaiak.

Karlstadt larri ikusi zuanean, sartu zan Luter bera alkarrizketan; baña Eck'etar Yon'ek laister bazterm zuan, Kontzilio Ekumenikoen era-kutsietaz baliarik. Zalantzarik gabe, bere etsaiak baño teologilari ya-kintsuagoa zan Eck.

Estum zuan Luter bazter guztietatik. Orduan, Anai Martiñ'ek iges-bide guztiak itxirik ikustean, bere burua ez errenditzeagatik, Kontzilioen aala bera ukatzeraño iritxi zan, entzule guztien aurrean, Kontzilio Eku-menikoak uts-eziñak ez zirala esanaz.

Arrimrik eta ikaramrik jeiki zan Gorka Saxonia'ko Dukea ori en-tzutean.

Iare ta lasai jarraim zuan Luter'ek Leipzig'eko alkarrizketa auen ondorean, bera, Saxoni'ko Dukearen Laterrikoa ez baño, Saxonia'ko Prin-tzipe Autalariaren Laterrikoa zalako, ta Printzipe au bere alde zeukalako. Ala ere tankatako gogorra izan zan lekaide berrikerizalearentzat Leip-zig'eko jarduketa, ta ez bakarrik Eck katolikoa, Luter ta lutertar guztiak baño teologilari ohea agerm zalako, baizik-eta kristaudi guztiak Luter'en

asmoak eta gogaketak argi ezagutzeko bidea izan zualako jarduketa artan.

Kontzilio Ekumenikuen maixutasuna ukatzean, Eliza'ren maixutasun osoa ukatzen zuan Luter'ek; Asaba Doneena, Eliza'ko Irakasleena, Gotzaiena, Aitasantuena...

Artean zalantzan zeudenak ere, zalantzarik gabe ikusi aal izan zuten, Martin Luter agustindarra egiazko erejea zala.

Saxonia'ko Printzipe Autalari lutertarrak Ikastetxe Nagusien iritzia eskatu zuan. Laister etorriko da Ikastola oien erantzuana, eta Luter'en aurkakoa izanen da.

—1519, Uztailla. Luter'en beste idazki baten argitaratzea: "Leipzig'en arrotutako gaietaz Luter'en iritziak". Bere aria: Kontzilioen utsezintasuna ukatzea.

Onen atzetik beste liburuxka-sail bat dator Luter'en lumatik, urte ontan eta ondorengoaren aurreneko erdian. Melanchton izan zan idatz-lan ortan lagundu ziona.

—1520, Otsailla. Irixten zaizkio Luter'i Lobaina ta Kolonia'ko Ikastola Nagusien epai edo sententziak bere dotriñak gaitzetsiaz. Asarretu zan biziro praille egoskorra. Ekin zion ikastola aien aurka itzik gogorrenekin. Ez zuan nonbait gogoratzen Augsburg'eko Dietan Kaietano'ri Ikastola Nagusien esanera egongo zala agindu ziola.

Garai ederra 1519 ta 1520 arteko garai au berrikerizaleen erakuspenak zabaltzeko. II berria zan Maximilian I Inperatorea 1519'an. Ez zan oraindik etorri Alemania'ra aren ondorengo Karlos V'a. Berrizaleen lagun ta eusle zan, argi ta garbi, Martin Luter'en Jaun Agintaria, Federik "Yakintsua", Saxonia'ko Printzipe Autalaria. Sortu-berria zan inprenta edo irarkola, eta errexbide aundia ematen zion, ain idazle iaio ta atsegingarri zan Luter'tar Martiñ'i, bere gogaiak, enetxiñaz igurtzitako idazkietan, zabaltzeko.

Aldi artarako Luter'ekin zeuden, gero lutertasunaren ereille garrantzitsuenak izango ziran gizonak. Bi motetakoak ziran. Eskubikoak bartzuek, baretsuagoak; ezkerrekoak besteak, urduriagoak.

Ona eskubitarrak:

—YON BRENZ, Wurtemberg'eko Dukaterrian lutertasuna zabalduko duana.

—MARTIN BUCER, alsaziarra eta domingotarra, Estrasburg luterkeratzen saiatuko dana.

—FELIPE MELANCHTON, kristaukera berriaren teologiaririk ospetsuena, adimen zorrotzeko gizona Amazazpi urte ziman Tubinga'n "Irakasle" gradua irabazi zuanean, eta ogeitabat Witemberg'en griego erakusten asi zanean. Protestalarien artean "katolikoena" izan zan.

Ezkerarrak:

—TOMAS MÚNZER. Nekazariak Jaun feudalarien aurka jeiki zira-nean, Múnzer au izan zuten buruzagi.

—ANDRES BONDEXSTEIN "KALSTADT", teologilari lutertarren artean iraultza-egille gogorrenetakoa.

—ULRIK HUTTEN olerkari arlotea. Alemania'ko Birjaiotza-zaleetan ospetsuenetakoa bat, alemanitarren begien aurrean Martin Luter Alemania'ko askatasunaren aitzindari ta buruzagi bezela, leenik agertu zuana.

—FRANTZISKO SICKINGEN, erdi-zaldun erdi-lapur, Alemania'ko zaldundia bere ondamenara eraman zuana.

—1520, Garagarrilla. Luter'en liburutxo berri bat: "Erroma'ko Aitasanmtza". Aitasantutza gizonek, ez Kristo'k, sorma dala dio liburu ortan.

—1518 ta 1519'ko urte auetan Luter bere dotriña zabaltzen baño geiago saiamko da Alemania'ko erria Erroma'ren aurka jeikiarazten, ortarako aspalditik Alemania'n erromta zegoan Erroma'ko eliz-gizonen aurkako asarreak aize emanaz. Baña ezin leike esan, gai ontan asmo txarrez ibilli zanik, bere erriaren seme zalarik nai-ta-naiezkoa bait zan, alemaniarren Erroma ezin ikusi ura, Erroma'ko dotriñen aurka zegoan alemaniar baten idazkietan agertzea. Dana-dala, jokabide onek izugarri atsegin ta maitekor egin zuan alemaniarrentzat Martin Luter'en irudia.

—1520. Urte onetan argitaratu ziran Luter'en idazki garrantzitsuenetatik iru:

—"Jaun aundiki kristauei eta Alemania'ko erriari, Laterri Kristauren eraberritzeari buruz". Liburu ontan Luter'ek Errege ta Agintariei Kristaudiaren eraberritzea beren eskuetan artzeko eskatzen die, ta, ori egiteko eskubidea ba dutela adieraztearren, kristau oro apaiz dala dio. Apaiztasun ori Bataioarekin omen datorkigu. Naiz kristau bakoitzak, Eliza'n, eginkizun berezia izan, "bataiama danak Apaiz eta Gotzai eta Aitasantu sagaratu dala esan lez::ke". Berdin argitzen omen ditu Espiritu Sanmak kristau guzien adimenak Eliza'ren altzoan. Ontaz bai omen du kristau bakoitzak bere-kasa Idazki Doneak ulerm ta iragartzeko eskubidea. Kontzilio Ekumenikoa biltzea eskatzeko almena ere kristau guziak

omen dute, eta batez ere Laterrietako Agintariak, kristaudiaren buruzagiak diralako. Batez ere Alemania'ko Printzipeak, beren baitan egiazko Apaiztasuna daukatelako, lenbait-len asi bear omen dute Alemania'ko Eliza aldatzen.

Nazkagarria da idazki auetan darabilkian izkera. Ikusi: "Zuzentasun osoarekin urkatzen ditugu lapurrak, eta eriotzera eramaten gaizkilleak; ^nolatan, orduan, bizirik uzten degu Erroma'ko... zekena, bera, ludian izan dan lapurrik aundiena, gaizkillerik okerreña izanik?".

i Lekutan zeudek bere anima salbatzeko kezka...!

Ba da, ala ere, norbait Luter'ek bere salbameneko zalantza mingarri ura biotzean bizirik zeramala, eta ezin sendatuzko zauri arren oñazea ito naiez Aitasantuaren aurkako zarata ua eraiki zuala, diona. Geiegi esatea deritzait. ;Nork jakin aal, lekaide izutu aren "psike" edo gogo-muiñ násian zer gertatzen zan?

—"Eliza'ren Babiloni'ko katigutza", da beste liburuaren izena. Idazki onen gaia Eliza da, baña ez begi-aurrean dakusgun pekatuz loitutako Eliz au; beste Eliz bat baizik: Ebangelioaren araura tajutua dan Eliz izkutu ikuseziña. Erroma'k sakramentuei buruz erakusten duan dotriñak omen dauka katigu Eliza garbi au. Luter'ek dionez, sakramentuak sinismenaren adigarri besterik ez dira, eta sinismena siñalez adierazi edozein kristauek egin bait lezake, ez da apaiz sakramentu-egillen bearrik. Eliza'k ez du jauparitzarrik, apaizgorik bear; iragarleak bear ditu, profetak, Jainkoa'ren itza zabaltzeko. Entzun, liburu ontako ziri bat: "Bear-bearrezkoa da Eliza'ren lege guztiak ezereztea; bearrezkoa da apaizak ez ezkontzeko oiturari amaia ematea ere; oitura au deabruak asmatutakoa da".

—"Kristau-askatasuna". Au da irugarren liburua. Aitasantuari eskeñi zion gaiñera zetorkion eskomikua baztertu nairik-edo. Ziur salbatuko gerala sinistea omen da kristautasuna< dakarkigun askatasuna. Izkera leun xaloaz idatzia, ba leike au izatea Luter'en idazkirik goxoena.

Idatzi zuan berealaxe beste idazkiño bat ere; "Meza" izenekoa, meza ez dala Sakrifizio edo Oparia esanaz.

—1520, Garagarrilla. Leon X'ak "Exurge, Domine", "Jeikí, Jau-na" izeneko Bulda argitaratzen du, Luter'en dotriña gaitzetsiaz, Luter bera izendatu gabe.

Luter'en erantzuna:

—Leenik, Militz'en aolkua jarraimz, Leon X'ari idazten dio Aitanmaren aurka obenik ez zuala egin esanaz. Gero...,

—Idazkitxo bat argitaratzen du: "Antikristo'ren Buldaren aurka"; bere eskuak idatzitako idazkirik garratzena.

—Bere auzia Kontzilio Ekumeniko batera eramateko eskatzen du.

—Witemberg'eko erri-sarreran, ikasleek txalo zegitela, aitanmaren Bulda sutara botatzen du, itz auek esanaz: "Quoniam tu conturbasti sanctam veritatem Dei, conmrbet te hodie Dominus. In ignem istum". "Zuk Jainkoa'ren egi donea sumindu dezulako, samindu zaitzala gaur Jaunak. Zoaz sutara". 1520'aren abenduko amargarren eguna zan.

—1521, Ilbeltza. Leon X'ak "Decet Romanum Pontificem", "Aitanmaren eginbearra da" izeneko Buldaren bidez Martin Luter eskomikatzen du.

—1521, Jorrailla. Martin Luter Wormes'eko dietaren aurrean.

Saxonia'ko Printzipe Autalariak lorm zuan bere lagun Luter'entzako Batzarre artan itzegiteko baimena. Amar egun egon zan Luter uri artan.

Dietak bere dotriñak ukatzeko eskam zionean, auxe erantzun zuan:

—Berak ez zuala dotriña okerrik zabalda.

—Arazo guztiaren sustraia, Erroma'k Alemania ankapean edukinaia zala.

—Ez zuala bere idazkietan esanetatik ezertxo ere ukatuko, Idazki Donearen bidez, uts egin zuala adierazten ez bazitzaion.

—Ez zuala Kontzilio ta Aitasantuen arrazoirik onarmko, bai batzuek eta bai besteak erakuste okerretara jausi zitezkelako.

—Bera Jainkoa'ren Iltzaren mirabe zala, ta Idazti Donearen esanera bakarrik egongo zala.

Alperrikakoak izan ziran Karlos V Inperatoreak egin zizkion oarrak: gogora zitzala, bere joka-bidetik Kristaudi guztiarentzat sorm zitezkean gaitzak; gogartu zitzala, ordurarte sormak zeuzkan nasketa ta gorrotoak...

"Pekam da norberaren kontzientziaren aurka jardutea. Jainkoa lagun bezait. Amen". erantzun zuan Luter'ek.

—1521, Maiatzaren 25. "Worms'eko Agindua". Ezer lortzerik ez zegoala ikusi zuanean, eman zuan Karlos V'ak lege au, Luter eta lutertarrak legetik kampo ipiñiaz, eta aien idazki guziak erretzeko aginduaz.

Alperrikakoa izan zan "legetik kanpo" ipintze au, Saxonia'ko Printzipe Autalariak zer zetorrenaren usmoa arturik, legea argitaratu baño len toki seguruan gorde bait zuan Luter: Wartburg'eko gazteluan. Ortarako Worms'etik Martin Luter bidez zetorrela, onek uste ez zualarik gaizkille batzuek arrapatu-ta, nunbaitean preso gorde zutelakoaren itxura egin zuten Printzipeak eta bere morroiak, iñortxok ere nork arrapatu zuan eta non izkutatu zuten ez zekiala. Agian ez ziran, itxurazko giza-lapurketa aren egilleen asmoak, artaraiño iritxiko, baña Dieta batean birragertzez gañera, bizien artetik indarkeria-bidez izkutatua izateak, ez zion nolanaiko ots aundia eman Luter'en izenari.

Amar illabete egon zan Saxonia'ko Autalariaren gaztelu artan, ta ez zuan ordurik alperrik galdu, langille porrokatua bait zan Anai Martin. An asi zuan, andik amar urtera amaituko zuan Bibliaren itzulpena, aleman zarrean idatzitako libururik nagusiena. Alemania'ko izkuntza bera tajututzeko indarririk edo influentziarik aundiena izan duan idazkia. Ikus Anai Martiñ'en lanerako griña: Itun Berriaren itzulpena ; amar astetan! egin zuan; ta nolako izkera apañean egin ere. Elertilari berdingabea agertzen zaigu Luter itzulpen ortan; baña baita kristau biotzkoi eta eraspén bizikoa ere, Bibliaren maitale benetakoa; barru-pake-egarrizko sinismen larri, baña sendoa, duan gizona.

Ba ditu, ala ere, akatsak itzulpen onek. Akats oien iturburuak egillearen atsedén-naia ta setakeria dira. Psikologi izu batek sortuarazitako atsedén-naia; bere buruaren iritzia besterik jarraitzen ez duan egoskor baten setakeria.

Akats oiek, egillea bera oartzeke noski, itzulpen guztian zabaldurik daude, ta garrantzitsuenak auetxek dira:

—Ikurpen edo zentzu illuneko esakizunen itzulpena "sinismen-utsetikako-dotriña"ren argitan egitea.

—Biblia bi zatitan, leen mallako ta bigarren mallako zatitan, ebaki izatea.

—Itzulpena egitekoan bere pentsakera sendo-bearrez ibilli izatea.

Baita onako beste au ere: Erromatarrentzako Epistolán "Sinismen" itzaren ondoan "Uts" itza ipintzen du bere-kasa; "Sinismen Utsa". Ori, Alemania'ko erderak eskatzen omen du. Dana-dala, Paul Doneari, ez diona esanarazten dio.

Zeruko doaia bezela zabaldu zan itzulpen au bere irarkaldi guztietan.

Idatzi zituan beste liburu batzuek ere Martin Luter'ek Wartburg'eko gaztelu artan. Bat Paris'ko "Sorbona" Ikastetxe Nagusiaren aurka, ikastetxe arek bere dotriñak gaitzetsi zizkiolako; beste bat, Lobaina'ko irakasle Latomus'en aurka. Baña aldi ontako bere idazkirik aipatuena, lekaide lekaimeen "eskeñi" edo "botoeri" buruz idatzi zuan liburuxka da, jakiña, "eskeñi" oiek baliorik ez dutela esanaz. Liburu au zala bide, irten ziran pillaka ta pillaka lekaide ta lekaime, beren etxe doneetatik; eta lutertertar egin.

1521, Abendua. Argitara azaltzen da Melanchton'en "Loci communes rerum theologicarum", "Teologigairik garrantzitsuenak", kristauera berriaren teologi-idazkirik garaiena, Birjaiotzeko gizadizale lan-
duak irabazteko idatzia.

Bitartean, izan zuan Luter'ek, bere izkuta-tokian, barru-borrokarik naiko; Bakartasunak bere barrunbeko izu eta salbamenari buruzko bildur guztiak birpiztu bait zizkion. Egun eta gau larriak igaro zituan gaztelu artan. "Ez dakit Jainkoa'k nigandik alde-egin ez ote didan ere", ta "lizunkeriaren galdak sutan dauka nere gorputzaren aragia", zion Melanchton'eri idatzitako eskutitz batean.

Ba dio, baita, deabruarekin burrukan ibiltzen zala ere atsedetik gabe. Arratsalde batean deabrua bera zakur-itxuran aurreratu omen zitzaien, baña, zorionez, arrapatuta leiotik jaurti aal izan omen zuan. Itz bakoitzari berak bere balioa eman nai badio <ez al dute itz auek argi adierazten Luter'en sikologia edo gogoizakera erokeriaren atarira noiz edo bein urbiltzen zala? Dana dala, askotan agertzen zaigu kupidagarri Martin Luter gizagaixoa.

WITEMBERG'EKO ELIZ BERRIA.—Martin Luter Wartburg'eko gazteluan deabruarekin borrokan, eta, bere bildurra ito naiean idatzi ta idatzi ari zan bitartean, Karlstadt jarri zan Witemberg'eko luterterarren buru. Gogorkeri zaleen alderdikoa, eta Luter bera baño luterarragoa, bereala asi zan, protestalaritzaren jaioterri izan zan uri arri, katoliko usai guztia kentzeko lanean, orrela lenengo "Eliza Berria" eratuaz. 1521'garren urtea zan.

Ba zuan gizon latz onek jendeen biotza irabazteko indar. Bereganatu zuan beintzat Melanchton ere, luterterretan baretsuena ta "katolikoena" zana. Baita uriko jendea ere; batez ere, Ikastola Nagusiko ikasleak. Azkeneko mugetarño eraman nai zuan Luter'en dotriña.

Urte orren Eguberri-egunean agertu zan lendabizi Karlstadt apaiza Apaiz-jantzirik gabe eta orrela eman zuan meza ere, Kanon edo Sagara-otoitzik gabeko meza: baita aurreneko aldiz eman ere zion erriari eukaristia ogi ta ardoen itxurapean.

Ots aundia atera zuten ostelari edo "protestante" guztiak, —Luter, Zuingli ta Calvin'ek—, ogi ta ardo itxuretan Jauna erriari eman al izatearen alde. Ta erriari orrela Jauna artzea atsegin zitzaiolako, zer ikusi aundia izan zuan auzi onek ostelaritzaren zabalketa azkarrean. Ez zuan, agian, Eliza'k, garrantzirik gabeko gai ontan, bear bezela amorerik eman.

Karlstadt'en Eliza'k liturgia gabekoa eta txiroa bear zuan izan. Ortarako, aldare ta santuen irudiak apurtuarazi zituan, eta eliz eta lekaidetxe guztien aberastasanak batera bildu. Eliz apala izan bear zuan gañera, Gogo Deuna'gandiko jakintza utsez argitua; eta, —batez ere Múnzer anabaptista Witemberg'era etorri ezkeroztik—, apaltasun ori lortzeko, Ikastola Nagusiko ikasle ikasketak laga ta eskulanean asteko eskatu zien; eta, danen eredu izateko, bera nekazari egin zan. Kristau orori eman zitzaion, Jainkoa'ren Itza iragartzeko baimena.

Karlstadt izan zan protestalarietan aurrena ezkonduetako apaiza; Kristo eukaristian egiaz, etzegoala esan zuana; irudienganako eraspina idolatria, jainkoizunkeria, zala oiuegin zuana; ta meza, Azken-Apariaren oroigallu uts biurtuaz, mamiz deuseztu zuana.

Ez zuan Melanchton'ek ortaraño iritxi nai. Berari, yakintzaren lagun eta teologilari erne zanez, ez zion noski atsegiñik egiten ostelartza edo "protestantismoa" sortu zuan ikastola nagusi ura ikasle ta irakaslerik gabe ikusteak. Ta len-bait-len etortzeko idatzi zion Martin Luter'i.

Bitartean Anai Martin'ek bere izkutokian "Magnificat abestiaren azalpena" idazten ziarduan Au da noski Luter'en libururik xamurrena. Ez zan, ordea, dana xamurtasuna izan, gaztelu artan. Luter'ek, azkena an idatzitako liburuetan, ba ditu izkera enasakoak ere.

1522.—Epaillean irten zan Anai Martin Wartburg'etik; eta, Witemberg'era iritxirik, zortzi itzaldi trebe ta iaioen bidez, lortu zuan kristaudi nási ta biurri artan pakea ezarzea.

Garrantzi aundia du Karlstadt'ek eratutako "eliz berri" onek, naizta bizitza laburrekoa izan, aurrerakoan ez bait da protestalaritza, ordurarte bezelakoa izanso. Ordurarte ez zuan Luter'ek, gogapenak erein besterik egin. Karlstadt'ek Witemberg'eko kristaudian egindako iraultzak gauza bat erakutsi zion: legerik gabe ez zitekeala alkarte bat osatu.

Eta bere itzaldi ta idazkietatik sortua zan kristaudi berri ura sendotu ta batean gordetzeko, araudi bat egin bearrean arkitu zan. Araudi ortan Karlstadt irten zan garaille; Luter'ek, naiz latiña ta eliz-jantzi antziña-koak elizkizunetan erabiltzea lortu, onartu bear izan zituan Karlstadt'ek sartutako berrikeririk geienak:

—Eliz-gizonak ezkondu aal izateko eskubidea.

—Meza ixilla galeraztea.

—Mezaren orde, Azken-Apariaren oroigalluzko zirimoni bat egitea.

—Eukaristia ogi ta ardo itxuretan erriari ematea.

—Aitortu-bearra agintzen zuan legea kentzea.

—Barau-egunak ere kentzea.

—Azkenik: Erri bakoitzean, kristau guztien Alkartea, Elizaren Buru izatea.

Alkarte orrek aukeratuko ditu iragarleak, eta baita kendu ere, beren lana ondo betetzen ez badute; baña Alkarteak ez du, iñor bere esanetara beartzeko almenik izango; "sine potestate"; "agintaritarik" gabekoa izanen da.

Orrela protestantismo edo ostelaritza "eliz" biurtu zan, eta au izan zan eliz berriaren leen araudia.

1524.—Asi zan Luter bera Karlstadt'en modura bizitzen. Urte ontan ezkondu ere zan Bora'ko Kataliñ'ekin. Emakume au lekaimea zan, zistertarra ta beste amaikarekin bizi zan. Danak irten ziran lekaimetxetik, eta amabiak jarri ziran Anai Martiñ'ekin etxe berean bizitzen. Ez zion alkartasun orrek batere atsegiñik egin Melanchton'i eta Anai Martiñ'en ezkontzak, berriz, osoro asarretu zuan.

Urte ortan bertan, baño lentxeago, asarretu zitzaion Erasmo ere. Luter'en aurreneko egunetan bere aldekoa-edo izan zan. Beintzat, begi onegiekin eta itxaropen geiegirekin artu zituan Erasmo gizadizaleak praille sutsu aren arrandiak. Eliza itxuraz-berritzera ta garbitzera zetorrela uste izan zuan. Ba zion Luter'ek bildurra galanta. Orregatik eskatu ere zion, arren, bere aurka, ez idazteko.

Iru liburu erditu zituan bi gizon ospetsu aien asarreak. Liburu oien gaia, naimenaren askatasuna. Askatasunaren alde zegoan Erasmo yakin-tsua; aurka Luter mistikoa. Iru liburuak, 1524'tik 1526'era idatziak izan ziran.

ILLUNDIAN ARGIA. ADRIANO VI'a.—Olandatarra zan, Utrecht urian jaioa, Karlos V'aren lagun eta aolkulari; bene-benetan gizon ona; auxe izan zan Leon X'a il zanean aitasantu autatu zutena. Ain zuzen Gasteitz'en zegoan autatze orren berri iritxi zitzaionean. Karlos V'ak Españi-aldeko bere Jaurrerietarako Errege-ordezko egin bait zuan. Kardenal zan gañera, ta Tortosa'ko Gotzai.

Garrantzi aundikoa da bere aitasantutza, ez gauza asko egin zitualako, —ez zuan egiteko denborarik ere izan, urte bete bakarrik izan bait zan aitasantu—, baizik-eta, ; noizbait! orrenbeste denboren ondorean, Eliza'k, bere buruan aldakuntza-bearraren zirrara, Adriano'ren aitasantutza orretan sentittu zualako.

Arrimrik entzun zimzten Alemania'ko Jaunek Nurenberg'eko Dietan Aitasantuak nuntzioaren bidez esan zizkien gauzak. Ez zan sekulan Aitasanm baten aotik orrelako itzik jalki. Gero ere ez da jalki, gure Paul VI'ak eginberria duan aitorketa bera baño sakonagoa bait da arena, eta egiazkoagoa dalaren usaia bait dario. Orrela mintzo zaio bere nuntzio Frantzisko Chieregati'ri:

"Baita esango ere dezu zabalki (Dietan) zigorkada au Jainkoa'k ala nairik etorri zaiola Eliza'ri, eta gizonen obenengatik eta batez ere Apaiz eta Gotzaien obenengatik etorri zaiola. Ez da, noski, Jainkoa'ren beso salbatzallea mozm; ez. Obena dago Beraren ta gure artean, ta orretxegatik ez gaim onartzen. Ozenki ots egiten digu Idazti Doneak, erriaren obenak eliz-gizonen obenetatik dutela sorkundea. Ondotxo dakigu, Aulki Done onetan urte askoren buruan gauza nazkagarriak gertam dirala; geiegileriak egin dirala, gauza zerukoia erabiltzean; ez dala agindutako itzik bete; argiago esateko, dana okerretik okerrera joan dala. Ez da, beraz, arritzeko gauza, gaitza Burutik gorputzera, Aitasanmtik Gotzaietara jetxi izatea. Gotzai ta Apaiz, danok baztarm gera zuzentasunaren bidetik, ontan ongi dabillenik aspaldi iñor ez izateraño. Emaiogun aintza Jainkoa'ri, bere aurrean gure buruak makurmaz. Azterm beza guretako bakoitzak, zergatik jausi dan, eta zigorm beza bere burua Jainkoa'ren zigorra jasan nai ez badu Aren asarre-egunean.

"Itz-emanen dezu, bada, Gure izenean, Gure almen guztia erabilliko degula, Aulki Done au, Jauregi au, garbitzen; emendixe sormak bait dira noski oker guztiak. Ta emendixe gaitza sortu dan bezela, esan ezazu emendixe sormko dala gaitz oren sendagaia ere.

"Garbikuntza au egitera bearmak gaude: auxe ere eskatzen digute erri di guztiak.

"Ez det Aulki Done onen kutiziarik izan. Atsegiñago zitzaigun, baiki, Gure azken-egunak bakartasunean amaitzea. Pozik lagako genduan, ukim gabe, eskeñi ziguten buruntza. Jainkoa'ganako begiruneak, Gure autatzea zintzo egiña zala jakiteak, eta zisma bat sorm zitekearen bildurrak ekarri gaim Artzaintza Done au artzera. Ez degu iñolaz ere Artzaintza gure aundikerirako erabilliko, ezta gure sendikoak aberasteko ere, Jainkoa'ren Andregai dan Eliza Doneari berezkoa duan edertasuna itzultzeko baizik, ankapemei laguntzeko, gizakume zintzo ta yakintsuak goraltzeko, itz batean, Pedro Deunaren ondorengo jator batek egin bear duan guzia egiteko...

"Ez bedi, ala ere, iñor arrim, oker guztiak ekiñaldi bakar batez zuzentzen ez baditugu, sakonki sarma bait dago gaitza, ta ugariegiak bait dim sustraiak. Astiro ibilli-bearrak gera, beraz; leenik, zauri aundienak eta arriskugarrienak sendagai egokiz sendatzen saiam bear ko degu, bat-bateko ekite urduriegiak guztia okerragom bait lezake".

Zoritxarrez aitorketa tolesgabe onek ez zuan ezer lorm. <:Lortu al ote zezakean, urte batzuek lenago etorri balitz? Nork daki!

Luter'ek beintzat lentxeago idatzitako "Astoa Aitasanm" izeneko idazkiño nardagarriarekin erantzun zuan. Orduangoa du "Beia lekaide" izeneko ere, lekaide-bizitzari iseka egiteko sorm zuana.


Jainkoa'k bere izkumzko erabakietan ez zion oraindik Eliza'ri Adriano VI'aren taiuko zuzendari bat eman nai. Baña, il aurretik, izan zuan Aitasanm Eliz-garbitzalleak apaiz garbitzalle baten ikerpena, bixita: Eneko Loiola'koarena. Jerusalem'era abiatu-nairik onespenearen billa joan zitzaion.

OSTERA ILLUNA. KLEMENTE VH'a.—Adrian VI'aren ondorean Klemente VH'a, Medizistarra, igo zan Aulki Donera. Bere aitasanmtzaren denboran zabalkunde aundia arm zuan Luter'en dotriñak Alemania'n, alde jarri bait zitzaion politikaren aizea. Luter'en aldeko politika ori Soliman H'ak, Frantzisko I'ak eta Klemente VH'ak eram zuten.

Soliman H'a "Bikaña" k, 1526'ean Mohacs'eko burrukaldi odoltsuan purrukam ziman ungaritarren indarrak. Ungaria'ko errege Koldobika H'a ere burruka artan il zan. Bearrekoak ziran orduantxe Alemania'ko izkillu guztiak turkitarren eraso geldiarazteko; eta Karlos V'a inperato-

Ch

30118-2-5
 Vs
 30118-2-5
 hv.
 175*



reak printzipe protestalarien laguntasuna ere bear bait zuan ortarako, laguntza ori lortzeko, printzipe aiei, eta "protestantismo" edo ostelari-zari, onura aundiak eman bearrean arkitu zan.

Edonork daki, eten gabeak izan zirala Karlos V'ak Frantzia'ko errege Frantzisko I'arekin izan zituan guduketak. Bañan guduketa aiek ezik, Iotu zimzten Inperatorearen eskuak, (eta ostelarienak askam), Inperatoreak Klemente VH'arekin izan zimanak.

Beste Birjaiotzako Aitasanmek bezela, ez zan Klemente VII'a Medicis, kontzilio egitearen zale. Atsegiñago zitzaion politika. Agintzara iritxi zanetik, Karlos V'aren aurka ipiñi zan, ta 1526'ean Frantzia'rekin eta Benezia'rekin batean Cognac'eko "Alkarte Sanma" osam zuan Inperatoreari guda egiteko. Gudate ontakoa da zoritzarreko "sacco di Roma", "Erroma'ko ebastea"; Karlos V'aren gudariak Erroma artu ta bertan egin zuten ondamena.

Bitartean ez zuten Alemania'ko Jaun lutertarrek astirik galdu, bakoitza bere laterriko eliza protestalari egiñarazten, inperatorearen indarrak Italia'n, Ungaria'n, Frantzia'n edo Afrika'n násirik ibiltzeaz baliarmrik. Ba zuten, noski, ortara zerk bultzatua. Luter'ek eliz-aldakuntza printzipeen eskuetan ipintzen bait zuan, eta printzipeak egiten bait ziman, bakoitza bere jurrekiko elizaren jabe, jaun, ta nagusi; komeni zitzaien printzipei beren elizen aldaketa len-bait-len egitea, orrela neurri gabe zabaldu ta osatzen bait zimzten beren eskubideak eta aberastasunak. Eskubideak, printzipea Laterriko ta Elizeko auzi ororen epailari egiten zalako; aberastasuna, elizaren ontasun guztiak bere eskupera igarotzen ziralako.

Orrelaxe sorm ziran Laterri-Elizak bakoitza printzipe baten jauntzari loma. Aurrenekoa Prusia'koa izan zan. Ordurarte lurralde ura "Teutonitar Le^aide Zaldunen" lurra zan. 1525'ean egin zan lutertar "Lagundi Done Gudu-egille" aren Maixu Naausia. Lekaidetza laga, ezkondu, bere laterriari elizkoi-usai dana kendu, Dukaterri biurm, Prusi izendam, ta bere burua egin zuan bertako dukea: Prusia'ko dukaterriaren lenengo Dukea. Laister ostelaritzam ziran beste bi eliz-laterri ere: Samland eta Pomerani. Biak, Alemania'n garai artan maiz gerta oi zan bezela, eizbarrruti ta laterri iare ziran, batera. Beren Jaun, edo Printzipe, Gotzaia zuten. Bi auek izan ziran Eliza katolikua ukam zuten lenengo gotzaiak; ez dira, ala ere, bakarrak izango.

Gertam ere, gerta izan zan, erriak katoliko irautea naizta bere go-

tzai printzipea lutertar biurtu. Múnster'eko gotzai printzipeak ezin zuan bere laterria erlijio berrira eraman. Lutertar egin zan Kolonia'koa ere. Aurka irten zitzaizkion, ordea, apaiz-jende gallurrenak. Gropper teologilaria izan zan goigotzai protestalariaren aurkako ekintza zuzendu ta bizkortu zuana, eta Karlos V'a auzia erabaki zuana, katolikoan alde, gotzai-piku ukatuari gotzaitza ta jauntza utziaraziaz.

Garai ontarako, inperioV.o Iparralde ta Gerrialdeko erridi guztiak, lutertar ziran.

Ba zuten katolikoak ostelaritza edo "protestantismoa" geiago zabaltzen joango zalakoaren bildurra. Baña, orduantxe, Karlos V'a, Cognac'eko Alkarte Donearen indarrak azpiratuta bere buruaren jabe iarea arkim zan, bere bizian aurrenekoz. Bi urteen luzaroan gertakizunen jabe izan zan Inperatorea.

—1529- Spira'ko Dieta. Bertan, erlijio berriaren zabalkundea debekatu zuten batzarkide katoliVoak. Baita asarre oiuegin ere, lutertarrak. Orduantxe egin zuten auek "OSTELARI" izena erantsi zien oste-keta edo protesta. "Protestantes", deitu zitzairen, latinez; "ostelariak", "Protestalariak".

—1530. Ausburg'eko Dietan erabaki zorrotzak artu ziran protestalarien aurka; Eliza Katolikora itzultzeVo agindu zitzairen, eta Eliza'ri osm zizVioten ontasunak ostera Eliza'ri biurtzeko. Lege gogorrak. Gogorregiak gaurko ulerkerarentzat. Aldi aietan, ordea, bai batzuek eta bai besteeke, kezkarik gabe erabilli oi zuten indarra animeetako gauzetan, ta taiu ortako legeak maiz ematen ziran

Ausburg'eko dietako legeak, gañera, indargeak izan ziran ez bait zuan betearazteVo astirik izan Karlos V'ak, andik bi urtera ostera turkitarren aurka burrukan zebillelako. Berriro guduak salbatu zuan ostelaritza, "protestantismoa".

—1532. Ungaria'ko zelaietatik eraso diote inperioari turVitarrek. Une larri artan Karlos V'ak printzipe lutertarrei ere eskatzen die laguntza.

Laguntza ori emateko printzipeak ipintzen duten baldintza: Ausburg'eVo Dietan arm ziran erabaki gogor aiek deusezteko. Karlos V'aren nai-ta-naiezko erantzuna: Baietz.

Baiezko ori Nuremberg'eko "Imn" edo "Konpromisoan", lege egin zan.

—1530'eko Augsburg'eko Dieta arrek ba du erlijio-uts-arloan ere

garrantzia. Antxe agertu bait zan lenengo aldiz Martin Luter'en gogaketa Siniste-arau edo "Kredo" batean mamima. Siniste-arau ori Melanchton'ek egiña zan. Arreta aundiaz egin zuan lan ura, benetako alkartasun-zale zan teo'.ogilari erne arrek, Luter'en pentsakera, katolikoak ez asarretzeko, al zuan modurik gozoenean edamaz. Augsburg'eko Kredo au iran zan urte batzutan lutertar guztientzat Sinispide berriaren ezau-garri bakarra.

MARTIN LUTER'EN SINISPIDEA. Luter ez zan teologi-egille; ez zuan, orregatik, bere gogakizuna teologi-sistema batean edatu. Gogakizun ori bere idazki-sorta ugarian zabalduzik dago. Auetxek ditu bere gogapenik nabarmenenak:

OBENA.—Gizona ez diteke pekatu-erik egin gabe bizi. Areago oraindik: gizakumeak dagian guztia, pekatu da.

Au da Luter'en pentsakera guztiaren ardatza. Gogai au bere bizitzaren muiñ-muiñetik aterea du. Anai Martiñ'ek betidanik bere burua obenez beteta ikusi zuan; etsirik zegoan ez zuala obenik egin gabe bizitzerik.

Ba zuan bere arrazoa ere. Griña oker utsari deitzen bait zion "Oben". Bera obenik gabe bizi ezin bazan, beste ere ori gertatzen zizaiela sinistera laister igaro zan. "<Nik ezin det?, besteak ere ez". <Urrats ori arrazoiaren aurkakoa dala? Ez zuan Anai Martiñ'ek arrazoiarekin eta arrazoi! etarekin adiskidetasunik geiegi, "zornez ta legenez betetako emagaldia" deitzen bait zion arrazoiari. Orrela mintzo ziran, aldi artan, filosofilari "nominalista" edo gogapenak "itz uts" zirela aitortzen zuten guztiak.

JATORRIZKO OBENA.—Jatorrizko obenak osoro usteldu ta gaiztotu omen zuan gizakumearen zer-izatea. Jatorrizko obena, guban, gure zertasun guztia osoki galdua egote ori omen da.

Ez da pentsamentu au Luter'ena bakarrik. Aspaldidanik uste zuten ori bera teologilari "agustinzaleak". Ona zer zion Bitor Donearen Ugo ospetsuak: "Patet, concupiscentiam mali esse peccamm originale", "argi agiri da jatorrizko obena, txarkerirako griña dala".

Jatorrizko obena ez zala bataioan barkatzen, zion Martin Luter'ek; baña ortan ere beste "agustinzaleekin" ao bateko zan. Ta ontan ez zuten okerrik ekiten. Orrela uste izan zuten Trento'ko Kontzilio'ko Asabak

ere: "Gai oni buruz lutertarrak, guk esaten deguna bera diote; aientzat griña txarra, bataio-ondorean jarraitzen duan griña txarra ere, Jatorrizko Obena bait da" zion Severoli, Kontzilioko Izlari Nagusiak.

ASKATASUNA.—Jatorrizko obenak gizadiaren zertasuna guziz gaiztoturik laga dualako, gizakumeak ez dezake gaiztoa ez dan gauzarik egin. Bere egite guztiak gaiztoak dira, pekam dira. Ez dezake egite onik egin. Ontaz, pekatu egiteko edo ez egiteko almenik ez du. Askatasunik ez da, moral edo oimra-arloan.

Ba du oraindik zentzu zuzena, Anai Martin'en esakizun onek. Luter'ek gizonak onik ezin egin dezakela esatean, bi gauza adierazi nai dim:

—Gure egite guztiak, Eliz-gurasoak "Imperfectio" edo "osotasun-falta" deitzen dioten mozkeri arrekin egiñak izan bear dutela nai-tanai-ez. Ta ori egia da.

—Gure egiteak merimzkoak izateko gai ez dirala. Au ez da egia, baña ba da gai ontaz alkarrizketarako bide, katoliko ta lutertarren artean. Katolikoan iritziz, egitei merimgarri izatea, graziak ematen die. Luter'entzat fedea da gracia. Ez du esaten fedea gizakumeen egiteak "onak" biurtzen dimenik, —gizakumearen egiteak beti pekam bait dira—, baña bai fedez igurtzitako egite oiek gabe egiazko federik ez dala. Orrela, nolabait, egite auek "bearrekoak" eta "sanmak" dira fede-adigarri bezela.

ZUZENTASUNA.—Egite guziak obenak badira, „nondik eta nola gizonak arkim, salbatzeko bear-bearrekoa duan zuzentasuna edo garbitasuna?

Jaungoikoa'k zuzentzen du gizona, ez au zuzen egiñaz, (gizonak beti obendun jarraitzen bait du), Kristo'ren zuzentasunaz estaliaz bizik. Orrela Kristo'ren zuzentasunaz jantzi duan gizonari Jainkoa'k ez dizkio, Zuzentasun orren-pean estalirik jarraitzen duten pekamak konman artzen, argiz beterik dagoan leiar batean auts apurño ttikitto bat kontuan artzen eta ikusi ere egiten ez dan bezela. Naiz gizakumearen obenak aundiak izan, neurri-gabe aundiagoa bait da Kristo'ren zuzentasuna.

Izkera au ez zan berria. Ona zer zion Bitor Donearen Ugo'k berak: "Licet remaneat concupiscentia post baptismum, non tamen ad reatum, quia iis qui renati sunt, non imputamr; sed hoc est remitti peccamm originale, non imputari". "Naiz griña txarra bataio ondorean gurekin

geldidtu, ez gaitu zigorgarri egiten, (bataioz) birjaiotakuoi ez bait zaigu kontuan artzen; ta auxe da jatorrizko obena barkatzea: ez kontuan artzea".

"Agustinzaleak" jatorriko obenaz, batez ere griña txarraz, ziotena, Luter'ek pekatu guztientzat dio. Ori esatean bere burua Eliza'tik kanpo ipintzen zuan.

Katolikoentzat, Kristo'ren irabazietatik datorkigun zuzentasunak, gizona barru-barrutik osoro aldatzen du. Luter'entzat ez da aldakuntzarik. Kristo'ren zuzentasunak gizona kanpotik bakarrik ukitzen du.

SINISMENA.—Sinismenaren bitartez, bere-egiten du gizakumeak Kristo'ren zuzentasuna. Kristo'k salbatzen duala ziñez sinisten duanari, Jainkoa'k beti erantzuten dio. Erantzun ori, Kristo'ren zuzentasunaz jaztea da.

Orrela, ziur jakin dezake gizakumeak salbatuko dala, bere sinistea ez bait diteke erantzunik gabe gelditu. Neurrigabea izaki Jainkoa'ren errukia...!

Luter'en sinismena uste osoa Jainkoa'gan ipintzea da. Buru, biotz, bizitza, gizakumea dan guztia, itxu-itxuan, arrazoiketan ibilli gabe, Jainkoa'ren altzora jaurtitzea.

Arrazoiketarik gabe noski, Ockham'ek erakutsi bait zuan, adimenak ez dezakela Jainko'rik ezagutu; fedeak bakarrik ezagutzen duala Jaungoikoa. Ta Luter'ek nominalista okandarrak izan bait zituan irakasle.

GRAZIA.—Sinismena bera da grazia. Ez da beste graziarik; gizakumea giza-izakeraz gora Jainkoa'ren kide nolabait egiten duan graziarik ez da. Jatorriz-gaindiko bizitza guztia deusezten du Anai Martiñ'ek.

JAINKOA'REN LEGEA.—Maiz esan oi da, lutertarrek, aragikerian murgildu nai zutenean "vivamus luteranice", "Luter'en erara bizi gaitezen" esaten zutela. "Oben egin daigun sinisten degun ezker". Ez zan ori, ez orixe, Anai Martiñ'en gogabidea. Egia da, berak idazkiño batean onako au idatzi zuala: "pecca fortiter et crede fortius". Egizu oben sendo, baño sinistu ezazu sendoago".

Esari onek, beste bere inguruko itz-saretik kanpora aterata, bakarrik artzen bada, arras engañatu lezake edozein. Au da esari orren zen-

tzua: "Naiz aundiak eta ugariak izan zure obenak, zure sinismena sendoa ba da, salbatuko zera".

Garrantzi aundia du Martin Luter'entzat Jainkoa'ren legea bete-
tzeak, bestela sinismena ez bait litzake egiazkoa izango. Luter'en sinis-
mena, Jainkoa'ri bizitza osoa ematea da.

SAKRAMEXTUAK.—Iru bakarrik onartzen ditu: Bataioa, Eukaristia
ta, —naiz bere erara—, Aitortza.

Sakramentuak, fedearen adigarri uts besterik ez dira; ta au, bi
eratarra: Artzen dituztenen eta artzen ikusten dituztenen sinismena adie-
razten dute'ako, eta egille, artzalle ta ikusleen gogoetan sinismena sen-
dotzen dutelako.

Ez du onek esan nai Luter'ek sakramentuei garrantzirik ematen ez
dienik, sakramentuak bait dira, bere iritziz, Kristo'ren Kalbarioko iraba-
ziak gureganatzen dituztenak. Sakramentuak eta Biblia. Orrengatik sa-
kramentuei "Verbum Visibile", "Begientzako Itza" deitzen die; Bibliari
"Verbum dicmm", "Belarrientzako Itza", deitzen dion bezela. Bi "Itz"
auetan, Biblia da garaiena, berak bait digu sinismena sortzen, eta bera
gabe beste salbabide guztiak ez bait dute deus balio, baña Bibliatik erne-
tako sinismenak dakarkigun zuzentasuna, "via sacramentali", "sakramen-
men bidez", iristen zaigu bakoitzari.

Es dago beraz sakramentuen arloan ere erabat itxita, katoliko ta
lutertarrentzat alkarrizketarako atea.

BIBLIA.—Auxe da Luter'entzat Jainkoa'gandiko grazien ubidearen
imrburua. Berak "Jainkoa'ren Itza" deitzen dio, edo soilki: ITZA. Itzak
sinismena sortzen digu; Itzak sinismenari nola erantzun erakusten;
Itza da Eliza'ren itzatea bera. Itzaren bitartez ari da gugan Ats Deuna.
Jainkoa'ren itza ez da gizonaren onerako bakarrik; munduaren onerako
ere ba da. Ortik datorkio Eliza'ri, Itza munduari aldarrikam bearra.

Itzak min dagio munduari. Munduak muziñez darantzuio Itzari;
mundua okerra bait da; eta Itzak okerkeri ori arpegira jaurtitzen
bait dio...

Ba dirudi Luter'ek bere gogaetan aurrera jarraituz, Eliza, oker da-
goan mundu ori zuzentzeko egiña dala esan bear duala. Ez ba. Eliza'ren
egitekoa, Itza iragartzea omen da; "jus verbi". Mundua Itz orren araeu-
ra biziartzea, "executio verbi", Laterri-nagusien egitekoa omen da.

BIBLIA ULERTZEKO ASKATASUNA.—Kristau bakoitzak bai omen du Itza bere adimenak erakusten dion erara artu ta ulertzeko askatasuna, ortarako bakoitza Gogo Deunak barrundik argitzen dualako. Ez da, beraz, Eliza'ren arloa Itzaren zentzua adieraztea. Eliza'k Itza olestu baka-rrik egin bear du. Itzaren zentzuna Gogo Deunak berak agertuko dio, Itza artzen duan bakoitzari.

Pentsakizun onekin, osoro egiten dio lepo Martin Luter'ek Eliza'-ren maixutzari.

ELIZA.—Eliza, bere izatez, "ontologice", iragarketa bat da; "prædicatio": Itzaren iragarketa, eta iragarketa orri emandako erantzuna. Itzak, iragartzen dan bakoitzean, sinis!e-sail bat biltzen du; sail orrek sinistuz erantzuten dio iltzari: Orixe da Eliza. Ez da, beraz, Eliza bein betirako egiñik dagoan gauza; unez-une egiten ari dan gauza da, unez-une bait da itza aldarrikatua, ta unez-une bait du sinismenezko erantzuna jasotzen.

Ba daki Luter'ek Eliz orrek, aragizko gizakumez egiña izanik, begiz ikusi leiken izakera bat bearrezkoa izan duala, edestian zear, Kristo'k sortzea eman zion une beretik. Eliza "regnum spirituale", "jaurerri gogokoia" da. Baña nai-ta-naiezkoa du mundu onetan diarduan artean, "regnum materiale", "jaurerri lurkoi" baten itxuraz jaztea. Baña ludi-ko-jaurerri itxura au, Eliza'k samíñez bere gañean eraman bear duan obenezko gorputza bat da; "corpus meretricis": "urdanga-gorputza".

Eliza'ren izaeraz ta Eliza'ren egin bearretaz dituan gogapenak dira, Martin Luter Katolikoengandik geien urruntzen duten puntuak. Ala ere, gaurko egunean, ba da alkar-azterketa baterako abagunea, lutertarrei berairi motza iduritzen bait zaie Luter'ek Eliza'z zuan iritzia.

Motza. ^Zergaitik ez ote zuan berak irudi ori osatu? Zalantzarik gabe, eliz berri bat eraikitzea pentsatzen ez zualako. Lengo Eliza zárra nai zuan, oituraz, baña batez ere, sinispidez berritu. Ta ori egin nairik, egiaz egin zuana, Eliza'ren bizia zimurtzea ta izakera-muíñez osoro le-gortzea izan zan.

APAIZTASUNA.—Kristau oro omen da, bataioaren indarrez, apaiz edo jaupari. Danak zertasan berdiñeko apaiztasuna, jauparitza, omen de-gu eta jauparitza orren maillak, Aitasantutzatik Apaizketaraño, guztiak gizonen sorketak omen dira, ez Kristo'renak.

Egia da aldi aietan kristau danen jauparitza edo apaiztasun orokorra, aztuegia zegoala, eta Eliza'ko agintariek beren agintaritza geikeri itxusietaraño maiz eramaten zutela, baña Luter, ontan ere, mutur bate-tik besteraño joan zan, eta berak diona Eliza'ren zain ber-berak apur-tzea da.

KRISTO'REN BIGARREN ETORRERA.—Martin Luter Kristo'ren bi-garren etorrera orri begira bizi izan zan beti, etorrera orrek bakarrik aldarn bait zitzazkean gauzak. Bitartean, Itza iragarriz beste, ez zegoan ezer egiterik.

Ez du lutertasunik bear bezela ulertuko Luter'en baitan ain bizirik zegoan eskatologi edo "azken-une"rako zentzumen au gogoan ez dau-kanak.

Orretxegatik Luter'en teologia ituna da tristea ta puntu askotan antzua. Ludian burruka besterik ez dakus, ta burruka orren gentza ez da mundu onetan lortzekoa; "azkenean" baizik. (Zer egin bitartean? Soil-ki, Itza aldarrikatu.

Burruka ezin-geldia gizona-baitan ere, batera pekatari ta santu bait da gizona; santu kanpotik Kristo'ren sanmtasunez, pekatari barrundik, obenez usteldua dagolako. <Noiz animako pakea? "Azkenean". <Bi-tartean? Itza sinistu.

Burruka, baita Eliza'n ere; dana batean gogozko erreifñu donea ta gorputz lurkoi zikiña dalako. <Osakundea? "Azkenean", Kristo'k Eliz ori gogo uts biurtzen duanean. <Ta bitartean? Itza aldarrikatu, Itza sinistu.

Burruka Istorian bertan ere; burruka amai-gabea Itza zabaltzen duan Eliza'ren ta Itza artu nai ez duan munduko politikaren artean. Az-kenean bakarrik amaimko dira burruka guztiak; Kristo'k mundu au zuzen egingo duanean. ^Bitartean egin bear deguna? Itza erein ta... Jainkoa'gan itxaron.

MARTIN LUTER'EN NEKEAK.—NEKAZARIEN GUDUA.—Alemania'ko nekazariak aspadi-xotik zebikzan asarre. Jaun eta Gotzai feundalarien jopu ziran; Askatasuna nai zuten; askatasuna ta bizimodu ohea.

Martin Luter'en alde ipiñi ziran geienak, Martin Luter askatasuna-ren aitzindari agertzen bait zan erriaren aurrean. Askatasunaren alde zorrozki ta ozen mintzam zan Anai Martin, ta mintzaera orrek aize eman zion, ziurki, nekazarien amorruari.

Múntzer, lenen orduko lutertarretakoa eta gogortasunaren zale zan Miintzer, izan zan gudaketa ontan nakazarien buruzagi. Ordurako anabaptista egin bait zan, eta ausiak bait zituan Luter'ekinko adiskidetasunak. "Deabruaren ordezkari nagusia" ta "Witemberg'eko aitasantua" deitzen zion orain, len bere irakasle izanari.

Odol asko ixuri zan 1525'eko gudu onetan, eta ondamen aundiak egin ziran. Millatik gora dira nekazariak apurm zituzten gaztelu ta lekaidetxeak.

Azkenean, orde, Frankenhausein'go burrukaldian purrukatuak isan ziran nekazari gaixoak. Múntzer bera ere katigu erori zan, eta lepoa mozm zioten. Gogorak izan ba ziran len nekazariak, ez ziran orduantxe biguñagoak izan jaun garailleak, nekazari garaimak zigortzen.

Martin Luter matxinadaren asieran, Karlstadt eta aren alderdikoak nekazarien alde oles-egin zutelako-edo, nekazarien alde bezela jarri zan. Ori adierazten du beintzat, nekazarien eskariei erantzunaz idatzi zuan "Pakearen alde deia", izeneko liburuxkan. Baña laister, —matxinoen jokabideaz ikaraturik, noski—, Printzipeen alderdira igaro zan itxuitxuan. Orduantxe idatzi zuan beste idaztitxo bat, nekazarien alde illabete lenago idatzitako aren bigarren agerpenaren azkenean agertzekoa. Aurrenekoan Jaun feudalarien aurka idatzi bait zuan, bigarren oni izen au eman zion: "Baita nekazari-sail ebasle ta erailleen aurka ere". Aurrenekoan nekazari "lagun maiteak" esaten zien; oraingoan ikaragarriko esakerak darabilzki "lagun maite" aien aurka:

"Al duan guztiak, naiz agirian naiz izkutuan, lepoa biurrituz ito, eta buruindu bear dim (nekazari oiek). Oroi beza edonork matxino bat baño izaki edentsuagorik, gaizkilleagorik eta deabruzkoagorik ez dala. Erail beza, bada, edonork, zakur amorrarn bat iltzen dan bezela. Berak ilko zaitu zu, zuk bera lenago ez badezu iltzen.

"Aizto-zauriz josi bitza, erail bitza, ito bitza, alduan guztiak, matxino oiek. Ta ori egitean, zuk bizia galduko bazenu, zorionekoa zu, ez bait zenezake sekulan eriotz zorientsuagorik arkitu; izan ere Jainkoa'ren legea betetzeagatik eta karitateari serbitzeagatik ilko ziñake.

"Ba dira (nekazarien artean) gizakume errugabeak ere. Baña auek Jainkoa'k gordeko dim (erailketatik). Gordetzen ez ba ditu, errugabeak ez ziralaren señaie da, edo matxinoen ekintzarekin konforme zeudelako, edo, gutxienez (aíen izenik salam gabe) ixilik egon ziralako. Zizm eragieizu, bada, eskopetei, nekazarien aurka".

Ludi ontako agintariak (liburutto orrek dionez), gizakume jainko-zaleak defenditze'0 ta matxinadak eragozreko jarri omen ditu Jainkoa'k; gizakume oro agintarien esanera egon bear omen du, ta ez omen diteke agintarien aurka jeiki, ezta bere burua defenditzeko ere. Liburutxo orretan gizakumea agintarien jopu da.

Len baño lagunago geldim ziran gudate onen bukaeran Anai Martin eta printzipeak. Laguntasun ori ez galtzeagatik noski egin zuan Martin Luter'ek bere bizitzako gauzarik zikiñena. Hesse'ko Felipe'ri bigarren emazte batekin ezkontzen uztea.

Printziperik luterkoienetakoa zan Filipe, Hesse'ko "Landgrave" edo "Lurralde-jauna". Ezkondua zan, baña Itun Zarreko asaben araura, beste emazte bat artea pentsatu zuan, ta ori egiteko Luter'eri eskatu zion baimena, baimen ori ematen ez bazitzaion Inperatorearen alderdira igaroko zala adieraziz. Arriturik erantzun zioten Luter eta Melanchton'ek, bi emazteko ezkontza ori erriarentzat ondabide izanen zala. Felipe'k ordea, —ordurako Buzer'en onesmena bai bait zuan—, berriztu zituan bere eskari ta zemai eta asarreak. Ona zer erabaki zuan azkenean Luter'ek Melanchton' en baikunarekin: Ez zala zillegi Felipe'k nai zuana, baña Ebangelioaren alde egin zituan lanak saritzearren, ematen ziola bigarren emazte batekin ezkontzeko baimena, ezkontza ori ixillean gordetzekotan. 1540'ean egin zan orrelako ezkontza arrigarria.

BIRBATAILARIAK.—Anabaptista edo birbatailariak, sustrai sakonak noiztik eta nondik dimzten, iñork ez daki. Amaseigarren mendean zabaldutako auek Suiza'ko Zurich urian sortuak dira eta Zuingli'ren denboran zabaldu ziran andik Europa'ren gerrialdeko lurretara. Zuingli'k, Luter'ek bezela, sakramentuak sinismenaren siñale besterik ez dirala zion. Anabaptistek, Luter'ek eta Zuingli'k baño arrazoibide zuzenagoarekin, umetan bataiatua berriz bataiam bearrean arkitzen zala zioten, aurzaroko bataio arrek balio ez zualako, ez bait dira aurrak, ez federik artzeko ez federik iragartzeko gauza.

Luter'ek, —bere pentsaeran arrazoirik gabe—, gogor eutsi zion aurren bataioaren balioari, eta gaitzetsi ziman, asarre, birbatailariak.

Zuingli'k, berriz, Zurich'eko agintarien indarra erabilli zuan anabaptisten aurka. Gai ontan ere asarre ziran Zuingli'rekin birbatailariak, ez bait zitzairen atsegin, sinismena zabaltzeko, agintarien indarra erabiltzea Zuingli'k egiten zuan bezela.

Anabaptista auek gizakume paketsuak ziran, zigorrari baretasunakin erantzuten ziotenak, besteren sinispidea errespetatzen zekitenak. Agian anabaptistak dira Europa'n, besteren erlijioa errespetatzen aurrena ikasi zutenak. Aitormen ori zor zaie.

Zurich'etik atera bear izan zuten, eta, poliki-poliki, asi ziran mundu guztira zabaltzen. Batez ere ezagutuak izan ziran Tirol, Babiera eta Morabia'ko anabaptistak. Eta Olanda'koak. Ain zuzen, Olanda'n eta Alemania'ko iparraldean sortu zitzaion anabaptisten zuitz paketsuari adar biurri bat, gogorkeri-zalea, sasi-mistikua, indarrez Jainkoa'ren jaurreri berri bat ludian ezarri nai zuana. Mathys izeneko okiñ olandatar bat uste zuten zala jaurreri orren erregea. Artean berenganatu zuten Múnster uria bertako anabaptistek, eta Alemania'ko uri ortara ekarrí zuten Mathys okiña, eta bertan "Sion Berri'ko errege" egin zuten.

Múnster eta ango lurraldea ziran "Jainkoa'ren erreíñu berria", eta erreíñu artan dana guztiena zan : dirua, ondasunak, jakiak eta emakumeak.

Miinster uria ta bere elizbarruti osoa Laterri iare bat ziran. Gotzaia zan laterri aren agintari.

Witemberg'eko Karlstadtarrak bezela, Miinster'ko anabaptistek ere apurto zituzten elizetako irudi guztiak.

Azkenean Miinster'ko Gotzai printzipeak eta Hesse'ko Felipe'ren indarrak bat-egiñik, menperatu zituzten "Sion-berritar" aiek, eta izugarrizko zigorra eman zien. "Sion-Berri"ko errege Mathys ere eriotzera galdua izan zan, 1535'garren urte artan.

Gaitz aundia egin zion anabaptisten sendi paketsu ta otxanari Miinstertarren geiegikeriak. Len bazter guztietan zigortuak ba ziran—1529'an Espira'ko Dietan egindako lege batek, eriotzara galtzen zitu anabaptista guztiak—, ez ziran Múnster'ko matxinada ondorean obeki erabilliak izan.

fZergatik ote zien erregeek orrelako bildurra? Anabaptisten arteko Anaidi asko anarkistaxamarrak ziralako.

Ala ere birbatailari paketsuak burua altxa zuten ostera poliki-poliki, batez ere Olanda'n, eta berrogei urteko zigorraldi odoltsuaren ondorean lortu zuten pakea. Simons'tar Menno zan beren buruzagi, ta orregatik "mennonita" edo mennontarrak deitu oi zitzaien. Alemania-zear Siberia'raño zabaldu ziran, ta emendik Ipar Ameriketara.

Bitartean Inghlanderrian ere sortu ziran beste anabaptista pakezale

sail batzuek, ta Inlanderritik, zigor-igesi, Ipar Ameriketara igaro ziran, Inlanderriko kalbindar garbizaleekin batean.

Azi-ale auetatik sortuak dira gaurko egunean ainbat indar duten eliza "Baptistak".

MARTIN LUTER'EN AZKENEKO URTEAK.—Miinster'ko naspilletik gauza bat irten zan len baño sendoago: printzipe protestante edo ostelarien eskubidea; elizeko gauzetan sartzeko eskubidea, beste orrelako matxinadarik sortu ez zedin.

1531 ezkeru, "Esmalkalda'ko Alkarte"an bildurik zeuden printzipe auk. Auentzat idatzi zituan Luter'ek "Esmalkalda'ko Ataltxo" edo artikuloak, gerontzean lutertar guztien sinismen-eredu izanen diranak. Melanchton'ek idatzitako Augsburg'eko Sinispideak katolikoekin alkar-tzea billatzen ba zuan, Esmalkalda'ko onek katolikoengandik bereistea billatzen duala dirudi.

Paul III (1534-1539) Aitasantua, benetan Kontzilio bat bildu naiean zebillen, ta 1537'an deitu zituan lutertarrak Mantua'ra, Kontzilioari asiera ematera. Baña Esmalkalda'ko printzipeak ezetz erantzun zioten.

Urrengo urtean, Karlos V'a turkitarrekin burruka bizian ibiltzeak eta guda ortarako Esmalkal'dako printzipeen laguntza lortzeko, auei Inperatoreak amore eman izan bearrak, eragotzi zuan, ostera ere, Kontzilioaren asiera.

1541'ean, Ratisbona'n bildutako Dietan izan zuten alkar-jarduketa bat teologilariak. Gropper eta Eck ziran katolikoak; Melanchton, Bucer ta Pistorius, lutertarrak. Iritxi ziran teologilari auk batasun-antzeko zer-baitera "jatorrizko obenaren", "askatasunaren" eta "salbamenaren" auzietan; alperrik, ordea; batasun ori egiteko tajutu zuten dotriña ez bait zuten onartu ez Aitasantuak ez Martin Luter'ek.

Ez zuten bitartean denborarik galtzen printzipe lutertarrak, eta 1541'eko Ratisbona'ko Dieta ortan bertan, turkitarren erasoak bildur-tuta zeukan inperatorearengandik, bentaja ederrak atera zituzten.

Aundiagoak eta bizkorragoak izan ziran oraindik, iru urte geroago, (1544), Espira'ko Dietan lortu zituztenak, orduan Karlos V'a Frantzia'rekin ere burrukan bait zebillen.

Ikaratu zan Paul III aitasantua, ta oiuegin zuan inperialariaren jokabide onen aurka.

Baña, uste gabea, urte ortan bertan aldatu ziran gauzak, "Cres-

py'ko Pakea"rekin lasaitu bait zan Karlos V'a. Ta Aitasantuarekin alkarturik jakinarazi zion kristaudiari, ainbat aldiz aipatutako Kontzilioa Trento'n berealaxe biltzera zijoala. Baña, laister lutertarrak ez zirala joango erantzun zioten, eta Luter'ek berak liburu zital baten bidez iarde-tsi zion. Liburu orren izena: "Deabruak sortutako Erroma'ko Aitasan-tutzaren aurka".

Orduantxe asi zan pentsatzen Karlos V'a protestalariak mendera-tzeko guda beste biderik ez zuala, batez ere 1546'ean, lutertarrak erlijio-gaiak aztertzeke alkarrizketa batera deitu, eta auek erantzun ez ziotenean.

Urte ortan bertan il zan Martin Luter, pakean.

Pakean; ez bait dira egiak aren azken egunei buruz sortutako izu-garrikeriak. Erretxindurik igaro zituan azkenengo urteak. Bere "semeak" berak eman zizkieten naigabeak ozpindu zioten umorea. Barne-muñe-tako, kezka, bildur, larritasunak, eta salbatuko ez ote zaneke ikara, ez zitzaizkion oñoiz erabat itzali, eta maiz estutzen zioten biotza. Aitasan-tuaganako gorrotoa, zenbat eta zarrago ainbat eta aundiagoa egin zi-tzaion. Trento'ko kontzilioa asteko asmoaren entzutea izan zuan bezain laister, jarri zan kontzilio aren aurka, eta bereala pentsatu zuan Kon-tzilioa parregarri egiteko liburu bat idaztea, baña ez zion eriotzak denborarik eman. Azkeneko urtetan, 1535'ean, idatzi zuan bere liburueta-tik garrantzitsuenetako bat; Auxe: "Galazitarrentzako epistolari buruz komentarioak edo iruzkiñak". Luter'en oldozkunak ezagutu nai ditua-narentzat nai-ta-naiezkoa.

ESMALKALDA'KO GUDA.—Ilbeltzaren 18'an il zan Martin Luter, 1546'ean. Urte ontan bertan asi zan Esmalkalda'ko guda ere. Uztaillan.

Pakezko biderik ez zala ikusi zuan ezker, gudarako indarrak ger-tutzen ari zan Karlos V'a eta zuurki ari zan gañera. Ez zion gudateari erlijio-margorik eman nai. Politika utsezko arazo bezela egin nai zuan guda, printzipe protestalariak, —sekulan Dietako agindurik bete ez zutelako—, bere agintaritzaren etsaiak bezela ikusiaz. Orrela lortu zuan Maurizio Saxonia'ko Duke protestalari indartsua, Esmalkalda'ko Alkar-tetik aterata, bere alderdira erakartzea.

"Orain joko ez bagendu, Alemani guztia eta Flandes'ko lurak fedea galtzeko arriskuan arkituko lirake, —zion Karlos V'ak bere arreba Mari'ri idatzitako eskutitz batean—. Pentsa ta pentsa ari ondorean artu det Hesse ta Saxonia'ren aurka gudan asteko asmoa, berak izan bait dira,

alkarrekin egin ditugun pakeak urratu dituztenak. Ez du noski aitzaki onek, auziaren egiazko mamia erlijioa dala luzaroan estaliko, baña baliotzkoa zaigu ala ere; etsaien indarrak bi puska egiteko egokia bait da".

Printzipe protestante edo oste'ariek ere guda-naiean zeuden, eta berak izan ziran erasoasi zutenak. Urte bete baño lenago irabazi zuan gudua Inperatoreak. 1547'an Muhlberg'eko burrukan ondaturik gelditu ziran esmalkadatarrak; Hesse'ko Felipe, protestalarien buruzagia ere, burrukaldi artan katigu erori zan.

Dana zegoan orduan Karlos V'aren eskuetan, baña ez zuan garaitza ospetsu arri ziturik ateratzen jakin, eta protestalaritza len bezain sendo gelditu zan Alemania'n. ; Protestalariak garaille irten balira...!

Gañera, orduantxe, Paul IIFarekin asarretu zan, eta ez zuan berea kulpa guztia. Aitasantuak Kontzilioa Trento'tik Bolonia'ra aldatu zuan. Trento Inperiararen barruan zegoan uria zan. Bolonia, berriz, Eliza'ren Laterrietan arkitzen zan. Ez zuan ondo artu Karlos V'ak bere borondatearen aurka egin zan aldaketa ori.

Uskeriak noski, baña Kristaudiaren bi buruen arteko asarreak on-egin zien printzipe protestalari. <Zergatik egin zuan ori Aitasantuak? Inperalariak, bere lurretan bildua egoteaz baliarik, Batzar Done artan eskua geiegi sartzen zualako. Eta ori gotzai askori, batez ere frantzitarrei, ez zitzaizen iñolaz ere atsegin.

Galdu zuan Karlos V'ak aitasantuan zuan konfiantza eta bere-kasa asi zan Alemania'ko erlijio-auziak konpontzen. Ortarako ostera Augsburg'en teo'ogilari katoliko ta lutertarren arteko billera bat antolatu zuan. Teologilari auek eratu zuten, jarduketa luzeen ondorean, bi erlijioentzako balio zezakean sinispide bat. Augsburg'eko "Interim" edo "Bitartekoa" deim zitzaion, Kontzilioa amaïm bitarterako bakarrik balio zualako. 1548'an Augsburg'en bildurik zegoan Dietak Inperioko lege egin zuan "Bitarteko" ori. Alperrik, ordea, protestalariak eta katolikoak aurka irten bait ziran.

AUGSBURG'EKO PAKEA.—Dantzam ziran ostera izkilluak katoliko ta "protestante" edo ostelarien artean. Saxonia'ko duke Maurizio izan zan, sua piztu zuana. Printzipe onek, bere lagun ostelariak saldu-ta, Inperatorearen aldean egin zuan Esmalkalda'ko guda. Inperatoreak, "Printzipe Autalari" egiñaz saritu zuan. Baña, bera ostelari izaki-ta, laister saldu zuan Inperatorea ere, Alemania'ko printzipe ostelariekin eta Frantzia'ko erregearekin alkar armrik. 1552'ko epaïllean Insbruk'en zegoan

inperatorea bera, ustegabeen katigu arrapatzea pentsatu zuan. Larri-larri ibilli zan Karlos V'a iare iges-egiteko. Iru illabete iraun zuan, orduan sortu zan gudak, baña laister egin zan egiazko pakea, 1555'ean, Augsburg'en. Orregatik "Ausburg'eko Pakea" deitzen zaio, eta pake orrek errotu zuan betirako protestalaritza Alemania'n. Ordurako Karlos V'a Yuste'ko Lekaidetxeko bakartasunera joateko asmotan zebillen, eta bere anai Fernando'k zeukan Inperioko buruzagitza.

Augsburg'eko pakean bi erlijioai ematen zitzaien askatasun osoa. Baña askatasun au printzipeentzat zan, ez erriarentzat. Erriko jendeak bere printzipearen erlijioa jarraitu bear bait zuan nai-ta-nai-ez. Ta printzipearen erlijioa artu nai ez zuanari, Laterri artatik beste batera igaro aal izateko eskubidea bakarrik ematen zitzaion. "Ius emigrandi"; "Erbes-teratzeko eskubidea"; bakoitzak bere ondasunak eramanaz, noski.

Erabaki auk esaera batean bildu zituzten: "Cujus regio, eius et religio"; "Norena errialdea, arena erlijioa ere"; ta auxe esan nai zuan: "Lurralde baten jaunak duan erlijioa izan bear dute lurralde artako jendeak ere".

Eman zitzaien printzipeei "jus reformíndi" edo bakoitzak bere laterriko elizaren "antzaberritzea egiteko eskubidea" ere. Gotzai printzipeak gelditu ziran lege ontatik kanpo. Laterri ziran eliz-barrutiko Gotzai Printziperen bat ostelari egiten ba zan, ez zuan bere jendeari erlijio berria artuarazteko eskubiderik. Ta ez ori bakarrik. Gotzaitza uzteko agintzen zitzaion. Dietako protestalariak ez zuten gotzai printzipeei buruzko erabaki au ontzat artu.

Orrela gelditu zan betirako Alemania bi zatitan erdibitua. Esku batetik laterri kotolikoak, bestetik, lutertarrak.

Erljio berrira igarotako laterrietako elizaren ontasun guztiak printzipeen eskuetara joan ziran.

Printzipeen eskuetara igaro zan, baita ordurarte Laterri aietako gozaien eskubidea ere: elizaren auziak zuzentzeko eskubidea, alegia.

Yuste'n zegoan Karlos V'a, gaitzak joa, naigabeak menderatua. Laister jakin zan Kristaudiak Inperatore zárrak, —bere ministro Franzisko Eraso aresoarra bitarteko zuala—, España'ko Jaurrerien erregetza Felipe H'ari, eta Inperiotza bere anai Fernando I'ari lagatzen zuela.

Ez zuan sekulan Karlos V'ak Augsburg'eko pakerik onartu. ;Noski ere! Inperatorearen lenengo egitekoa Eliza'ren osotasuna erejeengandik gordetzea bait zan.

M. Lekuona, oler-zale

ONAINDIA'TAR SANTI

Iñork merezi ba du, besteak beste, goratzarrerik, euskaldunon omenik M. Lekuona dugu. Irurogetaz urteak daramazki euskal lanari lotuta. Burum digunari, arlo orretan noski, begiram ezker, anitz alderditik so-egin eta gai asko aztertu ditzakegu. Baiña omen-egiteko ontan niri zeazma auxe dezute: M. Lekuona'k ederrari buruz osotu duen lana pixkat adierazi.

M. *Lekuona idazle*.—Oso ezaguna dugu Lekuona euskal literaturan. Gazteiz'ko Apaizgaitegian irakasten asi zanetik, 1916'tik, dugu idazle bizkor. Idazle ez-ezik, irakasletza bitartean orduko ainbat gazte euskaltzalem zimna ere bai. "Euskal Esnalea"-n, RIEV-en eta "Eusko-Folklore"-n idatzi zuen orduan, batez ere.

Gerra aurretiko lanak dim auek: "Kristau-Ikasbidea" gipuzkeraz, Zakarias Martinez eta Mateo Muxika'ren Gotzai-idazkien euskeralpenak, "Literamra oral euskérica", Barbier'en "Sorgiñak" antzerkia gipuzkeraz. Gerra aldian eta ostean ñork jotako dantza-doiñuan irra egin zuten Apaizgaiko irakaslerik geienak: Lekuona Kalagurri'tik ibilli zitzaigun luzaroan, ango Katedraleko artxibu-zaintza egiñik. Lumaz etzan nagi egon an zegoen tartean; kondaira gaiak azterm zimen bereziki, Kalao-rra'ko, Lasarte'ko ta Andoain'go eliz-arte-lanak eder zitzaizkiola.

"Euskerazko lanik berezienak auek dim: "Gorotzika'tik Gurutzia-ga'ra", Euskaltzaindian sarm zaneko (1951) itzaldia, "Akillomendi", "Jesusen Jaiotza edertian", "Romanikoa Gipuzkoa'n", "Orixe'ren Euskaltzaindian sartzea". "Santa Klara'ren kanta zahar bat", "Deikia ize-netan", "Deikia aditzetan", "Mondragoe sutan", "Berrospe", "Gure bertsolariak", "Gure kantak"... liburuai egindako itzaurreak, eta abar, itz lauz. Olerki-saillean bereak dim: "Gerrateko nere amabi kantak", "Jesus Aurraren Bizitza", "Belenen, Bizia Maite-irria, Tanz-lied", ta besteak.

Ona ta ederra.—Liburu Sanmak txairo edesten dute munduaren asiera. Zeru ta lur oro, Jainkoak atera zimen ezer-ezetik. Lurra billois

eta eragabe zegoen asieran; Jainkoaren ezpiritua zebillen, ala ere, illuna ta billosa mee ta goxo arnasten. Ondoren etorri ziran zeruan izarrak eta lurrean belar, zugatz, egazti, abere ta abar; itxasoa ere arrain mota askoz bete zan. Azkenez, gauza guztion errege ta jagole bezela, gizakumea egin zuen, esanik: "Egin dezagun gizona geure itxura ta idurira". Eta orrela egiña izan zan gizona.

Ondoren, ikuskatu zituen Jainkoak berak sortutako gauza guztiak, eta *on-onak* iruditu zitzaizkion.

Ona ta ederra bat-bera ziran antziñakoen asmoetan. Geroago asi ziran jakintsuak ederrari esangura berezia ematen. Barrua ta azala; sarri barrua da ona ta azala ederra: pertsona baten egitadari on deritzaiogu, ta kanpotiko itxurari eder; zer baten balioa muiñean dago, ta zer orren ditzira azalean.

Jaungoikoa, munduaren Egille gurena, ontasuna bera dugu. Ark egindako mundua, kosmos, eder-ederra. Ederki adierazo zigun au Gurutzeko Juan Deunak, onela abestu zuenean:

"Milla eder-jarioz
arin igaro zan ibar otatik,
ta begiratu soillez,
bere itxuraz bakarrik,
guztia itxi zigun eder jantzirik".

Aspaldiko jakintsuak izadia zeukaten begi aurrean; zerua, lurra ta itxasoa lege berdiñez zebiltzan aien iritziz. Eres-batasuna —armonía— aurkitzen zuten nainon. Landare, abere naiz gizasemeen munduan igiera berdiña zekusten. Mundua orobat bizidun izakia dugu; badu bere gogo, anima, Jainkoak ematen dion arnasa: Ark eusten dio izadi osoari, bere-bere duen al-izate, jakituri ta eder-senez.

Garai artako eder-zaleak laster oartu ziran ontaz. Olerkia ta musika beintzat, goitarrak dira goiargiz ta gizatiarrak teknikaz. Au gerkar eta latindarrentzat soilki danik, ez uste; gaurkoontzat ere balio dula uste du askok. Orixe'k, "Euskaldunak" idaztean, Musai deika lez, onela:

"Zatozkida, Goi-arnas,
eizu nerekin lan,
erri baten arnasa
mamitu dezadan".

Ala ere, esan dugun gauza baten ditzira, azala ederm arren, ez da azalak sortzen diguna, barrutik ixuria baizik; muiñetik at datorren indar, kemen ta ezpirima, ori dugu gizona, Izadia bezela, edertu ta apaintzen duena. Gizasemea izadi osoaren bilduma legez da; izadia, berriz, —"Jainkoaren oroitarrria"— kosmostar gizakume baten antzekoa dala esan oi da. Ikusten dana ez bait-da egiazko gizona, barnez zuzen-azten duen zer ezkututsu ori baizik. Ilkor ez dan animea dugu noski benetako gizona darabillena. Ederrak, zer esan nai ote du? —Indarra, kemena, osotasuna.

Estoarrak etzuten ederra ta ona errez bereizten. Ala ere, ona beti da eder, zatien utsunea antolamz egokitasuna —armonía— osotzen baldin badu. Plutarko'k onela: "Ona naigarri da; naigarria maitagarri duzu; maitagarri dana goragarri; goragarria eder da beti".

Oler-zale.—Jainkoak kosmos osoan erein zuen ederraz jabetzea etzaigu ain zailla, zentzunetatik —begi-belarrietatik batez ere— sartzen zaiguna da-ta. Ala ere, nor bakoitzak geure barne-osiñean nabaitzen duguna adieraztea etzaigu aren erreza. Zenbair alditan, aatik, ederra bete-betean bolbolka lez geure izate barruan oarm ta somatu arren, ez gara sentipen eta barru-zauskada oiek itzez aitzen emateko gai. Poetak emen, ondo dakusgunez, oler-sena bear du, argia ta bultzada ta, orrez gaiñ, teknika, bakoitzak bere izkuntzan barne zirrara oiei adierazpena ezartzeko trebetasuna.

Gaitasun ori aspalditik zekarren M. Lekuona'k. Umetatik zuen, bai, izadiko ederra sumatzeko sena, euskaldun sena noski; baita barne-muiñean nabaitzen zimen eder-susmo, ikutze ta zarrastak adieraztekoa ere. Ortarako bear dan teknika ta buru-lantzeak ikasle zanetik beregandu zimen noski, eder- ta olerzale porrokan agermrik. Orrela daukagu beintzat ogetalau urtedun zanetik, teknika orren jabe jakintsu.

Gazteiz'ko Apaizgaitegian maixu zala, euskera ta literamra azaltzen zituen baitik bat. 1918-1919'garren urteko ikastaroari asiera ematea zan. Lekuona'k egin zuen olakoetan euki oi dan itzaldia, Gotzai, irakas-kide ta ikasleen aurrean. Aurreko urtean, 1917-11-15'an ain zuzen, Ikas-tetxean euki zuten omen-jai batean Gotzaia euskaltzale agerm zalata, euskal auzi bat arm zuen gaitzat: "La Métrica vasca". Lan eder eta zentzunez egiña.

Ederra dute elburu erti bikaiñak, eta sail aundi bitan banatzen dira: atsenlanak (plastikak) eta igilanak (mogimentukoak). Lenengoak, toki

edo uts-unean mamitzen dute ederra, ots, etxagintzak, taillugintzak eta margogintzak. Olde edo igi-ertiak, ordea, urrenez urren edo bein banan adierazten digu ederra; au da, aldia deritzaiogun miesa ibilkor edo dabilen batean: orrela dagie dantzak, musikak eta olerkiak. Iru gaiok, aspaldiko mendetan, etziran iñoiz alkarregandik bereizi ta aldentzen.

Esan dugu: Jainkoak ipiña da izadian dakusgun taiua; au da, gauza bakoitzak dagokior lekua artzen du, ez geiago ez gutxiago. Guk ere geure soñean eskuak esku dira, burua buru, oiñak, sabela, begi, belarri... Mundua bertoko gauza guztietan berdintsu da; zer bakoitza bere lekuan dago, eta gauza asko izanik ere, bat egiten dute beren eragin eta arazoan. Askotasunetik batasuna sortzen; oni deritzaiogu ain zuzen ere, taiu (ordo), erti-lanetan daukaguna. Atsen edo egon-lanetan, plastikulanetan —margo-laukian, esaterako— neurri, giño naiz eine deritzaiogu oni, baita armonia ere; mogimentu-lanetan, ordea, igiera, ritmua.

Zer duzu, beraz, igiera? Ondo ibilteko bidea; *ars bene movendi*, Hipona'ko arranoak esan zigunez. Zirkin guztiak, bada, naiz dantzan, naiz musikan, naiz olerkian, beude egoki jarrita, bakoitza bakoitzari dagokion lekuan, ez arago ez onago, ez gorago ez beerago. Au bai gero: beude alkarren artean ondo lotuta, igi-zati guztiak olako batasun batera ekarri ta mugaz mendtraturik. Ori diosku M. Lekuona'k, bere barneko oler-zaletasuna erakutsiz.

Zirkin, mogimenm, ots ta doiñu-sail oiei, zerk eman oi dizkie ala ere batasun dartada? Zer duzu, orraitio, berez kemenik ez duten kizi ta gaiok bizia ta batasuna dakarkien arnas ezkum, bereizi ori? Eraskin bat da, zer-izate bati gaiñ jarten zaiona: zirkiñak alkarrekin duten ar-eman bizia, besterik ez duzu. Zuk ibilli zabiltzala oin bata beian jarten duzu ta bestea jaso; jarri ta jaso, batak bestea osatzen du, ta biak, alkarren artean, oinkada —pausua— deritzan igiera, ritmua dagite.

ARGIÑE.—Ea erriko lapur-koxkorren bat izan dan. Gutxi fia...

ANTXON.—Joxe Arrapatu ori izatekotan, baiñan ez da leioraiño igo-
tzeko gauza.

TXANO.—Iskallera bat ekarrita, agian.

ANTXON.—Urrutikiegi dago erria... beraz, ikusterreza emengo aldetik
ibilli ba-da.

ARGIÑE.—Xorgiñen batek, leikena da.

TXANO.—Egon... ta zer iduritzen zaizue kakalardoren batek xomorro
bilketan?

ANTXON.—Iduritzen zaian, lerdoarena egiten ari gerala. Onuzkeroz,
erraztuna or ez dagonez, ta egunak izango dizkiñagula ortaz pen-
satzeko. Orain amonarengana joan bearren gaitun, ta amonatxo-
aren etxetxoa or baso orren atzekaldean, oso urruti zegon. Izketan
gelditzen ba-gera gabak arrapatuko gaitu bide erdian.

TXANO.—Eta otsoa aterako...

ARGIÑE.—Eta ortz eta letagiñ zorrotzak erakutsiko.

ANTXON.—Eta bere atzaparretan jausiko... Abitu gaitean, ba.

NESKATILLAK.—Goazen, zuzen-zuzen. Baiñan, begira or mendizaleen
gidaria.

ANTXON.—Gure Emeterio Arrese'k ain ongi abestutako txantxangorria.

TXANO.—Sarri kantatzen digun txantxangorria. Begira, or zeok geldi-
rik guri begira. Zein garai egokiagoa berari kantatzeko orain baiño?

ARGIÑE.—Ea kanta egiok, guztion izenean, abestia maite dek-eta. Izan adi, oraiñ, i ere txantxan.

ANTXON.—(Abestuko du:)

"Zure kolore ber-bera duten
osto bakanak lurrean
arboletatik erori-eta
soil dauden garai berean;
begiak zabal-zabal jarririk
antxen bide bazterrian
egoten zera txori gaixua
egoten zera txori gaixua
negarrez udazkenean".

"Ega motxian furrust
noiz-nai gure aurrera
azaldurik mendiyen
gora goazela
gidari bat izan nai
ba-zendu bezela
beti alboan zabiltz
txori maite ergela".

TxANTXAN.—Eskarrikasko umetxoak. Ez zaidazutela arrikadarik eman eta zuekin ibilliko nazute. Jaungoikoa'k egin duan txoririk polli-tenak zuek zerate... baiñan onak zeratenean. Beraz, au esanik, zuen aurretik joan ninteke.

ANTXON.—Nai dezun arte. Zure kabitxotik naikoa urrundua izango zeran arte, zuk alaituko gaituzu. Gu urrutira bai goaz.

TXANTXAN.—(Txantxan egiñaz). Ni gidari, aurrera ba.

TxANO.—Tristerik goaz eta zuk alaituko gaituzu. Amonari, bere egunez eman bear genion errazmna, bart lapurm digute. Eta lapurra basapiztiren bat izan ote diteken pensatzen goaz. Argi apur bat eman-go ligukenik, basoan bai ote dago?

TXANTXAN.—Emen, basoan, askarrenetakoa axaria dezu. Sarri egiten diot iges bide orretan... Ara, ortxe dator.

ANTXON.—Eup, axari jauna!

AXARI.—Esan, gazte.

ANTXON.—Amonarentzat genuan errazmn bat lapurtu digute bart. Dcusi edo ikasi al dezu zuk zerbait onetaz?

AXARI.—(Zaunka baten ondoren). Eta nun zenuten gorderik?

TXANO.—Leioko lorontzi batean, lur artean. Goizean dana aztarrikatuta zegoan.

AXARI.—(Arroxko) Ez dago zalantzik. Zeatzki esanda, mika izandu da,

TXANO.—(Antxon'i) Anai, zein pizti da mika edo dalako ori?

ANTXON.—Pitxiak lapurm eta gordetzeko griña txar bat duan egazti beltz-beltz bat.

AXARI.—(Arroxkogo) Ez ba-nenkin bezela! Alaxen da, bere konzienzia baiñan beltzagoa dan lapur aundi bat. Urruti gabe arkituko dezute. (Bijoa) bere gixara esanaz:) Tontozarrok, panpantxo biziko nauk zuen bizkarretik. Agur!

ARGIÑE.—Eman diguzun argiagatik, eskarrikasko.

DANAK.—Agur axari, anitz esker.

TXANTXAN.—Eman inguruan bizi da mika. (Abesten, txistuka asten da.) Etorriko da.

MIKA.—(Azalduaz) Kra! Kra! Kra! Zer darabiltzu txantxangorri jaunna? Beste egaztien laguna ere ba-zera zu, eta esan zer bean dezun.

TXANTXAN.—Zuk lapurtu omen diozu auei errazmn bat. Kabian omen daukazu.

MiKA.—Tira, tira tentelkeririk esan gabe. Nik lapurm? Nik kabian gorde? Egaztia naiz eta mika, ara zuen ordagoari errepika: Ortxen da nere kabia, begira zazute. (Zugaitzaraiño guztiak urduri joanik.)

GUZTIAK.—(Begira ondoren) Egi-egia, emen ez dago pitxirik.

ANTXON.—Egazti beltz-beltz bat omen zan-ta...

MIKA.—Nork esan dízue orrelakorik?

TXANO.—Axariak.

MIKA.—Zerri orrek begitan armta nauka. (Bere gixara izketan) Emen egiaren aztarrenik esatea ez zait iñolaz ere komeni. Baiñan, adi zaidazute, egazti beltzaren bat baldin ba-da iñun, or dezute zozoa buru ta ipurdi beltz.

ARGIÑE.—Ara! ta leikena da. Orren kanta karkarra ez zait batere atsegiña.

ANTXON.—Goazen berarengana. Ba-goaz, mika andrea.

MIKA.—(Berekixa) Pake ederra emango dezute. Ez nago oso asarre ori bururam zaitenean. (Ezkutatzen da, ta zozoa azaldu).

ANTXON.—Adizu, zozo jauna, bart ikusi omen zaitue gure leioan erraztun arrapaketan.

ZozoA.—Errazmna? Zertarako? Bein Alemani'ko jakintsu batzuek anka batean ipiñi zidaten, ta ez zidaten nik bezin laister kendu emen Euskalerra'n. Nik errazmnik ez, txitxariak jaten dimt eta zenbat eta gizenago izan ainbat pozago. Eta, gaiñera, nork esan dizute gezur ori?

TXANO.—Txori beltz-beltz bat zala esan digu axariak... (Axaria azaldu eta ezkututzen da, entzuten egonda gero) Bera bai lapur ederra. Gaiztoz lapurtuko luke baita-baita pakea ere. Ikusi nai al dezute nere kabia? Nik bai, zakur antzeko pizti bat ikusi nuan gabaz gauz dizdiratsu batekin zijoala.

ARGIÑE.—Ez, ez zozo mikote orrek, ez. Guztia sinisten dizugu, eta barkam. (Bijoa, zozoa).

AXARIA.—(Azaldurik) Emen nazute berriro. Mika'k ez al zeukan errazmni ori?

DANAK.—Ez, ez zeukan. Zakur antzeko piztiren bat ibilli omen da gabaz diz-diz egiten zuan zerbaitekin, ala dio zozoak.

AXARIA.—Umetxoak, zakurraren antzekoa baldin ba-zan, garbi dago otsoa dala.

TXANO.—Nola baiñan otsoak? Nola? Egin ote dezake orrenbesteko saltoa?

AXARIA.—Aixa, ta goserik dagoanean baita ormari elduta igo ere. Gaiñera, Zeiñek daki erraztuna arturik, zuen itxuretan amona jatera joan ez ote dan? Kontuz berarekin. Nolanai ere arretaz ibilli, begi zabal. (Alde batetik ezkututzen dira, axaria izan ezik. Bakarrik dagoanean, onek beste aldetik joan ta zaunka dagi.) Guau, guau, guau! (Urrutitik otsoaren zaunka indartsuegia dator.) Nijoan txiki oiei esatera, ba-datorrela.

OTSOKILLO.—(Azaldurik) Axariaren zaunka zan. Orain ere engañam ote nau petral orrek? (Berriro aurrak txantxangorriarekin azalduz).

TXANTXAN.—Axariak otsegin, ta gu gatozkizu. Auek zurekin itzezin nai omen dute.

OTSO.—Uuuuu! Zer iakin nai dezute mukizuok?

ARGIÑE.—Egia al da zuk amonak jaten dituzula?

OTSO.—Nork esan du gezur ori? Zanpamko det...

TXANO.—Eta ortarako amonarentzat genuan errazmna lapurtu omen diguzu.

Orso.—Ea, ea, ixillik onelako berriketekin. Uuuu! Esaidazute bereala egia, triskantzaren bat egin ez dezan, emen, bertatik...

ANTXON.—Axariak ikusi omen zaitu bart gauz dizdiratsu batekin.

OTSO.—Arkumetxo baten begiak ez baldin ba-ziran... Erraztunak ez bai-nau gizentzen. Gozoa zegoan, bai. (Ezpañak mingañaz igurtziaz) Baiñan urrengoz axari gezurtiaren aragiaz bazkalduko det.

TXANO.—Amonaz, ez orduan?

OTSO.—Uuuu! Aspertu naiz itz oietaz. Arrapatzen detanian, axari orrekin nik egingo justizia, nik egingo argi... aauum! jango det.

TXANTXAN.—Oso jauna, arren, ez zazula iñor jan. Basoko pizti guztien izen ona balantzan dagoanez, ez al derizkiotzu baso-erregeari deitzea, epaiketa egin dezan?

OTSO.—Konforme. Deitu zaiozute askar Leoneder'i, batzarra bildu dezala, bada bitartean axari ori arrapatzen ba-det... uuuaauuu!

TxANTXAN.—Neronek emango dizut abixua. Ordurarte, zoaz pakean otsokillo jauna. Agur.

OTSO.—Agur! Uuuuuu! Agur! Uuum!

TXANTXAN.—Nere ustez, eman nezaizukean laguntzarik onena, orixe zala.

ANTXON.—Egia da ori.

TxANTXAN.—Eta orain, alde batetik bide luze bat dezutelako aurretik, eta nere umetxoak goseturik egongo diralako, nere kabitxoraiño itzuli bearrean nazute.

ANTXON.—Onuzkeroz zu gabe ere egin genezake gelditzen zaigun bide luzea. Eskarrikasko.

ARGIÑE.—Otsegingo al diguzu batzar orretara? Ainbeste pizti Leoneder'ekin bildurik ikustea gauz ederra izango da.

TxANTXAN.—Zuzentza edo justizia egiten ba-da, bai. Agur, otsegingo dizutet garaiz, erregearekin itzeginda geroz. (Bijoa. Ezkutatzerako dijoanean, iru aurrak pañueloak eskuetan agur bero bat egiten diote).

AURRAK.—Agur, agur, agur...!

ANTXON.—(Ezkutatuta gero) Goazen. Ez dezaigun ezer esan amonari. Batzar orretan azaltzen ba-da erraztuna, orduan... aren poza!

ARGIÑE.—Eta gurea. Goazen abesten, "Goazen mendirik-mendi...". (Ezkutatuta, ta abestia urrutian galtzen dijoan neurrian, oiala polliki-polliki jetxiko).

OIALA.

IRUGARREN EKITALDIA

(Antzoki ber-beran, edo zerbait aldatuan, pizti guztiak bildurik daude. LEONEDER, erregea, erdian aulki batean exeririk. Eta gaiñontzeko abereak bere inguruan. Lenengo maillan, ikusleen aldera, iru aurrak).

LEONEDER.—(Izketari ekin aurretik iru bider egiten du marru, eta iru aldietan guztiak dardar). Jaun-andreak, entzun ongi. Erregetza ontara lapurreta baten salakuntza eldu da, gaizki egiña. Baiñan bada emen lapurreta bera baiñan gaizkigo dagoan gauza bat...

DANAK.—(Zurrunmuru batean). Uuuuuu...!

LEONEDER.—Bai, eta gaizkigo dagoan ori, bai-al-dakizute zer dan? (Ixiltasuna) Besteren izen ona zikinduaz, lapurreta egitea, beste iñori, zer-ikustekorik ez duan bati errua botatzea... Zer derizkiotzue? Zer egin bear zaie olakoei?

DANAK.—Gaizkille bat da. Eman zigorra.

LEONEDER.—Ederki, txit ederki. Epaiketa astera dijoa. Oraindik astirik ba-du gaizkilleak, zigorra bostetik bat gutxitzea bere burua emen, erriaren aurrean, damaturik bere burua pekatari aitortzen ba-du. Pauso bat aurrera eman dezala, eta emengo izketaldia eta dijoakion zigorra laburtu ditzazke. Ea, aurrera, nor-nor dala. (Ixiltasuna, eta geldialdia). Iñor ez da pekatari aitortzen, iñor ez da mugitzen, beraz, epaiketa astera dijoa. (Ixiltasun nagusia) Otsoak egin du salakuntza. Mintza dedilla. Zer dezu esan bearreko, otsokillo?

OTSO.—Neska-mutiko auei urrezko erraztuna lapurtu omen diote, ta...

LEONEDER.—(Irukoteari) Egia al da ori?

IRURAK.—Bai, jauna.

LEONEDER.—Nor izan diteken, bai al dakizute?

IRURAK.—Ez dakigu ez, errege jauna, baso guztian ibilliagatik.

LEONEDER.—Otsoa dala aditu al dezute?

IRURAK.—Bai, aditu degu, baiñan ezin dezakegu egiztatu.

LEONEDER.—Nork deritzaizu zure izen ona zikindu duala?

OTSO.—Axariak, ain zuzen. Irukote onek ere ba-daki.

LEONEDER.—Mintza bitez ba, irurak.

IRURAK.—Zakur antzeko bat omen zan, ta noski otsoa zala esan zigun axariak. Or dagon zozoak antzeko zerbait esan digu.

ZOZOAK.—Bai jauna.

LEONEDER.—Beraz, otsokillo, ba-dirudi zu zerala lapurra. Eta kontrako arrazoirik ematen ez ba-diguzu zigortua izango zera. Ukatuko al dezu, salakuntzak dion bezela, gauza dirdaitsu batekin igaro ziñala gabaz.

OTSO.—Ori egia da. Ortan pekatua aitortuko det. Arkumetxo bat lapurtu nuan Ernio mendian. Umeak goserik neuzkan. Griña baldin ba-det arkumetarako orregatik da. Baiñan ez naiz erraztuna jateko zalea.

LEONEDER.—Arrazoi aundi bat da. Pekatu ori barkatzen zaizu, gauzik gaiztoena iñori ez duan errua botatzea bai-da. Beraz, onekin, aski degu axaria zigortzeko, bere burua zuritzen ez ba-du. Beraz, bizia edo egia. Zergatik zabaldu zenuan otsoaren izena?

AXARIA.—(Zerbait beldurtzen asia). Zozo mikoteak esan zidanez, zakur itxurako pizti beltz-beltz omen zan.

LEONEDER.—(Zozoari) Egia al da ori?

ZOZOA.—Egia da, nik esan nion. Axariak esan bai-zien irukoteari otsoa izan zitekeala. Nik erraztunak gorrotatu eta xixariak maite ditut geien-geien, gizen-gizen daudenean.

LEONEDER.—Zerbait gordetzen dezu ezkutuan. Iduritzen zait erraztun jalea ez zerala. Baiñan zer dala-ta besteren izena aotan ipiñi?

ZOZOA.—Irukote au nere kabira etorri bai-zan ea erraztuna gorderik neukan ikustera.

LEONEDER.—(Aurtxoei) Nork esanda?

ZOZOA.—Mikak lenago, gero axariak. Mikak gauza beltz bat zala an ibilli zana, eta onek, otsoa izango zala. Ongi daki au irukote onek.

LEONEDER.—(Irukoteari) Egia al da?

IRURAK.—Alaxen da.

LEONEDER.—Zu axari jauna, ez dakigu zein arrazoiarekin, baiñan bazter guztietan azaltzen zera egia r.aspillatzen. Arrazoiaren bat ba-dezu jokabide ortarako.

OTSO.—Besteren isatsekin kendu nai ditu orrek bere etxeko euliak.

LEONEDER.—(Asarre) Ixo, zu ixo otsokillo jauna, galdetzen zaizun arteraiño.

Orso.—Uuuuuu...

LEONEDER.—Jaun-andreak, entzuleak: bi oien artean egin bearra izango det Salomon'en justizia. Biak il.

MIKA.—Egia.

LEONEDER.—Axari, nor da zuen biotan lapurra? Izan zaiozu beldur nere justiziari.

AXARI.—(Gero ta beldurrago) Ori, ori da, mika.

MIKA.—Gezurra! Bera da.

AXARIA.—Ni ezin ninteke leioraiño igo.

MIKA.—Nai duanean gorago ere igotzen da nazkagarri ori.

AXARIA. Gezurra!

MIKA.—Gaiñera zozoak esan dezala, egazia ala lau-ankekoa zan gabaz ikusi zuana, illargiaren argira diz-diz egiten zun pitxi batekin.

ZOZOA.—Nik ikusi nuan, baita mikak ere.

Orso.—Egin triskantza orrekin!

LEONEDER.—Ixo guztiak. Ni naiz emen errege ta agintzen detana. Len esan detana: argirik ez ba-dator biak zigortu ta kito.

ANTXON.—Errege jauna, zure baimenarekin. Argia bear degu, ongi esan dezun bezela. Norbait azkarra bearko degu katramil au argitzeko. Ba-dira basoetan pizti argiak. Eta Otaño bertsolariak bere bertso batean dionez, Txepetxa da azkarrenetakoa, eta Otaño'k asko maite zituan basotiarrak...

LEONEDER.—Ea, ikus dezagun gizaki orrek nclaz ikusten ginduzen. Abestu:

ANTXON.— "Askotan esan izan dute
gizon ikastun argiak
nola piztiak izan ditezken
gure erakuslariak;
erlia bat da aipatzen dana,
o zer lan arrigarriak
jartzen dituzten gure aurrian
onek eta txingurriak!
Txepetxak berriz erakusten du
ainbeste nola aik biak".

LEONEDER.—Orduan, mintza dedilla Txepetxa.

TXEPETXA.—Gauz dirdaitsu batekin basoa igarotzen axaria ikusi zuten. Egiztatu nezake.

AXARIA.—(Beldutrez) Ba... ba... baiñan...

LEONEDER.—Ixo! Jarrai zuk, Txepetxa.

TXEPETXA.—Otaño'k beste bertso batean ain ongi esan zuanez, nere etxeak bi zulo ditu, bat sartzeko eta bestetik, komeni danean, ateratzeko. Ba, gau ortan zaintzen negoala, axaria azaldu zan etxetarako daukaten zugaitzera. Baiñan nere kabia utzi ta gorago jo zuan-Goi-goien mikak zeukan kabiraiño igo, ta gauz dirdaitsu batekin jetxi zan...

AXARIA.—Alaxen zan! (Lasaitzen asita) Baiñan errege jaunak ba-daki ongi lapur bati lapurtzen dionak erruki guztiak merezi dituala...

MIKA.—Erru guztiak bereak. Berak zikindu arazi nau arazo ontan.

AXARIA.—Ezin du bere burua zuritu. Ni bai, ni "iñuxentea" naiz.

LEONEDER.—Mintza, Mika. Ea, nola izan zan.

MiKA.—Berak entzun zion irukote oni zer ta nun zeukaten gordea. Lapurreta ori egin nezan, berak burua berota zidan Gero, ongi ikusi dezutenez, ostera berak neri lapurtzeko.

OTSO.—Ta ortik bere aitzakiak, guztiok xaltxa batean naspillatzeko.

AXARIA.—Ez, ez, ez... eta ez!

LEONEDER.—Bai, bai eta bai. Eta betor nere epaiketa. Lapurreta bera baiñan txarragoa da maltzurkeria, batez ere maltzurkeri onekin besteren izen ona eta sarri bizia ber-bera ere arrixkuan jartzen ba-da. Pekatu gabekoak ez gera iñor, baiñan aitortzeko leialtasunak barka arazten ditu utsegiteak. Beraz, orain dijoa nere azken itza...

DANAK.—Gora gure erregea!

AXARIA.—Barka... barka... ka... tu!

LEONEDER.—(Erriari) Zuek ez zaitezela maltzurak izan. Gorde zuen bizitza etsaien maltzurkeriengandik. Leialak izan, ez maltzurak...

DANAK.—Ongi!

LEONEDER.—I, nere errizai Katamotzki, ator onaiño.

KATAMOTZKI.—Agindu, Errege jauna.

LEONEDER.—Mika'ren iñoxokeria barkaturik gelditzen dek.

DANAK.—(Txaloka) Gora!

LEONEDER.—Eta axarixko au eraman zak, eta emaiozue maltzuraren-tzat ipiñia daukaten zigorketa.

AXARI.—Ez... ez... ez... na... za... zu... te... la... ii. Ez...

(Guzti-guztiak ixillik gelditzen dira nola daramaten begira, eta jarrrera ontan daudela OIALA *jeixten da*).

FlierOen keiltZea. (1976- *Zabalajaunaklan-egmarenurtea*).

ZABALA'TAR FEDERICO

Gutziz ongi dakigunez, aurten betetzen da eungarren urtea azken fueroak kendu zizkigutenetik. Aldatze-bide luze baten emaitza dugu, XVIII-garren gizaldian asi eta Nazio-Laterri jakobino-liberalismoarekin uxola bizian datorrena.

Guretzat, euskaldunontzat alegia, ain gai ituna izanik ere, On Manuel Lekuona'ri eskeintzen diot nere lantxo au. Sarri dut oroitzean, gure kondairatzaz sarri idazten dutalako, On Manuel'ek eman zigun itzalditxo bat, eta ain zuzen kondaira-bideaz. Bere erakutsiekin bide orretik barna zuzen ta urrats sendoaz ibilli izandu nazute, naiz-eta gure kondairak bide biurriak izan.

Lom zazute nere esker-ona, beatz-punttetan irakaslearengana bertarutzen zaion ikasle urrutiram eta apal onekin.

* * *

Fueroak kentzea, edo euskaldunagoki esanda Lege Zarrak gabe uztea, nik uste dut ba-duala alako garrantzi aundi bat, euskal arazo guztiek gaintzen dimana. Beronen eragiña nabarmenki agertzen zaigu gero go etorriko zan euskal "izate" edo arimaren sorkeran. Direla egun gutxi entzuten nion nere adiskide dan Zelaya jaunari, fueroak alegia, fueroak mamitzen duten politika erabidea, euskal erriaren berezitasun adierazkorrenetakoa dela, ea izkuntza ainbatekoa. Izan ere, fueroak edo Lege Zarrak izan bai-dira euskal-kondairan gure erriaren "izanki" orren zati bat, fueroak izan direlako, ain ziur, bere jardunbidea, oimra, izakera, eguneroko bizitza.

Igarotako XIX garren gizaldiaren ondorioz datorkigu, gure erriak oñazez dakarren gaitza: bi gudaketa galdu izatea!

Lenengo karlista gudaketan, liberalak ongi jabem ziren pakea fuerotatik barna zetorrela. Onela, 1835-garrenean, gipuzkoar liberal batek, Villafuertes Kondeak, idazten zuan:

"Bidalirik ere Jeneral eta Buruzagi geiago, eta España barruan bildutako gudari-saillak ugaritzen ba-ditugu ere, ez dugu lortuko gure naia (pakea), beste bide batzuek, arimarenak esan ditezke, erabiltzen ez ba-ditugu..." (1).

Villafuertes berak, urtebete geroxeago, idazten zuan:

"...aalegiñ guztiaz lan egin dezagun iraun dezaten beren jardun-bideak eta oiturak, auek ongi egin dutelako (Euskalerrria) guztiz zoriontsu..." (2).

Fueroen aldeko jokabide onetan azaltzen dira Espartero'ren Deia, Ernani 1937-gnean, "Pakea eta Fueroak" izenekin Muñagorri'ren mugimendua, Bayona'ko Liberal Batzordeak Muñagorri'ren alde. Iritzi berdiñekoak ziren atzerrietako Frantzia eta Ingalterra nazioak, liberalen gobernuetan agintari egondako Bardaji Azara, Ofalia, Frías, Pérez de Castro-Arrázola, Miraflores, eta Paris'en España'ren ordezkaria zena:

"...milla aldetatik bultzatzen ninduten ain irrikaz begiratzen zen pakearen alde lan egin nezan, konponketa baten bidez, oiñarri bezela arturik (beti eta denak lenengoz eta bear-bearrez egin bearreko gauza) fueroen bizitza eta iraunpena".

Bear-bearrezkoa ikusten zen pakea irabazi aal izateko karlatar gualburu ospatsuren baten gogoia irabaztea, On Karlos'engandik alden-durik "Pakea eta Fueroak" ikurra altxa zezan: Ontan alegindu ziren Muñagorri eta Bayona'ko Liberal Batzordea, izketaldi luzeak izanik karlatarren Teniente-Jeneral izan zen On Bruno de Villarreal'ekin. Ta azkenean ere lortu egin zuten, Iparraldeko'ko Karlista Gudaroztea'ren Buruzagi-Nagusia eta bizkaitar, gaztelar, eta gipuzkoar guda-taldeetako buruzagiek ontzat eman zutenean pakea ori, baiñan Fueroak zutik irau-tea aitortzen zutelarik iritxiaz Bergara'ko Konponketa'ra, beronen lenen-go atalean onela ziolarik:

"On Baldomero Espartero Kapitan-Jeneral'ak gogo onez eskatuko dio Jaurларitza'ri berak eskeiñitakoa betetzeko, gizonki itz-emanik alegia, Cortes edo Batzarrari eskatzea Fueroak berrematea edo aldatzea".

1839'gko. Urrilla'ren 25'gneko. Legea, Bergara'ko Konponketa'

(1) 1385'gko. Uztailla'ren eskutitza. Zabala'tairen jaiotetxeko artxiboan Tolosa.

(2) 1836'gko. Garagarrilla'ren lgo. eskutitza. Zabala'tarren jaiotetxeko artxiboan Tolosa.

ren lenengo atalaren ondorio bat da. Lege orren lenengo atalaren asierako itzak, "Euskal Probintzi eta Naparroa'ko fueroak ontzat artzen dire, eta 1839'gko. Azilla'ren 16'gko. Errege-Gutmnak fueroen bizitza eta erabidea berrimaz, pozez bete zituan euskaldunak. Onelaxe, urte berean, Deba'ko Batzar Nagusiak bere 17-garren billeraren adieraz-idazkiak, Fueroak ontzat eman dituztelako batzarkidcen alaitasuna eta barru-poza adierazten digu. Zalantzarik gabe, aipaturiko lege-atal orren bigarren esan-naiaz ez ziren jabem: "...Erregetzaren batasun-legearen kalterako ez denean". (Sin perjuicio de la unidad constimcional de la Monarquía).

Aipatutako idatz-atal ori ipiñirik dagoan eran, gertatzen da, ontzat emandako fueroak ezereztuak gelditzen direla, Erregetza'ren batasun-legearen mendeko gelditzen delako fueroen baiezte.

Naikoa izaki, Cortes edo Batzarrean fueroek eztabaida-gai jartze utsak, naiz bertan baiezmrik geldimta ere, fueroen izakera zuztarretik aldatzeko, illik gelditzeko.

Ordurarte, Cortes oiek ez bai-zuten iñoiz fueroak onarm, Erregea edo Jauna bera bai-zan zin egiten zuana bere bizitzaren alde, ta bearrezkoa bai-zen zin ori egin zezan Naparro, Gipuzko eta Araba'ko errege, obekiago Jauna bezela aitortua izateko. Itz batean, euskaldunak egiten zuten Erregea edo Jauna, eta ez erregeak euskaldunak.

1837-garrenean, dagoneko, Cortes edo Batzarrak ontzat eman zutenean urte bereko Irailla'ren 16-garreneko legea, eta bertatik kentzen direlarik Batzar Nagusiak (euskeldunona) eta Foru-Diputazioak, Bizkai'ko Diputazioak liberalez osama, lege onen aurka agerm zuan bere asarrea, beren iritziz ez Cortes oiek, ez-eta iñolako Laterri indarririk eskubiderik ez zutelako Bizkai'ko Erakunde edo instituzio oiñarrizkorik apurtzeko ez aldatzeko, baldin-eta Bizkai'ko Batzar Nagusia bereziki deimak, baiezkorik ematen ez zuan bitartean.

"Erregetzaren batasun-legearen kalterako ez denean" itzok, zer esan nai dute?

Arrazola ministroarentzat, batasun-lege ori ontan datza: errege berdiñ bat, lege-aginte berdiñ bat eta nazio-izate berdiñ bat.

Espartero, anitez urrutiago dijoakigu. Berarentzat, batasun-legea da erriak eta probintziak lege berdiñak izatea, onela kentzen direlarik errien fuero erabideak, baita gure Batzar Nagusiak eta Foru-Diputazioak; Zuzentza edo Justizia'ren erabiltzea zabaldu dedilla berdiñ Late-

rria'ren eskualde guztietan, onela foru-bidez edo indarrez zeuden Epai-Etxeak eta Epai-Batzarrak kendurik; muga-zergak fuero-errietatik eraman ditzatela Laterri mugara; eta batez ere, legeak ez dezatela izan foru-atal-berezirik, onela foru eskubide edo erabiltze ori xaututa geldi dedin, auek guztiak ongi ez datozelako lege-batasun orrekin, gauza guztien gaiñetik bizitu bear bai-du, "1839'gko. Urrilla'ren 25'gko. legeak agintzen duanez".

Espartero'ren eskuetan bizirik gelditu ziran soldaduzka eta zerga-erabideak; baiñan, urte batzueñ gerogoz, Cánovas del Castillo'ri bururatzan zaio bi fuero zatitxo auek ere "Erregetza'ren batasun-legearen" oiñarriaren kaltetarako direla, eta ara, 1837-garrenean konstituzioaren 6-garren atalean, zer agintzen den:

"Legeak otsegiten dionean españar guztiak bearturik gelditzen dire aberria zaintzea beren izkilluekin, ta baita ere Laterria'ri dituan gastuetan laguntzea bere ondasunek dagokion neurrian".

Eta au dela-ta, 1876'gko. Uztailla'ren 21-gnean. Cortes edo Batzarran aintzakotzat ematen den legean, azkeneko bi fuero-zatitxo auek ere galduak gelditzen dire.

Era ontan, lenengo itzez fueroak zaintzen diren lege batez, 37 urte gerogoz, ain zuzen aldeze dirudian lege orretan oiñarriturik, gure fueroak edo eskubideak baztertuta gelditzen dire, ikusi dugunez.

Izugarrikeri onen aurrean esan dezakegun gutxiena, auxe da: zentzuzko jokabidea ote da?

Basetxe zarra

ZUBIRI'TAR I.

Idazt aurr e

Lekuona Jaunaren goratzarrentzat idazlanaren bat bialtzen eskaru dauste.

Es dot mail gorenetakoa euskaltzale ta Jaun agurgarri au begiz ezagutzen, bai ordea berak idatzitako zenbait lanen bidez, eta bene-benetan oraingo abagunean zeozer idazteak atsegiñez betetzen nau.

Izan be, berak merezi dauan maillan zerbait idaztea ez da gai erraza, baiña bioakio nere gauzatxu utsal au, ta lantxu oneri gailentasunean uts egiten yakona, berarekiko daukadazan itzal eta ongi-naiak ordain bezaiote.

Uin urdiñezko itxaso amaibako antzera *ego* alderantz zabalduten dan Araba'ko ordoki-gaiñean, Iraibar basetxe jatorra darza. Atzean, basetxe zar onen amers paketsuak babesm naiean lez, Anboto ta Arangio atxen gaillur sendoak jagiten dira. Beko ibar-zelaietan eunurteen igarotze latzari aurre egiñaz, eusko abizen kabia dan basetxe zar orrek zumnik dirau. Bai dala zarra Iraibar basetxea! Gaur ordea, bere egunak mugaturik dagoz, aldiaren ukitze zorrotzak antziñako sendotasuna ondama dautsolako. Iraibar'ko azken gizaldia malkoak ixuri exiñik, egizko naigabe samiñak negar-jarioaren atsedena ezagumten ez daualako, basetxe maitea itziteko zorian dago. Ainbeste poza ta leien lekuko izan diran orma lodiak makaldu dira; urreek zigormtako areitezko abe sendoak indargem, ta teillam zabala, gorrizka, agure baren buru antzera lurre-rantz makurm da. Iraibar basetxe zarra...! Biar azkenengo eguna izango yatzu. Dana germrik dago zu bakarrik irzireko, ta zure leiñuko azkenek biorza urramrik alde egingo dabe, orain arre izandako amets eta itxaropenaren kabia betiko itziaz.

Basetxetik errekatxu bareraiño jatxiten dan aldapatik, Miren Zurriñe, etxeko alaba maitagarria, bere txoko maitetna dan latsaren suzmurrek laztanduriko areitz sendo batengana abiamten da, laster galduko

dauan guztiari azkenengo agurra esateko Ibillera malguaz, aldatzean bera doa, ta ertzera eldurik, areitz-ondoan jesarriten da, sorbalda oroldioz estaldutako enborrean ezarriaz, eta len askotan egin eban antzera, begiok itxiten dauz eta amtsetan asten da. Ondotik, latsaren ur biziak etenbage suz-murka igaroten dira.

Neska lirain eta polita, Miren Zuriñe'gan ederrena bere adats joria da, urre illuna bezelakoa. Txorta bitan bildurik, ule ugari ta meeak sorbaldatik bera bizitzaz beterik darioz, eta eguzkiaren azkenengo izpiek neskatiillaren buru-txairoa diz-dir bizi batez inguratuten dabe.

—Ai ene Jainkoa! —biotz larriaz itzak ixuriten yakoz—. Ez itzi arren, ain maite dodan gure basetxe zarragandik joan gaitezen. Bere orma urtedunek neuri mintzatu ta asaben gertaera zarrak edestuten dauztezala sarri askotan deritxot. Loretegi baten antzerakoa dan teillatu gorriak, urrundik agurtuten nau, eta etxera biurtutean atadi zabala irri-parrez bezela ditxarokit, neure lagun miña bai'litzan. Egun berotsuetan, gure basetxeko orma lodiek goizabar bezelakoa dan ozkirria gorde egiten dabe, ta negu-uluak adituten diranean, Iraibar'ko sukalde epelean, pagomakurrek bizitza zuzpergarria eskinduten dauste, ta sutondoan jarrita, begiak nekatuten ez dabezan gar egodunen argiari begira ta begira egoten naz. Txoko batean, neure aurtzaroko amets gozoak gordeten dituan seaskatxua datza... gauero aingeru baten mosuek begiak itxiten eustezan, eta gero berarekin zerura nindaroan ango edertasuna ikusi neian... Oi zein tamala neban gero itxartutea! Iraibar neure etxe maitea, ene amets, itxaropen eta zorionaren lekukoa izan zaran ori... zugan sendi zintzo baten bardinbako gentza izan dot, eta biar zeuri agur egiteko garaia jatordanean, biotza zure ondakiñetan besarkaturik geratuko yat, ta neure bizitzaren ederrenak beti-beti lagunduko dautzu...

Bizkai'ko mendien atzetik eguzkia ilteko zorian dago, ta bere argi il-urrenak neskaren billoetatik argi zoragarriak erauzten dauz, baiña inguratuten yakon edertasunari jaramonik egin bage, negar ixil bateri emoten dautso. Atxen artetik ikotika doan errekatxua, asperbako suz-murrotsez, leiarrezko eresiak nora-nai barreiatuten ari da. Eresia gero ta garbiagoa egiten yako, ta azkenik, illunabarreko pakean neskatiillari basetxe zarraren kondaira edestuten dautso.

"—Urte asko igaro dira Miren Zuriñe, ta zenbatuten aztu ba-yat be, oso zarra nazanez zure ametsetako jaiotetxe maitearen asiera ikusi neban. Antxiñako aldi areitan, lurralde au baso amaibagea zan, pago,

areitz eta abere basatiz ugarituta. Mendi orrein atzean neskatil eder-ederra bizi zan, zu baizen maitagarria. Ba-zituan begi aundiak zeureak alakoak, bai ta bekoki garbi-edurtsua ta masail gorri-zuriak, bai ta zu bezelako sorbaldatik bera etorkion urrezko uinkada langoa adats yaukala be. Zure antzekoa zan, eta oso polita zanez, Lirain esaten eutsoen. Neskaxa ikustean, ez zan gazterik maitemindu ez eiteanik.

"Bein batean, Liraiñ'en basetxetik urrun samar bizi zan Lerden izeneko mutil txairo batek Lirain ikusi eban, eta ordutik biotz guztiaz maitemindu zan. Arratsalde guztietan, mendietako bidetxigorrak urrats ariñez ibilkatu oi ebazan, eta Liraiñ'aren etxe-inguruetara eldurik, neskaren begira orduak eta orduak irauazan, bere biotzekoa unetxu batez ikustearren bederik. Gero gaua eldutakoan, iretargiak argituriko mendietatik bere etxera biurtuten zan.

"Bein batean oi bezela Liraiñ'en agerpenaren begira egoala, neskatilla iturrira joiazala ikusi eban, eta bere maitasun aundia menderatu eziñik urreratu yakon, eta an ur gardenen ondoan biotzetik gaiñezka etorkiozan itzez, maitasuna parrastaka adiarazo eutson. Mutillaren aitopen gartsua entzun ondoren, ezer esan barik neskatillak etxerako bidea artu eban... Baiña berak be une aretatik Lerden'ganako maitasun bizi-bizia oartu eban, eta ordutik egun guztietan mutillaren itz zintzo ta gartsua entzutearren, iturrira joian. Bein batean illunabarko argi-itzalek euren kutsu zerutarra oroz gain edatuten ebela, biotzean gaiñezka ebilkion maitasuna gorde eziñik, Liraiñ'ek mutillari esan eutson berak be maite ebala. Gau aretan iretargipean etxerako zala, Lerden'eri iruditu yakon izarrak besarkatu aal ebazala.

"Laster baiña, neskatillaren gurasoek gazte bien maitasunezko artu-emonak estalgetu ebezan, eta aberatsagoa zan beste oiñorde batekin alaba eskondutea asmatuten ebenez, aurrerantzean mutillarekin jardunik izatea galazo eutsoen. Baiña Liraiñ'en etxeko usoek Lerden'enaiño egan egiñaz, bieri alkargandiko barriak emoten eutsiezan.

"Bein batean, neskaren aitag eizan iñarduala, oarbagez bere usotegiko egazti bat il eban, eta onek anka batean lotuta eukan eskutitzagaitik, gazte bien artu-emonak estalgetu ebazan. Etxera eldutakoan sumiñez itsuturik, usotegiko guztiak ito zituan. Ordutik etsita, Lerden neskaren etxe-ingurutik noragabe ebillan, biotzbegietan negarrak eta gogoan atsekabea ebazala. Goiz batean, bere maitea iturrira joiazala ikusi eutson— ezin narraike olan. Agur esatera natortzu barruan yabildan

"—Lirain neure begien argia —maitasunez dar-dar mutillak esan eban, eta orduan maitasunak eraginda urreratu yakon.

etsipena jasangaitza yatalako. Biar betiko joango natxatzu, baiña ori baiño len azkenengoz entzun nai izango neuskizu beti lez maite nozula.

"Bai Lerden —begi ederrekaz begiratuten ebala Lirain'ek iño-tson— ez naz egundo be zutzaz aztuko. Biotz osoaz maite zaitut, eta gero ta maitegoa izango zatxataz Esaidazu maitea, nora joango zara?

"—Ez dakit... Urrun...

"—Eta ez al zara iñoiz be itzuliko —begietan malkoak dar-dar neska maitagarriak itaundu eutson—. Ez al zaitut barriro ikusiko?

"—Lirain —itz itoakaz mutillak jardetsi eutson— obe izango yaku alkar ez ikustea, naiko jasan dogu-eta. Enetxua, nere gurari biziena da, dagokizun baizen zorionsua izan zaitez. Urrundik, zure oroitza nereztat ilten ari dan lore batentzako intza bezelakoa izango yat.

"—Baiña esaidazu Lerden, orrenbeste maite nozu?

"—Maite zaitudanik ete? Illuntzeko itzalek eta gau-izarrek benetan dazae neure maitasunaren aunditasuna... Ene gogoak zugana egan nai dauanean, zugaitzen ostoetan gau-malkoek dar-dar dagie, ta aizearen asperen ibiltariak non-nai barreiatuten dira...

"—Orduan —barruko lei esigaitzaz neskatiillak erantzun eutson— eroan naizu Lerden. Zurekin noragura joateko gerturik naukazu, ta zu zorionsua egiten saiatuko naz. Jainkoak maitasuna gugan ezarri dausku, ta ez gaitu iñoiz be itziko.

"Eta eurekin maitasuna ta ametsak soilki eroiezala unerik galtzeke joan ziran. Eguerdia baiño len, Aramaio'ra eldu ziran eta ezagututen ebazan erri onetako abade zarrari ezkondu eizan eskatu eutsoen. Biok ezkondu ta gero, abadeak bere maira dei egin eutsen, eta bazkari bakun batez ezteiak ospatu ebez. Arratsaldean, abadearen onespena artuta, Otxandio'n gaua igaroteko asmoz mendi-gora abiatu ziran.

"Arangio'ko egi malkorretatik igon ziran, eta illunabar orduko atxak igarorik, zugaitz mardul eta txapar naspilduakaz estaldutako ibar batera eldu ziran. Basoan sartu ala, abaro-artetik txistuka ebillan aize sumin batek artu ebazan, ortzia odei lodiz illunduten joian bitartean. Ezkon-barriak baso itzaltsu ta zemaikorrean sartu ziran beste alderaiño eroan eizan bideren bat idoroteko asmoz, baiña luzaro barik baso betean galdurik ebiltzan. Or-emen oztopo egiñaz illuntasun utsean bideari ekin eutsoen. Azkenik, Lerden'ek Lirain guztiz unaturik egoala ikustean, emaz-

tea besoetan artu ta ekaitza orruka ari zala ibilteari erraikion. Sasi ta arantzek Lerden'en jantzia ondam ta soñña zauriz estalduarren, Liraiñ'ek ez eban miñik arm, ta aurpegia senarraren bularrean jarrita, ume baten antzera lotan asi zan. Noizean bein aize-zartada batek Liraiñ'en adats joria astinduten eban, eta billoen txera biguna masailletan oarmtean, Lerden kemen barrimaz aurrera joian.

"Baso-zear ibillera ariñaz Anboto'ko egoitzara abiamten zala, Maitagarriak maiteminduak ikusi ebazan. Gazte biengan maitasun eta zintzotasun neurribakoak ageri zirala-ta, unetxu batez geldim zan irri-parrez begiratuten ebazala, ta gero arin, eroian bidea itzirik, txapar eta atxezko naspil batetik sarm zan, eresi polit batez gauaren izua uxatuten ebala. Maitagarriaren dei gozoa entzutean, otso, azeri, artz eta basurdeak euren kabietatik urten, eta talde ugaritsu bat bildu zanean, Maitagarriak atxak laga ta barriro basoan barrendu zan basabere zintzok atzetik erraikiozala.

"Oianean sarm ala, Maitagarriaren abestia gero ta ederragoa biur-m zan, eta lilluramrik bezela jarraigo basatiak adi-adi doiñu zoragarriari entzukion. Nik ez dakit Maitagarria'k esaten eutsena baiño baso-sarrira eldurik, otso ta azeriek enborretan ortzak untzamaz, ezpalak atara ebezan ebate zabal eta sakoñak egiñaz; gero basurdeek burrusm ebezan lurreratu arteraiño; jarraian artzek beso indartsuetan enborrak arm ta alde batera metam ebezan. Olan eten barik lan egiñaz, basabereek baso-soil bat eram eben eta aundi samar zanean, agiñen artean arriketa bateri emon eutsoen, oneikaz artzek etxe baten ormak eraiki eiezan.

Ormen aunditasuna naikorik izan zanean, Maitagarria'k baso-lore-kaz egindako teillatu gorri batez estaldu ebazan, eta orduantxe odeien artetik iretargiaren izpiek urten eben, atadi ta leioen zear etxe-barruraino igazi zirala ta barruko ormak ukumtean edurra baizen zuriak biurm ebezan.

"Oi Miren Zuriñe, axe bai edertasuna! Orduan neure poza jabem eziñik, zoro bezela ikotika asi nintzan, eta orduan neure aparrezko laz-tanak armtakoan, etxe-inguruko lur-une guztia bedar legun eta lore txan-beliñekaz estaldu zan. Olan jaio zan Iraibar basetxea Miren Zuriñe...! Zenbam ezin alako urteak igaroak dira, baiña neronek ikusiriko antziñako gau aretan ez da egundo neugandik ezabamko... Etxea eraiki bai-zen laster, maitagarria sarm zan eta bere eslmekaz bero adoregarriko sua piztu eban. Gero barriro abesmaz urten, eta basabereak eresi zora-garria entzutean, euren kabi-zuloetarantz ostendu ziran.

"Gauerdia zan arrezkero Maitagarria Yarinto'tik jatxiten dan errekatxu batera abiam zanerako. Latsaren ertzeko areitz baten adarretan, urretxindor bat lotan egoan.

"—Aizu Txurintxu, urre-abotsezko txoria —Maitagarriak deadar egin eutson— ekaitz-uleen artean, senar-emazte bikoitz bat noragabe doa. Joan zaitez eurekana, ta bikotea ikustean, jarraitu daizuen abesm egizu ta olan nik eurentzat atondutako egoitza eder bateraiño zuzenduko dozuz. Gaur gura dot edertoen abesm daizun, eta zure abots bardinbakoa maitasuna abesmtoko egiña basoan otsenduaz, benetan alkar maite daberen arein biotz biak itxaropenaz beteko dozuz. Abiam zaitez unerik galdu bage.

"Au esanik, Maitagarria bere Anboto'ko egoitzarantz jo eban, eta urretxindorra azkon baizen arin gauean ostendu zan.

"Lerden unamrik, ibilteari ekiten eutson, besoetan lotan irauan emazte maitagarria eroiala. Aterpe bat idoroteko itxaropena galdu izan eban ordurako... baiña orra or ekaitzaren orruen artean txori baten txinta ederrak adituten dimala. Nekea azmta, adimteari emon eutson abots bikain arek erakarrietakoa. Lotan irauan Liraiñ'en ezpanetan irri-par zoriontsu bat lorem yakon. Txurintxu'k adarrik-adar egan egiten eban eta Lerden oarbage, atzetik ebilkion. Olan yoiiazala, baso-soil batean jagiten zan basetxe txukun bat agertu yaken. Urreramrik, atalaseko goikaldean jarrita, Txurintxu'k bere txiorik ederrenak jaulkiten asi zan. Urrezko ugolde bezelakoak ziran txoriaren eresiez inguraturik, bular-ondoan eutsita emazte eroiala, Lerden'ek atadia zearkam eban eta sutondora eldutakoan, ezpanetan eskerronezko otoitz bat eram yakon. Gau oso aretan, urretxindorraren txio garbiek Iraibar'ko basetxe jaiobarria laztandu eben, ekaitza barem ta Arangio alderantz argi jori baten urrazea agertu arte.

"Olan sorm zan Iraibar basetxea Miren Zuriñe, ta Jainkoa'k beti-beti begiratu eban. Lerden eta Liraiñ'ek seme-alaba asko izan ebezan, eta urteak igarorik, aurpegiak zimeldu, uleak urdindu, ta soiñek gaztaroko edertasuna galdu arren, gero ta geiago alkar maite eben, egiazko maitasuna, Miren Zuriñe, il ez daitekkelako. Bizitzarekin dirau ta egun bakotxaren igaroteaz, aundiagomten da bazterbakoa izateraiño. Bai, Lerden eta Liraiñ'en alkarrekiko maitasun zintzoa benetan sarima izan zan... Azkenean egun berean il ziran iñoiz be alkargandik ez alden-duteko".

Errekatxuak, Iraibar basetxeko kondaira zarra amaitu dau, ta begiak itxirik dimala, Miren Zuriñe'k areitz ondoan dirau antziñako asabeen gertaerak ausnarmaz. Laster gaumko da, ta orra or gau-aizea itxarmenten dala, zugaitzen orriak esku ikusgaitzez dardar-arazoaz. Neskatillaren adats joriaren ondoan igarotean, suz-murka olan esaten dautso:

—Nik ba-dakit orren naigabemrik zergaitik zagozan, baiña ain maitagarria zaranez, ixilpeko bat esango dautzut. Basetxeko osasuna zure eskuetan dago, baiña orretarako zure kemen guztia izan bear ko dozu. Iraibar basetxeko saria, zure adats bardinbakoa da, zugan ederrena ta zuretzat maitena. Gau onetan, illargia agertu daitenean, zatoz ona barriro. Gau-txoriak zure begira izango dozuz ta adatsatik, txoriek zure billoak bana-banaka erauziko dautzuez, eta oneikaz txorta aundi bat eratuko dabe bear dan neurria lorm arte. Gero, eskuetan arturik, arin, mendien atzetik iretargia ostendu baiño len, basetxeko orma-ondoan obiramko dozu, ta biar, Iraibar basetxea bizi barri batez sendoturik bai'litzan, antziñako irmotasun eta irauntasuna irabaziko dauz.

Orain Miren Zuriñe, zoaz etxera ta an gauleneko gentzan, erabagiko dozu zein yatzun maiteagoa: Zure adats joria ala basetxe zarra.

II

Gaueko ixiltasun eta pakeak ibar guztia zainduten dabe. Goian, Anboto'ko tontor zorrotza izar kutunaren billa ortzi-zear begira dago. Iretargi dizdiratsuak arruen gaiñean edamten dan laiñoari, itxaso urdinezurail baten itxura damotso.

Urrats ariñez irudi bat errekarantz abiatuten da, ta onen ertzera elduta, une batez ezpaitu areitz-ondoan geldimten da. Gero esku irmoz bere adatsaren txortak askatuten dauz, eta urrezko jaustiri yaukala sorbaldatik gerriraiño dario. Iretargiaren izpiek dizdir bigunak erauzten dautsoez azkenengo aldiz geiagoratuten naiean bezela, neskatillaren irudi maitagarria. Bere inguruan, suzko begiak dabezan gaueko txori beltzek egan giten dabe.

—Gau-txoriak —Miren Zuriñe'n negarزتinka diñotse— germrik nozue, asi zaitkez.

—Oi Miren Zuriñe —gau-txoriek jardesten dautsoe— oso tamala dogu astea, geuk iñoiz ez ikusiriko adatsik ederrena bai dozu...

- Nik be maite dot —asperenka darantzuie neskatxak— baiña maiteago dot neure basetxe kutuna.
- Zure billoak, basoan orriak baiño ugariagoak dira, ta euren margoa mendien atzetik ostenduten dan eguzkiarena baiño politagoa...
- Bai, baiña egunen batean euren dizdira ta edertasuna galduko dabez. Iraibar basetxea barriz, orain arte bizi izan dauan bezenbat biziko da gero be.
- Neska liraiña —naigabetuak ots egiten dabe txoriek— zure adatsaren biguntasunak, baso-loreeri ondamuzko asperenak erauzten dautsez, eta bere dizdirak izarren argia ezabatuten dau.
- Neure asperenak ugariagoak izango dira, ta ene bizitza illunagoa be nere etxe maiteagandik urrun —mintzo dardartsuaz neskatillak erantzuten dautse.
- Miren Zuriñe —atsekabeturik gau-txoriek diñotsoe— negar egi-teraiñoiko miña artuko dozu...
- Txori maiteok —otz-ikaraz Iraibar'ko alabak jardesten dautse— arindu ta asi zaiteze, iretargia ortzi-bera bai doa, Bizkai'ko mendien atzetik ditxarokion intzaren besarkada ozkirria artutearren.

Adarretatik jatxiaz, txoriek neskatxaren buru-inguruan egan egiten dabe, baiña bere adatsaren edertasun parebakoa ondatutea, ez dira auseratuten.

- Arren! —Miren Zuriñe'k negarrez diñotse— erabagi zaiteze beranduegi izan baiño len...

Gau-txoriak orduan azkonak bai'liran, neskatillaren adatsaren aurka oldartuten dira, ta bere ondotik igaroten diran bakotxean, mokoaz billo bana arturik, teinkada batez erauzten dautsoe. Billo bakotxaren erroan, errubi antzekoa dan odol-tantotxu dardarti bat dager, eta uleak mokoetan dabezala, aidean txorta bat eiotuten asten dira. Buru-makur eta begiok itxirik, teinkada bat egiten dautsoen bakotxean, Miren Zuriñe'k asperen itoak jaulkiten dauz. Iretargia ortzi-bera dago jadanik eta laster ostenduko da.

- Arindu zaiteze gau-txoriok —neskatxak adiaka diñotse— ez al do—zue ikusten illargia anurki itzaliko danik?

Txoriak ariñago be egan egiten dabe, ta ule-txorta aundiagotuten doa. Neskaren miña geiagora joako be, ta aurpegi maitagarria eskuen artean estalduta dauala, oiñazezko asperenak iges egiten yakoz.

Azkenik, gau-txoriek euren lana amaituten dabe, ta neskatxaren

eskuetan bizi-bizi dizdiratuten dan ule-txorta eder bat ipinten dautsoe. —Amaitu dogu Miren Zuriñe —gau-txoriek diñotsoe— Zure adatsa oso ugaria danez, naiko izan yaku bere erdiaz. Gorde geramten yatzun beste erdia ta bene-benetan zaindu eizu, alan eta guztiz be eder-ederra dalako.

Txorta bularrean esmmta eta malkoz buztiten dauala, Miren Zuriñe basetxerantz azkar doa. Iretargia mendien atzetik ostenduteko zorian dago, baiña oindiño garaiz da. Esku malguz atzekaldeko ormaren ondoan zulo bat egin eta lurperamten dau. Orduantxe iretargiaren azkenengo izpiak gauaren altzoan ostenduten dira.

in

Goizaldeko argi bizigarria Naparra'ko mendi-lerroen atzetik dager. Biotzeko yorana jabem eziñik, Iraibar'ko alaba zurubitik bera oldarmten da, ta atadira eldurik biotza pilpilka yabilkola, lipar batez geldituten da.

Gauean txorta lurperatu eban leku beretik, arkakarats baten adarek etxe zarreko ormak besarkamten dabez, eta landare bikaiñaren guna basetxeko ormetan sarmrik bai'litzan, atzo amilduteko zorian egoana, gaur basetxe sendo, irmo, biurtu da, Lerden eta Liraiñ'ek basoan atzenduak, antziñako gau aretan aurkitu eben bezelaxe. Miren Zuriñe'ren billoetan agermriko odol-tantotxu bakoxta, larrosa gorri-bizi biurm da, ta bere begietatik ixuritako malkoak orrietan dardarrez argiz beterik ikusten dira.

Neskaren aurpegi maitagarrian, zorionezko irribarrea sortuten yañño, aize bigun batek bere adatsa gozoki igurtziten dautson bitartean. —Oi neure basetxe maitea... —pozaren pozez jalgiten yako— Iñoizkorik irmo ta sendoen zara... Zure ormetan eusko sendi baten iraupena gordeko dozu, ta gizaldi askoren maitasun eta itxaropenak zeugan betiko kabia izango dabe.

Oroipenak...

ZUGASTITAR ANIZETO
APAIZA

Gure D. Manuel, Lekuona Zarra'ren omenez liburu ontan ainbeste lan ederren artean ariñagoko bat sartzea ez dago, noski, batere gaizki. Lantxoa egiteko eskatu zidanari ezetzik esan nai ez; eta ni ezer egokirik egiteko gauza ez. Ederrik eta sakonik ez du izango, D. Manuel, nere lantxo onek; bañan, maitasunik, eta eskerronik bai!

* * #

Filosofia ikastera Gazteizera joan giñanean, gure urtekoak asko giñalata, Seminario Conciliarrean ezin sartu giñalako, Aguirre Seminarioan egin genuan lenen-urtea. Bigarren urterako bai, aldatu ginduzten Seminario aundira. Bigarren urtekoen nai-ta-naiezko liburuak Urraburu ta Zigliara ta... ziran. Bañan, gutako batzuek erabiltzen genituan ordukoz Altuberen "De sintaxis euskentza" ta Elizaldetar Koldobikaren "Verbo basco sintético" ta... Ordurartekoak filosofiko irugarren urtetik asten ziran D. Manuelekin euskera-lanetan. Guk lenengo urtetik bertatik asteko baimena eskam genuan. Eta... eman ziguten. Bai pozik asko asi ere lanean D. Manuel gure maixu jatorrarekin. "KARDA-BERATZ" jarri genion izen taldeari edo bazkunari. Idazlantxoak egiten geniman, alkarrekin bildu-ta, irakurtzeko ta aztertzeko. An erakusten zitzaigun zer zegoan ondo ta zer gaizki. Gogoan det: "Ez DA ILL! EZTA ILKO ERE!!" olerkitxoa izan zan nere lenbiziko lana. Errenderi Aita Kaputxinoaren olerki ederraren zati auxe arm nuan gai:

"Nik maite nuan kutuna - nere atsegin zoruna!

Ibilli bai ta bai egon - ez dut arkitzen iñon.

Billaka beti bai nabil - bañan da agian nonbait ill".

Bañan laxter asi ziran azpijorran eta bai berearekin atera ere. "Academia de Santa Teresa" izeneko erdel-taldeak jarraim zuan aurre-ra. "Kardaberatz" gure euskel-taldeak ez.

* * *

Ala ere, azia ereiña zegon eta luzaro baño len asi zan bere ondoren onak ematen. Berrogeitamar urte baño lenagoko kontuak dira ta, ez da arritzeko zeñ urtetan nabillen ez jakitea. Norbaiti gogoratu zitzaion Teresita Donearen bederatzaurrena euskeratzea. Eta euskeratu genuan, eta argitaratu eta zabaldu zan; ederki zabaldu ere. D. Manuelen gelan biltzen giñan lanerako. Ez jakin nork, bañan, "*batzokia*" izena erantsi zioten gelari. Eta... ongi erantsia: "*batzokia*" itzak, biltzen dan tokia esan nai du; ta gu bildu egiten giñan gela artan. Eta an egin genuan lanari esker, euskaldun askok egingo zioten bederatzaurrena euskeraz beren Santa maitearl

* * *

Bijoa orain ni apaiz egin nintzan urteko gertaera bat.

1927 urtearen aurrealdean agertu zan Gazteizko Seminarioan "GYMNASIUM" aldizkaria bertako apaizgaiantzat, geienbat apaizgai beraen gaiez ornitua. Bere lenengo zenbakian gure "Kardaberatz" talde artako bi lagun euskerazko bi lan agertu ziran; eta beste bat, geroagoko batena. Patxi Iraetaren "Nola erakusten digu gure ezaguerak Jaungoikoa ba-dala?", kristau-ikasbideko galderari ta erantzunari dagozkien azalpena umeentzat, "DE RE CATHEQUETICA"-sallean; nere "Atsegiñ goxoa" olerkia ta Anjel Albisu Errenderikoaren "Pakea lurrean".

1936 urtean akitu zan "GYMNASIUM" aldizkaria, beste gauza eder asko bezela.

* * *

"O tempora, o mores" latin-esaera...
 Aiek joan ziran-da, guk beti aurrera!
 Oraindik maixu degu, lengo maixu bera.
 Ez da errez izaten orlako aukera!...

Begira orain argazki oni. Estibalitzko elizaren "romanico" ate-aurrean egiña da. Ez dago esan-bearrik or zein dan maixua. Len apaiz-



Estibaliz: 1969, Azaroa

gaien... orain apaizen... or dago, paperak eskuan, D. Manuel erakusten, beti erakusten. Argazkikoak zeintzuk diran? Orduko liturji-euskeratzallete-taldea. Ezkerretik eskubira: Aranalde gipuzkoarra, Basurko gipuzkoarra, Goikoetxea naparra (G. B.), Andiazabal Prantzi-mendeko iru probintzietakoen ordezkaria, erdi-erdian D. MANUEL, MAIXUA, Kerexeta bizkaitarra, Zugasti gipuzkoarra, Plaza naparra, Etxenagusia bizkaitarra ta Gaztañaga gipuzkorra. Batzuen batzuek parra egingo ba'dute ere, esan dezadan zertara bildu giñan Estibalitzen: "GURE AITA" *euskera batuan* jartzera. Euskalerriko Gotzaiek erabaki zuten liturji-euskera alik eta batuena izan zedilla dana ere; eta "GURE AITA" *batu-batuan* egiña, Euskalerriko zazpi probintzietako kristauak zeruko Aitari berdin-berdin otoitz egin al zezaioten.

Liturji-euskera aitatu det. Erri-izkuntzak Liturjian sartzea erabaki zanean, D. Lorentzo Gipuzkoako Gotzaiaren aginduz —Euskalerrriaren erdi-erdian monumentu aundi bat jaso bear litzaioke D. Lorentzo Jauri— euskeratzallete-taldea osatu zan. Don Lorentzok, ber-berak eman zion D. Manueli zegokion tokia, berak egin zuan taldearen buru eta zuzendari. Mordua giñan aurren artan; orain lau-bost besterik ez gera izaten. Euskera Liturjian sartzeak on aundia egin dio gure izkuntzari. Taldeak ari duan lanari aitzakiak arkitzen dizkiote batzuen batzuek; —euskaldunak mutillak gera ortan—, bañan, ezin ukatu lan ederra egin danik. Lana zorrotz, zeatz eta nekez egiten da taldean. Ikustekoak gelditzen dira D. Manuel'ek *lapitz gorriz* zirriburrukatzen dituan orriak. Pozik jarriko nukean emen aietako baten *fotocopia*. Dana dala, arto bero usai pixka bat zabalduaz, esan bear det taldearen lanak, iru urtetik iru urtera ematen dan Agirre-saria jaso zuala orain sei urte. Urte-barruan argitaratu dan libururik onenari ematen zaion 1.000 dolarreko saria da Agirre-saria. Izan dira gure lana aintzat artu ta ontzar eman dutenak ere.

Eta bukatzeko esan dezadan berriro: gure D. Manuel izaten degula lan oietan guztietan buru ta maixu.

A R K I B I D E A

GAZTAÑAGATAR JESUS'EK	
Torizu	7
ARGAIA JAZINTO, DONOSTI'KO GOTZAI	
D. Manuel Lekuona	10
D. Manuel Lekuona jauna	11
AKESOLO'TAR LINO	
Lekuona, Euskaltzain	15
ARRINDATAR ANES	
Bale-arrantza eta euskaldunak	25
BARANDIARANGO JOXEMIEL	
Jentilbaratza'tik Zaho'ra mendiz-mendi	61
"BASARRI". EIZMENDI'TAR IÑAKI	
On Manuel Lekuona	71
BERRONDOTAR PEDRO	
Don Kijote Mantxa'ko (Oarpen batzuk)	73
DORRONSOROTAR IOAKDM	
Urteko igandetako irakur-gaietatik	81
Muslariak	131
EGIATAR LUIS	
Baserritik alde? (Lenengo irrati-saioa)	135
ELOSEGI'TAR JESUS	
Gipuzkoa'ko edesti-gaiak euskeraz...!	143
ETXANIZ'TAR NEMESIO	
Zaude, Maixu	149
GARMENDIA LARRAÑAGATAR JUAN	
Zalduendoko "Markitosen" berpiztea	153

Gotzaitegi'ko Aldizkari Nagusiatik eta jasotakoak:

"BASARRI", GOTZAI SETIEN JAUNA, GOÑI'TAR JOXEBA	
G. A	157
B	159
G. S. J.	160
G	163
INSAUSTI'TAR SEBASTIAN	
Zintzotu	181
INTZAR DAMASO AN.	
Lekuona'tar Manuel, Euzkaltzainburukondoa'ren omenez	187
IABAYEN'DAR ANTONIO MARIA	
Ispirituaren kontrako obena	193
LABORDE WERLINDEN, MANUEL	
Fabricación de anclas en las ferrerías de Guipúzcoa	198
Ainguragintza Gipuzkoa'ko olaetan	199
IATIEGI'TAR BIZENTE	
Eliza'ren adestitik atal bat: Martin Luter.	219
ONAINDIA'TAR SANTI	
M. Lekuona, oler-zale.	257
PELAY OROZKOTAR MIGUEL	
Goi-mallako gizona	267
TELLECHEA IDIGORAS. J. IGNACIO	
„Por qué no se publicó en el siglo XVIII la "Corografía* del P. Larramendi?	271
CROCE, P. ADRIAN	
Censura inédita (año 1759).	282
URRESTARAZU'TAR ANDONI	
Euzkeraren batasuneruntz	289
UMANDI	
Lekuona'tar Imanol apaiz jauna ta euzkal-elertia	299
UXOLA	
Lapur eta maltzur (iru ekitaldiko aur-antzerkia).	307

ZABALATAR FEDERICO

Fueroen kentzea. 1976 321

ZUBIRI'TAR IÑAKI

Basetxe zarra 325

ZUGASTI'TAR ANIZETO, APAIZA

Oroipenak 335

